

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2704

215/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena.

Gobernu Kontseiluaren 1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko eta 2003ko ekainaren 10eko Erabakien bidez, 6 gune deklaratu ziren Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE), eta 52 leku proposatu ziren Europar Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izateko. Proposamen hori Europako Batzordeari aurkeztu zitzaion, eta hark Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen (BGL) zerrenda onartu zuen, 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Lehenengoa eskualde biogeografiko atlantikoari dagokio, eta bigarrena, berriz, eskualde biogeografiko mediterraneoari; eta bi horien barne dago gure erkidegoa.

Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauan, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoan, 4. artikuluan, eta abenduaren 13ko 42/2007 Legean, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoan, 44. eta 45. artikuluetan ezarritakoa betez, autonomia erkidegoek, jendaurreko informazioaren prozedurarren aurretik, beren lurraldean Batasunaren Garrantzizko Leku guztiak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) deklaratu dituzte. Horretaz gain, behar adina kontserbazio-neurri ezarriko dituzte, eremu horietako habitat natural mota eta espezie-mota guztien eskakizun ekologikoei erantzuteko. Kontserbazio-neurriek beren barruan hartuko dituzte kudeaketa-planak edo -bitartekoak, bai eta arauzko, administrazioko edo kontratuko neurriak ere. Kontserbazio Eremu Berezikoak (KEB) izendatzeko epea 6 urtekoa da, Europako Batzordeak lekuen zerrenda onartzen duenetik kontatzen hasita.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 42.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, lehentasuna eman zaio ibai- eta estuario-guneak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeari, eremu horietako habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera lehenera ekartzeko neurriak ezarrita. Horretarako, faktore hauek hartu dira kontuan:

a) EAEko ibaietan eta estuarioetan Europar Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak daude, hain zuzen, Habitategi buruzko 92/43/EEE Zuzentaruaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak, bai eta Basoko hegaztien kontserbazioari buruzko 2009/147/EE Zuzentaruaren I. eranskinean jasotako hegazti-espezieak ere. Eremu horiek, gainera, erkidego honetara iritsi ohi diren hegazti migratzaileentzako atsedenleku eta janleku dira.

b) Horretaz gain, ibaiek eta estuarioek berebiziko garrantzia dute Natura 2000 Sarearen koherentziarako, ibai-korridorea guneen arteko konexioa baita. Konexio-funtzio hori luzetara betetzen du sare hidrografikoan, bai eta zeharka ere, erriberako basoak mendi-magaletako basoekin eta sare ekologiko horretako mendiko beste gune batzuekin lotuta.

c) Ingurune horietako berezko habitaten artean badaude lehentasunezko zenbait habitat; esaterako, 91E0 habitata (haltzadiak eta lizardiak) edo 2130 habitata (duna finko grisak); oso zatikatuta daude, erkidegoan oso leku jakinetan eta leku gutxitan daude, eta, oro har, kontserbazio kaskarra eta galtzeko joera dute.

d) Habitat horietan badaude Europar Batasunaren interesekoak diren zenbait espezie, populazio oso mehatxatua dutenak, eta, kasurik gehienetan, galtzear daudenak. Esate baterako, Mustrela Lutreola (bisoi europarra), Galemys pyrenaicus (desman piriniarra), Lutra lutra (igaraba), Salmo

salar (izokin arrunta), Austropotamobius pallipes (ibai-karramarroa); eta basoko espezieei dago-kienez, Woodwardia radicans, Soldanella villosa eta Trichomanes speciosum.

e) Habitat eta espezie horiek oso kalteberak dira, eta etengabe daude presiopean (ibarrak hartzen dira hiri-erabileretarako, nekazaritzarako eta basogintzarako, batez ere, eta ibaien ur-emia aldarazi egiten da).

92/43/EEE Zuzentarauak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, sakon aztertu dira eskualde biogeografiko atlantikoko ibaiak eta estuarioak, eta eskala egokian adierazi da Europar Batasunaren intereseko habitaten banaketa. Horrez gain, ibai eta estuario horietako fauna- eta flora-espezie bereizgarrien banaketa eta kontserbazio-egoera aztertu da.

Guztiarekin ere, periferian, bermatuta dago lekuko kontserbazio-helburuak babestea, hain zuzen ere aipatu lekuei hainbat eragiten diezaieketen plan edo proiektuen ebaluazio egokiaren bidez; ebaluazio hori, banan-banan edo beste lan eta proiektu batzuekin batera eginez.

Zenbait kasutan, habitat-moten azalera alde handiak daude xehetasun-lanek emandako datuen eta Euskal Autonomia Erkidegoak, proposatutako tokien zerrendarekin batera, Europako Batzordera bidalitako eta hari jakinarazitako datuen artean. Hasierako proposamena egiterakoan, lanerako erabili zen eskalak eragin ditu desberdintasun horiek.

Xehetasun-azterketak, gainera, zenbait habitati buruzko interpretazioa zuzentzeko aukera eman du. Esate baterako, egiaztatu ahal izan da, eremu batzuetan, formularioan adierazitako zenbait habitat-mota ez zeudela; eta, aitzitik, hasierako proposamenean adierazi ez ziren habitat-mota batzuk bazirela.

Kontserbazio Bereziko Eremuen izendapenerako prozeduran, partizipazio-prozesua ere bete da, nahitaezkoa bestalde, eta uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraikiz egin da (lege horrek, ingurumenaren alorrean, informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen ditu). Prozesu horretan, gizarte- eta ekonomia-interesen ordezkari diren eragileek hartu dute parte. Izapide-epeak iraun bitartean zabalik egon dira parte hartzeko jarritako bide guztiak. Horretarako, interesa zuten herritarrei komunikazioak helarazi zaizkie eta, bestalde, propio prestatu genuen web-orri hau:

<http://www.euskadi.net/natura2000>

Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde biogeografiko atlantikoko 14 ibai eta estuario horien kontserbazio-neurriak taxutzeko, Europako Batzordearen printzipioei jarraitu zaie, 92/43/EEE Zuzentzaruan adierazten diren habitaten eta taxonen eskakizun ekologikoei erantzuna ematea baita helburua.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa betetz, KBE horietako bakoitzarentzat kudeaketa-tresnak sortzea erabaki da, eta, horrez gain, jarraibide-, arautze- eta jardun-multzo bat diseinatzea, izendatu nahi ditugun ibai eta estuario guztiei aplikatzeko. Dekretu honen eranskinean arau-izaerako kontserbazio-neurriak daude, eta kudeaketa-tresnaren gainerako dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrean ingurumenaren alorrean eskumena duen sailaren helbide elektronikoan dago esku-agarri.

Kontserbazio Bereziko Eremuen –Dekretu honetan izendatzen direnen– ezaugarri bereziak direla-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko barruko arroen eremua – 2010-2021 Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren lanketari lotuta prestatu dira dokumentuak.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2.f) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hiri- eta lurralde-antolaketa-erakundeetako lehentasuna du ingurumena babesteko, eta hori arautegi honen printzipio bat da.

Eusko Jaurlaritzari dagokio kontserbazio-neurriak ematea eta ezartzea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 17. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 16. bis artikuluan eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45.1 artikuluetan ezarritakoa betez, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposatuta, eta 2012ko urriaren 16an izandako bilkuran Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Natura 2000 Sareko ibai eta estuario hauek Kontserbazio Bereziko Eremu deklaratzeko:

ES2130003 Barbadungo itsasadarra / Ría del Barbadun.

ES2130004 Astondoko haremuna / Dunas de Astondo.

ES2130010 Lea ibaia / Río Lea.

ES2130011 Artibai / Río Artibai.

ES2120004 Urolako itsasadarra / Ría del Urola.

ES2120009 Iñurritza.

ES2120010 Oriako Itsasadarra / Ría del Oria.

ES2120005 Oria Garaia / Alto Oria.

ES2120012 Araxes ibaia / Río Araxes.

ES2120013 Leitzaran ibaia / Río Leitzaran.

ES2120015 Urumea ibaia / Río Urumea.

ES2110017 Barrundia ibaia / Río Barrundia.

ES2110023 Arakil ibaia / Río Arakil.

ES2110020 Ega-Berron ibaia / Río Ega-Berron.

2.– Kontserbazio Bereziko Eremu horien mugaketa dekretu honi erantsitako kartografian jasotzen da, eta Europako Batzordearen 2004/813/CE Erabakiko Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen mugaketari dagokio, izan ere, erabaki horren bidez, onartu egiten da Eskualde Biogeografiko Atlantikoko Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrenda.

3.– Aipatutako Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) kontserbatzeko neurriak onartzea.

2. artikulua.– Xedea.

1.– Kontserbazio Bereziko Eremuetan (KBE) bermatzea Europar Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak lehenera ekarriko direla edo, ondo kontserbatuta, beren horretan eutsiko zaiela. Habitat horiek Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako 92/43/EEE Zuzentarauan ezarrita daude, zeina habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoa den. Halaber, xede hau ere badu: euren banaketa-eremuan, hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea; batez ere, basa-hegaztiak kontserbatzeko buruzko 2009ko azaroaren 30eko Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren 2009/147/CE Zuzentarauaren

I. eranskinean jasotakoak; eta, halaber, aipatu eranskinean jaso gabeko espezie migratzaileei –erregulartasunez etortzen direnei– dagokienez; guztia ere, Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatzea bermatzeko helburua sustatzeko.

2.– Kontserbazio Bereziko Eremuetan araubide orokor hau aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentarauan, eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritakoa.

3. artikulua.– Kontserbazio-neurriak.

1.– Dekretu honen helburu diren eta Natura 2000 Sarea osatzen duten eremuak kontserbatzeko neurriak dokumentazio honetan zehazten dira:

a) Zati komuna.

1. dokumentua. Jarraibide, arauketa eta jardun komunak, ibaien eta estuarioen Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) guztietan aplikatzekoak.

b) Zati espezifikoak, Kontserbazio Bereziko Eremu bakoitzari buruzkoa:

2. dokumentua. Helburu eta jardun partikularrak.

3. dokumentua. Mapak.

- 1. mapa. KBEren mugaketa.
- 2. mapa. Europar Batasunaren intereseko habitatak.
- 3. mapa. Jarduerak.

2. - Arau-izaerako xedapenak dira honako hauek:

2.1.– Jardun komun, arauketa eta jarraibideen dokumentua:

- 4. titulua, «Jarraibide eta arautze orokorreari dagokiena».
 - 5. titulua, «Erabilerei eta jardueri buruzko Jarraibide eta arauak» izenburua duena.
 - 6. titulua, «KBE guztietako baterako jarduerak».
- Gehigarria, «Ibaien arteko lotura hobetzeko gailuen proiektuak bere baitan hartu behar duen gutxieneko edukiari» dagokiona.

2.2.– Izendatzen diren kontserbazio bereziko eremu bakoitzerako helburu eta jarduera partikularren dokumentuena.

● «Osagai funtsezkoak: kontserbaziorako helburu eta jardueri buruzkoa» 4. tituluko 1. paragrafoko «helburu eta neurrien» koadroak.

● «Segimendu-programari buruzko» 5. tituluak.

2.3.– Izendatzen diren kontserbazio bereziko eremuetariko bakoitzaren mugaketa-mapak.

Dekretu honen eranskinean argitaratuta daude. Gainerako paragrafoak informatzekoak eta orientagarriak dira.

3.– Kontserbazio-neurriak berrikusteko edo aldatzeko (horiek funtsezkoak ez badira), inguruaren alorrean eskumena duen sailburuak emango du horretarako Agindua, egoerak berak

edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluetan ezarritakoa betez. Izan ere, kontserbazioa eta kudeaketa moldaerazkoa, etengabea eta malgua izan dadin bultzatzea da helburua. Prozedura horretan, herritarren parte hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela bermatu beharra dago, 26/2007 Legeak ezarri bezala; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturzaintza organoaren txostena jasoko da.

4.– Ingurumenaren alorreko sailaren helbide elektronikoan egongo dira eskuragarri kartografia formatu digitalean, eremu horien mugaketa adierazita, eta kontserbazio-neurriei buruzko agiri guztiak (<http://www.euskadi.net/natura2000>).

AMAIERAKO XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Ahalmena.

Ingurumenaren alorreko sailburuari ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak, bai Estatuaren Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatu du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

AMAIERAKO XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Ministeriora helaraztea.

Gobernu Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriora bidaliko du dekretu honen onespena, hark Europako Batzordea bidal dezan.

AMAIERAKO XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 16an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ALVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

I. ERANSKINA

BATERAKO JARRAIBIDEAK, ARAUDIAK ETA JARDUERAK

JARRAIBIDE NAGUSIAK ETA ARAU OROKORRAK

Jarraibide nagusiak

KODEA	JARRAIBIDE NAGUSIAK
1.J	Interesgarritzat hartzen da zenbait kudeaketa-formula bultzatzea, lurraren jabeek eta erabil-tzaileek KBEen balioak eta natura-baliabideak kontserbatzen eta behar bezala erabiltzen parte har dezaten eragiten dutenak, hain zuzen. Horren haritik, sektore pribatuak eta udalek KBEak kontserbatzeko jarduerak finantzatzen eta/edo kudeatzen laguntzen duten formulak bultzatuko dira, bai eta herritarrek jarduera horiek borondatez gauzatzen parte har dezaten laguntzen dutenak ere. Azken batean, lurraldea zaintzea helburu duten borondatezko akordioak sustatuko dira; hain zuzen, jabeen, zaintzeaz arduratzen diren erakundeen eta eragile publiko eta pribatu batzuen arteko etengabeko lankidetzak bultzatuko dutenak.
2.J	EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programa (LGIP) finantza-bitarteko garrantzitsua da Natura 2000 Sarearen kudeaketarako. KBEei buruzko dokumentazioaren I. gehigarrian, LGIPk bere baitan hartzen dituen neurri guztiak ageri dira zerrenda batean. Neurri horiek, jarraibide hauen ikuspegitik, toki horietako habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera hobetzeko lagungarriak izan daitezke, eta bereziki, <i>II. ardatzari</i> buruzko neurriak: <i>Ingurumena eta landa-ingurunea hobetzea</i> . Horren haritik, beharrezkotzat hartzen da LGIP gerora berrikusten denean, behar adina alda-keta egitea, egungo laguntzen formulazioa egokitzeko, KBEen izendapena dela-eta ezarri diren kontserbazio-helburuetara eta kontserbazio-neurrietara. Halaber, beste laguntza batzuk eta/edo baldintza egokiago batzuk ere ezarri ahal izango dira, LGIPk gaur egun bere baitan hartzen dituen neurriak izanik, KBEen alorrean aplikatzen badira eta plan honen helburuak lortzen laguntzen badute.
3.J	LGIP horren esparruan, eta 5.3.1.1.4 neurriaren bidez (<i>Nekazariak eta basozainek aholkulari-tza-zerbitzuak erabiltzea</i>), nekazaritzako eta basogintzako sektoreak eta sektore horiekin zerikusia duten langile teknikariak prestatzea, sentsibilizatzea eta haiei guztiei aholkularitza ematea bultzatuko da. Prestakuntzak, sentsibilizazioak eta aholkularitzak honako hau hartuko du bere baitan: LGIPn ezarritako ingurumen-neurriak aplikatzearekin zerikusia duten eta toki horietan proposatutako kontserbazio-helburuak lortzen laguntzen duten neurriak, eta KBEen izendapena dela-eta ezarritako kontserbazio-neurriak.
4.J	Bestalde, beharrezkotzat hartzen da LGIPren Komunikazio Planak informazio- eta sustapen-jarduerak hartzea bere baitan, Natura 2000 Sarean kontserbazio-helburuak lortzea xede duten neurrien onuradun izango diren artean eta langile teknikarien artean abian jartzeko.
5.J	Halaber, eta aurreko epigrafeetan adierazitakoaz gain, interesgarritzat hartzen da administrazioak balio ekologiko handiko lursailak eskuratzea, errentan hartzea, lursailen gozamina eta zortasuna izatea edo antzeko beste bitarteko batzuk eratzea. Eta bereziki garrantzitsua irizten da horrela jokatzeko, arrisku handian dauden KBEetako funtsezko elementuak badira edo haien-tzako funtsezko guneak, bai eta egokitasun-irizpideek hala egitea eskatzen badute.

KODEA	JARRAIBIDE NAGUSIAK
6.J	Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko 42/2007 Legearen 46. artikuluari jarraikiz, behar adina ahalegin egin behar dira Natura 2000 Sarearen barneko eta kanpoko ekologia-koherentzia hobetzeko. Horretarako, paisaiako elementu eta lurralde-eremu hauek kontserbatu edota garatuko dira: migrazioarako, banaketa geografikorako eta fauna eta flora basatietako espezieetako populazioen arteko genetika-trukerako funtsezkoak direnak edo berebiziko garrantzia dutenak. Horrenbestez, neurriak ezarri behar dira helburu horiek lortu ahal izateko. KBEetan ibaiak eta estuarioak daudenez, ekologia-lotura ezartzen duen funtsezko elementua ibai-lurraldea bera da; hau da, ibai-ekosistemarekin zerikusia duen eremua. Behar besteko zabalera eta jarraitutasuna izango du lurralde horrek, ibaiaren dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzeko edo lehenera ekartzeko, ekologia-egoera egokia izateko, ur-goraldiak modu naturalean erregulatu eta zatikatzeke, urak har ditzakeen eremuen antolamendu-arazoei irtenbidea emateko, ibaietako paisaiak hobetzeko eta indartzeko eta ibaiertzean korridore jarraitu bat lortzeko adinakoa (ur- eta lur-korridoreak, eta ekologia-lotura bultzatzen duten heskaiak eta zuhaitzi autoktonoak ere bai, gaur egun lotura jaskarra baita gehienetan). Hala, ibai-sistemaren aniztasun ekologikoa eta funtzio bioklimatikoa ziurtatuko litzateke ¹ .
7.J	Natura 2000 Sarearen koherentzia hobetze aldera, mugakide diren autonomia-erkidegoetako administrazioekin behar bezalako koordinazio-lana egingo da, helburuak bateragarriak izan daitezen, eta beharrezkoa izanez gero, bi lurraldeetako eremuak hartzen dituzten tokien kontserbazio-neurriak bateratu ahal izan daitezen.
8.J	Horrez gain, intereseko elementu horiekin zerikusia duen ikerketa sustatuko da, oinarrizkoa zein aplikatua. Horren haritik, ikerketa-azterketen prozesuak, faseak eta emaitzak jakinaraziko direla ziurtatuko da, bai eta eremu horien plangintzari eta kudeaketari dagozkionak ere.
9.J	Administrazio publikoek garatzen dituzten ingurumen-heziketako programen bidez honako hauei buruzko ezagutza sustatuko da: Natura 2000 Sarea, eta bioaniztasuna kontserbatzeko ibaietako eta estuarioetako habitatek eta espezieek duten balioa. Horrez gain, haiek zaintzea beharrezkoa dela kontzientziatu behar dituzte herritarrak. Programa horien helburua herritar guztiak izango dira, batetik, eta Natura 2000 Sarearen esparruan garatzen diren erabilerekin eta jarduerekin zerikusia duten teknikariak, bestetik. Gainera, Natura 2000 Sareari buruzko informazioa emateko eta sentsibilizatzeko jarduerak eta jarraibideen eta arauen garrantziari buruzko informazioa hirigintzarekin eta lurralde-antolamenduarekin zerikusia duten administrazio publikoetako teknikariei ere jakinaraziko zaizkie.

Arau orokorrak

KODEA	ARAU OROKORRAK
A.1	EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Plana aplikatze aldera, KBEen gune osoa Ubidea Babesteko Area izango da, plan horren D.2 atalean zehaztutakoa. Eremu horretan eta oro har, aplikatuko diren erabilera-arauak aipatutako atal horretako Lehentasuneko Interes Naturalistikoko Zonetako Ertzetarakoak izango dira araudia da, bai eta dokumentu honetako erabilerei buruzko gainerako jarraibideak eta arauak ere: <ul style="list-style-type: none"> Landa-eremuko ertzetan, herri-ubidearen mugabanaketa-lerroan 50 metroko gutxienera erretiroa errespetatuko da. Erretiro hori lur naturalaren alterazioa dakarten esku-hartze guztietarako aplikatuko da (eraikuntzetan, mota guztietako instalazio edo eraikinetan, finko nahiz desmontagarrietan, lur-berdinketa edo -mugimenduetan eta abarretan). Salbuespen izango dira obra publikoei edo azpiegitura-instalazioei dagozkienak edo ondare kulturala babestea helburu dutenak, behar bezala justifikatuta badaude.

¹ Ollero A., Ibisate A., Elso J.: *Notas técnicas del CIREF nº1. El Territorio Fluvial: espacio para la restauración.*

KODEA	ARAU OROKORRAK
	<ul style="list-style-type: none"> • Horrez gain, landa-eremuko ertzetan, aurreko puntuko erabileren oinarritzako araudia aplikatuko da, aldaketa hauekin: Debekatuta daude erabilera hauek: <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritza-industriak, baita arrain-haztegiak ere. - Erauzketa-jarduerak. - Zerbitzu ez-linealen instalazio teknikoak, A eta B motakoak, uraren ziklo integralarekin erlazioa dutela behar bezala frogatzen denotan izan ezik. - Hondakin solidoen zabortegiak eta hondakindegia, baita 3 km² baino gutxiagoko adar-arroa duten erreketan ere. - Egoitza-erabilera isolatua. - Instalazio arriskutsuak.
A.2	<p>Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, tokiaren kudeaketarekin zerikusi zuzena ez duten edo kudeaketarako beharrezkoa ez den plan, programa eta egitasmo oro, toki horiei nabarmen eragiten badie bakarka zein beste plan edo proiekturen batekin batera, behar bezala ebaluatuko da, eta aztertuko da zer ondorio eragingo dituen toki horretan, toki horretarako ezarritako kontserbazio-helburuak aintzat hartuta.</p> <p>Toki horretan izango dituzten eraginen ebaluazioari buruzko ondorioak kontuan hartuta eta aipatutako 45. artikuluan 5. paragrafoan ezarritako baldintzaren mende, eskudun organoek planak, programak edo proiektuak onartzeko edo baimentzeko, ezinbestekoa da aurretik ziurtatzea diotela toki horretako osotasunari kalterik eragingo, eta beharrezkoa bada, aurretik jendaurrean jarriko da delako plana, programa eta proiektua.</p>
A.3	<p>42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritako araubide orokorraz gain, oinarritzat hartzen da plan, proiektu edo jarduera berriren batek toki horietako bakoitzean funtsezkotzat hartutako habitatak aldatzeak edo espezieak desagertzeak ageriko kalte dakarrela, eta beraz, behar bezala ebaluatuko da.</p>
A.4	<p>Dokumentu honetan adierazitako arauetaz gain, KBEen gunean, indarrean dagoen Kostei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean eta hura garatzeko araudian ezarritako guztia aplikatu da.</p>
A.5	<p>Oro har, Euskal Kultura Ondarearen Legeak eragiten dien eremuetan gauzatu nahi den jardura oro Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarekin batera koordinatuko da, Euskal Kultura Ondareak bere baitan hartzen dituen ondasunei inolako kalterik ez eragiteko.</p>

ERABILEREI ETA JARDUEREI BURUZKO JARRAIBIDEAK ETA ARAUAK**Kontserbazioa eta ingurumena hobetzea****Jarraibideak**

KODEA	KONTSERBAZIOARI ETA INGURUMENA HOBETZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
1.J.1	Uretako habitatekin zerikusia duten landare-eraketa naturalak kontserbatzea eta hobetzea helburu duten jarduerak sustatuko dira, bai eta habitat horietako florako eta faunako populazioak garatzea helburu dutenak ere.
1.J.2	Horren haritik, lehentasuna izango du ibarbasoei eusteak eta haien berreskuratzeak, luzetara zein zeharka; horretarako, erriberako landarediarik ez duten ibaiertzak basoberritu egingo dira eta bertakoak ez diren espezieak dituztenetan jatorrizko landaredia jarriko da, ibai-ibilgu osoan zehar landaredi naturaleko banda jarraitua eratu ahal izan dadin helburu hartuta. Eremu horietan landatzerakoan, ez da zorua iraultzea eragingo duen lanik egingo. Horrez gain, ibilguan egur-hondakinak (adarrak eta enborrak) egotea bultzatuko da, baldin eta ez badute arriskurik eragiten hidraulikaren ikuspuntutik.
1.J.3	Haltzadiekin eta lizardiekin batera beste hostozabalen baso batzuk eta heskai batzuk luzetara zein zeharka haztea sustatuko da; izan ere, zenbait ibaiertzetako tartetan, denak nahastu egiten dira erriberako landaredia eratzeko.
1.J.4	Lurzoruak hidromorfikoak direnez, bereziki eragiten die lurra zapaltzeak eta idortzeak. Horrenbestez, erakunde kudeatzaileak zaindu egin behar du ibaiertzetan egiten diren ustiapenetan eta jardueretan, mugatuta dagoela inguruetan makina astunak erabiltzea, mendi-bideak egitea eta ibilgailuak bertatik igarotzea, ibilgua zeharka zeharkatzen duten bideak eta drainatze-lanak egitea. Halaber, ezaugarri edafikoei eragitea eragotzi behar da, bai eta ur-inguruneetako ertzen egonkortasunari eragitea ere.
1.J.5	Bertakoak ez diren espezie inbaditzaileekin lotuta, bioaniztasunaren galera eragozteko, haien desagertzea eta/edo kontrolatzea helburu duten jarduerak sustatuko dira, batez ere tokiko kontserbazio-helburuei arrisku handien eragiten dieten espezieena (bisoi amerikarra, karra-marro seinaleduna, <i>Fallopia japonica</i> , <i>Robinia pseudoacacia</i> ...). Estuario-inguruneetan dauden espezie inbaditzaileen zerrenda luzea denez, toki bakoitzeko kontserbaziorako jarduera espezifikoen artean, zehaztu egiten da zer espezie komeni diren gehien desagertzea. Batasunaren intereseko espezieen kontserbazio-egoerari buruzko jarraipena egin ondoren, egiaztatzen bada inbaditzailetzat katalogatutako espezieak hazteko haztegi-tako banakoak dabiltzala ingurunean, erakunde eskudunek zenbait formula aztertuko dituzte, espezie horiek inguruan aska daitezen eragozteko, eta horien artean haztegi horiek kokatzeari buruzko arauak eman daitezke. Bien bitartean, prebentzio-neurri egokiak eta nahikoak hartzea eskatuko zaie haztegi-jarioak, aske uzteak eta isurketak eragozteko.
1.J.6	Estuario-ingurunean, helburu nagusia izango da hareatzekin eta estuarioekin zerikusia duten habitatak erabat kontserba daitezen bultzatzea; beraz, habitat horiekin zerikusia duten landaredi- eta fauna-komunitateak zorrotz babesten direla ziurtatuko da, bai eta haien dinamika hidrauliko bereizgarriari eusten zaiola ere. Horretarako, estuarioko jalkitzeko eta ur gazia eta geza nahasteko prozesu naturalak aldaketarik gabe gauzatzen direla ziurtatu behar da, bai eta urak behar bezalako kalitate-maila duela ere.

KODEA	KONTSERBAZIOARI ETA INGURUMENA HOBETZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
1.J.7	Estuario-ingurunearen eta lehorreko ingurunearen arteko ekologia-loturak berebiziko garrantzia du, ekosistemek (ibaikoak eta itsasokoak) bat egiten duten ingurunean. Ekologia-lotura hobea izan dadin, erriberako landaredi-formazio helduak era daitezen bultzatu behar da, eta halaber, faunaren joan-etorria eragozten duten oztopoak kendu behar dira.
1.J.8	Natura 2000 Sareko tokiren bateko eremu bati eragiten dion arloko plan edo proiektu orok, nahitaezkoak diren ingurumen-eraginak prebenitzeko eta ahalik gehien murrizteko neurriez gain, hauek ere hartuko ditu bere baitan: bioaniztasunari ondorio positiboak eta ebaluagarriak eragingo dizkioten eta KBEaren kontserbazio-helburuak lortzea bultzatuko duten neurriak.

Arauk

KODEA	KONTSERBAZIOARI ETA INGURUMENA HOBETZEARI BURUZKO ARAUAK
1.A.1	Ibarbasoak lehenera ekartzea beharrezkoa den tarteetan, erriberetan edo inguruko landaredi naturalean berezkoak diren tokiko zuhaitz- eta zuhaixka-espezieetakoak erabiliko dira (haltzak, lizarrak, zumeak, etab.). Zuhaitz- eta zuhaixka-espezieen osaerari dagokionez, landaketa-modulu heterogeneoak erabiliko dira, eta landareak modu irregularrean landatuko dira; izan ere, ahalik eta landaredi-formazio naturalenak lortzea da helburua.
1.A.2	KBEan leheneratzeko lanak egitean, kontserbatu beharreko fauna-espezieen eskakizun ekologikoak eta aldi kritikoak kontuan hartuko dira. Halaber, proiektu eta ekintza horiek KBEaren funtsezko elementuetan izan ditzaketen eraginei segimendua egiteko programa bat gehituko da.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak

Jarraibideak

KODEA	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO ERABILERRI BURUZKO JARRAIBIDEAK
2.J.1	Tokian gauzatzen den nekazaritzako eta abeltzaintzako kudeaketak helburu hau izango du: dauden ustiapenei eustea, eremuko natura-balioen kontserbazioarekin bateragarri izanik.
2.J.2	Habitat-mota jakin baten kontserbazioa nekazaritza tradizionalari eustearen baitan baldin badago, erabilerari hori sustatuko da. Horretarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen-kontratuak egingo dira, nekazaritzako eta ingurumeneko neurriak aplikatzeko ² . Administrazioaren eta ustiapenen titularren arteko kontratuzko kudeaketaren baitakoak dira bitarteko horiek, eta hain zuzen, bitarteko nagusiak dira nekazaritza-irabaziak eta natura-balioen kontserbazioa bateragarriak izan daitezzen.
2.J.3	Lursailen artean landaredi-heskai autoktonoen sarea edukitzea sustatuko da. Horretarako, EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programaren baitan heskaien kontserbaziorako ezarritako laguntzak sustatuko dira (<i>VII 4. neurria. Paisaia hobetzea, heskaien bidez</i> ³); neurri horretan ezarritako baldintza eta konpromiso berberak izango dira.
2.J.4	Ibaiertzarekin lotutako landaredi natural gehiago edukitzea sustatuko da; hortaz, Europar Batasunaren laguntzekin zerikusia duen lur-erretiroa ibai-lurraldearen eremuan egingo da, bereziki -6. jarraibidean definitu bezala-, eta batez ere, herri-jabari hidraulikoaren babeserako 5 metroko zortasun-zonaren eremuan.
2.J.5	Oro har, debekatu egingo da Batasunaren intereseko habitaten ezaugarriak nabarmen aldatzea eragingo duten nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak areagotzea.
2.J.6	Erakunde kudeatzaileak zainduko du abereak ibilguan eta ibaiertzetan ibiltzea galarazten dela; baina horretarako ezartzen diren neurriek ez dute eragotziko espezie basatiak ibai-korridorearen zehar igarotzea.
2.J.7	Ongarri kimikoak eta landare-osasunerako produktuak ahalik eta gutxien erabiltzen dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak sustatuko dira. Biozidak eta substantzia kimikoak erabiltzen badira, zainduko da horiekiko bereziki sentiberak diren espezieak edo habitatak ez direla arriskuan jartzen.
2.J.8	Ibaiaren eta estuarioaren dinamika berreskuratzeko, eta itsasadarren, ibaien eta ingurunearen arteko lotura bultzatzeko, ibaiertzetako lubetak, babesak eta nekazaritza-eremuetako drainatze-sistemak kentzea sustatuko da, baldin eta inolako funtziorik betetzen ez badute, laborantza-jarduerarik ez dagoelako edo laborantza bateragarriekin ordeztu direlako -baso-landaketekin, esaterako-. Eragotzi egingo da, gainera, horrelako sistemarik egitea eta laborantza aktiboetan kentzea sustatuko da.
2.J.9	Sega-belardiei dagokienez (Batasunaren intereseko habitata, 6510 KODEA - EB), sustatu egingo dira habitatei eustearrekin bateragarriak diren nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak tradizionalak. Horretarako, EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programaren baitan sega-belardien kontserbaziorako ezarritako laguntzak sustatuko dira (VI 1. neurria. Intereseko sega-belardien kontserbazioa ⁴), neurri horretan ezarritako baldintza eta konpromiso berberak izanda.

² EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programa (2007-2013)

³ EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programa (2007-2013). II. ardatza: Ingurumena eta landa-ingurunea hobetzea. Nekazaritza-ingurumeneko diru-laguntzak.

⁴ EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programa (2007-2013). II. ardatza: Ingurumena eta landa-ingurunea hobetzea. Nekazaritza-ingurumeneko diru-laguntzak.

KODEA	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
2.J.10	3. eta 4. jarraibideetan adierazitakoaren ildo beretik, ahalegin berezia egingo da nekazaritza-sektorea prestatu eta haiei informazioa emateko, Natura 2000 Sarearen helburuei, konpromiso-i eta aukerei dagokienez.

Arauk

KODEA	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO ERABILERARI BURUZKO ARAUAK
2.A.1	Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodea aplikatuko da KBEetan; Kode hori ekainaren 7ko 112/2011 Dekretu bidez onartu zen.
2.A.2	Simaurra eta minda kudeatzeari dagokionez, bete egingo da nekazaritzako ustiapenei aplikatzeakoak diren baldintza teknikoan, higie-ne eta osasun-baldintzen eta ingurumeneko baldintzen alorreko araudian ezarritakoa.
2.A.3	Abereentzako itxiturak jartzerakoan, fauna basatia batetik bestera ibiliko eta mugituko dela ziurtatzeko beharrezko baldintzak beteko dira, bai eta haiek hiltzea eragozteko baldintzak ere. Itxiturretan, ibilgu publikoaren mugabanaketa-lerroarekiko 5 metroko gutxieneko erretiroa errespetatuko da, eta halakorik ez balego, ezpondaren gainaldearekiko.
2.A.4	KBEa kudeatzeaz arduratzen den erakundeak zainduko du ez direla egiten edo baimentzen lubeten edo betelanen bidezko babes-lanak, baldin eta ibilguaren zeharkako jarraitutasuna eragozten edo oztopatzen badute. Higadurak eragozteko, jabari pribatuak jaustea eragozteko edo azpiegiturei eusten dieten lurrak jaustea eragozteko egiten badira babes-lanak, ez da lurzoria goratuko, ez eta ibai-dinamika aldatuko ere, eta teknikoki ahal den guztietan, ingeniari-tza naturalistikoko teknika bigunen bidez diseinatuko dira lanak. Nolanahi ere, ezinbestez ebaluatu behar da aurretik zer ondorio eragingo dituzten jarduera horiek tokiko kontserbazio-helburuetan.
2.A.5	Lursailak biltzeko proiektuek edo ureztatze-sistema berriak jartzeko proiektuek KBEetako guneei eragiten badiete, behar bezala ebaluatuko dira, 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoari jarraikiz Proiektu horiek ez dute herri-jabari hidraulikoa hartuko, ez eta haien babeserako zortasun-zona ere, ezin baita lurzoru naturala aldatzea eragingo duen esku-harterik gauzatu (mota guztietako instalazioak edo eraikuntzak, finko nahiz desmuntagarriak –esaterako, kutxatilak, erretenak, hodiak- eta ponpaketarekin zerikusia duten beste azpiegitura batzuk; lur-berdinketak, lur-mugimenduak, betelanak, nekazaritza-bideak, etab.). Hortaz, eremu horretan gauza daitezkeen erabilerek eta jarduerak tokiko kontserbazio-helburuak betetzea izango dute helburu. Horrez gain, bere horretan utziko dira lursailen mugetan dauden erriberako landaredia, zuhaiztiak eta heskaiak.

Basogintzako erabilera

Jarraibideak

KODEA	BASOGINTZAKO ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
3.J.1	<p>KBEren baitan gauzatzen diren basogintzako erabilerak eta jarduerak baso-lurren kudeaketa iraunkorreko irizpideak aplikatuta garatuko dira; hortaz, basogintza-plangintza beste bitarteko bat izango da eremuko natura-balioak kontserbatzeko, eta basogintzako baliabideen ustiapena eta balio horien kontserbazioa bateragarriak izateko. Izan ere, hala, tokian dauden baso-masa autoktonoen kontserbazioa eta bilakaera naturala bultzatuko da.</p>
3.J.2	<p>KBEetan eta haren isurialdeko arroan dauden erabilera publikoko mendien kudeaketari dagokionez, antolamendurako proiektuek irizpide hauek hartuko dituzte beren baitan. eta horiek berberak sustatuko dira KBEaren gunean dauden titulartasun pribatuko mendien ustiapen-sistemetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Iraunkortasuneko irizpideak eta ingurumenaren kontserbaziorako irizpideak bere baitan hartuko dituen baso-kudeaketa sustatzea, eta KBEaren gunean dauden baso-masa autoktonoen kontserbazioa eta bilakaera naturala bultzatzea. b) Lurzoruaren jabetza publikoa den eremuetan behinik behin (Herri Basoak eta Erabilera Publikoko Mendiak), KBEaren guneko baso-masak lehenera ekartzea sustatuko da, hots, berezko landarediari dagokion bertako espezieak izatea. c) Ale zaharrak errespetatzea eta kontserbatzea, oso ahul daudenak edo hilda daudenak barne, honako aleak izan ezik: pertsonentzat edo ondasunentzat arriskutsuak izan daitezkeenak edo ibilguaren ahalmen hidraulikoa oztopa dezaketenak, zubiak daudelako edo traba ditzaketen beste elementu batzuk daudelako, ur-goraldien ondorioa handiago egin dezaketelako. d) Egur hila egon dadin sustatzea, lurrean zein zutik, gutxienez 20 m³/ha-ko azalera osatzeko adina. Horretarako, baso-lanak egin ondoren bertan utziko da egur hila, baina pilaketarik sortu gabe. Lehendik dauden egur hilen hondakinak bere horretan utziko dira. e) Egin beharreko basogintzako lanak egitean, ez kaltetzea dagokion espeziearekin batera dauden espezie autoktonoak, direla zuhaitzak direla zuhaixkak. f) Masen arteko jarraitutasuna bultzatzea, bai eta haien eta ibai-ingurunearen artekoa ere. g) Basogintzako eginkizunen egutegia bertan dauden fauna-espezieetara egokitzea; hortaz, basogintzako lanak ez dira gauzatuko Batasunaren intereseko fauna-espezieak eta, oro har, eskualdearen interesekoak egoera ahulenean dauden denboraldian. h) Minimizatzea ibai-sarera egiten diren solido esekien, landare-osasunerakoen eta pestiziden isurketak. Horretarako, behar adina neurri ezarriko dira, solido esekiak dituen isurketa-ura ez dadin iritsi lurrazaleko uretara. Irizpide hori KBEaren isurialdeko arroan dauden baso-ustiapen guztiei aplikatuko zaie. i) Ahalik eta baso-pista gutxien eraikitzea eragiten duten metodoak sustatuko dira egurra lortzeko. Izan ere, helburua hau da: Batasunaren intereseko habitatak eta/edo espezieak dauden eremuetan sartu ahal izatea mugatzea eta haiek ahalik gutxien zati-katzea.
3.J.3	<p>Makal-basoei dagokienez, ibarbasoak lehenera ekartzea sustatuko da, urpean geratzeko arriskuaren errepika-denbora laburreko (10 urte) lurretan dauden lursailetan bederen. Sustatu egingo da, halaber, landaredi naturala lehenera ekartzea KBEak hartzen duen eremu guztian.</p>

KODEA	BASOGINTZAKO ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
3.J.4	<p>Erakunde kudeatzaileak zainduko du herri-jabari hidraulikoan eta haren babeserako zortasun-zonan ez dela baso-ustiapeneko jarduerarik egingo; eta, dena den, sektorearen alorrean indarrean dauden arauak aplikatzeko beharrezkoak diren gainerako baimenak ere lortu behar dira. Eremu horretan, landaredi naturalen formazioak kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak sustatuko dira.</p> <p>Halaber, erakunde horrek zainduko du KBEaren gunean gauzatzen diren baso-ustiapenetan, jarduerarik gabeko nahikoa azalera uzten dela KBEetan dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko arriskupeko espezieen populazioen enklabeak babestea ziurtatzeko (esaterako, espezie hauena: <i>Soldanella villosa</i>, <i>Trichomanes speciosum</i>, <i>Woodwardia radicans</i> eta <i>Hymenophyllum tunbrigense</i>).</p>
3.J.5	<p>Eragotzi egingo da KBEaren gunearen barruan baso-pista berriak eraikitzea, eta beste metodo batzuk sustatuko dira egurra lortzeko. Dena den, irizpide hori aplikatuta ere beste pista bat egitea beharrezkoa baldin bada, aurretik baimena eman du behar erakunde kudeatzaileak, eta lan horiek zer baldintzatan egin behar diren ezarri ahal izango du. Nolanahi ere, ur-ibilguarekiko paralelo joatea eta ur-ibilguak gurutzatzea eragotzi behar da, bai eta ibaiko ur-sistemaren luzetarako jarraitutasuna zatikatzen duten eta faunaren joan-etorria oztopatzen duten azpiegiturak eraikitzea ere. Bideak zuen eginkizuna bete ondoren, bidea naturalizatzeari ekin behar zaio.</p>
3.J.6	<p>Baso-kudeaketa eta KBEaren ingurumen-balioak bateragarriak izan daitezen sustatzeko ezar daitezkeen beste laguntza batzuez gain, baso-ingurumena babesteko EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programan (2007 -2013) ezarritako laguntzak sustatuko dira. Laguntza horien helburuetako bat da EAEn Natura 2000 Sarea osatzen duten habitatak eta espezieak kontserbatzen eta lehenera ekartzen laguntzea. Programa horretan, baso-lurren kudeaketa iraunkorra xede duten 4 jarduera-mota hauek adierazten dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> I. Zuhaitz autoktonodun arboladiak kontserbatzeko eta lehenera ekartzeko jarduerak. II. Txanda laburreko espezie jakinen landaketak mugatzeko jarduerak. III. Mendien kudeaketan eta ustiapenetan eragin gutxi izango duten teknikak erabiltzeko jarduerak, eta Erriberako landaredia kontserbatzeko eta lehenera ekartzeko jarduerak.
3.J.7	<p>3. eta 4. jarraibideetan adierazitakoaren ildo beretik, ahalegin berezia egingo da basogintza-sektorea prestatu eta haiei informazioa emateko, Natura 2000 Sarearen helburuei, konpromisoari eta aukerei dagokienez.</p>

Arauk

KODEA	BASOGINTZAKO ERABILERARI BURUZKO ARAUAK
3.A.1	<p>Debekatuta daude ibaiertzetako landaredia erabat edo zati batean desagertzea eragingo duten jarduerak, bai eta ekologia-interesa duten eta erriberaren inguruan hazten diren aleak desagertzea eragingo dutenak ere. Ingurumen horren inguruan gauzatzen diren baso-ustiapenek ziurtatu egin behar dute Batasunaren intereseko habitat eta espezie guztien iraunkortasuna eta kontserbazioa, eta ez dute uraren kalitatea kaltetu behar.</p>
3.A.2	<p>KBEaren gunean gauzatzen diren baso-ustiapenetan, ez da lanik egingo, gutxienez, herri-jabari hidraulikoari eta haren babeserako zortasun-zonari dagokion lursail-zatian. Eremu horretan, ez dira bertakoak ez diren zuhaitz-espezieak landatuko eta haziko, eta landaredi naturalen formazioak kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak sustatuko dira. Eremu horietan landatzerakoan, ez dira zorua higitzea eragingo duen lanik egingo.</p>

KODEA	BASOGINTZAKO ERABILERARI BURUZKO ARAUAK
3.A.3	Debekatuta dago Batasunaren intereseko zuhaitz-habitatetan baso-soilketak egitea eta erabilerera aldatzea, eta oro har, baita KBEan dauden baso autoktono guztietan ere.
3.A.4	Debekatuta dago KBE izendatzen den unean beste erabilera bat duten lurretan bertakoak ez diren baso-espezieen landaketa berriak egitea, eta bereziki naturalizatzeko eta ugaltzeko ahalmena duten espezie inbaditzaileena; esaterako, sasiakazia espeziearena (<i>Robinia pseudoacacia</i>).
3.A.5	KBEaren guneko baso-antolamendurako proiektuak ebaluatu egin behar dira; hain zuzen, tokian eragingo dituzten ondorioei buruzko ebaluazioa egingo da, 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ehiza eta arrantza

Jarraibideak

KODEA	EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
4.J.1	Ehizari eta arrantzari buruzko arautzea bateragarria izango da aztergai diren tokietan dauden eta Batasunaren interesekoak diren populazio pizsikolen eta astazikolen kontserbazioarekin. Horren haritik, ehizaren eta arrantzaren ustiapena urtero arautzen duten foru-aginduek unean uneko aldaketak ezarriko dituzte, behar adina, adierazitako kontserbazio-helburuari egokitzeko.
4.J.2	Informazio- eta prestakuntza-kanpainak sustatuko dira ehiztarien kolektiboarentzat, KBEan dauden eta Batasunaren interesekoak diren fauna-espezieak kontserbatzeko eta babesteko.

Arauk

KODEA	EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO ARAUK
4.A.1	Debekatuta daude kontserbatu beharreko espezieak arriskuan jar ditzaketen arrain-espezieak askatzea edo espezie horien birpopulazioa, ekimen pribatukoak zein publikokoak izan, kontserbatu beharreko espezieen kudeaketarekin zerikusia duten espezieena izan ezik (izokina edo, hala badagokio, Batasunaren intereseko beste espezie batzuk berriro sartzeko plana).
4.A.2	Oro har, debekatuta dago ibai-karramarro autoktonoak (<i>Austrapotamobius pallipes</i>) harrapatzeari. Debekatuta dago, halaber, izokinaren (<i>Salmo salar</i>) arrantza, populazioaren kontserbazio-egoera egokia ez den bitartean, KBErako proposatutako kontserbazio-helburuei jarraikiz.
4.A.3	Ehizaren alorrean indarrean dagoen araudiari jarraikiz, eta horrek eragiten dituen mugak aintzat hartuta, ur publikoak (ibilguak eta ertzak barne) segurtasun-eremutzat hartzen dira; eta lurrazaleko ur-masak (inguruko eremuak barne) fauna-babeslekutzat hartzen dira, inolako izendapen-beharrik gabe. Inguruko eremuaren azalera zenbatekoa den zehazteko, KBEtan dauden eta Batasunaren interesekoak diren espezieak hartuko dira kontuan.
4.A.4	Estuarioen eremuetan, eta kontserbatu beharreko hegazti-faunako espezieek atsedean hartzeko eta elikatzeko toki oso garrantzitsuak diren aldetik, alor horretan eskumena duen erakundeak ehizatik babestutako gunek sortzea sustatuko du, edo antzekoren bat, ehizari buruzko araudia garatzen denean.
4.A.5	Debekatuta dago ehiza-espezietako aleak ingurumenean askatzea eta aske uztea, bertakoak zein ez-bertakoak, baldin eta kontserbatu beharreko espezieentzat arrisku-faktore badira.

Uraren erabilera

Jarraibideak

KODEA	URAREN ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
5.J.1	Uraren kudeaketak baliabide horren optimizazioa izan behar du xede, funtsezkoa baita eskualde biogeografiko atlantikoko ibaietako KBEetan kontserbazio-helburuak lortzeko.
5.J.2	Erabiltzen ez diren ustiapen-emakida guztiak iraungitzea sustatuko da, KBEan daudenena zein mugetatik kanpo egon eta KBEaren kontserbazio-helburuak arriskuan jar ditzaketenean. Emakidarekin zerikusia duen oztopoa eraisteko edota iragazkor izateko aukera guztiak aztertuko dira. Bideragarria baldin bada, oztopoa eraitsi egingo da, eta ezin bada, iragazteko modurik eraginkorrena hautatuko da, eta ahal dela, alboetan ubideak eraikiko dira edo arrapalak, segidako dike-eskalak eraiki ordez.
5.J.3	KBEaren erakunde kudeatzaileak arroaren eskumena duen erakundearen aurrean sustatuko du emari ekologikoen erregimena aplika dadin ur-ustiapenerako emakida berrietan zein zaharretan. Eta bereziki erreparatuko die aztergai den KBEaren kontserbazio-helburuak lortzea gehien eragozten duten emariak ken daitezen.
5.J.4	Irizpide orokor gisa, ahalik eta gehien mugatu behar da ibaietako KBEetako gunean uraren ustiapenerako emakida berriak baimentzea; nolana ere, emakidaren bat baimenduz gero, ezinbestekoa izango da alde aurretik ebaluazioa egitea, KBEan kontserbatu beharreko elementuetan zer ondorio eragingo dituen jakiteko. Ebaluazio horretan, teknikoki bideragarriak diren beste aukera batzuk aztertuko dira, eta behar bezala arrazoituko da ezinbestekoa dela emakida ematea, eta hautatutako konponbidea ingurumenerako egokia dela, hots, ziurtatu egin behar da ez dela kalte garrantzitsurik eragingo KBEan kontserbatu beharreko elementuetan. Nolanahi ere, aztergai den KBEaren barruan kontserbatu beharreko habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera onari eustearekin edo lehenera ekartzearekin bateragarri izango den emari-erregimena ziurtatuko da.
5.J.5	Zaindu egingo da KBEen gunean ura ustiatzeko emakida-eskubideak dituzten instalazioek beti abian dituztela kontrol eraginkorra egiteko sistemak; hain zuzen, hauek kontrolatzeko: erabilitako ur-bolumena, aipatutako herri-jabari hidraulikora itzulitako ura eta egindako isurketak. Horrez gain, emakidarekin zerikusia duten instalazio guztiak beti garbi eta baldintza egokietan eduki behar dira, eta, bereziki, arrainak igarotzeko gailuak (arrapalak, eskalak...), saretak, etab.; hortaz, ziurtatu egin behar da instalazioak behar bezala dabiltzala une oro eta KBEan funtsezko elementu diren espezieen joan-etorriak bultzatzen direla, gora zein behera egitera-koan.

Arauak

KODEA	URAREN ERABILERARI BURUZKO ARAUAK
5.A.1	EAEko komunitate arteko arroei dagokien eremuan, irailaren 10eko ARM/2656/2008 Agindua aplikatuko da, plangintza hidrologikoaren jarraibidea onartzen duena. Horrenbestez, Natura 2000 Sareko eremu babestuetan emari ekologikoen erregimenek ondorio nabarmenak eragiten badituzte, erregimenak egokitu egingo dira, habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera onari eusteko edo haien lehenera ekartzeko, eta horretarako, baldintza ekologikoak bete behar dira eta haien baitako funtzio ekologikoei epe luzera eutsi behar zaie.

KODEA	URAREN ERABILERARI BURUZKO ARAUAK
5.A.2	<p>KBEetan proposatutako jarduera-ildoetako batean, ingurumen-baldintzak betetzeko emari-erregimena zehazteko berariazko azterketak egitea aurreikusten da; izan ere, tokian tokiko funtsezko elementuak diren habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ona babestea edo lortzea da helburua.</p> <p>Azterketa horiek egin bitartean, ibaiaren hidrograma naturalarekin bat datorren emari-erregimena aplikatuko da. Emari-erregimen hori zehazteko, emari ekologiko modularraren metodologia aplikatuko da, Euskadiko barne-arroetako plangintza hidrologikoan erabiltzen dena. Horrez gain, arroari dagokion plan hidrologikoan ezarritakoa ere aplikatuko da, eta bi aukera horien artean, ingurumenerako egokiena den emari-erregimena aplikatuko da beti.</p>
5.A.3	<p>Ibaitako KBEek lehentasuna izango dute emari ekologikoen erregimena ezartzeari dagokionez (5.A.2. arauan aipatutakoa); hortaz, 2018. urtea baino lehen, emari horiek aplikatzen direla ziurtatu behar da, Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluan xedatutako ebaluazio-aldia amaitzen baita.</p>
5.A.4	<p>Erakunde kudeatzaileak arroaren ardura duen eskudun erakundeari eskatuko dio ofizioz abiaraz dezala emakidak aldatzeko espedienteak, baldin eta emakide horiek kontserbatu beharreko habitategi eta espezieetan aldaketa nabarmenak eragiten badituzte edo haien kontserbazio-egoera ona lehenera ekartzea eragozten badute.</p>
5.A.5	<p>Debekatuta dago KBEetan emaria desbideratzea ura metatzeko, baldin eta metatzeak ibaiaren gutxieneko emaria egokitzat zehaztutako emari ekologikoa baino txikiagoa izatea badakar.</p>
5.A.6	<p>Ur-ingurumenarekin zerikusia duten espezieen mugikortasuna oztopatzen duten eta ziklo biologikoa betetzea oztopatzen duten azpiegiturak dituzten emakiden titularrek behar beste jarduera gauzatu behar dituzte, faunak gora zein behera mugitzeko aukera izan dezan, ibai-lotura hobea izan dadin eta ezarritako emari ekologikoaren erregimena kontrola dadin.</p>
5.A.7	<p>Ibai-loturarako gailuak jartzeko proiektuek agiri honetako gehigarrian adierazitako gutxieneko edukia bete behar dute. Gehigarri horretako a) letran adierazitako espezieak zehazteko, bereziki hartu behar dira kontuan KBEetan funtsezko elementutzat hartutako espezieak. Gainera, igarobide multiespezifikokoak ez eraikitzea hautatzen bada –esaterako, alboetan ubideak eraikitzea edo eraiste partzialak egitea–, aingirentzako igarobide espezifikokoak gehitu beharko dira. Presa txikiak/oztopoak erabat edo partzialki botatzeko proiektuetan, urloetako edo urmaeletako erriberen morfologia hobetzeko jarduerak aurreikusi behar dira.</p>
5.A.8	<p>Ibaitako KBEetan zentral hidroelektriko berriak eraikitzea zein daudenak handitzea ez dira bateragarriak gune horietako kontserbazio-helburuekin.</p>
5.A.9	<p>Debekatuta dago ur-askatze azkarrak egitea KBEaren eremuan dauden zentral hidroelektrikoetan, eta bereziki zainduko da xedapen hori betetzen dela.</p>
5.A.10	<p>Oria Garaiko (ES2120005), Araxes (ES2120012) eta Leitzaran (ES2120013) ibaitako KBEei dagokienez, gunea kudeatzeko eskumena duen erakundeak zainduko du betetzen dela <i>Ingurumen Alorreko Informazio eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiak 1996ko urtarrilaren 11n emandako Ebazpenaren seigarren baldintzan ezarritakoa. Haren bidez, Oria ibaiaren erdialdea (Gipuzkoa) hornitzeko eta erregulatzeko Ibiurko urtegia eraikitzekeko proiektuari buruzko ingurumen-eragina adierazi zen, eta honakoa ezarri zen: Egungo ur-hartuneak kentzea.- Ibiurko urtegiaren bidez Tolosaldeko udalerrriak urez hornitzeko zerbitzua abian jarri ondoren, egungo hartuneak kenduko dira, erreken erregimen naturala eta haietan dauden akuiferoak lehenera ekartzeko.</i></p>

Hirigintzako, urbanizazioko eta eraikuntzako erregimena

Jarraibideak

KODEA	HIRIGINTZAKO, URBANIZAZIOKO ETA ERAIKUNTZAKO ERREGIMENARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
6.J.1	Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko 42/2007 Legearen 45.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Hegaztiak Babesteko Eremu Bereziak guneei babestuzat hartu behar dira, Natura 2000 Sarearen baitan eremu babestuen izendapena dutela. Hortaz, lurraldearen antolaketarako eta hirigintzaren plangintzarako bitartekoek ziurtatu egin behar dute KBEetan dauden habitat natural eta espezie ororen kontserbazioa. Horretarako, dokumentu honetan bildutako kontserbazio-helburuak eta -neurriak ezarriko dira.
6.J.2	Jada urbanizatuta dauden eremuetan, sustatuko da ibilguaren eta urbanizazioaren artean dauden lurretan gauzatzen diren erabilerek eta jarduerak toki horretako kontserbazio-helburuak betetzea, eta helburu horiek betetzen laguntzen duten jarduerak sustatuko dira. Lur-zati horiek, gehienetan txikiak diren arren, berebiziko garrantzia izan dezakete ekologia-lotura hobetzeko eta babestu beharreko habitatak eta espezieak babesteko.
6.J.3	Hiriguneetan, garapen berriko eremuetan, udalek sustatu egin behar dute derrigorrean eta doan eman beharreko lurzorua ibilguen babes-eremurako izatea, eta hirigintzako kargatzat ezar daiteke erriberetan landaketak egin behar izatea. Halakoetan, Babes Eremuak espazio libreen sistema orokortzat edo tokikotzat hartu ahal izango dira, baldin eta ibai-ekosistema kontserbatzeko eta/edo lehenera ekartzeko erabiltzen badira, ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko erabilerari buruz agiri honetan ezarritako jarraibideei jarraikiz.
6.J.4	Halaber, hiriguneetatik barrena igarotzen diren ibai- eta estuario-tarteei eta erriberak hartu dituzten guneei dagokienez, udalek sustatu egin behar dute hirigunea eta industria-lurzorua berritzea eta birgaitzea xede duten planek beren baitan hartzea ibaiertzeko eremuetan espazio libreak uzteko xedapenak; izan ere, horrela, erriberetako landaredia hobetzea eta erriberetan landaketak egitea bultzatuko da, ahal den tarte gehienetan.

Arauk

KODEA	HIRIGINTZAKO, URBANIZAZIOKO ETA ERAIKUNTZAKO ERREGIMENARI BURUZKO ARAUK
6.A.1	KBEaren gunean dauden lurzoruetako hirigintzako aldaketak egiteko, ezinbestekoa da lehen-dabizi kontserbatu beharreko elementuetan eragingo dituen ondorioei buruzko ebaluazioa egitea. Ebaluazio horretan, teknikoki bideragarriak diren beste aukera batzuk aztertuko dira, eta behar bezala arrazoituko da ezinbestekoa dela esku-hartzea egitea, eta hautatutako konponbidea ingurumenerako egokia dela, hots, ziurtatu egin behar da ez dela kalte garrantzitsurik eragingo KBEan kontserbatu beharreko elementuetan.
6.A.2	KBEaren gunean hirigintza-garapen berriak egiteko baimenak ematen badira, 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritako behar bezalako ebaluazioa egiteaz gain, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko F1 epigrafean ezarritako gutxieneko erretiroak, landa-eremuko ertzei buruzkoak, errespetatu behar dira. Erretiro horiek urbanizazioari eta eraikuntzari aplikatuko zaizkio, herri-jabari hidraulikoaren mugabanaketa-lerrotik neurtuta, eta ez badago, ibilguaren ezpondaren gainaldetik.

KODEA	HIRIGINTZAKO, URBANIZAZIOKO ETA ERAIKUNTZAKO ERREGIMENARI BURUZKO ARAUAK
	<p>Hauek dira gutxieneko erretiroak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 50 metrokoa urtegiatarako eta $A > 100 \text{ km}^2$-ko adar-arroa duten ibai-tarteetarako (III, IV, V eta VI mailetako ibai-tarteetarako). ▪ 30 metrokoa $10 < A \leq 100 \text{ km}^2$-ko adar-arroa duten ibai-tarteetarako (I eta II mailetako ibai-tarteetarako). ▪ 15 metrokoa $1 < A \leq 10 \text{ km}^2$-ko adar-arroa duten ibai-tarteetarako (0 mailako ibai-tarteetarako). ▪ Km^2 1 baino gutxiagoko adar-arroa duten isurketa edo ibaibideei (00 mailako ibai-tarteei) dagokienez, Uren Legeak ezarritakoa izango da aplikagarri. <p>Natura 2000 Sareari eragiten dioten planei eta proiektuei buruz behar bezalako ebaluazioa egiteko (42/2007 Legearen 45. artikulua xedatutakoa) eskumena duen erakundeak ezarri ahal izango ditu adierazitako erretiro horiek ez diren beste batzuk, arrazoituta eta aipatutako ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuta.</p>
6.A.3	<p>Aurreko arauan xedatutakoa hirigintza-espeditente hauei aplikatuko zaie: KBE izendapena ematen den egunean hasierako onespina emanda ez duten plangintza orokorreki edo plangintza garatzekoei (plan partzialak, plan bereziak).</p>
6.A.4	<p>6.A.2 atalean adierazitako urbanizazio-erretiroak ez zaizkie aplikatuko lehendik zeuden guneetan egiten diren etxebizitza-garapen berriei, baldin eta behar bezalako ebaluazioa egin ondoren, tokiaren osotasunari kalterik ez zaiola eragingo ziurtatzen bada. Behar bezalako ebaluazioa egiteari dagokionez, ingurumen-erakundeak, ibai-tartearen ezaugarrien arabera, kasu kasu ezarriko du zer erretiro errespetatu behar diren, erriberako ekosistemaren funtzionalitateari eusteko, eta behar izanez gero, lehenera ekarri ahal izateko.</p>
6.A.5	<p>Urpean geratzeko arriskuei buruz kontuan hartu beharreko erabakiez gaiz, uraren alorrean dauden arloko arauak bete behar dira, eta herri-jabari hidraulikoaren babeserako zortasun-zonaren eremuak libre eta oztoporik gabe geratu behar du, bertatik igaro ahal izateko, eta ahal izanez gero, ez da lurzoru naturala aldatzea eragingo duen jarduerarik egingo (eraikuntzetan, instalazioetan edo mota guztietako eraikinetan, finko nahiz desmuntagarrietan, lurberdinketa edo -mugimenduetan eta abarretan), ur-ingurumenarekin zerikusia duten erabileratarako jarduerak izan ezik.</p> <p>Herri-jabari hidraulikoaren babeserako zortasun-zonaren eremuan, urbanizazio-elementuak eraiki daitezen eragotziko da; esate baterako, espaloiak, herri barruko bideak eta bidegorriak, lurrazpiko garajeak, sotoak eta, oro har, ibilguaren uneko ekologia-egoerak okerrera egitea eragin dezaketen beste hirigintza-elementu oro. Halaber, eremu horren barruan, eragotzi egin behar da lurpeko edo aireko azpiegitura linealak eraikitzea; esate baterako, kolektoreak, ur-hodiak, gasbideak, komunikazio-sareak, etab.</p>

Azpiegiturak

Jarraibideak

KODEA	AZPIEGITUREI BURUZKO JARRAIBIDEAK
7.J.1	<p>Irizpide orokor gisa, eragotzi egingo da KBEen baitan azpiegitura berriak eraikitzea; eta, horretarako, gune horietatik kanpo dauden beste toki batzuk edo beste trazadura-aukera batzuk aztertuko dira. Nolanahi ere, ez dira arriskuan jarriko eremuko kontserbazio-helburuak.</p> <p>Horrez gain, KBEetan dauden zerbitzu-instalazioak oro har kentzea sustatuko da, lurpekoak zein airekoak, eta, bereziki, linea elektrikoak, saneamendukoak eta hornidurakoak eta antzeko gainerakoak. Hortaz, ahal dela, gune horietatik kanpo berregingo dira, salbu eta instalazio horiek kentzeak kalte handiagoa eragiten badu bertan uzteak baino.</p>
7.J.2	<p>Azpiegitura eta hoditeria linealak diseinatzerakoan, irizpide hau aplikatuko da: lehendik dauden azpiegiturei egokitzea trazadura.</p>
7.J.3	<p>Linea elektrikoak instalatu behar direnean, eragotzi egingo da KBEaren gunean oinarriak jartzea, eta horren orde, lurpean edo lehendik dauden errepideen, bideen edo ibilbideen trazaduretan jar daitezten sustatuko da, teknikoki bideragarria bada. Nolanahi ere, talken eta elektrokuzioen aurkako gailuak jarriko dira instalazio horietan, hegaztiak hil ez daitezten.</p>

Arauk

KODEA	AZPIEGITUREI BURUZKO ARAUAK
7.A.1	<p>KBEtik kanpora jartzeko aukera ez duten azpiegituren proiektuei dagokienez, Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoari jarraikiz ebaluatuko dira. Ertzak babesteko eta ezpondak egonkortzeko egiturak beharrezkoak baldin badira, ahalik eta teknikarik onena erabiliko da, eta ahal dela eragotzi egingo dira konponbide «gogorrak», hormigoizko harresien edo harri-lubeten modukoak, salbu eta horiek badira teknikoki egokienak. Egitura horiek ingurunean integratuko dira, eta horretarako, lehentasuna izango dute bioingeniaritza edo ingeniaritza naturalistikoko teknikek. Harri-lubetaren tarteko hutsuneak landare-lurrarekin betetzea xedatuko da, bai eta zuhaitz-, zuhaixka- eta belar-landaredi autoktonoa edo basatitutakoa jartzea ere, landaketen edo aldaxken bidez. Halako jarduerak egiten direnean, kontuan hartuko dira KBEan kontserbatu beharreko elementutzat hartutako espezieen ekologia-baldintzak.</p>
7.A.2	<p>Ezinbestez KBEaren azpitik igaro behar duten lurpeko azpiegitura linealei dagokienez (kolektoreak, ur-hodiak, gasbideak, komunikazio-sareak, linea elektrikoak, etab.) lehendik dauden azpiegituretan jarriko dira, eta hala egitea ezinezkoa baldin bada, erretiro hauek errespetatu behar dituzte, EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Landa-eremua: 15 metro, baldin eta ez badira errepide edo bide azpitik igarotzen. Muga hori ez da bete beharko kolektoreak eta bestelako ur-hodiak izanik, behar bezala justifikatzen badira. ▪ Hiri-eremuak: Ahal dela, hodiak tokiko bideen edo espaloien azpian edo kanalizazioen barnealdean instalatuko dira.

KODEA	AZPIEGITUREI BURUZKO ARAUAK
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hirigintza-garapen berriak egiteko aukera duten eremuak: Ahal dela, azpiegiturak urbanizazio berriko bideen edo espaloien azpian instalatuko dira. <p>Ez da baimenduko, behar bezala justifikatutako eta ebaluatutako kasu berezietan izan ezik, landa-eremuan kanalizazioak egitea azpiegitura linealak jartzeko. Azpiegiturak ezartzean, berriazko azterketa batean ebaluatutako ezintasunik ezean, interes naturaleko elementuak eta erriberako landaredia kontserbatu behar dira, eta haien diseinuaren bidez, jada desagertu den lekuetan landaredia lehenera ekartzea bultzatuko da.</p> <p>Natura 2000 Sareari eragiten dioten planei eta proiektuei buruz behar bezalako ebaluazioa egiteko (42/2007 Legearen 45. artikulua xedatutakoa) eskumena duen erakundeak adierazitako erretiro horiek ez diren beste batzuk ezarri ahal izango ditu, arrazoituta eta aipatutako ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuta.</p>
7.A.3	<p>Gurutzatze-arazoei konponbidea eman behar zaienean, ez da aldaketarik egingo ibilguan eta erriberetan, eta lehendik dauden igarobideen azpiegiturak erabiliko dira (zubiak, bideak...), eta horretarako aukerarik ez badago, eskuragarri dagoen teknirik onena erabiliko da; hau da, toki horretan kontserbatu beharreko elementuetan eragina minimizatze aldera teknirik eraginkorrena eta aurreratuena dena, bideragarriak diren ekonomia- eta teknika-baldintzak errespetatuta, kostuak eta onurak kontuan hartuta eta zer egoera dagoen kontuan hartuta. Hartzen den erabakia hartzen dela, KBEaren erakunde kudeatzaileak baimena eman behar du, toki horretako kontserbazio-helburuetan izango duen eraginari buruzko ebaluazioa egin eta gero.</p>
7.A.4	<p>Zubiak, zubibideak eta, oro har, bideetako azpiegituren gurutzatzeak eraiki behar direnean, haien diseinatzen direnean, estribuek eta habeek ez dute eragingo ibai-ibilguetan, eta ertzetan azpiegiturarik gabeko eremu libre bat utzi behar da, ibaiertzetako landaredia lehenera ekarri ahal izateko eta erriberetako ekosistemekin zerikusia duten fauna-espezieen joan-etorria errazteko.</p>
7.A.5	<p>Ibai-ingurunearekin zerikusia duten kultura-ondareko elementuetatik edo ibilguetatik hurbil egiturak eraiki behar badira edo azpiegiturak edo eraikuntzak berritzeko (zubiak, errota, burdinolak) lanak egin behar badira, kontuan hartu behar dira KBEan funtsezko elementutzat hartutako espezieen baldintza ekologikoak.</p>
7.A.6	<p>Ibai-ingurunean garatu beharreko lanak egiteko datari dagokienez, KBEan kontserbatu beharreko fauna-espezieen umatze-garaiak errespetatuko dira, ezin bada baztertu proiektua garatuko den eremuan espezie horiek izan daitezkeenik.</p>

Erabilera publikoa eta ibilgailuen zirkulazioa

Jarraibideak

KODEA	ERABILERA PUBLIKOARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
8.J.1	Udalekin batera koordinatuko dira gunearen mugetatik kanpo dauden eremuetara joateko modua eta bertako jolas-azpiegiturak (kanpatzeko lekuak, aparkalekuak, jolaslekuak, paseorako bideak, bidegorriak...).
8.J.2	Oro har, ibaietako eta itsasadarretako erriberekiko paralelo eta hurbil igarotzen diren oinezkoentzako eta/edo bizikletaz ibiltzeko bide berriak egitea eragotziko da.
8.J.3	Ingurune horietan, erabilera didaktikoa eta ingurumen-heziketa sustatuko da, baldin eta bateragarria bada eremuan dauden eta Batasunaren intereseko eta/edo eskualdearen interesekoak diren habitatak eta espezieak behar bezala kontserbatzen jarraitzearekin.
8.J.4	Estuario-inguruneetarako sarrera publikoak arautu eta ibilbide-sarea zehaztu behar denean, eremu ahulenak ez dira ikutuko; esaterako: hegaztien ugaltokiak, interes bereziko eremuak edo fauna arriskuan dagoen lekuak, hauskortasun handiko habitatak (1210- Itsasoko hondakin metaketetan hazten den urteroko landaredia; 1310- Paduretako eta lur gazietako halofiloen urteroko landarediak; 1420- Paduretako eta lur gazietako sastrakadi halofiloak; 2110- Enbrioi-dunak; 2120- Duna mihokorrak <i>Ammophila arenaria</i> ekin; 2130- Duna gris finkoak), etab. Jarraibide hori bera aplikatuko zaio 4040* habitatari « <i>Erica vagans</i> -en kostako txilardi atlantiko lehorrak».

Arauk

KODEA	ERABILERA PUBLIKOARI BURUZKO ARAUAK
8.A.1	Oinezkoentzako eta bizikletaz ibiltzeko bideak, beste trazadura-aukerarik izan ez eta ezinbestekoa bada KBEtik barrena igarotzea, lehendik dauden azpiegiturretan egingo dira; dena dela, 42/2007 Legearen 45. artikuluari jarraikiz ebaluatuko dira. Ahal dela, herri-jabari hidraulikoaren zortasun-zonatik kanpo igaro behar dute, baldin eta ez bada hiri-lurzoru finkatua; halakoetan, aipatutako bide horiek, ahal denean, ibilguaren ezpondaren gainaldetik ahalik eta urrutien igaroko dira.
8.A.2	Debekatuta dago motordun ibilgailuen zirkulazioa, asfaltozko edo hormigoizko oinarrizko bidesaretik kanpo, bai eta KBEan motordun ibilgailuen kirol-probak eta -lehiaketak egitea ere, erakunde kudeatzailearen berriazko baimena izan ezean. Behar bezala justifikatutako erabileretarako soilik baimenduko da ibilgailuen zirkulazioa sare horretatik kanpo; esaterako, erabilera hauetarako: basogintzarako, azpiegiturak instalatzeko eta haien mantentze-lanak egiteko, kudeaketa-lanetarako eta/edo ikerketak egiteko eta eremu horretan gertatzen diren larrialdietarako.
8.A.3	KBEan dauden ibai-ibilguetan, taldeentzako jarduerak antolatuzeko (kirol-jarduerak eta/edo aisialdikoak), erakunde kudeatzailearen baimena izan behar da.

Beste erabilera eta jardura batzuk

Jarraibideak

KODEA	BESTE ERABILERA ETA JARDURA BATZUEI BURUZKO JARRAIBIDEAK
9.J.1	Ingurune horretan erabilerak eta jarduerak garatzeko aplikatuko den irizpide orokorrak batezgarria izan behar du eremuan dauden eta Batasunaren intereseko eta/edo eskualdearen interesekoak diren habitatak eta espezieak behar bezala kontserbatzen jarraitzearekin.
9.J.2	Eragotzi egingo da ibai-ekosistema artifizial bihurtzea eragingo duten jarduerak gauzatzea ibilguan eta zortasun-zonan.

Arauk

KODEA	BESTE ERABILERA ETA JARDURA BATZUEI BURUZKO ARAUAK
9.A.1	Euskadiko Natura Babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 17.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ezin izango da inolako meatzaritzako ustiapenik gauzatu, ez aire zabalean ez lurpean. Horren ildo beretik, debekatuta dago ibilgutik legarra eta/edo hondarra ateratzea (Meatzei buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legean eta hura osatzeko arauetan araututa dago).
9.A.2	Debekatuta dago ibilguko edo estuarioko eta herri-jabariaren babeserako zortasun-zonetako morfologia aldatzea eragingo duen jardura oro, kanalizazioak, dragatze-lanak eta betelanak barne, arlo horretan eskumena duen administrazioak baimena ematen duen kasu berezietan izan ezik; nolana ere, KBEan kontserbatu beharreko elementuetan kalte nabarmenik ez dela eragingo ziurtatu behar da aurretik.
9.A.3	Ibaitako ertzak garbitzeko lanei dagokienez, belar-sastrakak garbitzeko eta/edo belar-hondakinak kentzeko, eroritako zuhaitzak kentzeko eta antzeko lanetarako, alor horretan eskumena duen administrazioak berariazko baimena eman behar du; administrazio horrek, lan horiek kontserbatu beharreko elementuetan zer ondorio eragingo duten baloratzeko, irizpide hauek erabiliko ditu: <ul style="list-style-type: none"> Ibarbasoko ekologia-egoeran eragindako ondorioa. Ibilguaren ahalmen hidraulikoa oztopatzeko arriskua, zubiak daudelako edo, hondakinak pilatuta dauden lekutik behera, buxatu egin daitezkeen beste elementu batzuk daudelako. Uholdeen edo ezponda-zulatzeeen ondorioz kaltetu daitezkeen jabetzak (eraikuntzak, etxebizitzak) edo azpiegiturak (errepideak) dauden. Mehatxupean dauden espezieei eragindako ondorioa; jarduerak gauzatzeko garaiak.
9.A.4	Debekatuta daude, oro har, KBEan baso autoktonoa moztea eragingo duten jarduerak, baldin eta arloko eskudun administrazioak ez badu berariazko baimena ematen; nolana ere, kontserbatu beharreko elementuetan zer ondorio eragingo diren ebaluatuko du administrazio horrek.
9.A.5	Helburu zientifikoetarako edo apaingarritzat erabiltzeko material biologikoak eta geologikoak bildu ahal izateko, erakunde kudeatzaile eskudunak baimena eman behar du aurretik.

IBAIETAKO ETA ESTUARIOETAKO KBE-ETARAKO BATERAKO JARDUERAK

KBEetako kontserbazio-helburuak lortzea xede duten jarduerak adieraziko ditugu: jarduera horiek berdinak dira ibaietako KBEetarako eta estuarioetako KBEetarako, eskualde biogeografiko atlantikoan. Jarduera horiek guztiak 2. dokumentuan zehazten dira, KBE bakoitzari bereziki dagozkionak, eta toki bakoitzerako zehaztutako jarduera partikular batzuen bidez osatzen dira. Neurri guztiak Jarduera Mapan adierazi dira (3. dokumentua), eta izendapen guztiei buruzko kartografia osoa du (mugaketa, Batasunaren intereseko habitatak eta jarduerak).

Jarduerak ibaietan

Lehen ere adierazi denez, lurraldea zaintzea helburu duten borondatezko akordioak Natura 2000 Sarea kudeatzeko kudeaketa-bitarteko nagusiak izan daitezzen lortu nahi da, eta jabeen, zaintzeaz arduratzen diren erakundeen eta beste eragile publiko eta pribatu batzuen arteko etengabeko lankidetzaren bultzatu nahi da. Horren ildotik, zaintza-akordio horiek kudeaketa-esparru egokiak izan daitezke orain adieraziko ditugun epigrafeetan zehazten diren jarduera askorentzat; esate baterako, 1.JAR.1; 1.JAR.2; 1.JAR.13; 1.JAR.14; 1.JAR. 15; 1.JAR.17; 1.JAR.20 kodea dutenentzat.

KODEA	JARDUERAK IBAIETAN
1.JAR.1	<p>Belardiak, laborantzak edo jarraitutasuna galtzea eragin duten beste erabilera batzuk direla eta ibarbasoaren jarraitutasuna galdu den ibai-tarteetan ibai-erriberetako berezko habitatak lehenera ekartzea xede duten proiektuak sustatuko dira (haltzadia – lizardia, <i>Salix alba</i> eta <i>Populus alba</i> espezieetako galeria-basoak). Helburua da erriberako landaredi naturalaren banda jarraitua lehenera ekartzea edo hari eustea, eta gutxienez 5 metroko zabalerakoa izatea.</p> <p>KBE bakoitzerako helburu eta jarduera partikularrei buruzko 2. dokumentuan, KBE bakoitzerako proposatzen diren berariazko jarduerak edo lehengoratzeko-helburuak zehaztu dira, eta halaber, Jarduera Mapan ere adierazi dira (3. dokumentua).</p>
1.JAR.2	<p>Ibaietako KBEetako erriberetako lursailen jabeekin borondatezko akordioak sina daitezzen sustatuko da, ibai-ertzetako landaredi naturalaren egitura eta osaera hobetzeko, gutxienez 10 metroko zabalerako bandan KBEaren ibilbide guztian.</p> <p>Akordio horiek beren baitan hartuko dituzte ibarbasoak lehenera ekartzeko jarduerak, urpean geratzeko arriskuaren errepika-debora laburreko (10 urte) lursailetan dauden makal-basoetan; izan ere, ibai-ekosistemarekin zerikusi zuzena dutela jotzen da, eta horietan, herri-jabari hidraulikoaren kontserbazio-helburuak eta haiekin lotuta dauden sistema biologikoak bultzatu behar dira. KBEan dagoen lursail guztian, landaredi naturala lehenera ekartzea sustatuko da.</p> <p>KBE bakoitzerako helburu eta jarduera partikularrei buruzko 2. dokumentuan, KBE bakoitzerako proposatzen diren lehengoratzeko-helburuak zehaztu dira (ikus, halaber, Jarduera Mapa).</p>
1.JAR.3	<p>Arroaren ardura duen eskudun erakundearen aurrean, herri-jabari hidraulikoa zehaztea sustatutako da. Horretarako, erakunde horrek egindako edo balidatutako azterketa teknikoak hartuko dira abiapuntu, kontuan hartuta ezaugarri morfologikoak, azterketa hidrologikoak eta hidraulikoak eta eskuragarri dauden erreferentzia historikoak.</p>

KODEA	JARDUERAK IBAIETAN
	<p>Herri-jabari hidraulikoa adierazitako baldintzetan zehazteaz gain, KBE bakoitzeko «<i>ibai-lurraldea</i>» zehaztuko da; hau da, ibai-ekosistemarekin zerikusia duen eremua. Behar bes-teko zabalera eta jarraitutasuna izango du lurralde horrek, ibaiaren dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzeko eta hari eusteko adinakoa, aniztasun ekologikoa ziurtatuko duen ibai-korridore jarraitua lortzeko adinakoa eta ibai-dinamikarekin zerikusia duten eremuak berreskuratzeko aukera emateko adinakoa. Bere baitan, gutxienez, 10 urteko errepika-denborako uraldiek urpean utzitako eremuak hartuko ditu, eta urbanizatu-tako eremuak, berriz, ez ditu bere baitan hartuko.</p>
1.JAR.4	<p>Arroaren ardura duen eskudun erakundearen aurrean, KBEen alorrean indarrean dauden emakida nagusietan aplikatzen diren ingurumen-emarien erregimena berrikustea sustatu-tako da. Horretarako, KBEetan funtsezko helburutzat hartutako habitatak eta espezieak babestea edo haien kontserbazio-egoera ona lortzea xede duten azterlan espezifikoak egingo dira.</p>
1.JAR.5	<p>Ibaietako KBEetan, lurrazaleko uren kalitatearen laginketa-sare bat diseinatuko da, eremu bakoitzeko ibai-ibilguen egoera ekologikoa nolakoa den zehazteko. KBEetan funtsezko elementutzat hartutako espezieen arrain-laginketa espezifikoak ere egingo dira; izan ere, hala, populazio guztien kontserbazio-egoera zehaztu ahal izango da. Kontrol guztiak Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako protokoloetara egokituko dira, bai eta zuzentarau horri jarraikiz egindako egoera ekologikoaren kalkulua ere.</p> <p>Laginketa-estazioak diseinatzekoan eta kokatzerakoan, gainerako laginketa-sareak har-tuko dira kontuan, Eusko Jaurlaritzarenak zein foru-aldundienak; horrela, bikoiztasunak eragotziko dira eta erabilitako baliabideak optimizatu ahal izango dira.</p> <p>EAEko ibaien egoera biologikoaren eta kimikoaren jarraipena egiteko lehendik zeuden laging-keta-estazioez gain, beharrezkotzat hartzen da kontrolguneak ere jartzea, gutxienez, honako ibilgu hauetan (ikusitako Jarduera Mapa):</p> <ul style="list-style-type: none"> • ES2120013 LEITZARAN: 8 kontrolgune berri. Haietako hiru Leitzaran ibaiaren ardatzean kokatuta daude; goialdean, erdialdean eta behealdean, hurrenez hurren. Gainerako 5 guneak KBEaren barruan dauden 5 ibaiadar hauen bokaletan: Ubane/Ubaran, Santolaz, Lordiz, eskuinaldetik; eta Ibarrola eta Gorrotola, ezker-raldetik. • ES2120012 ARAXES: 3 kontrolgune ardatz nagusian. Bat goialdean, Lizartatik gora; eta beste biak, berriz, Lizartatik behera (horietako bat hirigunetik hurbil, eta bestea Leaburuko zerrategiaren parean). • ES2120005 ORIA GARAIA. Hiru kontrolgune berri: Oria ibaiaren goialdean (I. ibai-tartea), KBEaren goi-ibarrean; Agauntza ibaian, Lazkaotik behera bata eta goi-ibarrean bestea. • ES2130011 ARTIBAI: Kontrolgune berri bat, Markinatik behera. • ES2130010 LEA. Bi kontrolgune berri: Oiz errekan eta ardatzaren erdialdean, Aulestitik behera. • ES2110020 EGA – BERRON. Lau kontrolgune berri: Berron ibaiaren goialdean bat, Berrozi errekararekin bat egiten duen lekutik behera; Izki errekararen azken zatian beste bat, Berron ibaiarekin bat egin baino pixka bat lehenago; Berron errekan, Maeztutik eta hondakin-urak arazteko estaziotik behera hirugarrena; eta Lagran udalerraren paretik behera laugarrena.
1.JAR.6	<p>Urtean behin, KBE bakoitzeko txosten espezifiko bat egingo da; bertan, habitataren egoera ekologikoa zehaztuko da, eta, horrelakorik badago, habitataren kutsadura-iturriak eta izan diren aldaketak, bai eta egoera ekologiko ona ziurtatzeko beharrezkoak diren neurri zuzen-tzaileak ere.</p>

KODEA	JARDUERAK IBAIETAN
1.JAR.7	Oztopoak iragazkortzeko ibaietako KBE bakoitzerako proposatzen diren jardueri dagokienez (ikusi Jarduera Mapa), aingirentzako igarobide espezifikoak gehitu behar dira, igarobide multiespezifikoak ez eraikitzea hautatzen den kasuetan –esaterako, alboetan ubideak eraikitzea edo eraiste partzialak egitea–. Gailu horiek instalatzerakoan, ibilguen behealdeetan jartzea da lehentasuneko.
1.JAR.8	KBEaren eragin-eremuan oztopoak iragazkortzeko lehendik dauden gailuen eraginkortasuna ebaluatuko da, eta egokiak ez badira, behar beste neurri hartuko dira KBEaren gunean funtsezko elementutzat hartutako arrain-faunaren eta gainerako espezieen joan-etorria (goranzkoa zein beheranzkoa) ziurtatzeko.
1.JAR.9	Harri-lubetak berriro landareztatzeko proiektuak eta ibaia bideratuta dagoen eremuen ertzetan landaketak egiteko proiektuak jarriko dira abian, ibilguan itzala egin dezaten eta udan izaten diren tenperatura beroen eraginei irtenbidea emateko, ez baitago zuhaitz-landaredirik erriberetan.
1.JAR.10	<p>KBEaren eragin-eremuan oraindik abian jarri ez diren saneamenduko eta arazketako planak jarriko dira abian (2015. urterako EAEko saneamendu- eta arazketa-planari jarraikiz. URA. Uraren Euskal Agentzia).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Araxes: Hondakin-urak arazteko estazioa eraikitzea Lizartzan, bai eta saneamendu-kolektorea ere. Herrigune txikien saneamendua (Txarama, Leaburu, Gaztelu). • Oria Garaia: Zaldibiako saneamenduarekin konexioa, eta herrigune hauen saneamendua: Mutiloa, Gabiria, Altzaga, Arama, Gaintza, Abaltzisketa, Baliarrain eta Orendain. • Barrundia: KBEra isurtzen duten herrigune txikien saneamendua (Aspuru, Hermua, Larrea, Elgea eta Ozaeta). • Ega – Berron: Haranara egiten diren isurketak biltzeko kolektorea. Hondakin-uren ponpaketa-estazioa, Alda industrialdea eta San Vicente de Aranan hondakin urak arazteko dagoen estazioa lotzeko. Lagranen hondakin urak arazteko estazioa eraikitzea. Kolektoreak eta hobi septikoak eraikitzea, arro hartzailearen biztanlegune isolatuetan. • Lea: Munitibar eta Aulesti udalerrien saneamendua. • Artibai: Berriatua – Ondarroa kolektorearen II. fasea, eta Ziortza – Bolivar udalerrien saneamendua hobetzea, biztanlegune isolatuen saneamenduz gain. <p>Halaber, KBEra isurtzen duten herriguneetan dauden arazketa-sistemen funtzionamendua- ren berriazko jarraipena egingo da: Markinako HUAE (Artibai), Maeztuko HUAE (Ega-Berron), Araia-Asparrenako HUAE (Arakil).</p>
1.JAR.11	KBEetan funtsezkotzat hartutako habitaten bilakaeraren jarraipena egiteko protokoloa ezarriko da (6 urtean behin); Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluan xedatutako txostena bidaltzeko nahikoa denbora eduki behar dela hartuko da kontuan.
1.JAR.12	Urarekin zerikusia duten eta eskualde biogeografiko atlantikoko ibaietako KBEetan oso azalera txikia hartzen duten beste habitat batzuen inbentarioa egingo da, eta beharrezkotzat hartzen bada, kartografia xehea ere bai; esaterako, honako hauena: 3150, Laku eutrofiko naturalak Magnopotamion edo Hydrocharition landarediarekin; 3260, Estaia muinotar eta menditarreko ibaiak, Ranunculion fluitantis eta Callitricho-Batrachion landarediarekin; 6430, Lautada-orletako megaforbio eutrofiko hidrofiloak. Habitat horien bilakaeraren aldian aldiko (6 urtean behin) jarraipena egiteko protokolo bat ezarriko da, eta lortutako emaitzak eta uren emari- eta kutsadura-mailak alderatuko dira.

KODEA	JARDUERAK IBAIETAN
1.JAR.13	Berariazko laginketak egingo dira, Batasunaren eta/edo eskualdearen interesekoak diren eta KBEen gunean ibai-ingurunearekin zerikusia duten ornogabeen presentziari buruz gehiago jakiteko. Laginketa horretan, bereziki erreparatuko zaie, hasiera batean, Batasunaren intereseko espezieei; esaterako, <i>Austropotamobius pallipes</i> , <i>Coenagrion mercuriale</i> , <i>Macromia splendens</i> , <i>Oxygastra curtisii</i> , <i>Margaritifera auricularia</i> eta <i>Margaritifera margaritifera</i> espezieei. Halaber, nahiz eta Habitategi buruzko Zuzentarauaren eranskinetan aipatzen ez diren, espezie hauei ere bereziki erreparatuko zaie, arrisku-egoera handian baitaude: <i>Coenagrion scitulum</i> , <i>Calopteryx xanthostoma</i> , <i>Calopteryx haemorrhoidalis</i> , <i>Onychogomphus uncatus</i> , <i>Boyeria irene</i> ...
1.JAR.14	Berariazko laginketak egingo dira, Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean (abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eranskinean) adierazita dauden eta ibai-ingurumenarekin zerikusia duten flora-espezieen populazioak hautemateko, eta beharrezkoa izanez gero, kartografia egiteko; besteak beste, <i>Soldanella villosa</i> , <i>Woodwardia radicans</i> , <i>Trichomanes speciosum</i> eta <i>Culcita macrocarpa</i> espezieena. Horiez gain, ibai-ingurumenarekin zerikusia duten eta arriskupean dauden beste taxon batzuen laginketak ere egingo dira.
1.JAR.15	<p><i>Soldanella villosa</i>, <i>Trichomanes speciosum</i> eta <i>Woodwardia radicans</i> espezieen populazioak monitorizatuko dira aldian-aldian, bai eta KBEaren gunean arriskupean hautemandako gainerako flora-espezieenak ere. Gainera, kontserbazio-egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatetan eragindako perturbazioen diagnostiko bat ere egingo da, populazio horien egoerari eusteko eta/edo haien egoera hobetzeko.</p> <p>Aipatu diren espezie horien kontserbazio-egoerari buruzko ebaluazioa sei urtean behin egingo da, gutxienez, Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluan xedatutako txostena bidaltzeko nahikoa denbora eduki behar dela kontuan hartuta. Arriskupean dauden Espezieen Espainiako Katalogoan edo Euskadiko Katalogoan adierazita dauden espezieei dagokienez, espeziearen estrategiak edo kudeaketa-planak beste aldizkakotasun bat adierazten ez badu, ebaluazioak sei urtean behin egingo dira, gutxienez, espezie «kaltebera» adierazitako espezieak badira, eta hiru urtean behin «galtzeko arriskuan» adierazitakoak badira.</p>
1.JAR.16	<p>KBEetan funtsezko elementutzat hartutako fauna-espezieen populazioen aldizkako jarraipena egingo da, eta egokitzen hartuz gero, kontserbazio-egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatetan eragindako perturbazioen diagnostiko bat ere egingo da, populazio horien egoerari eusteko eta/edo haien egoera hobetzeko.</p> <p>Aurreko paragrafoen adierazitako espezieen kontserbazio-egoerari buruzko ebaluazioa sei urtean behin egingo da, gutxienez, Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluan xedatutako txostena bidaltzeko nahikoa denbora eduki behar dela kontuan hartuta. Arriskupean dauden Espezieen Espainiako Katalogoan edo Euskadiko Katalogoan adierazita dauden espezieei dagokienez, espeziearen estrategiak edo kudeaketa-planak beste aldizkakotasun bat adierazten ez badu, ebaluazioak sei urtean behin egingo dira gutxienez espezie «kaltebera» adierazitako espezieak badira, eta hiru urtean behin «galtzeko arriskuan» adierazitakoak badira.</p>
1.JAR.17	KBEetako habitat naturalek balioa galtzea eragiten duten flora-espezie exotiko inbaditzaileak (batez ere, <i>Fallopia japonica</i> , <i>Buddleja davidii</i> , <i>Arundo donax</i> eta <i>Phyllostachis aurea</i>) desagerrarazteko jarduerak eta haien aldizkako jarraipena egiteko jarduerak gauzatuko dira. Horretarako, habitat naturalen egiturari eta funtzioei kalterik eragingo ez dieten metodoak erabiliko dira. Makinak erabili eta fumigatze estentsiboak egin ordez, eskuz egiten diren teknikak eta tokian tokiko fumigatzeak egingo dira. Espezie horiek desagerrarazteko jarduerak floran adituak direnek kontrolatuko dituzte. KBE bakoitzerako proposatutako guneak Jarduera Mapan adierazita daude.
1.JAR.18	Fauna-espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena egiteko eta haiek desagerrarazteko jarduerak jarriko dira abian aldian-aldian; lehentasuna izango dute funtsezko elementutzat hartutako espezieekiko eragin potentzial handiena duten espezieak (bisoi amerikarra, koi-pua, karramarro seinaleduna, karramarro gorria, ganbusia).

KODEA	JARDUERAK IBAIETAN
1.JAR.19	<p>Arriskupean dauden eta ibaietako KBEetako funtsezko elementutzat hartu diren espezie hauen kudeaketa-planak onar daitezen sustatuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izokin arrunta. - Uhandre piriniotarra. - Ibai-karramarro autoktonoa. - Martin arrantzalea. - Errutilo hegatsgorria. - Desman piriniotarra, Araban. - <i>Woodwardia radicansa</i>. - <i>Soldanella villosa</i>. - <i>Trichomanes speciosuma</i>.
1.JAR.20	<p>KBEan dagoen ibaietako hegazti-faunaren (ur-zozoa, uhalde-enara eta martin arrantzalea) habitata hobetzeko jarduerak garatzeko proiektuak sustatuko dira (proiektu bat, KBE bakoi-tzean). Proiektuek zeregin hauek hartuko dituzte beren baitan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jarduera zein gunetan behar den identifikatzea. • Jarduerak zehaztea. • Proiektuak abian jartzea.
1.JAR.21	<p>Ibai-korridorea kontserbatzeak duen garrantziari buruzko ingurumen-heziketako eta -sentsibilizazioko jarduerak garatzea eremu horretan dauden ikastetxeetan, nekazarien elkartean eta basogintzako elkartean.</p>
1.JAR.22	<p>KBEetan funtsezko elementutzat hartutako espezieen habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idaztea eta hedatzea, bereziki espezie hauena: bisoi europarra, desman piriniotarra, ibai-karramarro autoktonoa eta Batasunaren intereseko flora-espezieak.</p>
1.JAR.23	<p><i>Ur-ekosistemak lehengoratzeko plan zuzentzailea</i> idaztea, EAEko plangintza hidrologikoan aurreikusitakoa.</p>

Jarduerak estuarioetan

Euskadiko barne-arroetako gai garrantzitsuen eskeman, Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluak 2010eko maiatzaren 19an egindako bilkuran onartutakoan, zehaztutako jardueraildoekin bat egiteko, gaur egun drainatuta dauden edo betelana egina duten garai bateko hezeguneen eta lehengoratzeko aukera dutenen ingurumena berreskuratzeko jarduerak sustatuko dira. Dokumentu horretan adierazitakoari eta EAeko hezeguneetarako LAPean xedatutakoari jarraikiz, alderdi hauek bere baitan hartuko dituen jardueraildo bat abian jartzea proposatzen da: *lurzorua-ren eskuratze publikoak eta hezeguneen ingurumena lehengoratzeko proiektuak gauzatzea; horrez gain, behar beste azterketa eta azterlan egitea, gauzatu beharreko jarduerak behar bezala definitzeko. Proiektu horiek idazteko irizpide orokorra, ahal del neurrian, ekosistemak jatorrian zituen ezaugarriak berreskuratzea izango da: gizakiak esku hartu aurretik zituen ezaugarriak berreskuratzea.*

KBE bakoitzerako helburu eta neurri partikularrei buruzko 2. dokumentuan, estuario-eremuko KBE bakoitzerako proposatzen diren berariazko lehengoratzeko jarduerak zehaztu dira.

Bestalde, ibaietan gauzatu beharreko jardueretarako adierazi bezala, zaintza-akordio horiek kudeaketa-esparru egokiak izan daitezke 2.JAR.4, 2.JAR.5, 2.JAR.6, 2.JAR.7, 2.JAR.8, 2.JAR.10 kodea duten jardueretarako.

KODEA	JARDUERAK ESTUARIOETAN
2. JAR.1	<p>Itsasadarraren ertzen ingurumena eta paisaia berreskuratzeko proiektuak sustatuko dira KBEaren eremu guztian. Hiri-lurzoruak edo azpiegiturek mugatutako eremuak kontuan hartzeaz gain, erriberako landaredia garatzea baldintzatzen duten belardiek, laborantzek eta baso-landaketek hartzen dituzten ibai-erriberak ere hartuko dira kontuan (ikusitako Mapa). Lehendabiziko eremuei dagokienez, trantsizio-eremuak sortzea izango du xede proiektuak, hirigintzako erabilerekin eragin ditzaketen kalteentzako babes-pantailak edukitzeko. Bigarren eremuei dagokienez, erriberako landaredi naturala lehenera ekartzea izango du xede proiektuak; horretarako, habitat naturalak eta korridore ekologikoak gara daitezzen bultzatuko da.</p> <p>Jarduera-eremu hauek dute lehentasuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> Urola: Hiri-lurzorua (Korta poligonoa) edo azpiegituren (N-634 eta GI-3760 erre-pideak, trenbidea, bideak, etab.) mugako zonaldeetan trantsizio-eremuak sortzea, zuhaitz-landaketak berriro eginda. Izan ere, hala, babes-pantaila bat eratuko da paduretako gunetan eragin daitezkeen kalteak txikiagoak izateko. Halaber, Korta poligonotik gora eta KBEaren eremua hasten den zatirainoko estuarioaren bi ertzetan erriberako landaredia lehengoratzeko. Oria: Itsasadarraren eskuinaldeko ertza, hiri-lurzorua mugako zonaldeetan (Anibarko portua, Ortzai) eta Sariako ekialdetik gora eta eremuaren mugarainoko belardiek eta soroek hartzen duten zonaldeetan. Ezkerraldeko ibai-ertzean, Itzaoko ibarretik gora KBEaren eremuraino. Horrez gain, Marrota, Izoztegi eta Aginaga parereko erriberetan ere egingo dira jarduerak, padura funtzionala berreskuratzen ez den erribera-tarteetan, landatuta dauden zonaldeen mugetan.
2. JAR.2	<p>EAeko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sareak lortutako datuen jarraipena, sare horretako estuario-estazioei dagokienez. Urtero, berariazko txosten bat egingo da KBE bakoitzeko. Egoera ekologikoren bat «Ona» kalifikazioa baino kaskarragoa bada, hori hala zergatik den aztertuko da, eta beharrezkoa izanez gero, egoera horri irtenbidea emateko berariazko neurriak proposatuko dira.</p> <p>Aipatutako sare horretan lehendik dauden laginketa-estazioei beste kontrolgune bat gehituko zaie, Iñurritza itsadarrean, KBEaren barruan.</p>

KODEA	JARDUERAK ESTUARIOETAN
2. JAR.3	<p>KBEaren eragin-eremuan oraindik abian jarri ez diren saneamenduko eta arazketako planak jarriko dira abian, eremu horretako isurketak desagerrarazteko. Horretarako, sare orokorrera bideratuko da eta ura araztuko da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oria itsasadarra: Santiago eta Altxerri erreketara isurtzen duten biztanlegune txikien saneamendua, eta Aginaga eta San Esteban auzoen saneamendua osatzea. - Urola: Oikia eta Artadi auzoen saneamendua.
2. JAR.4	<p>KBEetako habitat naturalek balioa galtzea eragiten duten estuarioetako flora-espezie exotiko inbaditzaileak (batez ere, <i>Bacchais halimifolia</i>, <i>Stenotaphrum secundatum</i>, <i>Spartina alterniflora</i> eta <i>Spartina patens</i>) desagerrarazteko jardueren eta haien aldizkako jarraipena egiteko jardueren programa bat egingo da. Horretarako, habitat naturalen egiturari eta funtzioei kalterik eragingo ez dieten metodoak erabiliko dira (ikusi Jardueren Mapa). Makinak erabili eta fumigatze estentsiboak egin ordez, eskuz egiten diren teknikak eta tokian tokiko fumigatzeak egingo dira. Espezie horiek desagerrarazteko jarduerak floran adituak direnek kontrolatuko dituzte.</p>
2. JAR.5	<p>Estuarioan dauden paduretako habitaten (1110, 1130, 1140, 1220, 1310, 1320, 1330 eta 1420) jarraipena egitea (sei urtean behin), hartutako azaleran gertatutako aldaketen eta azaleraren bilakaeraren balorazioa, habitaten arteko loturaren balorazioa eta horietako bakoitzaren egitura-bilakaeraren balorazioa egiteko. Horretarako, behin betiko estazioak jarriko dira, kontserbazio-egoeraren bilakaerari buruzko azterlana egin ahal izateko. Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluan xedatutako txostena bidaltzeko nahikoa denbora edukitzeko moduan egingo da ebaluazio hori.</p>
2. JAR.6	<p>Dunetako habitaten (110, 2120, 2130*) jarraipena egitea (sei urtean behin), bai eta 4040* habitatarena ere (Atlantikoko eta Baltikoko kostaldeetako landaredia duten itsaslabarrak), hartutako azaleran gertatutako aldaketen eta azaleraren bilakaeraren balorazioa, habitaten arteko loturaren balorazioa eta horietako bakoitzaren egitura-bilakaeraren balorazioa egiteko. Horretarako, behin betiko estazioak jarriko dira, kontserbazio-egoeraren bilakaerari buruzko azterlana egin ahal izateko.</p>
2. JAR.7	<p>Hondartzak garbitzeko eta itsasaldiek ekarritako eta utzitako hondakinak aldi-aldi kantzeko lanak bateragarriak izango dira 1220 habitata (<i>Itsasoko hondakin-metaketetan hazten den landaredi iragankorra</i>) garatzen den eremuetako zaintza-lanekin; izan ere, EAEn oso gutxi dauden zenbait flora-espezierekin lotura du habitat horrek. Horretarako, hautematen diren eremuak balizatu egingo dira, eta adierazitako zaintza-jarduerak justifikatzen dituzten inguru-balioen berri emateko jarduerak jarriko dira abian.</p>
2. JAR.8	<p>Arriskupean dauden eta KBEaren gunean dauden flora-espezieen populazioak monitorizatu dira aldi-aldi. Gainera, kontserbazio-egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatetan eragindako perturbazioen diagnostiko bat ere egingo da, populazio horien egoerari eusteko eta/edo haien egoera hobetzeko.</p> <p>Aipatu diren espezie horien kontserbazio-egoerari buruzko ebaluazioa sei urtean behin egingo da, gutxienez, Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluan xedatutako txostena bidaltzeko nahikoa denbora eduki behar dela kontuan hartuta. Arriskupean dauden Espezieen Espainiako Katalogoan edo Euskadiko Katalogoan adierazita dauden espezieei dagokienez, espeziearen estrategiak edo kudeaketa-planak beste aldizkakotasun bat adierazten ez badu, ebaluazioak sei urtean behin egingo dira, gutxienez, espezie «kaltebera» adierazitako espezieak badira, eta hiru urtean behin «galtzeko arriskuan» adierazitakoak badira.</p>
2. JAR.9	<p>Estuarioetako KBEetan funtsezko elementutzat hartutako fauna-espezieen populazioen monitorizazioa eta jarraipena aldi-aldi egingo da, eta kontserbazio-egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatetan eragindako perturbazioen diagnostiko bat ere egingo da, populazio horien egoerari eusteko eta/edo haien egoera hobetzeko.</p>

KODEA	JARDUERAK ESTUARIOETAN
	Aipatu diren espezie horien kontserbazio-egoerari buruzko ebaluazioa sei urtean behin egingo da gutxienez, Habitategi buruzko Zuzentzararen 17. artikuluan xedatutako txostena bidaltzeko nahikoa denbora eduki behar dela kontuan hartuta. Arriskupean dauden Espezieen Espainiako Katalogoan edo Euskadiko Katalogoan adierazita dauden espezieei dagokienez, espeziearen estrategiak edo kudeaketa-planak beste aldizkakotasun bat adierazten ez badu, ebaluazioak sei urtean behin egingo dira, gutxienez, espezie «kaltebera» adierazitako espezieak badira, eta hiru urtean behin «galtzeko arriskuan» adierazitakoak badira.
2.JAR.10	Hegazti-faunari dagokionez, habia hemen egiten duten eta negua hemen igarotzen duten hegaztien urteroko errolda-kanpaina egun egiten den bezala egiten jarraituko da. Horrez gain, estuarioan habia egiten duten hegazti-populazioen kontserbazio-egoeraren eta bilakera demografikoaren diagnostiko bat egingo da, bai eta haien habitatetan eragindako perturbazioen analisi bat ere, populazio horien egoerari eusteko eta/edo haien egoera hobetzeko.
2. JAR.11	Urtero azterlan bat egingo da, estuarioek itsas hegaztientzat duten garrantzia baloratzeko. Estuarioetako bakoitzean errolda sistematikoak eta estandarrak egingo dira hamabostean behin, urtebeteko epean, ekainetik hurrengo urteko maiatza bitartean.
2. JAR.12	Fauna-espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena egiteko eta haiek desagerrarazteko jarduerak gauzatuko dira aldian-aldian (karramarro seinaleduna, karramarro gorria, koipua, ganbusia eta beste batzuk).
2. JAR.13	<p>Arriskupean dauden eta estuarioetako KBEetako funtsezko elementutzat hartu diren espezie hauen kudeaketa-planak onar daitezten sustatuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hegazti-fauna: Lezkari arrunta, benarriz gorritzta, txirritxi txikia eta mokozabala zuria. - Arantzarraina. - Apo lasterkaria. - <i>Alyssum loiseleuria</i>. - <i>Festuca vasconensis</i>. - <i>Galium arenarium</i>. - <i>Medicago marina</i>. - <i>Solidago v. macrorrhiza</i>. - <i>Limonium humilea</i>. - <i>Barlia robertiana</i>. - <i>Matricaria maritima</i>. - <i>Epipactis phyllanthesa</i>. - <i>Zostera noltia</i>.
2.JAR.14	Estuario-sistema kontserbatzeak duen garrantziari buruzko ingurumen-heziketako eta -sentsibilizazioko proiektu bat garatzea, ikastetxeentzat, tokiko administrazioko teknikari-entzatzat, lehen sektoreko elkarteentzat, ingurumenarekiko interesa dutenentzat eta eremu horrekiko interesa duten beste gizarte-eragile batzuentzat.
2.JAR.15	Ingurumen-heziketako eta natura interpretatzeko proiektu bat egitea KBEaren alorrean. Horretarako, hegazti-faunaren ugaltoki ahulenetara eta haiek negua igarotzen duten tokietara sartzeari debekatuko da, bai eta eremu horretan arrisku handien duten flora-habitata eta flora-espezieak dauden tokietara sartzeari ere, eta ordezko beste ibilbide batzuk egingo dira. Horrez gain, estuario-sistemako eremu garrantzitsuenen eta haiek dituzten natura-balio garrantzitsuenen behatokiak eta dibulgaziorako panelak jarriko dira. Halaber, erabilera publikoa kudeatzeko programa bat ere hartuko du bere baitan proiektuak, herritarrek beren borondatez KBEa zaintzen parte har dezaten sustatuko duena
2.JAR.16	Estuarioei 1.JAR.23 neurria ere aplikatuko zaie, <i>EAEko ur-ekosistemak lehengoratzeko plan zuzentzailea</i> idazteari buruzkoa.

GEHIAGARRIA**Ibaien arteko lotura hobetzeko gailuen proiektuak bere baitan hartu behar duen gutxieneko edukia**

Ibaien arteko lotura lortzeko gailuak jartzea xede duten proiektuek alderdi hauek hartu behar dituzte kontuan:

- a) Helburutzat hartutako espezieak eta zehaztea zein diren espezie horien desplazamendu- edo migrazio-garaiak dagokion ibai-tartean, bai eta zer garaitan diren migrazio edo desplazamendu gehien ere.
 - Ibai-tarte horretan dauden edota egon daitezkeen espezieei buruzko laginketak eta datu fidagarriak kontsultatzea.
 - Espezie bakoitzak igeriketarako, jauzirako eta desplazamendurako duen gaitasuna definitzea, bai eta zer joera duen ere; horretarako, baldintza mugatzaileenak hartuko dira kontuan.
 - Zehaztea migrazio- edo desplazamendu-garaiak zein diren dagokion ibai-tartean.
- b) Igarobiderako gailua kokatzerakoan aintzat hartzea ibaiaren ezaugarriak, helburutzat hartutako espezieak eta ibai-tarte horren morfologia (deiak egiteko eremua, irteteko eremua, ibai-ertzetatik gailua dagoen tokira joateko baldintzak).
- c) Ur-emarien analisiak.
 - Ur-emarien serieak biltzea egunero.
 - Dagokion ibai-tartean izango diren emariak kalkulatzeko, kendu beharreko emarien erregimena aurreikustea eta kuantitatiboki zehaztea migrazio- edo desplazamendu-garaietan arrainak igarotzeko emari egokiena.
- d) Dikeen edo arrapalen neurriak edo ibai artifizialak justifikatzea. Hain zuzen:
 - Xurgatutako energia edo fluxu-abiaduren ezaugarriak, helburutzat hartutako espezieen, eta barreguneen, dikeen eta antzekoen arteko jauzien baldintzei dagokienez, besteak beste.
 - Sakonerak ibilguan.
 - Dikeen arteko isuri-mota. Ziprinidoentzat iragazkortu behar bada, isuri-mota «erdimurgildua» izango da derrigorrean, eta urpean ere zuloak edukitzea ere derrigorrekoa izango da.
 - Ibaiak dituen gora-beheretarako egokiak diren emarientzako jauziaren funtzionamendu orokorra (eguneroko seriearen 25 eta 75 perzentilentzako gutxieneko baliozkotasuna). Ura dikean sartzeko, isuria erregulatzea beharrezkoa den ala ez justifikatzea.
- e) Eraikitze sistema definitzea (sarbideak, ur-agorrek, mteknikak, lehendik zeuden presa txikiak zati batean botatzea, etab.).
- f) Ondorioen analisiak eta prebentziozko neurrien eta neurri zuzentzaileen proposamenak.
- g) Beheranzko migrazio-mugimenduak bultzatzeko eta ubidearen sarrerako harguneko adar hodietan arrain-fauna ez sartzeko, beharrezko hesiak instalatu behar dira (barren artean 2 zentimetroko argia duten burdin hesiak, hesi sonikoak, etab.), eta beharrezkoa izanez gero, by-pass egoki bat jarriko zaio gailuari, fauna ibaira itzul dadin.

II. ERANSKINA

ES2130003 BARBADUNGO ITSASADARRA/RÍA DE BARBADUN KONTSERBAZIO
BEREZIKO EREMUAREN HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK**FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA JARDUERAK**

Hurrengo tauletan, Barbadungo itsasadarra/Ría de Barbadun KBEan kudeaketarako funtsezko-tzat jotzen diren elementuetariko bakoitzarentzat proposatzen diren kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da, ondorengo internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

ESTUARIOA (EBko 1130 KODEA)**Justifikazioa**

Estuarioak itsasoko eta ibaietako inguruneen artean dauden natura-sistema garrantzitsuak dira, eta ekosistema emankorrenetakoak dira. Birsortzeko gaitasun handia dute.

Estuarioetan dagoen itsasaldi-dinamika oso aldakorra da; izan ere, sedimentazio- eta higadura-prozesuak ezin dira aurreikusi eta era askotako inguruneak eta habitatak sortzen dituzte. Aldakortasun horri esker dute, hain zuzen ere, halako interes handia biodibertsitatearen ikuspegitik.

Estuarioek lotura-funtzio garrantzitsua dute beste estuario batzuekin (hegazti-fauna migratzaileari eta negutarrari dagokionez) eta ibai-ekosistemarekin. Flora- eta fauna-biodibertsitate handia dute.

Barbadungo estuarioak balio ekologiko garrantzitsuak ditu oraindik ere, eta bertako eremu batzuetan, estuario-ekosistemak lehengoratzeko potentzialtasuna handia da. Eremu horretan, Batasunaren intereseko hainbat habitat daude, eta erlazio eta lotura estua dute elkarrekin.

Sistema horiek naturagune garrantzitsuak dira kostaldeko habitatak eta landaredi halofiloa kontserbatzeko. Barbadunen, zehazki, hauek dira: 1110, *Sakonera txikian itsas urek etengabe estaltzen dituzten hondar-bankuak*; 1130, *Estuarioak*; 1140, *Ordoki lohitsuak edo hareatsuak, itsasbeheran urpean geratzen ez direnak*; 1310, *Urteroko landaredi aitzindaria, Salicornia generoko espezieez eta eremu lohitsu eta hareatsuetako beste espezie batzuek osatua*; 1320, *Spartina generoko espezieen belardiak* (populazioa oso oso txikia da); 1330, *Paduretako belardi-ihidi halofiloak*; eta 1420, *Paduretako sastrakadi halofiloak*. Habitat horietako gehienak urriak dira EAEn, baina haietako batzuek adierazle dezente dute Barbadunen.

Estuario-sistema horretan, eskualdearen intereseko espezie ugari dago, Arriskupean dagoen Floraren eta Faunaren Euskadiko Katalogoan ageri direnak (haietako batzuek arrisku handia dute, eta oso gune gutxitan daude Euskadin). Gainera, eremu horrek nahiko baldintza egokiak ditu populazio horiek gara daitezen.

Paduretako landaredi baskular bereizgarriari dagokionez, estuario honetan 73 espezie aipatu dira. Haietako 18 hezegune halofiloetako espezie esklusiboak dira, bai itsasertzekoak, bai barnealdeko kubeta endorreikoetakoak. Beste 10 espezie itsasertzeko espezie esklusiboak dira, baina kostaldeko beste ekosistema batzuetan ere ageri dira; esaterako, dunetan eta itsas labarretan.

Gainera, estuarioak oso garrantzitsuak dira hegaztien migrazioetarako, negua igartzeko eta atseden hartzeko eremuak baitira kolonia askorentzat. Barbadungo estuarioa ere lagungarria da Kantauriar itsasertzeko beste estuario batzuekiko loturarako, atseden hartzeko eta elikatzeko lekua baita espezie ugarentzat. Funtzio garrantzitsua du, halaber, Europako iparraldeko hegaztien negupasarako.

Kontserbazio-egoera

Gaur egun, estuario honek jatorrian zuen azaleraren % 19 soilik dago kontserbatuta (Rivas eta Cendrero, 1992); gainerakoa galdu egin da, gizakiaren jarduerak eraginda (bereziki aipagarria da 70eko hamarkadan petrolio-industriek hartutako eremua).

Itsasaldi-dinamikak eremu honetan eratu duen estuario-sisteman, uhartetxoak, mareen arteko eta mareen gaineko ordokiak eta hondar-bankuak sortu dira. Gainera, hondartzarekiko mugan, duna-eremu bat dago; duna horietako batzuk egonkortuta daude. Dunek 6 m-ko altuera dute hondartza dagoen mailatik gora, eta haien morfologia apur bat bizkartua da. Eremu horren erdigunean, zenbait itsasaldi-kanal daude. Barbadun ibaiaren ibilgu nagusiak ohantze hareatsu-lohitsua du, 2,5 m-ko batez besteko zabalera duena.

Eremu horretan egiten ari diren jarduerari esker (CLH enpresaren instalazioak kentzea, materialak deskutsatzea eta lehengoratzea), aldaketa handia eragingo da haren morfologian: itsasaldiek estalitako azalera handitu egingo da, bai eta kanal-sarea eta ondoko duna-sistemaren hedadura ere. Horren bidez, estuario-sistema osoaren funtzionaltasuna hobetuko da eta ingurune-dibertsitatea areagotuko da.

Urteetan zehar eraldaketa handia izan duen arren, Barbadungo estuario-sistema balio ekologiko handiko eremua da. Izan ere, eremu txikia izanik ere, estuario-inguruneetako ekosistema bereizgarrien adierazle bikainak ditu.

Eremuaren azalera nahiko handia da, eta haren dinamikak nahiko egoera onean iraun duela esan daiteke. Eta egoera hobetzea lortuko dela uste da, aurreikusitako lehengoratze-planak gauzatu gero.

Bestalde, eremu horretan presioak eta arriskuak handiak dira, pertsona asko ibiltzen baitira -batik bat, udan-, eta jende asko bainatzen baita eremuaren iparraldean dagoen hondartzan.

Eremuan dauden habitatei dagokienez, eta onartutako definizioen arabera, 1130 habitata (Estuarioak) estuario-sistemak hartzen duen azalera osoari dagokio, Batasunaren intereseko gainerako padura-habitatak barne. Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioaren (2009) *Espanian Batasunaren intereseko habitat-motak kontserbatzeko aurretiko oinarri ekologikoak* argitalpenari jarraituz, eta EAEko trantsizio-uren eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sareak (Eusko Jaur-larritza) emandako datuak aintzat hartuta, honela zehaztu daiteke Barbadungo estuarioaren kontserbazio-egoera:

	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Estuario-sistema honetako habitat adierazgarriena 1420 habitata da: *Paduretako sastrakadi halofiloak*. 9,14 ha-ko azalera betetzen du; hau da, eremuaren azalera osoaren % 20. Habitat horren egitura eta kontserbazio-egoera onak dira, eta batik bat Areñoko paduran ageri da: marea arteko eta marea gaineko uhartetxo lohitsueta eta kanal nagusiaren ertzeko lurzoru istiltsuetan, eremuaren ekialdean batez ere. Pobeñan ere badago habitat hori, 2,5 metroko altuera eta 325 metroko perimetroa duen harresi batez mugatutako gunean.

Gainerako habitatak askoz urriagoak dira:

- 1110 habitata. Habitat hori ziur asko badago eremu honetan, baina ezin daiteke kartografiatu KBE honetako habitat-moten mapa egiteko erabili diren ohiko metodoen bidez; izan ere, etengabe urpean dauden hondar-bankuez eta hondo hareatsuez osatuta dagoen habitat-mota bat da. AZTI Fundazioak Eusko Jaur-laritzarentzat egindako *EAEko kontinente-plataformako habitaten mapak eta itsas hondoen ezaugarritzea* txosteneko datuen arabera, ia ez dago habitat-mota horren adierazlerik eremu honetan. Habitat honen eta kontinente-plataformako itsas hondoko beste intereseko habitat batzuen kokapena eta mugapena ongi zehazteko, beharrezkoa da berariazko ikerketak egitea, komunitateen ezaugarritzea zehatz-mehatz egin ahal izateko.

- Ordoki lohitsuak (1140 habitata) eremuaren % 7,02 hartzen dute. Hauek dira habitat-mota horren banaketa-eremu nagusiak: Areñoko padurako eta Pobeñako itsasaldi-kanalak, kanal nagusiaren ertzak eta bokalearen eremua. Azalera hori baino handiagoa izan daiteke agian, eremuaren airetiko argazkia egin zenean itsasbeheraren egoera nolakoa zen aintzat hartu behar baita.
- 1310 habitata (Urteroko landaredi aitzindaria, *Salicornia* generoko espezieez eta beste espezie batzuek osatua) oso urria da. Barbadunen, habitat horretako espezie nagusiak *Salicornia ramossisima* eta *Suaeda maritima* dira.
- *Spartina* generoko espezieen belardiak (1320 habitata) ez dira kartografiatu Barbadunen; Areñoko paduraren mendebaldeko eremuan soilik dago *Spartina maritima* espeziearen populazio txiki-txiki bat.
- 1330 habitata (Larre gazi atlantikoak) dagokionez, leku gutxietan ageri da habitat puru gisa; eskuarki, 1420 habitatarekin nahasita ageri da. KBE honetan, bi unitate kartografiatu dira, 1,14 ha-ko azalera dutenak; hau da, KBEaren azalera osoaren % 2,3. Bi unitate horietako handiena dunetako habitaten eta CLHren antzinako instalazioetan betelana egindako eremuaren artean dago. Horrez gain, beste gune txiki bat identifikatu da kanal nagusiaren ezkerreko ertzean, A-8ko zubibidearen iparraldean.

Habitat horien kontserbazio-egoerari buruzko informazioa dokumentu honen eranskinean dago, KBE honetako elementu bereizgarri eta adierazgarri bakoitzaren kontserbazio-egoerari buruzko fitxan.

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

Hauek dira adierazitako helburuak lortzeko baldintzatzaile nagusiak, estuarioaren funtzionaltasunari eragiten diotenak edo eragin diezaioketenak:

- KBEan uraren kalitatea hondatzea, aldizkako isurpenengatik (701). Dena dela, isurpen horiek ez dira oso baldintzatzaile kaltegarriak. Izan ere, estuarioa itsas eta ibai arteko eremua izanik, haren dinamikak bide ematen du ur-trukatzea etengabea izateko. Hala ere, badira kontuan hartu beharreko arazo batzuk, sistemaren egoera ekologiko ona bermatze aldera. Estuarioaren beheko tartean, noiz edo noiz isurpenak egiten dira, hondakin-uren araztegitik –dirudienek batzuetan ez du ongi funtzionatzen– eta petrolio-industrietatik, bai eta abeltzaintza intentsiboko jarduerengatik; azken horrek mantenugai-ekarpen zehaztugabea egiten du.
- Uda-garaian, aisialdiko jarduerak direla eta, eremuan presio handia izatea (620, 720).
- Aisialdirako instalazioak egotea sistemaren barnean eta haren ingurune hurbilean (600, 620, 690).
- CLHren antzinako instalazioek padurari kendutako eremuak lehengoratzeko proiektuari dagozkion lanak egitea (890).
- BI-3794 eta BI-3796 errepideak. Bi errepide horiek KBEtik hurbil igarotzen dira, eta tarte batzuetan ia ez da lekuri geratzen bide horien eta ibilguaren artean zuhaitzak landatzeko; batez ere, eskuineko ertzean. Proposatutako jarduerak egitean, kontuan hartu beharko dira zortasun-zonak (502).
- Itsas lehorreko jabari publikoan dauden era askotako eraikuntzak eta instalazioak (690).
- Azpiegiturek eremua zeharkatzeak erabilera-zortasuna dakar, eta landarediaren jarraitutasuna baldintza dezake:
 - A-8ko zubibidea (507).
 - A-8arekiko loturan, araztegiaren hegoaldean, Barbadun ibaiaren gainean dagoen zubia (507).
 - BI-3796 errepidean Barbadun ibaiaren eta Haraneko errekairen gainean dauden zubiak (507).
 - Linea elektrikoak. Linea elektriko batek zeharkatzen du KBEa, eta beste bat ezartzea aurreikusi da (511).

- Pobeñako oinezkoentzako pasealekua eta gune horretatik hondartzara arteko oinezkoentzako pasabidea (509).
- Areñon, eremua itsasaldietan urpean geratzea eragozten duten elementuak daude (dikeak, pezoiak) (870).
- Areñoko landazabala jabetza pribatukoa da gehienbat. Jabetza pribatukoa izateak zaildu egiten du kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurriak aplikatzea, eta, beraz, jabeen eta erakunde publikoen arteko akordioak eta konpromisoak bultzatuko dituzten formulak bilatu behar dira (kontratu bidezkoak nahiz borondatezkoak), edo zenbait lursail erosi beharko dira.

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

KBEan aplikagarriak dira, besteak beste, araudi hauek:

- Kostaldeein buruzko Legea eta hura garatzeko araudia.
- EAEko Hezeguneak Babestu eta Antolatzeako Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeako Lurraldearen Arloko Plana.

Aipatutako eremuan, bertako natura-balioak kontserbatzeko jarduerak egiten ari dira, edota egitea aurreikusi da.

- Muskizen, Arenako hondartzaren inguruan, CLH, S.A. enpresak hartutako itsas lehorreko jabari publikoaren eremuan dauden instalazioak kentzea eta eremua lehengoratzeta. Kostaldea eta Itsasoa Iraunarazteko Zuzendaritza Nagusia (Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneako Ministerioa) 2007. urteaz geroztik ari da jarduera horri aurrera eramaten. Jada kendu dira enpresa horren instalazioak, eta lurzorua deskutsatu da. Eremu horretako Ingurumena eta Paisaia Lehengoratzeko Proiektua gauzatzea falta da.
- Arenako hondartzako itsasertzaren antolamendua. Kostaldea eta Itsasoa Iraunarazteko Zuzendaritza Nagusiak (Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneako Ministerioa) badu horretarako proiektu bat, jarduera hauek aurreikusten dituena: hondartzako instalazioak itsasertzari dagokion eremuaren mugaraino atzeratzea; dunez, belardiez eta padurez osatutako naturagunea lehengoratzeta; oinezkoentzako bideen sare bat eraikitzea; itsas lehorreko jabari publikoan dauden aparkaleku batzuk kentzea; eta piknik-gune gisa erabiltzen den belardiaren ondoko aparkalekua beregokitzea.
- Bizkaiko itsasertza mugarriztatzea eta bertako landare inbaditzaileak kentzea. Kostaldea eta Itsasoa Iraunarazteko Zuzendaritza Nagusia (Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneako Ministerioa). Itsasadarraren ezkerreko ertza mugarriztatuta dago jada, eta eremu horretako *Cortaderia selloana* espeziearen populazioen zati handi bat kendu da.
- Bizkaian izokin arrunta berreskuratzeko plana. Bizkaiko Foru Aldundia 1997. urtetik ari da lurralde horretako zenbait ibaitan izokin arrunta berreskuratzeko plana aurrera eramaten; besteak beste, Barbadun itsasadarrean urak isurtzen dituen Agüera ibaian.
- Bada KBE honetan zuzenean eragiten duen beste proiektu bat ere: 440 kW-eko Penagos-Gueñes linea elektrikoaren sarrera eta irteera Abantoko azpiestazioan, Mello mendiaren (Muskiz) eta Murrietaren (Abanto) artean. Linea horren 10. eta 11. bermapuntuen arteko tartea eragina du estuarioan.

Eusko Jaurlaritzak, Uraren Euskal Agentziaren (Uragentzia) bidez, Barbadungo estuarioaren egoera ekologikoaren jarraipena egiten du, EAEko trantsizio-uren eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarearen barnean. Sare hori 2004. urtean hasi zen lanean, eta KBE honetan bi estuario-estazio daude, egoera ekologikoa aztertzeko, Uraren Esparru Zuzentarauaren irizpideei jarraituz, eta analisi biologikoak, fisikokimikoak eta hidromorfologikoak eginez.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	<p>Funtsezko elementu horretarako helburu nagusia da estuarioaren funtzionaltasun osoari eustea, hura kontserbatzea eta lehengora ekartzea, intereseko hainbat espezie dituzten askotariko ekosistemen eremua den aldetik. Horregatik aintzat hartuko da KBEan dauden Batasunaren intereseko habitaten eta espezien kontserbazio-egoera, eta nola laguntzen dioten estuario-sistemako funtzionaltasunari eusten.</p> <p>Egokiena da estuarioan dauden habitatak modu bateratuan kudeatzea, eta osatzen duten sistamarako helburuak, araudiak eta jarduerak definitzea; nolnahi ere, habitat bakoitzerako berariazko neurriak ere proposatu dira.</p> <p>Beraz, proposatuko diren jarduerak xede hauek izango dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Estuarioaren erregimen hidrologiko naturala eta haren dinamika bermatzea eta mantentzea, lehengoratzen laguntzeko. - Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea. - Eremuaren azalera handitzea, haren potentzialtasunaren mailarik gorenera, eta haren funtzionalitatea hobetzea. - Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea. - Uren kalitatea bermatzea. - Pertsonak habitat horietarako duten sarbidea eta irisgarritasuna mugatzea, aisialdiko jarduerak eta hirigintza-presioa kontrolatuz. <p>Neurri horiek eremuan dauden espezieei mesede egingo diete, haien habitaten kontserbazio-egoera hobetzea baitute xede.</p>
1. helburu operatiboa	Estuarioaren erregimen hidrologiko naturala eta haren dinamika bermatzea eta mantentzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak eta neurriak; batik bat, 9.A.2 araudia, eta 2.JAR.7 jarduera, itsasaldiek ekarritako eta utzitako hondakinak kentzeko lanekin loturikoa.
2. helburu operatiboa	Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea
Jarduerak	Aplikagarriak dira estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak eta neurriak; batez ere, 2.J.8 jarraibidea, pezoiak egokitzeari edo kentzeari buruzkoa; 2.JAR.4 jarduera, flora exotiko inbaditzailearen aldi behingo jarraipenarekin eta errotik kentzearekin lotua; eta 2.JAR.5 jarduera, zenbait habitaten (1130, 1140, 1310, 1320, 1330 eta 1420) kontrolari buruzkoa.
3. helburu operatiboa	Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea
Jarduerak	JP1. CLHren eremuan aurreikusitako berritze-proiektuak gauzatzea. Jarduera hori Kostaldearen Zuzendaritza Nagusiak sustatzen du. Enpresa horren instalazioek duela gutxi arte hartzen zuten 16 ha-ko eremu bati dagokio. Helburua da ahalik eta azalerarik handienean paduraren egoera lehengoratzea, eta berreskuratu nahi diren hegazti-espezieetan eta habitatetan eragin kaltegarria sor dezaketean erabilerak eragozteak.

4. helburu operatiboa	Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea
Jarduerak	<p>Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta dinamika bermatzeko neurriak ere aplikagarriak dira, itsasaldi-dinamikak berak ekar dezan paduretako berezko espezieen populazioak modu naturalean berrezartzea.</p> <p>Morfologia eta funtzioak lehengoratzeko aurreikusitako neurriak ere aplikagarriak dira (JP1 eta JP2), sistemaren egitura-konplexutasun eta biodibertsitate handiagoa lortzen lagunduko dutenak.</p> <p>2.JAR.8 eta 2.JAR.10 jarduerak ere aplikagarriak dira, fauna- eta flora-espezieen populazioen jarraipena egitearekin loturikoak, arriskupean dauden espezieak zer egoeratan dauden jakiteko.</p>
5. helburu operatiboa	Uren kalitatea bermatzea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira 2.JAR.2 eta 2.JAR.3 jarduerak, uraren kalitatea kontrolatzeari eta hobetzeari buruzkoak. Zehazki, E-M5 eta E-M10 estazioetako datuei buruzko jarraipena egingo da, bai eta Muskizeko hondakin-urak arazteko estazioak eta Petronorreko instalazioek aldizka egiten dituzten isurpena ere.</p>
6. helburu operatiboa	Aisialdiko jarduerak eta hirigintzaren presioa kontrolatzea
Jarduerak	<p>Aplikagarria da JP1 neurria, trantsizio-eremuak sortzeari buruzkoa.</p> <p>Aplikagarriak dira estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak; batik bat, hauek: 8.J.4 jarraibidea, estuario-inguruneetako eremu hauskorrenetan jendearen sarbidea arautzeari buruzkoa; 7.J.1 jarraibidea, zerbitzu-instalazioak kentzeari buruzkoa, bai airekoak bai lur azpikoak; eta 2.JAR.14 eta 2.JAR.15 jarduerak, ingurumen-heziketako proiektuen garapenari buruzkoa eta erabilera publikoaren kudeaketarako, aintzat hartuta KBEaren gaitasuna eta kontserbatu nahi diren balioak. Proiektu horietan aintzat hartuko da CLHko eraikinetako batean, BI-3494 errepidearen ondoan, padurari eta itsasadarrari buruzko interpretazio-zentro bat egiteko aukera.</p>

DUNA-SISTEMA**Justifikazioa**

Itsasertzeko dunak eta hareatzak oso ekosistema ahulak dira. Bertako ingurumen-baldintza bereziak direla eta (lurzoru mugikorra, gazitasun handia, ur gezarik eza, etab.), sustraiak hondarretan dituzten landareak ia eskusiboak dira eremu horietan, eta interes handikoak. Eremu hareatsu horiek suntsitzen badira, espezie horiek desagertu egiten dira, ez baitute aurrera egiteko beste lekurik.

Barbadungo duna-sistema kostaldeko hareatzekin lotutako habitatak kontserbatzeko natura-eremu garrantzitsuenetako bat da EAEn. Barbadunen, habitat hauek dira: 1210, Itsasoko hondakin-metaketetan hazten den urteroko landaredia; 2110, Enbrioi-duna mugikorrek; 2120, Itsasertzeko duna mugikorrek, *Ammophila arenaria* espeziearekin; eta 2130*, Itsasertzeko duna finkatuak, belar-landaredidunak. Habitat horiek ematen diote garrantzia sistemari berari; beraz, funtsezkoa da horiek kontserbatzea. Dena den, kontserbazio hori modu bateratuan proposatu behar da sistema osorako, eta ez habitat batzuetarako soilik. Izan ere, oso ekosistema aldakorra eta dinamikoa da; horixe da, hain zuzen, sistema horren ezau-garri nagusia.

Barbadungo duna-sisteman, 162 landare-espezie aurkitu dira, eta haietako 29 duna eta hareatzetakoak dira eskusiboki; horregatik, Euskadin, dunetako flora kontserbatzeko interesgunetzat hartu da. Besteak beste, urriak diren landare hauek nabarmen daitezke: *Herniaria ciliolata* subsp. *robusta*, *Asperula occi-dentalis*, *Festuca vasconensis* eta *Ononis natrix* subsp. *ramosissima*.

Barbadungo itsasadarra/Ría de Barbadun KBEko duna-sistema Euskadin egoera erdinaturalean daudenen artean azalera handiena duena da. Zarautz eta Gorlizko duna-sistemekin batera, Euskadin kontserbatu diren habitat-mota horren adierazle bakanetako bat da; horregatik, lehentasunezkoa da bere osotasunean kontserbatzea.

Kontserbazio-egoera

Duna-sistemak, oro har, nahiko azalera handia du, eta haren dinamika nahiko egoera onean kontserbatu da. Nolanahi ere, eremua oso eraldatuta dago, eta hainbat presio eta mehatxu jasaten ditu; besteak beste, udan hondartzara joaten diren bainularien zapaltzeak eta, bereziki, espezie inbaditzaileak ugaritu izana.

Duna-sistemak KBEaren azalera osoaren % 7,5 hartzen du gutxi gorabehera, aintzat hartu gabe gaur egun oso eraldatuta dauden eremuak eta duna-sistemaren barneko habitat gisa kartografiatu ez direnak. Nolanahi ere, lehengoratzeko aukera handia duten eremuak dira. Antzinako duna-sistemaren erdialdeko eremua hondartzako zerbitzuek betetzen dute: erakinek (tabernak, jatetxeak, behatokia, pergolak, hondartzara sartzeko eskailerak, eskudelak, aldagelak, aparkalekuak, etab.) eta lorategi-eremuek, mahai, eserleku eta barbakoekin. Instalazio horien bi alboetara, habitat horien hondarrak geratu dira.

Barbadungo KBEko duna-sistema osatzen duten lau habitaten artean, hau da adierazgarriena: 2110, Enbrioi-dunak. Beste hiru habitatak, berriz, urriak dira, edota atzeraldian daude, aintzat hartuta lehen betetzen zuten azalera: 1210 habitata (Itsasoko hondakin-metaketetan hazten den urteroko landaredia), 2120 habitata (Duna mugikorrek) eta 2130* habitata (Duna grisak edo finkatuak). Azken habitat horri dagokionez, aipagarria da eremuaren mendebaldeko ertzean badirela egoera onean kontserbatu diren gune batzuk; ekialdean ere badira hondarrak, baina eremu hori hondatuagoa dago.

Habitat horien kontserbazio-egoerari buruzko informazioa dokumentu honen eranskinean dago, KBE honetako elementu bereizgarri eta adierazgarri bakoitzaren kontserbazio-egoerari buruzko fitxan. Laburbilduz, hauek izan daitezke Barbadungo KBEko hareatzetako habitaten kontserbazio-egoeraren ezaugarriak:

- 1210 habitata: Itsasoko hondakin metaketetan hazten den urteroko landaredia. Habitat-mota hori oso urria da Barbadungo itsasadarra KBEan. Garai batean, hareatzako ia aurrealde osoan egongo zen banatuta habitat-mota hori. Gerora, ordea, habitat horren adierazle bakan batzuk baino ez dira geratu; batez ere, aisialdiko erabilera handia izan delako eta garbiketa-lan sakonak egiten direlako. Gaur egun, gune adierazgarri bat dago duela gutxi itxitura jarritako lekuan. Hondartza garbitzeko erabiltzen diren makina astunen sarbidea debekatuta dago eremu horretan.

1210 habitata	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua			X	
Azalera			X	
Egitura eta funtzio espezifikoak			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera			Txarra	

- 2110 habitata: Enbrioi-duna mugikorak. Habitat-mota hori da adierazle gehien duena hondartza horretan. Bi eremu bereiz daitezke: Zierbenako aldean, duna txiki batzuk kontserbatu dira, baina oso hondatuta daude; Muskizeko aldean, berriz, nahiko egoera onean kontserbatu dira dunak. Oro har, esan daiteke kontserbazio-egoera desegokia dela.

2110 habitata	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

- 2010 Itsasertzeko duna mugikorak, *Ammophila arenaria*arekin. Hondartzaren mendebaldeko ertzean, adierazle urri batzuk baino ez daude. Arazo nagusia hondartzara joaten den jendeak eremua zanpatea da.

2120 habitata	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua			X	
Azalera			X	
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera			Txarra	

- 2130* habitata: Itsasertzeko duna finkatuak, belar-landaredidunak. Garai batean habitat-mota horrek hartuko zuen azalera gehiena hiritartuta dago, etxeak, aparkalekuak eta antzinako kanpin bat baitaude. Eremuaren mendebaldeko ertzean, egoera onean kontserbatu diren gunek txiki batzuk daude. Zierbenako aldean kartografiatu den eremua oso hondatuta dago, lorategiak ezarri baitira. Edonola ere, badira dunako landarediaren gunek interesgarri batzuk. Muskizeko aldean, lorategi-eremuen artean, badira duna tertziarioetako espezie bereizgarriak dituzten gunek txiki batzuk, baina oro har ezin dira habitat-mota honen barnekotzat hartu.

2130* habitata	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

Hauek dira adierazitako helburuak lortzeko baldintzatzaile nagusiak, dunen sistemaren funtzionaltasunari eragiten diotenak edo eragin diezaioketenak:

- Uda-garaian, aisialdiko jarduerak direla eta, eremuan presio handia izatea (620, 720).
- Aisialdiko instalazioak, sistemaren barneko eremu zabaletan (600, 620, 690).
- Bertakoa ez den flora inbaditzailea egotea (954).
- Hondartza garbitzeko eta bertako mantentze-lanak egiteko jarduerak, eta makinak erabilerak (690).

- CLHren antzinako instalazioek padurari kendutako eremuak lehengoratzeko proiektuari dagozkion lanak egitea (890).
- Itsasertz Mugarteak sustatutako hondartzako itsasertzaren antolamendu-proiektuari dagozkion lanak egitea Arenako hondartzan (890).

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

KBEan aplikagarriak dira, besteak beste, araudi hauek:

- Kostaldeei buruzko Legea eta hura garatzeko araudia.
- EAEko Hezeguneak Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

Aipatutako eremuan, bertako natura-balioak kontserbatzeko jarduerak egiten ari dira, edota egitea aurreikusi da.

- Muskizen, Arenako hondartzaren inguruan, CLH, S.A. enpresak hartutako itsas lehorreko jabari publikoaren eremuan dauden instalazioak kentzea eta eremua lehengoratzea. Kostaldea eta Itsasoa Iraunarazteko Zuzendaritza Nagusia (Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurumeneko Ministerioa) 2007. urteaz geroztik ari da jarduera horri aurrera eramaten. Jada kendu dira enpresa horren instalazioak, eta lurzorua deskutsatu da. Eremu horretako Ingurumena eta Paisaia Lehengoratzeko Proiektua gauzatzea falta da. Proiektu horri esker duna-eremuko 20.000 m² lehengoratzea aurreikusi da.
- Arenako hondartzako itsasertzaren antolamendu-proiektua. Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurumeneko Ministerioak proiektu hau gauzatzea aurreikusi du. Horren helburua da Arenako hondartza eta haren ingurua lehengoratzeko eta kontserbatzeko. Proposamen horiek zuzenean daude lotuta Barbadungo KBEko duna-sistemarekin, jarduera hauek aurreikusi baitira, besteak beste: hondartzaren erdialdeko instalazioak kentzea eta dunek osatzen duten naturagunea lehengoratzeko.

Bertakoa ez den floraren erauzketa 2008. urteaz geroztik, Urdaibai Fundazioa eta Muskizeko Udala zenbait jarduera ari dira egiten Arenako hondartzan. Jarduera horien helburu nagusia da dunen hondatzea geldiaraztea, bi esku-hartze nagusiren bidez: batetik, jendea erraz igaro daitekeen intereseko inguruneetan itxiturak jartzea, zurez eta sokez eginak; eta bestetik, espezie inbaditzaileen erauzteko; esaterako, *Carpobrotus edulis* eta *Oenothera spp.*

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua

Funtsezko elementu horretarako helburu nagusia da dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea, hura kontserbatzea eta lehengora ekartzea, Batasunaren intereseko zenbait habitat eta intereseko hainbat espezie biltzen dituen eremua den aldetik. Horregatik, aintzat hartuko da KBEan dauden Batasunaren intereseko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera, eta nola laguntzen duten duna-sistemako funtzionaltasunari eusten.

Egokiagoa da bertan dauden habitatak modu bateratuan kudeatzea, eta osatzen duten sistemarako helburuak, araudiak eta jarduerak definitzea, bakoitzerako banan-banan egitea baino.

Beraz, proposatuko diren jarduerak xede hauek izango dituzte:

- Dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea.
- Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea.
- Betetzen duen azalera ahalik eta gehien handitzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea. - Gizakien presentziaren maiztasuna gutxitzea, eta sisteman sartzeko irisgarritasuna urritzea. Aisialdi-jarduerak kontrolatzea. <p>Neurri horiek eremuan dauden bertako espezieei ere mesede egingo diete, horien garapen-habitaten kontserbazio-egoera hobetzea baitute xede.</p>
1. helburu operatiboa	Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea
Jarduerak	Aplikagarriak dira estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak; batik bat, hauek: 8.J.4 jarraibidea, estuario-inguruneetako eremu hauskorrenetan jendearen sarbidea arautzeari buruzkoa; 7.J.1 jarraibidea, zerbitzu-instalazioak kentzeari buruzkoa, bai airekoak bai lur azpikoak; 2.JAR.4 jarduera, bertakoa ez den flora exotikoaren jarraipena egiteari eta hura erauzteari buruzkoa; eta 2.JAR.6 jarduera, habitat-mota hauen jarraipena egiteari buruzkoa: 1210, 2120, 2120 eta 2130*.
2. helburu operatiboa	Hartzen duen azalera ahalik eta gehien handitzea
Jarduerak	JP2. Eremuan aurreikusitako lehengoratzeko proiektuak gauzatzea.
3. helburu operatiboa	Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea
Jarduerak	<p>Sistemaren barnean habitatak eta fauna- eta flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzeko neurriak ere aplikagarriak dira, dinamikak berak bultzatu dezan sistema horretako flora tipikoa modu naturalean berrezartzea.</p> <p>Era berean, JP.2 neurriari esker, sistemaren egitura-konplexutasun eta biodibertsitate handiagoa lortuko da.</p> <p>2.JAR.8 jarduera ere aplikagarria da, flora-espezieen populazioen jarraipena egitearekin lotua, arriskupean dauden espezieak zer egoeratan dauden jakiteko.</p>
4. helburu operatiboa	Gizakien presentziaren maiztasuna gutxitzea, eta sisteman sartzeko irisgarritasuna urritzea. Aisialdi-jarduerak kontrolatzea
Jarduerak	Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, 2.JAR.14 eta 2.JAR.15 jarduerak, ingurumen-heziketako proiektuak eta erabilerak publikoak kudeatzeko proiektuak garatzeari buruzkoak.

JARRAIPEN-PROGRAMA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak jarraipena egingo du, dokumentu honetan zehaztu diren helburuak eta jarduerak betetzen direla egiaztatzeko. Jarraipen-programa honen helburuetako bat da jakitea, batetik, zer bilakaera izan duen Batasunaren intereseko elementuen kontserbazio-egoerak eta KBEan egiten diren erabilerek eta jarduerak; eta, bestetik, zer eragin izan duen dokumentu honetan eremu horretan egitea proposatu den kudeaketak.

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea	
ESTUARIOA	Estuario-sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea	Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea eta mantentzea	Ibilguaren eta itsasaldi-kanalaren egoera (hondakin solidoak)	Ez dakigu	Ibilgu nagusiaren eta itsasaldi-kanalaren egoera ona	
		Sistemako habitata eta faunarenahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea	Habitat naturalen hektareak	13,87 ha (1130, 1310, 1140, 1330 eta 1420 habitaten egungo azalera)	Habitat naturalen hektarea-kopurua handiagoa izatea hasierako balioa baino	
		Estuario-sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea	Kudeaketa-plana duten arriskupeko espezieak egotea	Espezie exotikoak egotea (hartutako azalera)	Ez dakigu zer azalera hartzen duten egun espezie inbaditzaileek	Hartutako azalera gutxitzea edo espezie exotikoak erauztea
				Intereseko fauna- eta flora-espezieak egotea	Flora baskularren 73 espezie eta fauna-espezie ugari	Intereseko espezie-kopurua handitzea
		Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitate hobetzea	Lehenera ekarritako hektareak	Kudeaketa-plana duten arriskupeko espezieak egotea	Bisoi europarra kudeatzeko plana	Flora- eta fauna-espezieen kudeaketa-planak idaztea
				Lehenera ekarritako hektareak	Narriatutako 16 ha, lehengoratu daitezkeenak	Narriatutako azalaren % 100 lehengora ekartzea
Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea	Habitat-dibertsitatea	Estuario-habitat hartzten duten azalera eta haien egitura-bilakaera	13,87 ha (1140, 1330 eta 1420 habitaten egungo azalera)	Estuario-habitaten azalera handiagoa izatea hasierako balioa baino		

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea	
DUNA-SISTEMA	Dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea	Sistemako habitata eta faunahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea	Habitaten egitura (estaldura, espezieen kontserbazio-maila, etab.)	Zenbait kontserbazio-egoera	Habitaten egitura hobetzea	
			Paduran eta eremuaren hegoaldeko eremuaren bazterretan birlandatutako eremuen azalera	Bat ere ez	Estaldura txikiena duten eremuak birlandatzea	
			Uren kalitatea bermatzea	Ur-masaren egoera ekologikoa	Eskasa barruko zatian, eta txarra, kanpokoan (EAEko trantsizio-uren eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarearen datuak)	Egoera ekologiko «Ona» edo «Oso ona» lortzea
			Aisialdiko jarduerak eta hirigintzaren presioa kontrolatzea	Araztegiko eta Petronorreko aldizkako isurketen kontrola	Aldizkako isurketak izatea gainezka bidean	Aldizkako isurpenak gainezka bidean, ingurumen-baimen integratuaren baldintzak betez
				Beste ibilbide batzuk	Ez dago horrelakorik	Beste ibilbide batzuk izatea
				Itxiturak	Ez dago horrelakorik	Eremu ahuletan itxiturak jartzea
				Orain dauden azpiegiturari loturiko indargetze-eremuak egotea	Ez dago horrelakorik	Errepideen mugako zonaldeetan trantsizio-eremuak sortzea
				Habitat naturalen hektareak	3,83 ha (1210, 2110, 2120 eta 2130* habitaten egungo azalera)	Hasierako balioa baino handiagoa
				Espezie exotikoak egotea (hartutako azalera)	Ez dakigu	Hartutako azalera gutxitzea edo espezie exotikoak eraztea
				Intereseko flora-espezieen agerpena	162 flora-espezie baskular	Intereseko espezie-kopurua handitzea
				Kudeaketa-plana duten arriskupeko espezieak egotea	Ez dago horrelakorik	Flora-espezieen kudeaketa-planak idaztea
				Lehenera ekarritako hektareak	Narriatutako 4 ha, lehengoratu daitezkeenak	Narriatutako azaleraren % 100 lehengora ekartzea
	Hartzen duen azalera ahalik eta gehien handitzea	Duna-habitat hartzten duten azalera eta haien egitura-bilakaera	Estuario-habitaten azalera handiagoa			
	Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea	Egun desagertuta dauden baina garai batean egon ziren espezieen agerpena	Desagertutako espezieak birsartzea lortzea			
	Birlandatutako eremuen azalera	Bat ere ez	Estaldura txikiena duten eremuak birlandatzea			

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
		Gizakien joan-etorrien maiztasuna gutxitzea, eta irisgarritasuna urritzea. Aisialdi-jarduerak kontrolatzea	<p>Beste ibilbide batzuk</p> <p>Itxiturak</p> <p>Aisialdiak eragindako inpaktuaren bilakaera (eremu batzuetako zapaltzeak)</p> <p>Aisialdirako instalazioak egotea</p> <p>Orain dauden azpiegiturei loturiko indargetze-eremuak egotea</p>	<p>Ez dago horrelakorik</p> <p>Ez dago horrelakorik</p> <p>Duna-sistemaren ia azalera guztian zapaltzeak ugariak izatea</p> <p>Duna-eremuetan mahaiaik, bankuak, zubiak eta barba-koak egotea</p> <p>Ez dago horrelakorik</p>	<p>Beste ibilbide batzuk izatea</p> <p>Eredu ahulenetan itxiturak egotea</p> <p>Zapaldutako eremuak desagertzea</p> <p>Duna-eremuetatik aisialdi-ekipamenduak desagerraraztea</p> <p>Aparkekuek eta hondartzako instalazioek mugatutako eremuetan trantsizio-eremuak sortzea</p>

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2130003.xml&lang=eu

III. ERANSKINA

ES2130004 ASTONDOKO HAREMUNAK/DUNAS DE ASTONDO KONTSERBAZIO
BEREZIKO EREMUAREN HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK**FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA -JARDUERAK**

Hurrengo tauletan, Astondoko haremuna/Dunas de Astondo KBEan kudeaketarako funtsezko-tzat jotzen diren elementuetariko bakoitzarentzat proposatzen diren kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

DUNA-SISTEMA**Justifikazioa**

Itsasertzeko dunak eta hareatzak oso ekosistema ahulak dira. Bertako ingurumen-baldintza bereziak direla eta (lurzoru mugikorra, gazitasun handia, ur gezarik eza, etab.), sustraiak hondarretan dituzten landareak ia eskusiboak eta interes handikoak dira. Ereku hareatsu horiek suntsitzen badira, espezie horiek desagertu egiten dira, ez baitute aurrera egiteko beste lekurik. Sistema horiek kostaldeko hareatzetan dauden habitaten kontserbaziorako naturagune garrantzitsuenetako bat dira; Astondoko dunak KBEan, 2120 eta 2130* habitatak, hain zuzen. Habitat horiek ematen diote garrantzia sistemari berari; beraz, funtsezkoa da horiek kontserbatzea.

Hedadura txikikoa izan arren, Astondoko dunak KBEko duna-sistema EAEn iraun duen gutxietako bat da, Zarauzko eta Barbadungo dunekin batera; beraz, lehentasuneko da multzo hori kontserbatzea.

Itsasertzeko dunetan eta hareatzetan dauden landare-espezieen multzoa garrantzitsuena da zonalde horren kontserbazioari eta bertako natura-interesari dagokienez, ingurune horietan soilik bizi diren oso espezie espezializatuak baitira. Ekosistema horiek Bizkaiko kostalde guztian jasan duten eraldaketa eta murrizketa handia direla eta, espezie horietako asko epe laburrera eta ertainera desagertzeko arrisku larrian daude, baldin eta ez badira neurri egokiak hartzen espezie horien habitatak kontserbatzeko.

Astondoko duna-sisteman, 177 landare-espezie aurkitu dira, eta horietako 24 duna eta hareatzetakoak dira eskusiboki; horregatik, Euskadin, dunetako flora kontserbatzeko interesgunetzat hartu da. Hain neurri txikiko duna-sistema batean halako espezie-kopuru handia izatearen arrazoia bertatik gertu dauden landare-komunitateen aniztasuna da: itsaslabarretako landaredia, itsas pinuen zuhaiztiak, ibaiak, sega-belardiak eta larreak.

KBEak mugatutako gunean, EAEn mehatxupean dauden bost flora-espezie daude:

- *Hernaria ciliolata*, *robusta* subespeziea (kaltebera). Astondon dago espezie horrek EAEn dituen 3 populazioetako bat.
- *Koeleria albescens* (kaltebera). Hemen dago EAEn dauden 2 populazioetako bat; gainera, landare hori oso ugaria da Gorkizen.
- *Epipactis phyllanthes* (galtzeko arriskuan). Egun, *E. phyllanthes* espezieak Gorkizen dituen populazio-nukleoak ez daude Astondoko dunak BILaren mugapean (ES2130004 BIL), baina ekialderantz 180 metro hedatuz gero, espezie horren eta genero horretako beste espezie batzuen (*E. kleinii* eta *E. microphylla*) zenbait populazio-nukleo ere bil litzake. *EAEko landaredia baskularraren zerranda gorrian* «desagertzeko arrisku larrian» dauden landaretzat jotzen direnak berreskuratzeko planak, IHOBE 2011.

- *Linaria supina ssp maritima* (kaltebera). Kantauriko itsasertzeko 10 udalerritan soilik dago; zehazki, dunetan eta leku hareatsuetan.
- *Juncus acutus* (Bakana). Mediterraneo eta atlantikoko espeziea da; EAEn, zenbait estuariotan eta Añanako diapiroaren inguruan dago.

Horrez gain, beste espezie batzuk daude, adibidez: *Asperula cynanchica L. (occidentalis* subespeziea). Hareatzetako berezko espezieetat hartu dira, eta, Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan agertzen ez diren arren, aipagarriak dira EAEn duten garrantzi eta urritasunagatik.

Kontserbazio-egoera

Aisialdi-erabilera handiaren eta askotariko azpiegiturak (aparkalekuak, hondartzara joateko errepidea eta aisialdi-eremuak) jartzearen ondorioz, dunetako landarediak okupatutako azaleraren zati handiena narriatu da.

Ezin da KBEra zuzenean sartu, Bizkaiko Foru Aldundiaren lursailetan baitago eta eremua hesitu baitu. Babes-neurri hori izan arren, ordea, eremua oso eraldatuta dago, eta hainbat presio eta mehatxu jasaten ditu, besteak beste: udan hondartzara joaten diren bainularien zapaltzeak eta, bereziki, espezie inbaditzaileak ugaritu izana.

Itsas pinua dunetan lekua hartuz doan heinean, dunetako berezko landaredia ordezkatzuz doa. Horrez gain, dunetan, beste espezie batzuen kolonizazioa hauteman da, adibidez: *Stenotaphrum secundatum* eta bertakoak ez diren beste espezie inbaditzaile batzuk (*Spirobolus indicus*, *Oenothera x fallax*, *Paspalum vaginatum* eta *Cyperus rotundus*); espezie horiek oztopatu egiten dute dunen ekosistemetak berezko espezieak finkatzea.

Hondartzatik askoz ere harea gutxiago heltzen da, Gorlizko errepidea eta ospitalea eraikitzearen ondorioz. Gorlizko eta Plentziako hondartzak egokitzeko proiektuan definitutako lanak gauzatzean, egoera hori partzialki zuzenduko da KBEan.

Aztergai dugun eremuko habitat interesgarrienak, haien urritasuna eta hauskortasuna direla eta, egitura-komplexutasun txikiagokoak dira, naturaren dinamismo handia dutenak eta, beraz, horiek zehazten dituzten natura-prozesuen eraldaketekiko oso kalteberak direnak; horregatik, deskribatutako lanak egiteak zalantza apur bat sortzen du sistema horien bilakaeran, ez baitakigu ondo zer gertatuko den hondartzatik hondarra etortzea eragozten duten oztopoak (partzialki, behintzat) kentzean (2120 eta 2130* habitatak).

Habitat horien kontserbazio-egoerari buruzko informazioa dokumentu honen eranskinean dago, KBE honetako elementu bereizgarri eta adierazgarri bakoitzaren kontserbazio-egoerari buruzko fitxan. Laburbilduz, hauek izan daitezke Astondoko dunak KBEko hareatzeko habitaten kontserbazio-egoeraren ezaugarriak:

2020 Itsasertzeko duna mugikorrek, *Ammophila arenaria*ekin.

2120 habitata	Egokia	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

2130* Itsasertzeko duna finkatuak, belardi-landarediarekin (sakabanatutako zenbait pinu eta zuhaixka).

2130* habitata	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

2130* Itsasertzeko duna finkatuak, belardi-landarediarekin (pinuez ia guztiz estalita)

2130* habitata	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak

Dunen sistemak azalera egokia hartzen du, eta horren kontserbazio-egoera nahiko ona dela esan daiteke. Nolanahi ere, horren egoerari dagokionez, oso eraldatuta dago eta presio nahiz mehatxu handiak jasaten ditu; besteak beste, hauek nabarmendu behar dira: uda-garaian aisialdia dela eta jasaten duen presio handia, espezie inbaditzaileen presentzia eta KBEaren azaleraren zati batean egiten den abeltzaintza-jarduera.

Gaur egungo jarduerak eta legeko baldintzatzaileak**Gaur egungo jarduerak**

Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioak «Gorlizko eta Plentziako hondartzen egokitzea eta antolamendua» proiektua egin du; une honetan, exekuzio-fasean dago, eta nabarmen eragingo du KBEaren gunean.

Proiektuaren xedea da hareatzako eta horren inguruko ezaugarri naturalak lehengoratzea, XX. mende hasieratik hainbat eraikuntza egin baitira bertan; horrez gain, hondartza lehorreko eremua zabalduko da apur bat, jendearen erabilerarako eta oinezkoentzako pasabide handi bat egin ahal izateko.

Aurreikusitako jardueren bidez, itsasertzaren lerroa atzeraemango da, eta horrela, hondartza lehorrearen azalera handi bat berreskuratuko da; horrez gain, hondartzaren egonkortasuna handituko da, bertako dunen eremuaren azalera handia berreskuratuko baita.

Baldintzatzaileak

Hauek dira adierazitako helburuak lortzeko baldintzatzaile nagusiak, dunen sistemaren funtzionaltasunari eragiten diotenak edo eragin diezaioketenak:

- Uda-garaian, aisialdiko jarduerak direla eta, eremuan presio handia izatea.
- Bertakoa ez den flora inbaditzailea egotea.
- KBEaren gunen batean abereak egotea.
- Gorlizko eta Plentziako hondartzak egokitzeko lanak egin ondoren, sistemak zer bilakaera izango duen ez jakitea.

Bada, ordea, baldintzatzaile positibo bat ere, bertan egin nahi diren jarduerak planteatzerakoan, oso garrantzitsua dena: lursailen jabetza. Hau da, lursail horiek jabari publikokoak dira, guztiz; horrenbestez, errazagoa da dunetako sistema kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurriak aplikatzea.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	<p>Dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea</p> <p>Funtsezko elementu horretarako helburu nagusia da dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea, hura kontserbatzea eta lehengora ekartzea, Batasunaren interesekoak diren eta intereseko hainbat espezie dituzten bi habitat elkartzen diren eremua den aldetik.</p> <p>Egokiagoa da bertan dauden habitatak modu bateratuan kudeatzea, eta osatzen duten sistamarako helburuak, araudiak eta jarduerak definitzea, bakoitzerako banan-banan egitea baino.</p> <p>Beraz, bertan proposatuko diren jarduerak xede hauek izango dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta ondoen ordezkatuta daudenak babestea. - Betetzen duen azalera ahalik eta gehien handitzea. - Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea. - Gizakien presentziaren maiztasuna gutxitzea, eta sistemaren irisgarritasuna urritzea. Aisialdi-jarduerak kontrolatzea. <p>Neurri horiek eremuan dauden bertako espezieei ere mesede egingo die, horien garapen-habitaten kontserbazio-egoera hobetzea baitute xede.</p>
1. helburu operatiboa	Sistema barruko habitatak eta flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea
Jarduerak	<p>Estuarioetako KBE osorako proposatutako baterako jarduerak aplikatuko dira, bai eta beste jarduera berezi batzuk ere. Batetik, 2.JAR.4 jarduera aplikatuko da, flora exotiko inbaditzailearen aldi behingo jarraipenarekin eta horiek errotik kentzearekin lotuta. Lehentasuna izango dute <i>Oenothera x fallax</i> eta <i>Cyperus rotundus</i> espezieek. <i>Stenotaphrum secundatum</i> espeziea errotik kentzea zailagoa da, espezie hori dagoen sistema desegituratzea eragin baitezake; horrenbestez, jarduera-programa zehatz bat egin behar da. Eta bestetik, 2.JAR.6 jarduera, 2120 eta 2130* habitaten jarraipenarekin lotuta.</p> <p>JP.1. Bereziki 2130* habitatean aurrez hautatutako lursail esperimentaletan pinu-aleak kentzea. Neurri txikiko aleak erazte-tekniken bidez kenduko dira; neurri handiagoko aleak, aldiz, moztu egingo dira, motzondoak errotik atera gabe. Pinuak desagerrarazteko lursail esperimentalak mugatuko dira, eta erazketa horiek gauzatzen diren partzela esperimentalen bilakaeraren jarraipena egingo da.</p> <p>JP.2. KBEaren hesia berritzean (Itsasertz Mugarteak sustatuta hondartza lehenera ekartzeko egin diren lanek eraginda), honelako itxitura-mota bat ezarri behar da: hondarra KBEaren azpialdera pasatzeko aukera emango duena baina, aldi berean, pertsonak bertan ez sartzeko, eremua babesteko duena.</p>
2. helburu operatiboa	Betetzen duen azalera ahalik eta gehien handitzea
Jarduerak	<p>JP.3. KBEan dauden belardi nitrofiloak eta lahardiak lehenera ekartzea, eta egun betetzen dituzten eremuak hareatzetako berezko espezieek koloniza ditzaten bultzatzea.</p> <p>JP.4 jarduera, halaber, eremu horretako abeltzaintza-erabilera kontrolatzeko aplikatuko da.</p>

3. helburu operatiboa	Gizakien maiztasuna gutxitzea, eta irisgarritasuna urritzea. Aisialdi-jarduerak kontrolatzea
Jarduerak	<p>JP.4. Eremuaren itxitura sendotzea, bertara sartzeko erabiltzen dituzten lekuetan, dune-tako landaredia ez zapaltzeko. Jarduera horren eraginkortasuna zaintzea eta kontrolatzea, uda-garaian bereziki.</p> <p>Estuarioetako KBE osorako proposatutako baterako jarduerak aplikatu beharko dira, eta bereziki, 2.JAR.14 eta 2.JAR.15 jarduerak, dunen sistema kontserbatzearen garrantziari dagokionez ingurumen-heziketako eta -sentsibilizazioko proiektu bat garatzearekin lotuta. Horrez gain, lursailaren kanpoaldean, dunaren balio esanguratsuenen dibulgaziorako panelak ezarriko dira.</p>
4. helburu operatiboa	Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea
Jarduerak	<p>Sistemaren barruan, habitatak eta flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzeko neurriak ere aplikatu behar dira, dinamikak berak bultzatu dezan sistema horretako flora tipikoa modu naturalean berrezartzea.</p> <p>Era berean, JP.3 neurriari esker, sistemaren egitura-konplexutasun eta biodibertsitate handiagoa lortuko da.</p> <p>2.JAR.8 jarduera ere aplikatuko da, flora-espezieen populazioen jarraipena egitearekin lotuta, arriskupean dauden espezieak zer egoeratan dauden jakiteko.</p>

JARRAIPEN-PROGRAMA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak jarraipena egingo du, dokumentu honetan zehaztu diren helburuak eta jarduerak betetzen direla egiaztatzeko. Jarraipen-programa honen helburuetako bat da jakitea, batetik, zer bilakaera izan duten Batasunaren intereseko elementuen kontserbazio-egoerak eta KBEan egiten diren erabilerek eta jarduerak; eta, bestetik, zer eragin izan duen dokumentu honetan eremu horretan egitea proposatu den kudeaketak.

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
Dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea	Sistema barruko habitatak eta fauna-eta flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea	Habitat naturalen m ² Espezie exotikoen agerpena (hartutako azalera) Intereseko flora-espezieen agerpena	16.582 m ² (2120 eta 2130* habitaten egungo azalera) Ez dakiugu 177 flora-espezie baskular Hareatzeko-tako berezko 23 subespezie	Hasierako balioa baino handiagoa Hartutako azalera gutxitzea edo espezie exotikoen erauzketa Intereseko espezie-kopurua handitzea
	Hartzen duen azalera ahalik eta gehien handitzea	Kudeaketa-plana duten arriskupeko espezieen agerpena Lehenera ekarritako m ²	Ez dago horrelakorik Duna grisen 7.070 m ² , ia dena pinuz estalita	Flora-espezieen kudeaketa-planak idaztea Narriatutako azalaren % 100 lehenera ekartzea
Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea	Egun desagertuta dauden baina garai batean egon ziren espezieen agerpena	Itxiturak	Ez dago horrelakorik	Desagertutako espezieak birsartzea lortzea
		Beste ibilbide batzuk	Gaur egun badaude	Eremu ahulenetan itxiturak egotea
		Aisialdiak eragindako inpaktuaren bilakaera (eremu batzuetako zapaltzeak)	Ez dago horrelakorik Hondartzatik gertuen dagoen duna-azalera zapaltzea	Beste ibilbide batzuk izatea Zapaldutako eremuak desagertzea

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2130004.xml&lang=eu

IV. ERANSKINA

ES2130010 LEA IBAIA/RÍO LEA KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN HELBURU
ETA JARDUERA PARTIKULARRAK**FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA JARDUERAK**

Hurrengo tauletan, Lea ibaia/Río Lea KBEan kudeaketarako funtsezkotzat jotzen diren elementuariko bakoitzarentzat proposatzen diren kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

ESTUARIOA (EBko KODEA: 1130)**Justifikazioa**

Lea ibaiaren estuarioan, egoera onean daude paduretako unitate bereizgarriak: ubide nagusia, mareen arteko eta mareen gaineko eremu lohitsuak, eta mareen gaineko metaketa hareatsuak, uhartetxoak eratzen dituztenak. Egitura-konplexutasun egokia du (ongi garatutako ubide naturalak, aldizka drainatzen ez den sedimentu-dinamika, geruzarik gabeko nahaste egokia), eta horri esker, estuarioaren funtzionaltasunari eusten dio. Presio handirik gabeko estuario-sistema da; hau da, bertan ez dute halako eraginik trantsizio-urek (uretan nahiz sedimentuetan dauden kutsatzaileek, kendutako urek, drainatze-lanek, kaitik kanpoko amarratzeek). Lea ibaia/Río Lea KBEaren estuario-sisteman, 1130 Estuarioak habitataz gain, beste habitat hauek ere aurki ditzakegu, noizbehinka agertzen diren estuarioetako habitat batzuekin batera: 1140 Ordoki lohitsuak edo hareatsuak, itsasbeheran urpean geratzen ez direnak; 1310 Paduretako halofiloen urteroko landaredia; 1330 Paduretako belardi-ihidi halofiloak; eta 1420 Paduretako sastrakadi halofiloak. Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoaren arabera, estuario-sistemari lotutako arriskupeko flora-taxonen presentzia nabarmena da. *Frankenia laevis* (Bakana), *Salicornia lutescens* (Bakana), *Salicornia obscura* (Bakana), *Zostera noltii* (Arriskuan).

Kontserbazio-egoera

Lea ibaiaren estuarioan, egoera onean daude paduretako unitate bereizgarriak: ubide nagusia, mareen arteko eta mareen gaineko eremu lohitsuak, eta mareen gaineko metaketa hareatsuak, uhartetxoak eratzen dituztenak. Egitura-konplexutasun egokia du (ongi garatutako ubide naturalak, aldizka drainatzen ez den sedimentu-dinamika, geruzarik gabeko nahaste egokia), eta horri esker, estuarioaren funtzionaltasunari eusten dio. Presio handirik gabeko estuario-sistema da; hau da, bertan ez dute halako eraginik trantsizio-urek (uretan nahiz sedimentuetan dauden kutsatzaileek, kendutako urek, drainatze-lanek, kaitik kanpoko amarratzeek).

Estuarioaren egoera ekologikoa ontzat kalifikatu zen 2009. urtean, eta azken urteetan, bertako uren kalitatea hobetu egin da. Adierazle fisiko-kimikoen arabera, baldintza orokorrak «oso onak» dira bertan; adierazle biologikoen arabera, berriz, baldintzak «onargarriak» eta «oso onak» artekoak dira.

	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera	Ona			

Presioak eta arriskuak

Hauek dira adierazitako helburuak lortzeko baldintzatzaile nagusiak, estuario-sistemaren kontserbazio-eta funtzionaltasun-egoera onari eragiten diotenak edo eragin diezaioketenak:

- Oro har, Learen estuarioak ez du presio handia jasaten. Hala, biztanleriak (25.000 biztanletik behera) eragindako zuzeneko presioa eta industria-jarduerak eragindakoa baxua dela esan daiteke. Lekeitioko araztegiko isurketak ziren estuarioaren presio nagusiak, baina jada isurketak ez ditu estuariora egiten, kostaldeko eremura baizik. Estuarioan ekaitzetarako dauden gainezko 5 isurbideek ere ez dute presio handirik eragiten. Nolanahi ere, aipagarria da ibilguaren kontrolarekin eta portuen kokalekuekin lotutako presioa; zehazki, 10 presio aurkitu dira (% 22): amarratzeak, ainguralekuak, seinaleztapenak, kanalizazioak...
- Marierrota itsas errota zaharberritzeko jarduerak. Horma zaharberritzeko lanak egin dira, eta lan horiek eremu horretan zeuden *Frankenia laevis* espeziearen populazio txiki batzuei eragin die.
- Bertakoa ez den floraren presentzia, eta bereziki, *Baccharis halimifolia* espeziearena.
- Ibaiertzeko landarediaren jarraitutasunaren etendurak.
- Ibaitek gertu dauden BI-2405 eta BI-3438 errepideak. Zenbaitetan, ia ez da espaziorik geratzen errepide horien eta padura-eremuaren artean. Kontuan hartu beharko dira aurreikusitako jardueratarako zortasun-zonak.
- Itsas lehorreko jabari publikoan eta haren babeserako zortasun-zonan dauden eta askotariko jatorria duten eraikuntzak eta instalazioak.
- Erriberako ontziolak, itsasadarraren ezkerreko ertzean.
- Azpiegituren gurutzatzeak: erabilera-zortasuna dakarte eta landarediaren jarraitutasuna baldintza dezakete.
 - . BI-3438 errepidearen zubia, itsasadarraren iparraldean.
 - . Leabekoa baserrira sartzeko zubia.
 - . Linea elektrikoak: bi linea elektrikoak itsasadarra gurutzatzen dute, Leabekoa zonaren hegoaldera arte.

Itsasadarraren eremuan, uraren kalitatearen arazoak ez dira oso baldintzatzaile kaltegarriak. Izan ere, estuarioa itsas eta ibai arteko eremua izanik, haren dinamikak bide ematen du ur-trukatzea etengabea izateko. Dena den, noizbehinkako isurketa jakinak izaten dira, eta horiek kontuan hartu beharko dira sistemari egoera onean eustea bermatzeko.

Gaur egungo jarduerak eta legeko baldintzatzaileak

Kostaldee buruzko Legea eta hura garatzeko araudia.

EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.

EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana.

Marierrota itsas errotaren inguruko ingurumena lehengoratzeari (Mendexa) Kostaldea eta Itsasoa Iraunarazteko Zuzendaritza Nagusiak (Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurueneko Ministerioa) gauzatu du jarduera hori Lea ibaiaren eskuinaldeko ertzean, itsas errotatzat erabilitako antzinako paduren eremuan. Marea arteko eremuaren zatia lehengoratzeari eta igarobide-zortasuneko zonan hainbat ibilbide garatzea du xede.

<p><u>Marierrota itsas errotaren eraikina eta haren barne-mekanismoa eraberritzeko eta naturaren interpretazio zentro berriaren kudeaketa-plana egiteko proiektua</u>, Lea-Artibai Amankomunazgoak sustatuta.</p> <p><u>Bizkaiko itsasertza mugarriztatzea eta bertako landare inbaditzaileak kentzea</u>. Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioa.</p> <p>2010. urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzak <u>Baccharis halimifolia</u> espeziea desagerrarazteko LIFE proiektu bat garatzen ari da, 2012. urtera arte luzatuko dena. Lea ibaiaren inguruko paduretan, <u>Baccharis halimifolia</u>-ren espezie bakarreko masak hartutako 0,5 hektareako azalera jardun da, 1410 habitat gisa lehengoratzeko. Aurreko kasuan bezala, gainerako azalera, 3 hektareako proiektu-eremua, espezie horrek hartzeko arriskutik babestuko da, gaur egun duena baino babes handiagoarekin.</p>	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Sistemaren, habitaten padura-mosaikoaren eta bertan dauden fauna- eta flora-populazioen funtzionaltasun osoari eustea eta hura kontserbatzea.
1. helburu operatiboa	Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta ibilguaren naturaltasuna bermatzea
Jarduerak	Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, 2.JAR.7 jarduera, itsasaldiek ekarritako eta utzitako hondakinak kentzeko lanekin loturikoa. Era berean, 7.J.1 jarraibidea ere aplikatuko da, aireko naiz lur azpiko zerbitzu-instalazioak kentzeari dagokiona.
2. helburu operatiboa	Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea. Egungo azalerari eustea
Jarduerak	Aplikagarriak dira estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduera, eta, bereziki, 2.JAR.5 eta 2.JAR.8 jarduerak. Batasunaren intereseko paduretako habitaten kontserbazio-egoeraren aldizkako jarraipena egingo da; bereziki ebaluatuko dituzte hartutako azalaren aldaketa-eritmoak, askotariko habitaten arteko bihurketak, eta horietako bakoitzaren egitura-bilakaera. Era berean, estuarioan arriskupean dauden flora-populazioak monitorizatuko dira.
3. helburu operatiboa	Uren kalitatea bermatzea
Jarduerak	2.JAR.2 jarduera aplikatuko da (EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sareak lortutako datuen jarraipena), E-L10 eta E-L5eko estazioei dagokienez. Horrez gain, emaitzen txostena egingo da; bertan, besteak beste, hauek azpimarratuko dira: zer kontserbazio-egoera duen, zer presiok eta mehatxuk eragiten duten uren kalitatean, eta zer konponbide izan ditzakeen.
4. helburu operatiboa	Bertakoa ez den flora-espezie inbaditzaileak desagerraraztea
Jarduerak	2.JAR.4 baterako jarduera aplikagarria da. Jarduera hori <u>Baccharis halimifolia</u> desagerrarazteko LIFE proiektuaren baitan sartzen da, eta 2012. urtera arte luzatuko da. Lea ibaiaren inguruko paduretan, 3 hektareako azalera eragitea aurreikusi da.
5. helburu operatiboa	Ingurumen-heziketako jarduerak bultzatzea, eta aisialdi-erabilera sustatzea eta arautzea, estuarioko balioak aintzat hartuta
Jarduerak	Aplikagarri dira 2.JAR.14 eta 2.JAR.15 jarduerak. Itsasadar honi dagokionez, Marierrota itsas errotaren eraikina eta haren barne-mekanismoa eraberritzeko eta naturaren interpretazio zentro berriaren kudeaketa-plana egiteko proiektua egingo da, Lea-Artibai Amankomunazgoak sustatuta.

IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA**Justifikazioa**

Lea ibaia/Río Lea KBEa bere ibilbide guztian zehar lotura-interes berezia duen ibai-tartea da. Lea ibaiaren ibai-korridore ekologikoak barnean hartzen ditu lehorreko, uretako eta aireko korridoreak, eta oso bide garrantzitsuak dira fauna- eta flora-espezieak hedatzeko, ibaietakoak izan zein ez, bai eta migrazioetarako ere. Horrez gain, ibaiaren dinamika naturalak ingurune-aniztasuna eta mikrohabitata sortzen ditu, beharrezkoak direnak flora- eta fauna-espezie asko babesteko, elikatzeko, ugaltzeko eta/edo hedatzeko. Bereziki aipagarriak dira espezie hauek: bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta izokina (*Salmo salar*). Bi espezie horiek Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasota daude (abenduaren 13ko Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen II. eranskina). Horrez gain, baso alubiala (haltzadi-lizardia) Batasunaren intereseko lehentasunezko habitata da (91E0*), eta hala dago jasota Habitategi buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean (abenduaren 13ko 42/2007 Legearen I. eranskina).

Kontserbazio-egoera

Lehorreko korridorea: ibaiartzaren kontserbazio-egoera aldatuz doa KBEan zehar. Landa-eremuetako ibaiartzetan, nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileren ondorioak jasaten dituzte, eta horrenbestez, habitataren erabilgarritasuna eta ekologia-lotura gutxiagotu egiten dira. Baso-eremuetako zatietan, erriberako basoa ondo kontserbatzen da eta korridorearen funtzionaltasuna hobea da.

Landa-eremuetatik igarotzen diren KBEaren zatien ekologia-egoera «nahiko ona» da; baso-eremuetako ekologia-egoera, berriz, «ona» dela esan daiteke.

Uretako korridorea: KBEaren barnean, uraren kalitatea «ona» da.

Lea ibaia/Río Lea KBEko uraren kalitatea			
Ur-masa	Kalitate fisiko-kimikoa	Kalitate biologikoa	
		Makroornogabeen MBI indizea	Arrain-fauna
Lea-Artibai	Oso ona	Nahiko ona	Ona

2008ko egoera biologikoaren emaitzek kalifikazio «nahiko ona» lortu dute, baina, hala ere, ohikoa da egoera biologiko «ona» duten emaitzak lortzea. Azken urteetan izan den joera ona aintzat hartuz, 2008ko emaitzak noizbehinkako isurketen ondorio izan zitezkeela uste da.

Bestalde, ekologia-lotura eta ibaiaren dinamika eraldatuta daude oztopoengatik (presa txikiak), uretako ingurunearen mende bizi diren espezieen migrazioa oztopatzen baitute.

Aireko korridorea: Lea ibaia/Río Lea KBEa hainbat linea elektrikok gurutzatzen dute, edota eremu horretatik oso gertu edo paralelo igarotzen dira. Gainera, linea horiek ez daude balizatuta, hegazti-faunak talka egin dezan eragozteko.

Presioak eta arriskuak**Lehorreko korridorea:**

KBEan luzetarako jarraitutasunaren etendurak (kanalizazioak) daude. Taula honetan adierazi dira:

KBEan (bi ertzetan) babesak (hesiak, eraikuntzak edo harri-lubetak) dituzten tarteen luzera (m-tan)	
Horma / Hormigoizko harri-lubeta / Eraikuntzak herri-jabari hidraulikoan	1.131
Harri-lubeta lehorra / harrizko horma / nahasia	335

Oro har, baxua da eraldaketa morfologikoengatik presioa (estaldurak, kanalizazioak, oztopo artifizialak – presa txikiak –, zubiak, askotariko azpiegiturak, Lea ibilbidea eta herri-jabari hidraulikoari dagozkion beste eremu batzuen okupazioa).

Bestalde, zenbaitetan belardiak eta labore-sailak ibilguaren ertzean daude, eta horren ondorioz, etendurak daude galeria-basoetan (810 m kalkulatu dira). Horrela, erriberako landaredia sinplifikatu egin da, eta belar-geruzak soilik iraun du.

Uretako korridorea:

Uraren kutsadura: uraren kalitatea eta ibaiaren egoera ekologikoa «ona» da, ibaiaren adierazle biologiko-etan eragin dezaketan noizbehinkako isurketa batzuk salbu.

Presa txikiak/oztopoak: ibaiaren luzetarako jarraitutasuna funtsezkoa da arrain-espezieak, migratzaileak direnak zein ez direnak, mugitzeko eta lekualdatzeko, mugimendu horiek ezinbesteko baitituzte beren bizi-zikloa osatzeko.

- KBE honetan 15 oztopo daude:
 - Hasierako zatian, Talorreketa ibaiadarrarekin bat egiten duen lekura arte, ibaia iragazkorra da, erakitako 4 eskailearren bidez.
 - Tarteko zatian, Bizkaiko Foru Aldundiak arrain-eskaileak jartzea aurreikusi du, bertan dauden 3 presa txikien iragazkortasunerako.
 - Ibaiaren amaierako zatian daude gainerako presa txikiak; ibaia iragazkor bihurtzeko, presa horietarako hainbat aukera aztertzea proposatu da.
- Uretako korridorearen jarraitutasunean eragiten duten beste elementu batzuk oztopoetatik gorako tartetan sortzen diren urmaelak dira, ibai-habitatak eraldatzen baitituzte.

Aireko korridorea:

KBEa zeharkatuko duten linea elektriko berriak eraikitzeko aukerarekin daude lotuta arriskuak.

Gaur egungo jarduerak eta legezko baldintzatzaileak**Lehorreko korridorea:**

Legezko baldintzatzaile positibotzat hauek aipa daitezke:

- Urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretua, Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Erregelamendua (HJHE) aldatzen duena: herri-jabari hidraulikoaren eta haren zortasun-zonaren erabilera arautzen du. Horren helburuak dira herri-jabari hidraulikoaren egoera kontserbatzea, uretako ekosistemak hondatzeari aurrea hartzea, ekosistema horiek hobetzea, eta abar.
- Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Plana (Bizkaiko Golkoko isurialdea). Besteak beste Natura 2000 Sarekoak diren eremuetan, «babes-irizpide nagusia 'Ibilgua Babesteko Eremu' bat ezartzea da (landa-eremuetako ibaiertzetan, ibilgu publikoaren mugabanaketa-lerroarekiko 50 metroko gutxieneko erretiroa), eta ingurunea eralda dezakeen edozein jarduera debekatzea».
- EAeko Landa Garapen Iraunkorrerako Programa (2007-2013). Aintzat hartzen ditu zenbait nekazaritza- eta ingurumen-neurri, biodibertsitateari eta nekazaritza-paisaiari eusteko; horretarako, erriberako heskaiak eta landaredia kontserbatuko dira lursailetik pasatzen diren ibai-ibilguen inguruan. Jarduera hori lehentasunezkoa da Natura 2000 Sareko eremuetan. Era berean, baso-lurren erabilera iraunkorra lortzea xede duten neurrien artean, erriberako landaredia kontserbatzeko eta lehengoratzeko buruzkoak nabarmendu dira.
- Gauzatu daitezkeen jarduerak planteatzean, beste baldintzatzaile garrantzitsua da lursailen jabetza; gehienetan pribatua da.

Uretako korridorea:

Aurrez aipatutako xedapenetatik eratortzen diren legezko baldintzatzaileez gain, ekainaren 23ko 1/2006 Legea aipatu behar da, Urarena. Lege horretan, Euskadiko Mugape Hidrografikoaren Plangintza Hidrologikoan aintzat hartu beharreko alderdi batzuk jasotzen dira; besteak beste, emari ekologikoen araubide juridikoari buruzkoak. Araudi horretan, 2.40 artikuluan, honela definitu da emari ekologikoa: uretako ekosistemen funtzionamendua, osagaiak eta egitura egoera naturalean mantentzeko gai den emaria edo, hala badagokio, ur-baliabidearen bolumena.

Uretako korridorea lehengoratzeko neurriak ezartzeko baldintzatzaile nagusietako bat indarrean dauden uraren erabilerari eta aprobetxamenduari buruzko administrazio-emakidak dira, kontsumo-erabilerak nahiz kontsumokoak ez direnak barne hartzen dituztenak; emakida-aldi luzekoak dira, eta kasuren batean (emari ekologikoak), ezarritako baldintzak ez dira nahikoak KBEan funtsezkotzat hartutako espezieak egoera onean kontserbatzea bermatzeko.

KBEan gauzatzen ari diren jardueren artean, hauek aipatu behar dira:

- Eusko Jaurlaritzak, Uraren Euskal Agentziaren (Uragentzia) bidez, EAeko lurrazaleko ur-masen egoera ekologikoa kontrolatzen du, bi kontrol-sareren bitartez: Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera biologikoaren jarraipenerako sarea eta Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera kimikoaren jarraipenerako sarea. Horren baitan, arrainen laginketak ere sartzen dira.
- Bizkaiko Foru Aldundiak uraren kontrol fisiko-kimikorako eta hidrometeorologikorako sarea du Bizkaiko lurralde historikoan (BFA).
- Bizkaiko Foru Aldundia Bizkaian Izokin Arrunta Berreskuratzeko Plana gauzatzen ari da Lea eta Barbadun ibaietan (BFA).
- Oztopoak iragazkor bihurtzeko programa, azterketa hauekin lotuta:
 - Presen eta ibaien jarraitutasuna eteten duten oztopoen inbentarioa, egoeraren azterketa eta Bizkaiko ibaietan arrain-faunak libreki zirkulatzeko izan daitezkeen aukeren azterketa (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005).
 - Bizkaiko lurralde historikoko jarduera hidrologikoen eta ingurumen-jardueren plana. 2005 Ambisat, S.L. Bizkaiko Foru Aldundia.
 - Lea ibaiaren ingurumen-hidrologia berrezartzeko proiektua. 2006- Ambisat, S.L. Bizkaiko lurralde historikoko jarduera hidrologikoen eta ingurumen-jardueren planaren (Bizkaiko Foru Aldundia) baitan dago sartuta.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	Lea ibaia/Río Lea KBEaren ibai-korridorea kontserbatzea eta lehengoratztea.
1. helburu operatiboa	Korridore ekologiko jarraitua kontserbatzea eta lehengoratztea, ibaiertzen arteko ekologia-lotura bermatzeko eta fauna lekualdatu ahal izateko
Jarduerak	<p>1.JAR.1. Ibaiertzetako landaredi naturalaren egitura eta osaera hobetzea, gutxienez 5 metroko banda batean, KBEaren eremu guztian zehar, zenbait erabilera direla medio jarraitutasuna galdu den eremuetan (10,91 ha). Ikus Jardueren mapa.</p> <p>1.JAR.2. Ibaiertzetako lursailen jabeekin borondatezko akordioak sustatzea, erriberako landaredi naturalaren egitura eta osaera hobetzeko (10 metroko zabalera). Helburua: 9,04 hektarearako akordioak. Ikus Jardueren mapa.</p> <p>1.JAR.9. Harri-lubetak berriro landareztatzeko proiektuak eta ibaia bideratuta dagoen eremuen ertzetan landaketak egiteko proiektuak (335 ml).</p> <p>JP.1. Lea ibilbidea iragazkor bihurtzeko eta paisaian integratzeko proiektu bat idaztea eta gauzatzea. Bidearen paralelo heskaiak eta ezpondak landatzeko eta hesi zinegetikoak kentzeko plana.</p> <p>Aplikagarriak dira, halaber, beste bi jarduera hauek: 1.JAR.3, herri-jabari hidraulikoa zehazteari eta KBEaren barnean ibai-lurraldea mugatzeari buruzkoa; eta 1.JAR.21, ibai-korridorea kontserbatzeak duen garrantziari buruzko ingurumen-heziketako eta -sentsibilizazioko jarduerak garatzea, eremu horretan dauden ikastetxeetan, nekazarien elkarteetan eta basogintzako elkarteetan.</p>

2. helburu operatiboa	KBEaren barnean, uraren kalitatea eta ibaiaren egoera ekologikoa hobetzea							
Jarduerak	<p>1.JAR.10, ibaiaren arroan egiteke dauden saneamendu-planak gauzatzearekin lotuta (Aulesti eta Munitibar).</p> <p>1.JAR.5 eta 1.JAR.6. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak KBEaren eremuan aldian-aldian egiten dituen laginketak egiten jarraitzea (lurrazaleko uren kalitatearen laginketa-sarea). Kontrolak Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako protokoloei jarraituz egingo dira, eta horren barruan egoera ekologikoaren kalkulua egingo da zuzentarauak ezarritakoaren arabera. Bi kontrolgune berri izango dira: Oiz errekan eta ardatzaren erdialdean, Aulestitik behera. Urtean behin, eremuari buruzko berariazko txosten bat egingo da; bertan, kutsadura-iturriak eta gerta daitezkeen aldaketak zehaztuko dira, bai eta egoera ekologiko ona ziurtatzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak ere.</p>							
3. helburu operatiboa	Uretako korridoreko oztopoak kentzea							
Jarduerak	<p>JP.2. KBEan dauden oztopoak iragazkor bihurtzea, «Lea ibaiaren ingurumen-hidrologia berrezartzeko proiektua»ri jarraiki (Bizkaiko Foru Aldundia). A0123, A0124 eta A0125 oztopoak. A0125 presa txikiari dagokionez, deribazio-ubideak lehengoratzea eta beste ibilgutzat baliatzea, edo jauzia gaudituko duen kanalizazio artifizial bat eraikitzea proposatu da.</p> <p>JP.3. KBEan dauden oztopoak iragazkor bihurtzea, dokumentu honetan ezarritako lehen-tasunei jarraiki: «Presen eta ibaiaren jarraitutasuna eteten duten oztopoen inbentarioa, egoeraren azterketa eta Bizkaiko ibaietan arrain-faunak libreki zirkulatzeko izan daitezkeen aukeren azterketa» (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005).</p> <table border="1" data-bbox="347 1106 1426 1335"> <tr> <td>A0126 presa txikia: eraistea.</td> </tr> <tr> <td>A0127 presa txikia: presa txikia eraistea edo, hala badagokio, harrizko arrapala bat eraikitzea.</td> </tr> <tr> <td>A0128 presa txikia: eraistea.</td> </tr> <tr> <td>A0130 presa txikia: segidako dike-eskalak eraikitzea.</td> </tr> <tr> <td>A0131 presa txikia: eraistea.</td> </tr> <tr> <td>A0132 presa txikia: eraistea edo, hala badagokio, jarduera gogor bat burutzea¹.</td> </tr> <tr> <td>A0133 presa txikia: eraistea edo, hala badagokio, jarduera gogor bat burutzea.</td> </tr> </table> <p>JP.2 eta JP.3 jardueren baitan, aingirentzako igarobide espezifikokoak gehitu beharko dira, igarobide multiespezifikokoak ez eraikitzea hautatzen bada –esaterako, alboetan ubideak eraikitzea edo eraiste partzialak egitea–. Era berean, eraikitako arrain-eskaileraren eragin-kortasuna egiaztatu behar da. Arrain-eskailerak ez badira eraginkorrak, beharrezko neurriak hartuko dira KBEan funtsezko elementu diren arrainen eta gainerako espezieen lekualdatzeak bermatzeko.</p> <p>Halaber, 5.A.6 araudia aplikagarria da KBEan dauden presa txiki guztietan. Aurreko paragrafoetan adierazitakoez gain, araudi hori aplikatuko da A0119, A0120, A0121 eta A0122 presa txikietan.</p>	A0126 presa txikia: eraistea.	A0127 presa txikia: presa txikia eraistea edo, hala badagokio, harrizko arrapala bat eraikitzea.	A0128 presa txikia: eraistea.	A0130 presa txikia: segidako dike-eskalak eraikitzea.	A0131 presa txikia: eraistea.	A0132 presa txikia: eraistea edo, hala badagokio, jarduera gogor bat burutzea ¹ .	A0133 presa txikia: eraistea edo, hala badagokio, jarduera gogor bat burutzea.
A0126 presa txikia: eraistea.								
A0127 presa txikia: presa txikia eraistea edo, hala badagokio, harrizko arrapala bat eraikitzea.								
A0128 presa txikia: eraistea.								
A0130 presa txikia: segidako dike-eskalak eraikitzea.								
A0131 presa txikia: eraistea.								
A0132 presa txikia: eraistea edo, hala badagokio, jarduera gogor bat burutzea ¹ .								
A0133 presa txikia: eraistea edo, hala badagokio, jarduera gogor bat burutzea.								

¹ **Jarduera gogorra:** presa txikian edo presan aldaketa handi bat egitea eragiten duten jarduera guztiak. Horrelako jardueretan ibaiaren balio naturalekin bateragarriak diren metodologiak eta teknikak erabiltzea gomendatzen da; adibidez, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako «Ibaietako natura-ingeniaritzako tekniken eskuliburua»n (Palmeri et al. 2002) aurki daitezkeenak. Mota hauek hartzen ditu barnean:

- Eraikitzea: hau da, arraintzako pasabide bat (eskailera edo arrapala) aztertzea eta eraikitzea, paraleloan beste ibilgu bat eraikitzea, eta beste lan batzuk egitea, hondoan dauden isurbideak berriro irekitzea.
- Lehengoratzea: presa txikia edo presa inguruneko paisaian integratzea.

Ambiotek, 2005. «Presen eta ibaiaren jarraitutasuna eteten duten oztopoen inbentarioa, egoeraren azterketa eta Bizkaiko ibaietan arrain-faunak libreki zirkulatzeko izan daitezkeen aukeren azterketa». Bizkaiko Foru Aldundia.

4. helburu operatiboa	KBEko ibaietan emari naturalen erregimena bermatzea
Jarduerak	1.JAR.4. Uraren Euskal Agentziaren aurrean, Lea ibaian indarrean dauden emakida guztietan aplikatzen diren ingurumen-emarien erregimena berrikus dadin sustatzea. Horretarako, KBEan funtsezko helburutzat hartutako habitatak eta espezieak babestea edo haien kontserbazio-egoera ona lortzea xede duen berariazko azterlana egingo da. Ingurumen-emaria kalkulatzeko, KBEan dauden arrain-espezieen arabera diseinatutako eredu biologikoak erabiliko dira. Hala egin ezean, ibaiaren hidrograma naturalari egokitutako emari-erregimen bat aplikatzea proposatzen da (Emari Ekologiko Modularra edo beste batzuk).

HALTZADIAK ETA LIZARDIAK (EBko KODEA: 91E0*)**Justifikazioa**

- Haltzadien eta lizardiaren habitata lehentasunezko habitata da eta Habitategi buruzko Zuzentzararen I. eranskinean jasota dago. Lea ibaiko erriberako ibai-habitat bereizgarria da hori.
- Habitat-mota horretan arriskupean dauden espezie urtarrak eta urtar-lehortarrak daude; bereziki aipagarria da bisoi europarra (*Mustela lutreola*).
- Lea ibaia babesteko eta elikatzeko lekua da intereseko beste fauna-espezie batzuentzat; adibidez, amuarrain eta aingirentzat, eta agian, baita Europar Batasunaren intereseko intsektu saproxilikoentzat ere. Gune heze txikien garapena sustatzen dute, espezie asko babesteko eta ugaltzeko balio dutenak.
- EAEn oso gutxi hedatuta dauden beste espezie batzuen habitat bereizgarria dira, adibidez: *Cinclus cinclus* (ur-zozoa) eta *Alcedo atthis* (martin arrantzalea).
- Askotariko flora-espezieak daude bertan, eta horrek nabarmen laguntzen dio leku horretako biodibertsitate espezifikuari.

CO₂ xurgatu eta ura iragazten dute, ibilguari itzala ematen diote eta uholdeen ondorioak arintzen dituzte; horrela, uraren eta, oro har, ibai-sistemaren kalitatea hobetu egiten da.

Kontserbazio-egoera

- Ibai-ibilguan zehar, haltzadiak eta lizardiak dira nagusi, Lea ibaia/Río Lea KBEan. Dena den, horren osaera eta egitura ez da hoberena KBEko zati askotan, landa- eta baso-eremuen presioa dela eta.

	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Azalera			X	
Egitura eta funtzio espezifikoak			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak

Presio eta arrisku nagusiak bat datoz ibai-korridorearen funtsezko elementua deskribatzean zehaztutakoekin:

- Aldaketa morfologikoak: kanalizazioak, oztopo artifizialak (presa txikiak), zubiak eta herri-jabari hidraulikoari dagozkion eremuen beste okupazio batzuk.
- Belardiak eta labore-sailak.
- KBEa handitzeko proposaturiko zonetan, beharrezkoa da habitategi zer azalera hartzen duten eta haiek zer kontserbazio-egoera duten hobeto jakitea, habitategi interesekoak izan ala ez.

Gaur egungo jarduerak eta legeko baldintzatzaileak

Lehorreko ibai-korridoreari funtsezko elementu den aldetik dagozkion berberak.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Ibai-habitaten kontserbazio-egoera babestea eta hobetzea. <ul style="list-style-type: none"> - Habitat naturalek hartutako azalera handitzea. - Ondoen kontserbatu diren guneen egungo egoerari eustea. - KBEaren barnean intereseko zer flora- eta fauna-espezie dauden hobeto jakitea.
1. helburu operatiboa	Habitat naturalek hartutako azalera osoa handitzen laguntzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoa funtsezko elementuan ibai-korridorea kontserbatzeko eta lehengoratzeko proposatutako jarduerak.
2. helburu operatiboa	Intereseko habitaten kalitate ekologikoa hobetzea
Jarduerak	1.JAR.17. Flora-espezie exotiko inbaditzaileak (<i>Buddleja davidii</i> , <i>Robinia pseudoacacia</i> , <i>Arundo donax</i> eta <i>Phyllostachys aurea</i>) desagerraraztea; izan ere, espezie horiek direla eta, KBEko habitat naturalen balioa murrizten da. Espezie horiek desagerrarazteko jardueren aldian aldiko jarraipena egingo da (urtean behingoa), eta berriro egingo da tratamendua, beharrezkoa izanez gero. Lan horien xede den eremuaren ingurumena lehengoratzeko lanak ere sartzen dira jardueran, eta horretarako, espezie inbaditzaileak errotzea eragozten laguntzen duten espezie autoktonoak landatuko dira.
3. helburu operatiboa	KBEan dauden Batasunaren intereseko fauna- eta flora-espezieen kopurua eta banaketa hobeto jakitea
Jarduerak	1.JAR.12. KBEaren barnean, urarekin lotutako intereseko beste habitat batzuen inbentarioa eta azaleraren xehetasun-kartografia egitea. Era berean, aplikagarria da 1.JAR.13 jarduera: batasunaren intereseko ornogabeen eta ibai-ingurunearekin lotutako intereseko beste espezie ornogabe batzuen egoera nolakoa den hobeto jakitea.

BISOI EUROPARRA (MUSTELA LUTREOLA)**Justifikazioa**

Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan (abenduarien 13ko Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eta V. eranskinetan) jasotako espeziea da. Galtzeko arriskuan daude, Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoaren arabera. Lea ibaia/Río Lea KBEa interes bereziko eremua da espezie horrentzat.

Kontserbazio-egoera

Bisoi europarra: Lea ibaiaren arroa Bizkaiko mendebaldeko kostako populazio-gunean sartzen da; bertan, bisoi europarraren agerpenen aipu gutxi egin dira azken urteetan. Zehazki, Arbina ibaiaren Zulueta erre-kastoari dagozkion erreferentziak daude (J. González Esteban. 2011), bai eta ondoko ibilguzi (Urdaibai eta Artibai) dagozkienak ere.

Esan daiteke espezieak EAEn bilakaera negatiboa izan duela, eta banaketa zatikatua izan dela; azken urteetan, gainera, atzeraldi nabarmena izan du. Hori dela eta, bisoi europarrak Lea ibaian duen populazioa oso ahula da.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak- **Bisoi amerikarra:**

Lea ibaiaren behealdeko eta erdialdeko zatietan dagoen espeziea, bertakoa ez dena; espezie horren txoko ekologikoa bisoi europarraren ia berdina da, eta beraz, bisoi europarraren populazioa urritzea eragin dezake.

- **Ibai-ekosistemaren eraldaketa:**

Erriberako landaredia, espeziearen babeslekua eta hura ugaltzeko lekua eraldatzeak nahiz ibaiaren erregimen naturala eraldatzeak zuzenean eragiten diote espeziearen habitataren kalitateari. Ibaiaren erribera garbitzeko ohiko lanek ere bisoi europarraren habitataren kalitateari eragiten diote.

Gaur egungo jarduerak eta legeko baldintzatzaileak

Bizkaian indarrean dagoen bisoi europarra kudeatzeko planean (2006ko ekainaren 19ko Foru Dekretua), espezie hori eta haren habitata lehengoratzeko neurriak zehazten dira. Lea ibaia plan horretan zehaztu diren Interes Berezikiko Eremuen baitan sartzen da.

Bizkaiko Foru Aldundiak tranpak jarri ditu Bizkaiko hainbat ibaiaren arroetan (Lea, Artibai, Ea, Oka, Bakio eta Ibaizabal), bisoi amerikarra desagerrarazteko; izan ere, bertakoa ez den espezie hori mehatxua da bisoi europarrarentzat.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Lea ibaia/Río Lea KBEan bisoi europarraren populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikienak eginez, espezie horiek behar bezala kontserba daitezen
1. helburu operatiboa	KBEan, espezieak jasaten dituen inpaktuak murriztea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira ibai-korridorea funtsezko elementuarentzat proposatutako neurri guztiak; bereziki, uretako korridorean oztopoak kentzeari, ibai-ekosistemako funtzioei eta prozesuei eusteko behar diren gutxieneko emari ekologikoak errespetatzeari, eta hartutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteari buruzkoak.</p> <p>JP.4. KBEan, bisoi europarraren habitata hobetzeko proiektua egitea.</p> <p>Proiektuak zeregin hauek hartuko ditu bere baitan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehengoratzeko jarduera zein tartetan egin behar den identifikatzea. - Lehengoratzeko proiektuak egitea, ibaien lehengoratzeko prozesuetan ohikoak diren bioingeniaritzako irizpideak eta teknikak baliatuz. - Proiektuak gauzatzea. <p>Aplikagarria da 1.JAR.18 jarduera ere, KBEan bisoi amerikarra deuseztatzeko jardunari dagokionez.</p>
2. helburu operatiboa	Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	1.JAR.16. KBEan, bisoi europarraren populazioaren aldizkako jarraipena egitea. Jarraipen horretan, populazioaren genetika eta espeziearen patologiek populazioan izan dezaketen eragina aztertze beharrezko laginak hartuko dira.

IZOKIN ARRUNTA (SALMO SALAR) ETA ARRAIN-KOMUNITATEA, ORO HAR**Justifikazioa**

Lea ibaia/Río Lea KBEan, izokina (*Salmo salar*) azpimarratu behar da, Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta V. eranskinetako (abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eta VI. eranskinak); espezie horren presentzia Bizkaiko Foru Aldundia espezie hori berriro sartzeko egiten ari den lanaren ondorio da.

Horiez gain, arrain-komunitatearen parte dira beste espezie batzuk, hala nola: ibai-amuarraina (*Salmo trutta fario*), balio ekologiko handiko espeziea; aingira (*Anguilla anguilla*), galtzeko arrisku larrian dagoen espeziea, NKNBren arabera (2009), eta «kaltebera», Espainiako Ornodunen Liburu gorriaren arabera (1992) (urte berean, «Aingira Berreskuratzeko kudeaketa-plana» egin zuten EAEn); ezkailua (*Phoxinus phoxinus*) eta mazkarra (*Barbatula barbatula*). Arrain-komunitatea egoera onean egotea ibaiko ekosistemaren kontserbazio-egoera onaren adierazle da.

Kontserbazio-egoera

Izokinak oso presentzia urria du KBEan, eta gainera, lotura estua du Bizkaiko Foru Aldundia espeziea berriro sartzeko gauzatzen ari den planarekin. Espeziearen kontserbazio-egoera kaskarra da.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Amuarrainari, ezkailuari, aingirari eta ibaiko arrain-komunitateko gainerako espezieei dagokienez, EAeko ibaien egoera ekologikoaren jarraipen-sareko laginketetan lortutako emaitzen arabera –ez baitugu haien populazioei buruzko datu espezifikorik–, oro har kalitate biologiko «ona» izan dute, ez baitago sartutako espezierik eta bertan egon daitezkeen ia espezie guztiak baitaude.

Presioak eta arriskuak

- Kutsadura-iturri zehaztugabeen presioa (nekazaritza eta abeltzaintza) eta gune kutsatzaileen presentziak eragindakoa txikia da.
- Oro har, baxua da eraldaketa morfologikoengatikoko presioa (estaldurak, kanalizazioak, oztopo artifizialak –presa txikiak–, zubiak eta herri-jabari hidraulikoari dagozkion beste eremu batzuen okupazioa); dena den, presa txikiek eragindako presioa «nahikoa» da.
- Bestalde, «presiorik gabea» da kontsumo-erabilerek egindako presioa, eta era berean, ez da hautesman kontsumoarekin loturarik ez duen erabilerarik.
- Presa txikiak/oztopoak: ibaiaren luzetarako jarraitutasuna funtsezkoa da arrain-espezieak, migratzaileak direnak zein ez direnak, lekualdatzeko, hori ezinbesteko baitute beren bizi-zikloa osatzeko. Lea ibaia/Río Lea KBEan 14 oztopo daude, eta horiek presio neurritsua egiten dute. Bestalde, aintzat hartzekoa da, goiko tartean, presa txikiek urmaelak sortzen dituztela, eta horrek ibaiko habitata eraldatzen duela.

Gaur egungo jarduerak eta legezko baldintzatzaileak

Uretako ibai-korridorearen funtsezko elementuan aipatutako berberak dira legezko baldintzatzaileak.

Gaur egungo jarduerak: uretako ibai-korridorearen funtsezko elementurako aipatutakoak, eta zehazki honako hauek:

- EAeko ibaietako egoera ekologikoaren jarraipenerako sarea (EJ).
- EAEn ibai-aingira lehengoratzeko kudeaketa-plana (EJ).
- Bizkaian Izokin Arrunta Berreskuratzeko Plana; Bizkaiko Foru Aldundia Lea eta Barbadun ibaietan gauzatzen ari da.
- Oztopoak iragazkor bihurtzeko programa, azterketa hauekin lotuta:
 - Presen eta ibaien jarraitutasuna eteten duten oztopoen inbentarioa, egoeraren azterketa eta Bizkaiko ibaietan arrain-faunak libreki zirkulatzeko izan daitezkeen aukeren azterketa (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005).
 - Bizkaiko lurralde historikoko jarduera hidrologikoen eta ingurumen-jardueren plana. 2005 Ambisat, S.L. Bizkaiko Foru Aldundia.
 - Lea ibaiaren ingurumen-hidrologia berrezartzeko proiektua. 2006- Ambisat, S.L. Bizkaiko lurralde historikoko jarduera hidrologikoen eta ingurumen-jardueren planaren (Bizkaiko Foru Aldundia) baitan dago sartuta.
- Saneamendu-jarduerak. Azken urteetan, ahalegin handia egin da Lea ibaiaren saneamenduan; zehazki, Okamika industrigunera arte iritsi da. Halere, oraindik gauzatzeko daude Aulesti eta Munitibar – Arbatzegi Gerrikaitz– hiriguneetako saneamendu-lanak, bigarren mailako tratamendu biologiko aerobikodun sistema autonomoen bidez edota isurketak Lekeitioko saneamendu-sistemara lotuz.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	KBEan arrain-populazio autoktonoak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikienak eginez, espezie horiek behar bezala kontserba daitezen.
1. helburu operatiboa	KBEan, arrain-komunitatearen populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea
Jarduerak	JP.5. Espeziea eremu horretan berriro sartzeko programari jarraipena ematea, ohiko neurriak hartuz eta laginketak eginez: helduen populazioaren kontrola, erruteko lekuen kontrola, ugalketaren arrakasta, populazio gazteen zehaztapena, ugalketa artifiziala eta birpopulazioa - markatzea. Neurri horren baitan, azterketa bat egingo da espeziearen habitataren (mesohabitata) ezaugarriak adierazteko, eta espeziearen eskakizun ekologikotara egokitzen den zehazteko.
2. helburu operatiboa	KBEaren barnean, arrain-espezieek jasaten dituzten inpaktuak desagerraraztea
Jarduerak	Aplikagarriak dira ibai-korridorea funtsezko elementurako proposatutako neurri guztiak; hau da, oztopoak iragazkor bihurtzeari, emari ekologikoei eta hartutako neurrien eragin-kortasunaren jarraipena egiteari buruzkoak. Aplikagarria da, halaber, ibai-korridore ekologikoa funtsezko elementuaren 1.JAR.5 jarduera, KBEan egiten diren ohiko arrain-laginketen jarraipenari buruzkoa; jarduera horretan, bi kontrolgune berri gehitu dira: Oiz erreka eta ardatzaren erdialdea, Aulestitik behera.


IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA: *CINCLUS CINCLUS* (UR-ZOZOA) ETA *ALCEDO ATTHIS* (*MARTIN ARRANTZALEA*)**Justifikazioa**

Bi espezie bereizgarri dira, eta arroaren eta ibaiertzen kontserbazio-egoera bikaina adierazten dute. Bi biak daude KBE honetan. Martin arrantzalea Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean jasota dago. Bi espezie horiek «interes bereziko» gisa daude katalogatuta Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan.

Kontserbazio-egoera***Cinclus cinclus* (ur-zozoa)**

EAEn, oso banatuta dago hiru lurralde historikoetako ur-ibilguetan, eta autonomia-erkidegoko mendigu-neetako ibai-ibilguekiko lehentasuna agertu arren, itsasertzeko eremuetan ere agertzen da.

Lea ibaian, banaketa uniforme du ibaiaren ibilbide guztian. LANIUS ornitologia-elkarteak egindako azterketaren arabera (2006-2007), negua Lea ibaian igarotzen duten 16 bikote aurkitu ziren, dentsitate honekin: 5,3 bikote/10 km ibai.




Ur-zozoaren banaketa EAEn

Espezie horren habitata egoera onean dago, eta populazioaren joera ziur asko egonkorra dela uste da.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera ²	Ona			

***Alcedo atthis* (martin arrantzalea)**

Hiru lurralde historikoetan dago. Gaur egun, ez dakigu zenbatekoa den populazio ugaltzailea, ez EAEn ez KBEan.



Martin arrantzalearen banaketa EAEn. 2000-2007 aldia
Iturria: Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioa, 2007

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

² Kategoria kaskarretan, ikur espezifiko bat (adibidez, gezi bat) erabil daiteke, lehengora bueltatzen diren populazioak adierazteko.

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)	
Presio nagusiek zerikusia dute uraren kalitatearekin (701); habitataren eraldaketarekin: kanalizazioak (830), funtzionamendu hidrologikoaren eraldaketa (830, 890) eta ibaiertzetako baso-soiltzea (160); habien suntsiketarekin; eta presa eta egituren berrikuntzarekin (zubiak eta beste batzuk). Horrez gain, aintzat hartu beharrekoak dira espeziearen eskakizunak (ur-zozoarenak).	
Gaur egungo jarduerak eta legezko baldintzatzaileak	
Ibai-korridore ekologikoari dagozkion berberak.	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	KBEaren barnean ur-zozoaren eta martin arrantzalearen populazioak egon daitezzen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna
1. helburu operatiboa	KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira honako araudi hauek: 7.A.1 , 7.A.5 (kontuan hartu behar dira espezie horiek zer eskakizun dituzten zubiak, errotak eta abar diseinatzean edo zaharberritzean) eta 7.A.6 (ibaiaren inguruetan lanak egiteko data). 1.JAR.20 jarduera ere aplikagarria da (espezie horien habitata hobetzeko proiektua egitea).
2. helburu operatiboa	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 1.JAR.16 (populazioen aldizkako jarraipena) eta 1.JAR.19 (martin arrantzalea kudeatzeko plana) jarduerak.

JARRAIPEN-PROGRAMA

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
ESTUARIO-SISTEMA	Sistemaren, habitaten padura-mosaikoaren eta horiekin lotutako fauna- eta flora-populazioen funtzional-tasun osoari eustea eta hura kontserbatzea	Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta ibilguaren naturaltasuna bermatzea	Ibilguaren eta itsasaldi-kanalen egoera (hondakin solidoak)	Ez dakigu	Ibilgu nagusiaren eta itsasaldi-kanalen egoera ona
		Sistemako habitatak eta faunahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babes-tea. Eguno azalerari eustea	Habitat naturalen hektareak	14,98 ha (estuario-habitataren egungo azalera)	Habitat naturalen hektareakopurua hasierako balioaren berdina izatea
		Sistemaren, habitaten padura-mosaikoaren eta horiekin lotutako fauna- eta flora-populazioen funtzional-tasun osoari eustea eta hura kontserbatzea	Intereseko fauna- eta flora-espezieak	Arriskupean dauden 11 flora-espezie	Intereseko espezie-kopurua handitzea
			Estuario-habitategen hartzen duten azalera eta haien egitura-bilakaera	8,13 ha (1.140, 1.330 eta 1.420 habitataren egungo azalera)	Estuario-habitataren azalera hasierako balioaren berdina izatea
		Arriskupean dauden flora-populazioak zaintzea eta horiek bultzatzea	Estuario floran kontserbazio-egoera	Zenbait kontserbazio-egoera	Estuarioan dauden flora-espezieen kontserbazio-egoera hobetzea
		Uren kaltetatea bermatzea	Ur-masaren egoera ekologikoa	Ona, itsasadarraren eremuan dauden bi estazioetan (EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarearen datuak).	Egoera ekologiko «ona»ri eustea edota egoera «oso ona» lortzea
Bertakoa ez den flora-espezie inbaditzaileak desagerraraztea	Aisialdi-jarduerak kontrolatzea	Araztegiko aldizkako isurketen kontrola	Aldizkako isurketak	Isurketak desagerraraztea	
		Espezie exotikoen presentzia (hartutako azalera)	Ez dakigu	Hartutako azalera gutxitzea edo espezie exotikoak eraztea	
		KBEaren interpretazio-zentro bat	Ez dago horrelakorik	Interpretazio-zentro bat egotea	

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea	
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA	Lea ibaia/Río Lea KBEaren ibai-korridorea kontserbatzea eta lehengoratztea	Korridore ekologiko jarraitua kontserbatzea eta lehengoratztea, ibaiertzen arteko ekologia-lotura bermatzeko eta fauna lekualdatu ahal izateko	Egitura edo osaera hobetu den erriberako landarediaren azalera (ha)	0	10,91 ha, egitura eta osaera hobetuarekin	
			Ibaiertzetako landaredia hobetzeko borondatezko akordioak	0	9,04 ha	
			Harri-lubetak naturalizatzeako proiektuak eta ibaia bideratuta dagoen eremuen erretzan landaketak egiteko proiektuak	0	Ibaia bideratu den eremuetako ertzetan eginiko landaketen eta naturalizatutako harri-lubetak izatea (335 ml)	
		Lea ibaia/Río Lea KBEaren ibai-korridorea kontserbatzea eta lehengoratztea	Proposamena URA - Uraren Euskal Agentziari, herri-jabari hidraulikoa zehazteko eta ibai-lurraldea mugatzeko Lea ibaia/Río Lea KBEan	Ez da proposamena egin	Zehaztuta eta mugatuta egotea	
			Lea ibilbidea iragazkor bihurtzeko eta paisaia integratzeko neurrien gauzapena	0	Lea ibilbidea iragazkortuta egotea eta paisaia integratzeko neurriak izatea	
			Ingurumen-heziketako jardueren garapena eta naturaren interpretazioa	Ez da proposamena egin	Proposamena egin da	
		Lea ibaia/Río Lea KBEaren ibai-korridorea kontserbatzea eta lehengoratztea	Lea ibaiaren egoera ekologikoa, Uraren Esparru Zuzentzarauak ezarritako parametroak aintzat hartuta	«Ona» KBEko ibai-eremuko estazioetan (EAEko ibailetako egoera ekologikoaren jarrailpe-nerako sareko datuak)	Egoera ekologiko «ona»ri eustea edota egoera «oso ona» lortzea	
			Hiriguneetatik egiten diren isurketentzako saneamendu-sarearen egoera	Proposamena aztertzen	Proposamena egin da	
		Uretako korridoreko oztopoak kentzea	URA - Uraren Euskal Agentziaren aurrean, KBEan erabiltzen ez diren emakiden iraugitzea bultzatzea, eta oztopoak iragazkor bihurtzea	URA - Uraren Euskal Agentziaren aurrean, KBEan erabiltzen ez diren emakiden iraugitzea bultzatzea, eta oztopoak iragazkor bihurtzea	Ez da egin	Proposamena egin da
			KBEan dauden oztopoak iragazkor bihurtzea	Ez da egin	10 oztopo nagusi iragazkor bihurtu dira	
KBEan dauden arrain-eskaileren eragin-kortasuna ebaluatzea	Ez dakigu		Badakigu			

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Alderazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
			KBEn dauden oztopo guztiak iragazkor bihurtzea eta aingira igarotzeko pasabide espezifikoak egitea	Ez da egin	Egin da
			Arrain-eskailerak eta jarritako gailuak (saretak, adibidez) garbitzea eta horien mantentze-lanak egitea, une oro haien funtzionaltasuna bermatzeko.	Ez da egin	Egin da
			Ingurumen-baldintzak betetzen dituen emari-erregimena izatea, KBEn kudeaketan funtsezko zat jotzen diren elementuak kontserbatzeko	Ez da ezarri	Ezarri da
		KBeko ibaietan emari naturalen erregimena bermatzea	Herri-jabari hidraulikoko eta horra isurita ur-aprobetxamenduek erabiltzen dituzten ur-bolumen kontrol eraginkorra egiteko sistemak ezartzea eta horiei eustea	0	Sistemak instalatuta egotea KBeko ur-aprobetxamendu guztietan
		Habitat naturalek hartutako azalera osoa handitzen laguntzea	Egitura edo osaera hobetu den erriberako landarediaren azalera (ha)	0	10,91 ha, egitura eta osaera hobetuarekin
		Intereseko habitaten kalitate ekologikoa hobetzea	Espezie exotikoen presentzia (hartutako azalera)	Ez dakigu	Hartutako azalera gutxitzea edo espezie exotikoak erauztea
	Ibai-habitaten kontserbazio-egoera babestea eta hobetzea	KBEn dauden Batasunaren intereseko fauna- eta flora-espezieen kopurua eta banaketa hobeto ezagutzea	KBEn dauden intereseko flora-espezieen presentzia, kontserbazio-egoera eta kontserbatzeko neurriak	Ez dakigu	Badakigu
			Lea ibaia/Río Lea KBEn dauden intereseko ornogabeen dibertsitatea, kontserbazio-egoera eta kontserbatzeko neurriak	Ez dakigu	Badakigu
		KBEn, espezieak jasaten dituen inpaktuak murriztea	Bisoiaren habitata lehengoratzeko proiektuen garapena	Ez da egin	Egin da
BISOI EUROPARRA (<i>Mustela lutreola</i>)	Lea ibaia/Río Lea KBEn, bisoi europarraren populazioen presentzia bideragarriak bermatzea, KBEn hori hartzeko duen gaitasuna aintzat hartuta	Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Espeziearen banaketa eta populazio-egitura KBEn	Badakigu	Badakigu

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
IZOKIN ARRUNTA <i>Sa/mo salar</i> ETA ARRAIN- KOMUNITATEA, ORO HAR	KBEn arrain-populazio autoktonoak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikienak eginez, espezie horiek behar bezala kontserbatu daitezen	KBEn, arrain-komunitatearen populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea KBEaren barnean, arrain-espezieek jasaten dituzten inpaktuak desagerraraztea	Ohiko arrain-laginketak Arrain-laginketarako sarearen handitzea (2 gune berri)	Egin da (urterokoa) Ez da egin	Egin da (urterokoa) Egin da (urterokoa)
IBAIETAKO HEGAZTI- FAUNA	KBEn barnean ur-zozoaren eta martin arrantzalearen populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna	KBEn, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea	Habitata lehengoratzeko proiektuen garapena eta kontserbazio-egoera jakitea.	Ez dakigu	Proiektuak gauzaturuta egotea. Badakigu banaketaren berri. Kontserbazio-egoera «ona» lortu da edo egoera horri eutsi zaio

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2130010.xml&lang=eu

V. ERANSKINA

ES2130011 ARTIBAI/RÍO ARTIBAI KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN HELBURU
ETA JARDUERA PARTIKULARRAK**FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA -JARDUERAK**

Hurrengo tauletan, Artibai/Río Artibai KBEan kudeaketarako funtsezkotzat jotzen diren elementuariko bakoitzarentzat proposatzen diren kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo Internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

ESTUARIOA**Justifikazioa**

Artibai ibaiko estuarioa txikia da, eta oso hondatuta dago, hirigintza-presioa dela eta. Dinamika naturala 7 ha inguruko gune txiki batean soilik kontserbatu da. Gune horretan, Batasunaren intereseko habitat hauek daude:

- 1130 Estuarioa.
- 1140 Ordoki lohitsuak edo hareatsuak, itsasbeheran urpean geratzen ez direnak.
- 1330 Paduretako belardi-ihidi halofiloak.
- 1420 Paduretako sastrakadi halofiloak.

Habitat horien artean lotura zuzena dago; beraz, ohikoak dira habitat horien arteko bihurketak, baldintza edafikoen edo hidrologikoen aldaketa txikiak direla eta.

Estuario hori txikia izanik ere, Euskadiko paduretako landare-komunitate bereizgarriak ditu; hortaz, intereseko gunea da lurralde horretan. Landare-aniztasuna txikia da, baina badira intereseko fauna-espezie batzuk; batez ere, hegazti negutarrak.

Artibai ibaiko estuarioa, euskal kostaldeko beste estuario batzuk bezala, atsedean hartzeko eta elikatzeko lekua da hegazti migratzaileentzat.

Kontserbazio-egoera

Padura oso txikia da eta oso eraldatuta dago, baina sistema horietako unitate bereizgarri batzuk ditu, natura-balioa dutenak: itsasaldi-kanalak, mareen arteko eta mareen gaineko eremu lohitsuak, eta uharte-txoak. Azalera txikia izan arren eta oso eraldatuta egon arren, badu nolabaiteko egitura-komplexutasuna, eta horrek bide ematen du estuario-sistemaren funtzionaltasunari eusteko, Arrabeta eta Goitizeko inguruan.

Uren egoera ekologikoa onargarria da Arrabeta eta Goitiz inguruan, baina kaskarra da eremuaren kanpoaldean. Estuario-ingurunean urak isurtzen dituzten hiru erreka daude, eta kalitate oneko ura dute.

	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Azalera			X	
Egitura eta funtzio espezifikoak			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak

Hauek dira estuario-sistemaren funtzionaltasunean eragiten duten edo eragin dezaketen baldintzatzaile nagusiak:

- Hirigune- eta hirigintza-presio handia.
- Isurpenak eta ekaitzetarako gainezkabideak.
- Babes-azpiegiturak daude, ibaiertzen naturalizazioa eta faunaren joan-etorriak oztopatzen dituztenak.
- Itsasaldietan urpean ez gelditzeko elementuak daude (dikeak, pezoiak).
- Eremuaren iparraldean, saneamendu-sistemako elementu bat dago: Zabalguneko ponpaketa-estazioa.
- Flora aloktono inbaditzailea (batez ere, *Arundo donax*, *Cortaderia selloana*, *Robinia pseudoacacia* eta banbuak).
- Ibaiertzeko landarediaren jarraitutasunaren etendurak.
- Ibaitek gertu dauden BI-633 errepidea eta Ondarroako errepide zaharra. Tarte batzuetan, ia ez da espaziorik geratzen errepide horien eta padura-eremuaren artean (Arrabetan eta Erreneriako mendoan). Aurreikusitako jardueretarako, kontuan hartu beharko dira zortasun-zonak.
- Azpiegiturek eremua zeharkatzeak erabilera-zortasuna dakar, eta landarediaren jarraitutasuna baldintza dezake:
 - BI-633 errepideko zubia, itsasadarraren mendebaldean.
 - Erreneria auzoaren eta Aieriko landazabalaren arteko zubia.
 - Zaldupeko zubia.
 - Itsasadarraren iparraldeko eremua zeharkatzen duten linea elektrikoa.
- Beste baldintzatzaile bat jabetza-araubidea da. Izan ere, itsasadarraren ondoko eremu batzuk jabetza pribatukoak dira. Horrek zaildu egiten du kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurriak aplikatzea, eta, beraz, jabeen eta erakunde publikoen arteko akordioak eta konpromisoak bultzatuko dituzten formulak bilatu behar dira (kontratu bidezkoak nahiz borondatezkoak), edo zenbait lursail erosi beharko dira.
- Aieriko Bizitegi Arearen Hiri Antolamenduko Plan Berezia eta Aieriko Padura (Arrabeta-Goitiz) eta eremu horretako Artibai ibaiaren ibaiertzak Lehengoratzeko eta Kontserbatzeko Proiektua.

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak

Ibaiaren eremuan zenbait jarduera egingo dira, natura-balioak kontserbatzeko helburua dutenak eta ez dutenak:

- Aieriko Bizitoki Arearen Hiri Antolamendurako Plan Berezia gauzatzea.
- Aieriko Padura (Arrabeta-Goitiz) eta eremu horretako Artibai ibaiaren ibaiertzak Lehengoratzeko eta Kontserbatzeko Proiektua gauzatzea.

Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak Aieriko Hiri Antolamenduko Plan Berezia gauzatzeko ezarritako neurriak betez idatzi da lehengoratzeko-proiektu hori. Proiektu horrek eremu horretarako aurreikusitako Plan Bereziaren egitura baldintzatzen du, eta eremuaren urbanizazio-obrekin batera gauzatuko da.

Proiektu horren helburua da Aierirako onartutako bizitoki-arearen garapena bateragarri egitea autoas- kitasunezko eta lurraldean integratutako ekosistema baten kontserbazioarekin, Aieriko padurako eta Artibai ibaiko prozesu eta funtzio ekologikoen iraupena bermatuz.

- Bizkaiko itsasertza mugarriztatzea eta bertako landare inbaditzaileak kentzea.

<p>Legezko baldintzatzaileei dagokienez, hauek dira bereziki aipagarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kostaldeei buruzko Legea eta hura garatzeko araudia. - EAEko Hezeguneak Babestu eta Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Plana. - EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Plana. <p>Beste baldintzatzaile bat jabetza-araubidea da. Izan ere, itsasadarraren ondoko eremu batzuk jabetza pribatukoak dira. Horrek zaildu egiten du kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurriak aplikatzea, eta, beraz, jabeen eta erakunde publikoen arteko akordioak eta konpromisoak bultzatuko dituzten formulak bilatu behar dira (kontratu bidezkoak nahiz borondatezkoak), edo zenbait lursail erosi beharko dira.</p>	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Sistemaren, padurako habitaten mosaikoaren eta ingurune horrekin lotutako fauna- eta flora-populazioen funtzionaltasun osoari eustea eta hura kontserbatzea
1. helburu operatiboa	Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak; bereziki, 2.JAR.7 neurria, itsasaldiek ekarritako eta utzitako hondakinak kentzeko garbiketetan eta intereseko eremuen kontserbazioa bateragarri egiteari buruzkoa.
2. helburu operatiboa	Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea
Jarduerak	Aplikagarriak dira estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak; batik bat, hauek: 2.JAR.5 , estuarioetako habitaten jarraipena egiteari buruzkoa; 2.JAR.10 , habia hemen egiten duten eta negua hemen igarotzen duten hegaztien urteroko erroldakantainari buruzkoa; eta 2.JAR.11 , Euskadiko estuarioek uretako hegaztientzat duten garrantzia aztertzekeo azterlan bat egitea, urtebetean zehar. KBE horren kudeaketa-organoak zainduko du Aieriko Padura (Arrabeta-Goitiz) eta eremu horretako Artibai ibaiaren ibaiertzak Lehengoratzeko eta Kontserbatzeko Proiektua behar bezala garatzen eta gauzatzen dela.
3. helburu operatiboa	Arriskupean dauden flora-populazioak kontserbatzea eta sustatzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak; bereziki, hauek: 2.JAR.5 , estuarioetako habitaten kontserbazio-egoeraren jarraipena egitea; eta 2.JAR.8 , estuarioan arriskupean dauden flora-populazioen monitorizazioa egitea.
4. helburu operatiboa	Uren kalitatea bermatzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 1.JAR.10 jarduera (egitekeo dauden saneamendu-planak gauzatzea) eta 2.JAR.2 (estuarioko uren egoera ekologikoaren jarraipena egitea), estazio hauetarako: E-A10 (ontzirelekua) eta E-A5 (Errenteria).

5. helburu operatiboa	Flora-espezie aloktono inbaditzaileak desagerraraztea
Jarduerak	Aplikagarria da 2.JAR.4 baterako jarduera: flora exotiko inbaditzailea desagerraraztea; batez ere, espezie hauek: <i>Arundo donax</i> , <i>Cortaderia selloana</i> , <i>Robinia pseudoacacia</i> eta banbuak.
6. helburu operatiboa	Aisialdiko jarduerak eta hirigintzaren presioa kontrolatzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira jarduera hauek: 2.JAR.14 (ingurumen-heziketako eta sentsibilizazioko proiektu bat garatzea) eta 2. JAR.15 (erabilera publikoa kudeatzeko programa).

IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA**Justifikazioa**

Artibai/Río Artibai ibai-korridore ekologikoak lehorreko eta uretako edo itsasoko ekosistemen arteko lotura-funtzio garrantzitsua betetzen du isurialdeko arro guztian zehar, eta R13 Arno – Urdaibaiko artadi kantauriarrak korridore ekologikoaren parte da; hau da, Natura 2000 Sareko eremu horien arteko ekologia-lotura eta sare horren koherentzia bultzatzen ditu. KBEaren barneko ibai-tarte guztiak eskualdearen intereseko ibai-korridoreak dira; izan ere:

- Fauna- eta flora-biodibertsitate handia dute, eta interes handiko habitatak eta espezieak daude, hala nola haltzadiak-lizardiak eta bisoi europarra.
- Komunikazio-bideak dira, uretako eta lehorreko flora- eta fauna-espeziei lekualdatzeko aukera ematen baitiete. Gainera, eremu horretako hegazti askok ibai-sistema edo aireko korridorea erabiltzen dute lekualdatzeko eta modu naturalean batetik bestera joateko.

Jarraitutasuna, arroaren batasunarekin eta espazioaren linealtasunarekin (korridorea) loturikoa, ibai-sistemen oinarritzako ezaugarria da. Luzetarako elkarreragin guztien lotura zuzena, egoera ekologiko ona (Uraren Esparru Zuzentaraua) eta izaki bizidunen komunitateen mailaketa egokia bermatzen ditu.

Ibai-korridore jarraituak, ekologia-balioez gain, paisaia-balio bikainak ditu.

Kontserbazio-egoera

Lehorreko korridorea: Ibaiertzaren kontserbazio-egoera aldatuz doa KBEan zehar. Landa-eremuetako ibaiertzetan, nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileren ondorioz, habitataren erabilgarritasuna eta ekologia-lotura murriztu egiten da. Basoak dauden tarteetan, kontserbazio-egoera hobea da, bai eta lehorreko korridorearen funtzionaltasuna ere. Hala ere, bide-azpiegiturek eragin kaltegarria dute. Zenbaitetan, ibaiaren ardatzarekiko paralelo daude, eta horrek, korridorearen sekzioa mugatzeaz gain, habitatak pobretzen ditu eta animalien harrapatzeak eragiten ditu.

Uretako korridorea: KBEko uren kalitatea oro har ona edo oso ona da ibaiaren goiko tarteetan, baina txarra da beheko tarteetan, Markinatik behera. Egoera ekologikoari buruzko ia adierazle guztiek erakusten dute ingurumen-egoera kaskarra dela. Bereziki aipagarria da makroornogabeen komunitatearen egoera, hori baita egoera ekologikoa kaskarra dela adierazten duen adierazle nagusia. Beheko tarteetan, isurpen batzuk izaten dira, bai hiriguneetatik bai industrietatik, eta horrek presio garrantzitsua dakar.

Artibai/Río Artibai KBEko uraren kalitatea		
Estazioa (tarte)	Kalitate fisiko-kimikoa	Kalitate biologikoa
A-062 (goikoa)	Oso ona	Oso ona
A-202 (behekoa)	Eskasa	Txarra

Bestalde, lotura ekologikoa eta ibaiaren dinamika eraldatuta daude oztopoak direla eta (presa txikiak), uretako ingurunearen mende bizi diren espezieen migrazioa zailtzen baitute.

Aireko korridorea: linea elektriko batzuek KBEa zeharkatzen dute, eta beste batzuk eremu horretatik oso gertu edo paralelo igarotzen dira. Gainera, linea horiek ez daude balizatuta, hegazti-faunak talka egin dezan eragozteko.

Presioak eta arriskuak

Lehorreko korridorea:

KBEan luzetarako jarraitutasunaren etendurak (kanalizazioak) daude. Taula honetan adierazi dira:

KBEan (bi ertzetan) babesak (hesiak, eraikuntzak edo harri-lubetak) dituzten tarteen luzera (m-tan)	
<i>Horma / Hormigoizko harri-lubeta / Eraikuntzak herri-jabari hidraulikoan</i>	5.326
<i>Harri-lubeta lehorra / harrizko horma / nahasia</i>	1.383

Eraldaketa morfologikoengatik presioa (estaldurak, kanalizazioak, oztopo artifizialak –presa txikiak–, zubiak, bide-azpiegiturak eta herri-jabari hidraulikoaren beste okupazio batzuk) oro har ertaina dela esan daiteke.

Bestalde, zenbaitetan belardiak eta labore-sailak ibilguaren ertzeraino iristen dira eta, horren ondorioz, etendurak daude galeria-basoetan (5.460 m kalkulatu dira). Horrela, erriberako landaredia sinplifikatu egin da, eta belar-geruzak soilik iraun du.

Uretako korridorea:

Uraren kutsadura: arroaren beheko tartean, uraren kalitatea eta ibaiaren egoera ekologikoa kaskarra edo txarra da. Tarte horretan, hiriguneetako eta industrietako isurpenen presioa handia da. Hiriguneetatik egiten diren isurpenei dagokienez, Markinako hondakin-urak arazteko estaziokoek eragiten dute presiorik handiena. Industrietatik egiten diren isurpen batzuk ere (erauzketa-jarduerek eragindakoak eta Gardotzako industrialdetik egiten direnak) garrantzitsuak dira, eta beharrezkoa da arautzea.

Presa txikiak/oztopoak: ibaiaren luzetarako jarraitutasuna funtsezkoa da arrain-espezieak, migratzaileak direnak zein ez direnak, mugitzeko eta lekualdatzeko, mugimendu horiek ezinbesteko baitituzte beren bizi-zikloa osatzeko.

- KBE honetan 14 oztopo daude:

- Markinara bitarteko tartean, 8 oztopo aipatu dira inbentarioan; oztopo horietako batzuk ez dira iragazkorak, eta beste batzuek iragazkortasun eskasa dute.
- Goiko tartean, lehenengo bi oztopoak iragazkorak dira; gero, nekez igaro daitezkeen oztopo batzuk daude; eta azkena ere, Trabakuan BI-633 errepidearen ondoan dagoena, iragazkorra da.

Uretako korridorearen jarraitutasunean eragiten duten beste elementu batzuk oztopoetatik gorako tartean sortzen diren urmaelak dira, ibai-habitatak eraldatzen baitituzte.

Aireko korridorea:

KBEa zeharkatuko duten linea elektriko berriak eraikitzeko aukerarekin daude lotuta arriskuak.

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak

Lehorreko korridorea:

Ingugumenaren kontserbazioari begira, legeko baldintzatzaile hauek aipa daitezke:

- Urei buruzko legeria; bereziki, Herri Jabari Hidraulikoaren Erregelamendua, urtarrilaren 11ko 9/2008ko Errege Dekretuan idatzitako modu berrian. Herri-jabari hidraulikoaren eta haren zortasun-zonaren erabilera arautzen du. Horren helburuak dira herri-jabari hidraulikoaren egoera kontserbatzea, uretako ekosistemen hondatzeari aurrea hartzea, ekosistema horiek hobetzea, eta abar.
- Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Bizkaiko Golkoko isurialdea). Plan horren arabera, Natura 2000 Sarearen barneko ibaiertzak Natura Intereseko Lehentasunezko Eremuak dira. Eremu horietan, «babes-irizpide nagusia 'Ibilgua Babesteko Eremu' bat ezartzea da (landaremuetako ibaiertzetan, ibilgu publikoaren mugabanaketa-lerroarekiko 50 metroko gutxienezko erretiroa, eremu horiek ez badute berariazko antolamendu-dokumenturik), eta ingurunea eralda dezakeen edozein jarduera debekatzea». Erretiro horiek errespetatu beharko dira lurzoru naturala eralda dezakeen edozein esku-hartzetan, behar bezala justifikatutako lan publikoetan, instalazioetan edo azpiegituren eraikuntzan izan ezik.

- EAeko Landa Garapen Iraunkorrerako Programa (2007-2013). Aintzat hartzen ditu zenbait nekazari-tza- eta ingurumen-neurri, biodibertsitateari eta nekazaritza-paisaiari eusteko; horretarako, erriberako heskaiak eta landaredia kontserbatuko dira lursailetik pasatzen diren ibai-ibilguen inguruan. Jarduera hori lehentasuneko da Natura 2000 Sarearen barneko eremuetan. Bestalde, baso-sailak modu iraunkorrean erabil daitezzen helburu duten neurriei dagokienez, hauek nabarmen daitezke: baso-berritzeetan espezie jakin batzuk soilik erabiltzea; mendien ustiaketan inpaktu txikia eragiten duten teknikak erabiltzea; eta erriberako landaredia kontserbatzea eta lehengoratzea.

Egin beharreko jarduerak zehaztean aintzat hartu beharreko beste baldintzatzaile garrantzitsu bat lursailen jabetza da; gehienetan, pribatua da.

Uretako korridorea:

Aurrez aipatutako xedapenetatik eratortzen diren legezko baldintzatzaileez gain, ekainaren 23ko 1/2006 Legea aipatu behar da, EAeko Urei buruzkoa. Lege horretan, Euskadiko Mugapen Hidrografikoaren Plan-gintza Hidrologikoan aintzat hartu beharreko alderdi batzuk jasotzen dira; besteak beste, emari ekologikoen araubide juridikoari buruzkoak. Araudi horretan, 2.40. artikuluan, honela definitu da emari ekologikoa: uretako ekosistemen funtzionamendua, osagaiak eta egitura egoera naturalean mantentzeko gai den emaria edo, hala badagokio, ur-baliabidearen bolumena.

Uretako korridorea lehengoratzeko neurriak ezartzeko baldintzatzaile nagusietako bat indarrean dauden uraren erabilerari eta aprobetxamenduari buruzko administrazio-emakidak dira, kontsumo-erabilerak nahiz kontsumokoak ez direnak hartzen dituztenak; emakida-aldi luzekoak dira, eta kasuren batean (emari ekologikoak), ezarritako baldintzak ez dira nahikoa KBEan funtsezkotzat hartutako espezieak egoera onean kontserbatzea bermatzeko.

KBEan gauzatzen ari diren jardueren artean, hauek aipa daitezke:

- Eusko Jaurlaritzak, Uraren Euskal Agentziaren (Uragentzia) bidez, EAeko gainazaleko ur-masen egoera ekologikoa kontrolatzen du, bi kontrol-sareren bitartez: Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera biologikoaren jarraipenerako sarea eta Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera kimikoaren jarraipenerako sarea. Horrez gain, arrainen laginketak ere egiten ditu.
- Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko lurralde historikoko sare hidrologikoko uraren kontrol fisiko-kimikoa eta hidrometeorologikoa egiteko sare bat du (BFA).
- Oztopoak iragazkor bihurtzeko programa, azterketa hauekin lotuta:
 - Presen eta ibaien jarraitutasuna eteten duten oztopoen inbentarioa, egoeraren azterketa eta Bizkaiko ibaietan arrain-faunak libreki zirkulatzeko izan daitezkeen aukeren azterketa (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005).
 - Bizkaiko lurralde historikoko ingurumen-hidrologiarekin lotutako jardueren plana. 2005, Ambisat S.L. Bizkaiko Foru Aldundia. Plan horrek barnean hartzen du Artibai ibaiaren ingurumen-hidrologia berrezartzeko proiektu bat.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	Artibai/Río Artibai KBEko ibai-korridorea kontserbatzea eta lehengoratzea
1. helburu operatiboa	Korridore ekologiko jarraitua kontserbatzea eta lehengoratzea, ibaiertzen arteko lotura ekologikoa bermatzeko eta fauna lekualdatu ahal izateko
Jarduerak	Aplikagarriak dira jarduera hauek: 1.JAR.1 , ibaiertzeko landaredi naturala lehengoratzeko 5 metroko zabalerako banda batean (13,85 ha), proposatutako tartetan (ikus Jardueren mapa); 1.JAR.2 , KBEaren barneko ibaiertzeko lursailen jabeekin borondatezko akordioak sustatzea, gutxienez 10 metroko zabalerako banda batean (5,31 ha) ibaiertzeko landaredi naturalaren egitura eta osaera hobetzeko, proposatutako tartetan (ikus Jardueren mapa); 1.JAR.3 , herri-jabari hidraulikoa zehaztea eta <i>ibai-lurraldea</i> mugatzea; 1.JAR.9 , harri-lubetan eta ibaia bideratutako eremuetan birlandaketak egitea; eta 1.JAR.21 , ibai-korridorea kontserbatzearen garrantziaz jabetzeko jarduerak.

	Lehengoratu beharreko eremuak zehaztean (1.JAR.1), aintzat hartuko da Artibai ibaiaren ingurumen-hidrologia berrezartzeko proiektua (AMBISATek, Bizkaiko Foru Aldundiarentzat, 2006ko maiatza).				
2. helburu operatiboa	KBEaren barnean, uraren kalitatea eta ibaien egoera ekologikoa hobetzea				
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira jarduera hauek: 1.JAR.10, arroaren saneamendua hobetzeari buruzkoa (Berriatua-Ondarroa kolektorearen II. fasea eta Ziortza-Bolibarko saneamendua nahiz biztanle-gune txikietakoa hobetzea); eta Markinako hondakin-urak arazteko estazioaren kontrol operatiboa.</p> <p>Halaber, aplikagarriak dira beste jarduera hauek: 1.JAR.5, gainazaleko uren kalitatea aztertzeke laginketa-sare bat diseinatzea, eta Markinatik beherako tartean beste kontrol-gune bat jartzea; eta 1.JAR.6, urtean behin ibaiaren egoera ekologikoa aztertzea. Azken jarduera horri buruzko berriazko txostenean, alderdi hau azpimarratu beharko da: ibaiaren beheko tarteari eragiten dioten industriako isurpenak arautzea eta kontrolatzea, eta egoera ekologiko ona bermatzeko beharrezko neurri zuzentzaileak proposatzea. Horrez gain, Gardotza industrialdeko kontserba-enpresetatik isurtzen den ur gazia kudeatzeko hautabideak aztertuko dira.</p>				
3. helburu operatiboa	Uretako korridoreko oztopoak kentzea				
Jarduerak	<p>Aplikagarria da bereziki 5.J.2 jarraibidea, KBEaren barnean erabiltzen ez diren emakiden irangi-tzeari buruzkoa.</p> <p>Era berean, aplikagarriak dira beste neurri hauek: 5.J.5 jarraibidea, uraren aprobetxamendurako instalazioen funtzionamendu ona bermatzea; 1.JAR.7 jarduera, aingirentzako igarobide espezifikoak ezartzea; eta 1.JAR.8, KBEaren barnean oztopoak iragazkortzeko sistemen eraginkortasuna ebaluatzea.</p> <p>JP.1.- KBEan dauden oztopo nagusiak iragazkortzeko proiektuak idatzi eta gauzatuko dira, Bizkaiko Foru Aldundiak dokumentu honetan ezarritako lehenetsunean jarraituz: <i>Presen eta ibaien arrain-fauna eteten duten oztopoen inbentarioa, egoeraren azterketa eta Bizkaiko ibaietan arrain-fauna libreki zirkulatzeko izan daitezkeen aukeren azterketa</i> (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005)». Jarduera hori kode hauek dituzten oztopoetan gauzatuko da: A0147, A0148, A0149, A0150, A0151, A0152, A0153, A0154, A0155, A0156, A0157, A0158, A0159 eta A0160.</p> <table border="1" style="margin-left: 40px;"> <tr> <td>A0147 presa txikia: jarduera gogorra¹</td> </tr> <tr> <td>A0148 presa txikia: jarduera gogorra</td> </tr> <tr> <td>A0149 presa txikia: eraistea</td> </tr> <tr> <td>A0150 presa txikia: jarduera gogorra</td> </tr> </table>	A0147 presa txikia: jarduera gogorra ¹	A0148 presa txikia: jarduera gogorra	A0149 presa txikia: eraistea	A0150 presa txikia: jarduera gogorra
A0147 presa txikia: jarduera gogorra ¹					
A0148 presa txikia: jarduera gogorra					
A0149 presa txikia: eraistea					
A0150 presa txikia: jarduera gogorra					

¹ Jarduera gogorra: Presa txikian edo presan aldaketa handi bat egitea eragiten duten jarduera guztiak. Horrelako jardueretan ibaiaren balio naturalekin bateragarriak diren metodologiak eta teknikak erabiltzea gomendatzen da; adibidez, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako lan honetakoak: «Ibaietako natura-ingeniaritzako tekniken eskuliburua» (Palmeri et al., 2002). Mota hauek hartzen ditu barnean:

- Eraikitzea: Hau da, arraintzako pasabide bat (eskailera edo arrapala) aztertzea eta eraikitzea, paraleloan beste ibilgu bat eraikitzea, eta beste lan batzuk egitea, hala nola hondoan dauden isurbideak berriro irekitzea.
- Lehengoratzea: Presa txikia edo presa inguruneke paisaian integratzea.

Anbiotek, 2005. «Presen eta ibaien jarraitutasuna eteten duten oztopoen inbentarioa, egoeraren azterketa eta Bizkaiko ibaietan arrain-fauna libreki zirkulatzeko izan daitezkeen aukeren azterketa». Bizkaiko Foru Aldundia.

	<table border="1"> <tr><td>A0151 presa txikia: jarduera gogorra</td></tr> <tr><td>A0152 presa txikia: jarduera gogorra</td></tr> <tr><td>A0153 presa txikia: jarduera gogorra</td></tr> <tr><td>A0154 presa txikia: jarduera gogorra</td></tr> <tr><td>A0155 presa txikia: eraistea</td></tr> <tr><td>A0156 presa txikia: eraistea</td></tr> <tr><td>A0157 presa txikia: eraistea</td></tr> <tr><td>A0158 presa txikia: eraistea</td></tr> <tr><td>A0159 presa txikia: eraistea</td></tr> <tr><td>A0160 presa txikia: eraistea</td></tr> </table>	A0151 presa txikia: jarduera gogorra	A0152 presa txikia: jarduera gogorra	A0153 presa txikia: jarduera gogorra	A0154 presa txikia: jarduera gogorra	A0155 presa txikia: eraistea	A0156 presa txikia: eraistea	A0157 presa txikia: eraistea	A0158 presa txikia: eraistea	A0159 presa txikia: eraistea	A0160 presa txikia: eraistea
A0151 presa txikia: jarduera gogorra											
A0152 presa txikia: jarduera gogorra											
A0153 presa txikia: jarduera gogorra											
A0154 presa txikia: jarduera gogorra											
A0155 presa txikia: eraistea											
A0156 presa txikia: eraistea											
A0157 presa txikia: eraistea											
A0158 presa txikia: eraistea											
A0159 presa txikia: eraistea											
A0160 presa txikia: eraistea											
4. helburu operatiboa	KBEko ibaietan emari naturalen erregimena bermatzea										
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.4 jarduera, ingurumen-emarien erregimena aztertzeari buruzkoa; batez ere, kode hauek dituzten emakidetan: A0147, A0148, A0150 eta A0153. Horretarako, dokumentu hau hartuko da oinarri: <i>Presen eta ibaien jarraitutasuna eteten duten oztopoen inbentarioa, egoeraren azterketa eta Bizkaiko ibaietan arrain-faunak libreki zirkulatzeko izan daitezkeen aukeren azterketa</i> (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005).										

HALTZADIAK ETA LIZARDIAK (EBko 91E0* KODEA)**Justifikazioa**

- Haltzadien eta lizardiaren habitata lehenetsuneko habitata da eta Habitategi buruzko Zuzentzailearen I. eranskinean jasota dago. Artibai ibaiko erriberako ibai-habitat bereizgarria da hori.
- Habitat-mota horretan arriskupean dauden espezie urtarak eta urtar-lehortarrak daude; bereziki aipagarria da bisoi europarra (*Mustela lutreola*).
- Habitat horiek babesteko eta elikatzeko lekuak dira intereseko beste fauna-espezie batzuentzat; adibidez: loina eta amuarrainarentzat, eta agian, Europar Batasunaren intereseko intsektu saproxilikoentzat. Gune heze txikien garapena sustatzen dute, espezie asko babesteko eta ugaltzeko balio dutenak.
- EAEn oso gutxi hedatuta dauden beste espezie batzuen habitat bereizgarria da; adibidez, hauena: *Cinclus cinclus* (ur-zozoa) eta *Alcedo atthis* (martin arrantzalea).
- Askotariko flora-espezieak daude bertan, eta horrek nabarmen laguntzen dio leku horretako biodibertsitate espezifikuari.

CO₂ xurgatu eta ura iragazten dute, ibilguari itzala ematen diote eta uholdeen ondorioak arintzen dituzte; horrela, uraren eta, oro har, ibai-sistemaren kalitatea hobetu egiten da.

Kontserbazio-egoera

Ibai-ibilguan zehar, haltzadiak eta lizardiak dira nagusi, Artibai/Río Artibai KBEan. Dena den, habitat horren osaera eta egitura ez da onena KBEaren barneko tarte askotan, hirigintzak, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak eta basogintzak eragiten duten presio dela eta. Ibaiaren ardatz nagusiaren tarte handi batean, haltzadiaren egoera desegokia dela esan daiteke. Erreken goi-ibarretan, aldiz, kontserbazio-egoera hobea da; dena den, banaketa eskasa du habitat horrek, ez baitago zuhaitz-banda estu bat baino. Oro har, honela laburbil daiteke kontserbazio-egoera:

	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Presioak eta arriskuak

Presio eta arrisku nagusiak bat datoz ibai-korridorearen funtsezko elementua deskribatzean zehaztuta-koekin:

- Aldaketa morfologikoak: kanalizazioak, oztopo artifizialak (presa txikiak), zubiak eta herri-jabari hidraulikoari dagozkion eremuen beste okupazio batzuk.
- Belardiak eta labore-sailak. Baso-landaketak.

KBEa handitzeko proposaturiko eremuetan, beharrezkoa da habitategi zer azalera hartzen duten eta haien kontserbazio-egoera nolakoa den hobeto jakitea, habitategi interesekoak izan zein ez.

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak

Ibaiko korridore ekologikoari funtsezko elementu den aldetik dagozkion berberak.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Ibai-habitaten kontserbazio-egoera babestea eta hobetzea: <ul style="list-style-type: none"> - Habitat naturalek hartutako azalera handitzea. - Ondoen kontserbatu diren guneen egungo egoerari eustea. - KBEaren barnean intereseko zer flora- eta fauna-espezie dauden hobeto jakitea.
1. helburu operatiboa	Habitat naturalek hartutako azalera osoa handitzen laguntzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoaren funtsezko elementua aipatzean proposatutako jarduerak, ibai-korridorea kontserbatzeko eta lehengoratzekoak; batik bat, 1.JAR.1 eta 1.JAR.2 jarduerak.
2. helburu operatiboa	Intereseko habitaten kalitate ekologikoa hobetzea
Jarduerak	Aplikagarria da 2.JAR.4 baterako jarduera, espezie hauek desagerrarazteari buruzkoa: <i>Arundo donax</i> , <i>Cortaderia selloana</i> , <i>Robinia pseudoacacia</i> eta banbuak.
3. helburu operatiboa	KBEan dauden Batasunaren intereseko fauna- eta flora-espezieen kopurua eta banaketa hobeto ezagutzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira jarduera hauek: 1.JAR.11 (funtsezko habitaten eboluzioaren jarraipena egitea), 1.JAR.12 (urarekin lotutako beste intereseko habitat batzuen inbentarioa egitea), 1.JAR.13 (intereseko ornogabeen laginketak egitea) eta 1.JAR.14 (intereseko flora-espezieen laginketak egitea).

BISOI EUROPARRA (MUSTELA LUTREOLA)**Justifikazioa**

Europar Batasunean, lehentasunezkoztat jotzen da espezie honen kontserbazioa, eta Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan jasota dago (Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eta V. eranskinak).

Arriskupean dauden Espezieen Espainiako eta Euskadiko Katalogoetan, «galtzeko arriskuan» dagoen espezie gisa ageri da.

Bizkaiko lurralde historikoan, Kudeaketa Plan bat dago, 2006an onartu zena (118/2006 Foru Dekretua). Plan horren arabera, KBE hau Interes Bereziko Eremua da espezie horrentzat.

Kontserbazio-egoera

Bisoi europarra: Artibai ibaiaren arroa Bizkaiko kostaldearen ekialdeko populazio-guneari dagokio. Azken urteetan, ez da eremu horretan bisoi europarra agertu izanaren aipamenik egin. Dena den, badira aspaldiko aipamen batzuk, zenbait gunekin lotuak: ibilgu nagusiaren goiko eta beheko tarteak, eta urak ibai horretan isurtzen dituzten erreka nagusiak: Bolibar, Urko eta Amaioa (González-Esteban, J., 2001). Ondoko arroi buruzko aipamenak ere badira (Urdaibai eta Lea).

Esan daiteke espezieak EAEn bilakaera negatiboa izan duela, eta banaketa zatikatua izan dela; azken urteetan, gainera, atzeraldi nabarmena izan du. Hori dela eta, bisoi europarrak Artibai ibaian duen populazioa oso ahula da.

	ONDORIOAK			
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak**Bisoi amerikarra:**

Espezie aloktono hori Artibai ibaiaren beheko eta erdiko tarteetan finkatu da. Haren txoko ekologikoa bisoi europarrarenaren ia berdina da; hori dela eta, elkarren arteko lehia sortzen da baliabideak lortzeko. Gainera, Mutrikun bisoi amerikarren haztegi bat dago, eta hori beste presio bat da espezie autoktonoarentzat, arriskua baitago espezie amerikarren ihesak gertatzeko.

Ibai-ekosistemaren eraldaketa:

Erriberako landaredia, espeziearen babeslekua eta hura ugaltzeko lekua eraldatzeak nahiz ibaiaren erregimen naturala eraldatzeak zuzenean eragiten diote espeziearen habitataren kalitateari.

Ibaiaren erribera garbitzeko lanek ere bisoi europarraren habitataren kalitateari eragiten diote.

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak

Bizkaian indarrean dagoen bisoi europarra kudeatzeko planean (2006ko ekainaren 19ko Foru Dekretua), espezie hori eta haren habitata lehengoratzeko neurriak zehazten dira. Artibai ibaia plan horretan zehaztu diren Interes Bereziko Eremuen barnean sartzen da.

Bizkaiko Foru Aldundiak tranpa-jartzeak egiten ditu aldizka, Bizkaiko zenbait ibaiaren arroetan (Lea, Artibai, Butroe, Ea, Oka, Bakio eta Ibaizabal), bisoi amerikarra desagerrarazteko, espezie horrek arriskuan jartzen baitu bisoi europarra.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Artibai/Río Artibai KBEan bisoi europarraren populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie hori hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horrek duen bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikienak eginez, espezie hori behar bezala kontserbatu dadin
1. helburu operatiboa	KBEan, espezieak jasaten dituen inpaktuak murriztea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira ibai-korridorea funtsezko elementuarentzat proposatutako neurri guztiak; bereziki, uretako korridorean oztopoak kentzeari, ibai-ekosistemako funtzioei eta prozesuei eusteko behar diren gutxieneko emari ekologikoak errespetatzeari, eta hartutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteari buruzkoak.</p> <p>Halaber, aplikagarriak dira ibai-habitatari funtsezko elementu den aldetik dagozkion neurriak, hauei buruzkoak: ibai-habitatei kontserbazio-egoera onean eustea, bai eta ibai-ingurunearen heterogeneotasunari ere; eta gaur egun balio ekologiko handiena duten guneen kontserbazioa bermatzea.</p> <p>Aplikagarria da 1.JAR.18 jarduera ere, KBE honetan bisoi amerikarra kontrolatzeari eta desagerrarazteari buruzkoa.</p> <p>JP2. KBEaren barnean bisoi europarraren habitata lehengoratzeko proiektu bat idaztea. Lan hauek egingo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehengoratzeko jarduera zein tartetan egin behar den identifikatzea. • Lehengoratzeko proiektuak egitea, ibaien lehengoratzeko jardueretan erabili ohi diren bioingeniaritzako irizpideak eta teknikak baliatuz. • Proiektua gauzatzea.
2. helburu operatiboa	Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, Artibai/Río Artibai KBEan bisoi-populazioen aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa.

LOINA (*PARACHONDROSTOMA MIEGII*) ETA ARRAIN-KOMUNITATEA ORO HAR**Justifikazioa**

Artibai/Río Artibai KBEko arrain-espezieen artean, loina (*Parachondrostoma miegii*) narbarmendu daiteke. Iberiar penintsulako espezie endemikoa da, Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasoa (abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eranskina).


Horiez gain, arrain-komunitatearen parte dira beste espezie batzuk, hala nola: ibai-amuarraina (*Salmo trutta fario*), balio ekologiko handiko espeziea; aingira (*Anguilla anguilla*), NKNBren arabera «galtzeko arrisku larrian» dagoen espeziea (2009), eta «kaltebera», Espainiako Ornodunen Liburu Gorriaren arabera (1992) (EAEn bada Aingira Berreskuratzeko kudeaketa-plana); ezkailua (*Phoxinus phoxinus*); eta mazkarr (Barbatula barbatula).

Arrain-komunitatea egoera onean egotea ibaiko ekosistemaren kontserbazio-egoera onaren adierazle da.

Kontserbazio-egoera

EAEn oso hedatuta dago espezie hori. EAEn hiru lurralde historikoetan dago, Ebro ibaiaren arro guztietan, Omecillotik (erkidegoaren mendebaldean) Araia-Arakil eta Egaraino (ekialdean), baita Bizkaiko Golkoko isurialdeko arro guztietan ere, Oiartzun, Urumea eta Lea ibaien arroetan izan ezik. Bizkaiko golkoko isurialdeko populazioek goranzko joera izan dute azken bi hamarkadetan, uren kalitatea hobetu delako. Uste da goranzko joera horrek jarraituko duela epe laburrean eta ertainean, arroan saneamendu-sistemak ezarri ahala.

Artibai ibaiaren arroan ere bada espezie hori, baina ez dakigu zenbatekoa den haren populazioa. Ibaiaren ardatzean kokatutako laginketa-estazio bateko datuen arabera, hau izango litzateke populazioen dentsitatea: 1-101 banako/100 m².



Artibai ibaiaren arroan oztopo ugari dago ibilguetan, hala nola presak eta presa txikiak. Hori dela eta, espezie horrek zailtasunak ditu erruteko lekuak aurkitzeko, bere habitata baino gorago baitaude, ibaiaren goragoko tartetean.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera ²				Ez dakigu

Amuarrainari, ezkailuari, aingirari eta ibaiko arrain-komunitateko gainerako espezieei dagokienez, ez daukagu datu zehatzik, baina EAeko ibaien egoera ekologikoaren jarraipen-sareko laginketetan lortutako emaitzen arabera, oro har kalitate biologiko «ona» izan dute arroaren goiko tartean; hortaz, pentsa daiteke espezie horien kontserbazio-egoera ona dela. Egoera on hori lortu beharko litzateke erdiko eta beheko tartetean ere.

Presioak eta arriskuak

- Ibilguen eraldaketa morfologikoak: goranzko migrazioarako oztopoak (presak, presa txikiak), ibaiaren bideratzeak eta herri-jabari hidraulikoaren beste okupazio batzuk.
- Funtzionamendu hidrologikoaren aldaketa: emari-galerak.
- Uraren kutsadura.

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

Uretako ibai-korridorearen funtsezko elementuan aipatutako berberak dira legezko baldintzatzaileak.

Gaur egungo jardunbideak: uretako ibai-korridorearen funtsezko elementurako aipatutakoak; zehazki, hauek:

- EAeko ibaietako egoera ekologikoaren jarraipenerako sarea (EJ).
- Oztopoak iragazkor bihurtzeko programa, azterketa hauekin lotuta:
 - Presen eta ibaien jarraitutasuna eteten duten oztopoen inbentarioa, egoeraren azterketa eta Bizkaiko ibaietan arrain-faunak libreki zirkulatzeko izan daitezkeen aukeren azterketa (Bizkaiko Foru Aldundia, 2005).
 - Bizkaiko lurralde historikoko ingurumen-hidrologiarekin lotutako jardueren plana. 2005, Ambisat, S.L. Bizkaiko Foru Aldundia. Plan horrek barnean hartzen du Artibai ibaiaren ingurumen-hidrologia berrezartzeko proiektu bat.
- Saneamendu-jarduerak: azken urteetan, ahalegin handia egin da Artibai ibaiaren saneamendua hobetzeko, Markinako hondakin-urak arazteko estazioa eta Berriatua eta Ondarroa arteko kolektorea eraiki baitira.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	KBEan arrain-populazio autoktonoak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikienak eginez, espezie horiek behar bezala kontserbatu daitezen
-----------------------	---

² Egoera kaskarra adierazten duten kategorietan, ikur espezifikoa bat (adibidez, gezi bat) erabil daiteke, lehengorazten ari diren populazioak adierazteko.

1. helburu operatiboa	KBEaren barneko arrain-komunitatearen populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea
Jarduerak	<p>JP.3.- KBeko habitataren ezaugarritze-azterlan bat egitea (mesohabitata) eta arrain-espezieen eskakizun ekologikoak zehaztea. Barnean hartuko du populazioaren tamainaren iritzirako kalkulua, bai eta kontserbazio-egoeraren zehaztapena ere.</p> <p>Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoaren funtsezko elementua aipatzean proposatutako neurriak, ibai-korridorea kontserbatzeko eta lehengoratzekoak; batik bat, 1.JAR.5 eta 1.JAR.6 jarduerak.</p>
2. helburu operatiboa	KBEaren barnean, arrain-espezieek jasaten dituzten inpaktuak desagerraraztea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira ibai-korridorea funtsezko elementurako proposatutako neurri guztiak; hau da, oztopoak kentzeari edo ibai-korridorea iragazkor bihurtzeari, emari ekologikoak errespetatzeari eta hartutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteari buruzkoak.</p>


IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA: *CINCLUS CINCLUS* (UR-ZOZOA) ETA *ALCEDO ATTHIS* (MARTIN ARRANTZALEA)**Justifikazioa**

Bi espezie bereizgarri dira, ibilguen eta ibaiertzen kontserbazio-egoeraren adierazle bikainak direnak. Biak daude KBE honetan. Martin arrantzalea Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean jasotako espeziea da, eta «interes bereziko» gisa sailkatu da Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan; ur-zozoa ere interes berezikotzat hartzen da.

Kontserbazio-egoera***Cinclus cinclus* (ur-zozoa)**

EAEn, oso banatuta dago hiru lurralde historikoetako ur-ibilguetan, eta autonomia-erkidegoko mendigu-neetako ibai-ibilguekiko lehentasuna agertu arren, itsasertzeko eremuetan ere ageri da.

Azken ikerketetan egindako erroldaren arabera, 4 bikote habiagile daude KBEaren barnean.




Ur-zozoaren banaketa EAEn

Artibai ibaiaren egungo kontserbazio-egoera dela eta, espezie horren habitataren ezaugarriak ez dira guztiz onak, baina etorkizunerako aurreikuspenen arabera, ez dirudi haren egoera txarra izango denik.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera³	Ona			

Alcedo atthis (martin arrantzalea)

Hiru lurralde historikoetan dago, baina, 1998ko datuen arabera, Bizkaian soilik zegoen egonkortuta populazio ugaltzailea. Gaur egun, ez dakigu zenbatekoa den populazio ugaltzailea, ez EAEn ez KBEan.



Martin arrantzalearen banaketa EAEn. 2000-2007 aldia
Iturria: Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioa, 2007

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera⁴				Ez dakigu

³ Egoera kaskarra adierazten duten kategorietan, ikur espezifiko bat (adibidez, gezi bat) erabil daiteke, lehengorazten ari diren populazioak adierazteko.

⁴ Egoera kaskarra adierazten duten kategorietan, ikur espezifiko bat (adibidez, gezi bat) erabil daiteke, lehengorazten ari diren populazioak adierazteko.

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)	
Presio nagusiek zerikusia dute, batetik, uren kalitatearekin (701), eta bestetik, habitatean egin diren aldaketekin: kanalizazioak (830), funtzionamendu hidrologikoaren aldaketa (830-890), ibaiertzeko baso-soiltzeak (160), habien suntsiketa...	
Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak	
Ez dakigu Artibai ibaia KBEan ibaietako hegazti-faunarekin lotutako jarduera sistematikorik izan den.	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	KBEaren barnean ur-zozoaren, martin arrantzalearen eta uhalde-enararen populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna
1. helburu operatiboa	KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira azpiegitura berrien eraikuntzari buruzko araudiak; batik bat, 7.A.1 , 7.A.5 eta 7.A.6 . Era berean, aplikagarria da 1.JAR.20 jarduera, ibaietako hegazti-faunaren habitata hobetzeko jarduerak egiteari buruzkoa.
2. helburu operatiboa	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira neurri hauek: 1.JAR.16 (intereseko hegazti-espezieen populazioen jarraipena egitea), 1.JAR.19 (martin arrantzalearen kudeaketa-plan bat egitea), 1.JAR.21 (ingurumen-heziketako eta sentsibilizazioko jarduerak egitea) eta 1.JAR.22 (funtsezko habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idaztea eta hedatzea).

JARRAIPEN-PROGRAMA

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
ESTUARIOA	Sistemaren, padurako habitaten mosaikoaren eta ingurune horrekin lotutako fauna- eta flora-populazioen funtzionaltasun osoari eustea eta hura kontserbatzea	Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea	Ibilguaren eta itsasaldi-kanalen egoera (hondakin solidoak)	-	Ibilgu nagusiaren eta itsasaldi-kanalen egoera ona
		Sistemako habitatak eta fauna-nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea	Habitat naturalen hektareak	7,2 ha (1130, 1140, 1330 azalera)	Habitat naturalen hektareak kopurua handiago izatea hasierako balioa baino
		Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea	Intereseko fauna- eta flora-espezieak egotea	Paduretako berezko flora- eta fauna-espezieak daude	Intereseko espezieen kopurua handitzea
			Estuario-habitategen hartzen duten azalera eta haien egitura-bilakaera	7,2 ha (1130, 1140, 1330 eta 1420 habitaten egungo azalera)	Estuario-habitaten azalera handiago izatea hasierako balioa baino
	Uren kalitatea bermatzea		Ur-masaren egoera ekologikoa	Eskasa barruko zatian, eta txarra, kanpokoan (EAEko trantsizio-uren eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarearen datuak)	Egoera ekologikoa Ona edo Oso ona lortzea
	Flora-espezie aloktono inbaditzaileak desagerraraztea		Aldizkako isurketen kontrola	Aldizkako isurketak izatea	Isurketak desagerraraztea
	Aisialdiko jarduerak eta hirigintza-aren presioa kontrolatzea		Espezie exotikoak egotea	Espezie exotikoak daude	Espezie exotikoen erauzketak
			Beste ibilbide batzuk	Ez dago horrelakorik	Beste ibilbide batzuk izatea
			Orain dauden azpiegiturrei loturiko indargetze-eremuak egotea	Ez dago horrelakorik	Errepedeen mugako zonaldeetan trantsizio-eremuak sortzea

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea		
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA	Artibai/Rio Artibai KBEko ibai-korridorea kontserbatzea eta lehengoratzea	Korridore ekologiko jarraitua kontserbatzea eta lehengoratzea, ibalietan arteko lotura ekologikoa bermatzeko eta fauna lekualdatu ahal izateko. Habitat naturalek hartutako azalera handitzen laguntzea	Belardiak, laboreak eta jarraituta-suna eteten duten beste elementu batzuk dauden erriberako eremuetan edota kontserbazio-egoera txarrean daudenetan lehengoratutako erriberako landaredi naturalaren azalera (ha)	0	13,85 ha, belardiek, laboreek edo ibai-korridorearen jarraituta-suna eteten duten beste erabilera batzuek hartutako eremuetan.		
			KBEaren barnean, uraren kalitatea eta ibaien egoera ekologikoa hobetzea	Borondatezko akordioen bidez babes daitekeen azalera	0	5,31 ha, borondatezko akordioen bidez babestutak	
		Uretako korridoreko oztopoak kentzea	Uretako korridoreko oztopoak kentzea	Arroaren eskumena duen erakundearen aurrean (URA), KBEan erabiltzen ez diren emakiden iraungitzea bultzatzea, eta oztopoak iragazkor bihurtzea	Eremu batzuetan ez dago saneamendurik	Ez dakigu	Egitako dauden jarduerak gauzatzea
		KBEko ibaietan emari naturalen erregimena bermatzea	KBEko ibaietan emari naturalen erregimena bermatzea	Ingurumen-baldintzak betetzen dituen emari-erregimen bat ezartzea, KBEaren kudeaketan funtsezko zat jotzen diren elementuak kontserbatzeko	Egoera ekologiko txarra erdiko eta beheko tarreetan, eta ona, goiko tarreetan	Ez da ezarri emari egokia	Egoera ekologiko Ona edo Oso ona lortzea
		Intereseko habitaten kalitate ekologikoa hobetzea	Intereseko habitaten kalitate ekologikoa hobetzea	Flora-espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena egitea eta horiek desagerraraztea; izan ere, espezie horiek direla eta, KBEko habitat naturalen balioa murrizten da	Ez da egin	Desagerrarazteko kanpaina bat egitea	Erabiltzen ez diren emakida guztiak iraungita, eta oztopoak iragazkortuta
		Ibai-habitaten kontserbazio-egoera babestea eta hobetzea	Ibai-habitaten kontserbazio-egoera babestea eta hobetzea	Flora-espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena egitea eta horiek desagerraraztea; izan ere, espezie horiek direla eta, KBEko habitat naturalen balioa murrizten da	Ez da egin	8 oztopo nagusi iragazkor bihurtu dira	8 oztopo nagusi iragazkor bihurtu dira
		Habitat naturalek hartutako azalera handitzea	Habitat naturalek hartutako azalera handitzea	KBEko intereseko habitaten eta espezieen inbentarioa. Adierazkor-tasuna eta kontserbazio-egoera zehaztea.	Ez da egin	Ez da ezarri emari egokia	Ez da ezarri emari egokia
		Ondoen kontserbatu diren guineen egungo egoerari eustea	Ondoen kontserbatu diren guineen egungo egoerari eustea	KBEan dauden intereseko flora-espezieen kopurua eta banaketa hobeto ezagutzea	Ez da egin	Ez da egin	Ez da egin
		KBEaren barnean intereseko zer flora- eta fauna-espezie dauden hobeto jakitea	KBEaren barnean intereseko zer flora- eta fauna-espezie dauden hobeto jakitea	KBEan dauden intereseko flora-espezieen presentzia, kontserbazio-egoera eta kontserbatzeko neurriak	Ez da egin	Ez da egin	Ez da egin

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
BISOI EUROPARRA (<i>Mustela lutreola</i>)	KBEan bisoi europarraren populazioak egon daitezzen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie hori hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horrek duen bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikienak eginez, espezie hori behar bezala kontserbatu dadin	KBEan, espezieak jasaten dituen inpaktuak murriztea Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Bisoiaren habitata lehengoratzeko proiektuak egitea KBEan egiten diren espezie horren aldizkako laginketekin jarraitzea	0	Proiektu bat gauzatu da Badakigu
LOINA ETA ARRAIN- KOMUNITATEA ORO HAR	KBEan arrain-populazio autoiktonoak egon daitezzen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikienak eginez, espezie horiek behar bezala kontserbatu daitezzen	KBEaren barneko arrain-komunitatearen populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea	Arrain-populazioen kontserbazio-egoeraren berri jakitea Loinaren mesohabitatari buruzko azterlan bat egitea, eta espezie horren banaketa eta kontserbazio-egoera zehaztea	Ez dakigu (urtekoa) Ez dakigu	Badakigu (urtekoa) Badakigu
IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA	KBEaren barnean ur-zozoaren eta martin arrantzalearen populazioak egon daitezzen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna.	KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Habitata lehengoratzeko proiektuak egitea Espezien banaketa eta populazio-egitura KBEan	0 Ez dakigu	Proiektu bat gauzatu da Badakigu

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2130011.xml&lang=eu

VI. ERANSKINA

ES2120004 UROLAKO ITSASADARRA/RÍA DEL UROLA KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK

FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA -JARDUERAK

Hurrengo tauletan, Urolako itsasadarra/Ría del Urola KBEan kudeaketarako funtsezkotzat jotzen diren elementueetarako bakoitzerako proposatutako kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehaztu dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

ESTUARIOA**Justifikazioa**

Estuarioak itsasoko eta ibaietako inguruneen artean dauden natura-sistema garrantzitsuak dira, eta ekosistema emankorrenetakoak dira. Birsortzeko gaitasun handia dute.

Estuarioetan dagoen itsasaldi-dinamika oso aldakorra da; izan ere, sedimentazio- eta higadura-prozesuak ezin dira aurreikusi eta era askotako inguruneak eta habitatak sortzen dituzte. Aldakortasun horri esker dute, hain zuzen ere, halako interes handia biodibertsitatearen ikuspegitik.

Estuarioek lotura-funtzio garrantzitsua dute beste estuario batzuekin eta ibai-ekosistemarekin. Flora- eta fauna-biodibertsitate handia dute.

Urolako estuarioko padura funtzionaleko hainbat gunetan, balio eta interes handiko fauna eta flora dago. Ereku horretan, Batasunaren intereseko hainbat habitat daude, eta erlazio eta lotura estua dute elkarrekin. Habitat horietako batzuk urriak dira EAEn, eta ondo ordezkaturik daude Urolako itsasadarrean. Gainera, oraindik jarduera tradizional batzuk egiten direnez, eta eremu horretako zona batzuk itsasaldi-dinamikarako berreskura daitezkeenez, sistema honek balio eta ahalmen handia du.

Urolako Itsasadarra KBEko estuario-sisteman, estuarioaz gain (EBren kodea: 1130 Estuarioak) habitat hauek daude: 1140 Ordoki lohitsuak edo hareatsuak, itsasbeheran urpean geratzen ez direnak; 1310 Paduretako halofiloen urteroko landaredia; 1320 *Spartina* belar-motako belardiak; 1330 Larre gazi atlantikoak; eta 1420 Paduretako sastrakadi halofiloak.

Urolako itsasadarreko estuarioa interes bereziko eremua da flora eta fauna kontserbatzeko, arriskupean dagoen floraren eta faunaren Euskadiko katalogoan sailkatuta dauden espezieen populazioak baitaude bertan, eta baldintza egokiak ditu populazio horiek gara daitezen.

Gainera, Urolako itsasadarreko estuario-sistema, Euskadiko kostaldeko beste estuario batzuk bezala, oso leku garrantzitsua da hegaztien migrazioarako, eta estuarioen arteko loturari laguntzen dio, atsedena hartzeko eta elikatzeko lekua baita espezie askorentzat. Funtzio garrantzitsua du, halaber, Europako iparraldeko hegaztien negu-pasarako.

Kontserbazio-egoera

Hainbat eta hainbat urtetan eraldaketa handia izan duen arren, Urolako estuarioan balio ekologiko handia dago oraindik; izan ere, estuarioaren hedapen txiki horretan, adierazgarritasun handia dute ingurune horietako berezko ekosistemek.

Hedapen eta azalera handia hartzen du, eta dinamika nahiko ona kontserbatu duela esan daiteke, ibai-bokalearen inguruan aldian-aldian egiten diren drainatze-lanez gain. Horrez gain, padurari irabazitako eremuren bat hartzen du (adibidez, Joxe Mari Korta industrigunearen iparraldeko terraza); egun, narritatuta dago, baina lehengora ekartzeko aukera handiak ditu.

Sistema honetako kanal nagusia oso handia eta zabala izateak asko baldintzatzen du padura-guneak egotea; izan ere, asko murriztu dira nekazaritza-lanak egiteko, pezoiak eta dikeak eraikiz. Urolako estuario-sistemaren beste bereizgarri bat ibar alubialak dira. Pezoiz edo dikez babestuta daude itsasaldeetatik, eta labore-sailak, sega-belardiak eta belardi estentsiboak daude ibar horietan. Hori dela eta, askotariko inguruneak daude sistema horretan, interes handikoak naturaren eta paisaiaren aldetik.

Eremuan dauden habitatei dagokienez, eta onartutako definizioen arabera, 1130 habitata estuario-sistemak hartzen duen azalera osoari dagokio, Europar Batasunaren intereseko gainerako padura-habitatak barne. Horien baitan, KBEan adierazgarritasun onena duen habitata 1140 da; 11,92 hektareako azalera hartzen du, eremuko azalera guztiaren % 12. Egitura eta kontserbazio-egoera ona ditu, eta Santiagoko paduran nagusi izateaz gain, itsasadarrean zehar ere agertzen da, lohiz betetako uhartetxoaren inguruetan eta ibaiertzetako lurzoru istiltsuetan.

Gainerako habitatek azalera urriagoak hartzen dituzte:

- 1310 habitata ia ez da agertu ere egiten; multzo bakarra dago KBEaren eremu osoan, Beduako eskuinaldeko ertzean, zehazki. Azalera guztiaren % 0,02 hartzen du.
- 1320 habitata Santiagoko paduran nahiz Beduako eremuan dauden belardi txikiak adierazten dute. Horren baitan, Beduan, *Spartina maritima* espeziea dago, Gipuzkoan dagoen agerpen bakarra. Nolanahi ere, bertakoa ez den *Spartinaren* espezie bateko indibiduoak osatuta dago, funtsean, eta noski, horrek natura-balioa kentzen dio. Gutxi gorabehera, eremuaren % 1,34 hartzen du.
- 1330 habitata ondoko landare-unitatearekin nahasten diren itsas ihiz osatuta dago, funtsean. 0,6 ha kartografiatu dira, eta KBEaren azalera guztiaren % 0,5 baino ez du hartzen.
- 1420 habitatari dagokionez, kontserbazio-egoera onean dauden multzo batzuk baino ez dira kontserbatu, Santiagoko eta Beduako paduretan, berriz ere; halere, multzo horiek guztiak txikiak dira. Ez da KBEaren azalera guztiaren % 2ra iristen.

Taula honetan, Urolako itsasadarra/Ría del Urola KBEko estuario-habitataren (1130) ustezko kontserbazio-egoera laburtu da (ikus estuarioko gainerako habitaten kontserbazio-egoerari buruzko fitxak).

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera¹		Desegokia		

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

- Hirigintzaren presio handia, padurako eremu handietan betelanak egitea eragin duena.
- Askotariko jatorriak dituzten isurketak ibilgura; funtsean, hiriguneetakoak eta industrietakoak (azken horiek Narrondo errekatik). 34 isurketagune hauteman dira, araztutako eta araztu gabeko isurketak aintzat hartuta; hautemandako presioen % 24 kopuruari dagokionez, ekaitzetarako gainezkako isurbi-deak daude atzetik (23). Isurketek eragindako presioa ur-masan izandako handiena da; dena den, azken urteetan, saneamendu-lanak egin dira, eta horiek kalitatea hobetu dute.

¹ Kategoria kaskarretan, ikur espezifiko bat (adibidez, gezi bat) erabil daiteke, lehengora bueltatzen diren populazioak adierazteko.

- Santiagoko padura lohiz betetzea, estuarioko dinamika aldatzearen ondorioz; dinamika-aldaketa hori bokalearen morfologia eraldatu zuten hainbat jardueren ondorioz gertatu zen: harri-lubakiaren obrak, kirol-portukoak eta hara sartzeko bideei dagozkienak.
- Aldian aldiko ubidearen drainatze-lanak.
- Babes-azpiegiturak daude, eta ibaiertzen naturalizazioa eta faunaren joan-etorriak oztopatzen dituzte.
- Itsasaldietan urpean ez gelditzeko elementuak daude (dikeak, pezoiak).
- Bertakoa ez den flora-espezie inbaditzaileak daude eta, gainera, ugaritu egin dira; *Spartina alterniflora* eta *Spartina patens* espezieak, batik bat. Espezie horiek birsorkuntza naturala aldatzen dute.
- Ibaiertzeko landarediaren jarraitutasunaren etendurak.
- Aisialdirako instalazioak ingurunean (kirol-portua, ibaiertzetako ibilaldiak, ontziratze lekuak).
- KBetik gertu dagoen N-634 errepidea. Zenbaitetan, ia ez da espaziorik geratzen errepide horren eta ibai-ibilguaren eta padura-eremuen artean. Kontuan hartu beharko dira aurreikusitako jardueretarako zortasun-zonak.
- Itsas lehorreko jabari publikoan dauden era askotako eraikuntzak eta instalazioak. Ontziolak, arrapalak eta ontzitegiak.
- Ibar gehienak jabetza pribatukoak dira. Jabetza pribatukoak izateak zaildu egiten du kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurriak aplikatzea zenbait eremutan, eta beraz, jabeen eta erakunde publikoen arteko akordioak eta konpromisoak bultzatuko dituzten formulak bilatu behar dira (kontratu bidezkoak nahiz borondatezkoak), edo zenbait lursail erosi beharko dira.

Gaur egungo jarduerak

Bertakoa ez den floraren erauzketa

Gipuzkoako Foru Aldundiak Santiagoko eremuan nahiz itsasadarraren gainerako ertzetan hazitako flora-espezie exotikoak kentzeko kanpainak egiten ditu urtero. Bigarren fase batean, ingurune horietan berezkoak diren espezieak landatzen dituzte.

EAEko trantsizio-uren eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarea

2004. urtean, Eusko Jaurlaritza trantsizio-uren eta itsasertzeko uren kalitatearen jarraipena egiten hasi zen; jarraipen hori EAEko azaleko ur-masen kalitatea zaintzeko sarea sartu da. Sare horren helburua da uraren egoera ekologikoa aztertzea Uraren Esparru Zuzentarauaren irizpideei jarraituz, eta azterketa biologikoak, fisikokimikoak eta hidromorfologikoak eginez. Egoera kimikoa aztertzeko, kutsatzaileen kontzentrazioaren jarraipena egin eta horien bilakaera aztertzen da (zehazki, lehentasunezko substantzien arabera); horrez gain, substantzia horien ondoriozko kutsadurari aurre egiteko estrategiak zehazten dira. Jarraipen-sare horretan, KBEn edo horren inguruetan dauden 3 estuario-estazio daude. Gainera, arrain- eta makroalga-laginketak egiten ditu.

Horiez gain, jarduera hauek aurreikusi dira estuarioaren balio naturalak kontserbatzeko:

Zumaiako eta Getariako «Santixo hondartza» 2. Sistema Orokorraren Garapenerako Plan Berezia (Gipuzkoako Foru Aldundia, GHI-165/05-P08)

Plan horren bidez, Santiagoko eremuari dagokion KBeko zatia antolatu da, 151.430 m²-ko eremua mugatuta; planaren xedea da duna-sistema lehengoratzeko eta hondartzako eremuaren erabilera ludikoarekin bateragarri egitea.

Zumaiako Gorostiagako padura-eremua eta eremu lohitsuia lehengoratzeko eta horiei balio handiagoa ematea (EP-3) Hezeguneen LAPen 1. Aldaketaren II. eranskina (Eusko Jaurlaritza)

Joxe Mari Korta industrigunearen iparraldean dagoen padurari irabazitako lursailak lehengoratzeko du oinarri. Ubide-sare bat eta malda-serie bat sortzea aurreikusten du, itsasaldietan zenbait eremu urpean gelditzeko eta askotariko habitatak garatzeko.

Oikia eta Artadi auzoetako saneamendu-sarea hobetzeko proiektua (Uraren Euskal Agentzia, URA/005A/2010).

Santiagoko hondartzako ingurumena lehengoratzeko (Zumaia-Getaria)

Kostaldea eta Itsasoa Iraunarazteko Zuzendaritza Nagusia Santiagoko hondartzako dunak eta padurak lehengoratzeko nahiz hondartzaren irismena eta bertan ematen diren zerbitzuak egokitzeko proiektuaren idazketa izapidetzen ari da.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	<p>Funtsezko elementu horretarako helburu nagusia da estuarioaren funtzionaltasun osoari eustea, hura kontserbatzea eta lehengora ekartzea, intereseko hainbat espezie dituzten askotariko ekosistemen eremua den aldetik. Horregatik aintzat hartuko da KBEan dauden Batasunaren intereseko habitaten eta espezien kontserbazio-egoera, eta nola laguntzen dioten estuarioko funtzionaltasunari eusten.</p> <p>Egokiagoa da estuarioan dauden habitatak modu bateratuan kudeatzea, eta osatzen duten sistemarako helburuak, araudiak eta jarduerak definitzea, nahiz eta habitat bakoitzerako neurri espezifikoak ere proposatzen diren.</p> <p>Beraz, bertan proposatuko diren jarduerak xede hauek izango dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea eta mantentzea, leheneratzen laguntzeko. - Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta ondoen ordezkatuta daudenak babestea. - Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea. - Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea. - Uren kalitatea bermatzea. - Bertakoa ez den flora-espezie inbaditzaileak desagerraraztea. - Aisialdiko jarduerak eta hirigintzaren presioa kontrolatzea. <p>Neurri horiek eremuan dauden espezieei mesede egingo diete, haien habitaten kontserbazio-egoera hobetzea baitute xede.</p>
1. helburu operatiboa	Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea eta mantentzea
Jarduerak	Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, 9.A.2 araudia –Balentziaga ontziolatik behera, aldian-aldian egiten diren drainatze-lanekin lotuta– eta 2.JAR.7 jarduera –itsasaldiek ekarritako eta utzitako hondakinak kentzeko lanekin loturikoa–.

2. helburu operatiboa	Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta ondoen ordezkatuta daudenak babestea
Jarduerak	Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, jarduera hauek: 2.JAR.4 jarduera, flora exotiko inbaditzailearen aldi behingo jarraipenarekin eta horiek errotik kentzearekin lotutakoa, eta 2.JAR.5 jarduera, zenbait habitaten (EBren kodeak: 1130, 1140, 1310, 1320, 1330 eta 1420) kontserbazio-egoeraren kontrolari eta jarraipenari buruzkoa.
3. helburu operatiboa	Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea
Jarduerak	<p>JP.1. Gorostiagako betegarriak lehengoratzea eta padurak zuen egoerara ekartzea.</p> <p>Gorostiagako zelaigunea padura-sistemara lehengoratzea; horretarako, betelanak kendu, lursailaren malda egokitu, ubideak ireki eta lursailen (7 ha) eskuratze publikoa bermatuko da.</p> <p>JP.2. Beduako penintsula padura-sistemara lehengoratzea, malda eta pezoiak egokitzuz eta uhartetxoaren jatorrizko egoerara ekarriz.</p> <p>JP.3. Borondatezko hitzarmenak bultzatzea Lasalde Berri (Oikia) eremuko platano arrunten sailak lehengoratu eta haltzadi bihurtzeko (0,97 ha).</p> <p>Aplikagarria da, halaber, 2.JAR.1 jarduera, paisaia birsortzeari eta itsasadarraren ertzetako berezko habitatak lehengoratzeari dagokiona. Kasu honetan, hiri-lurzoruaren (Joxe Mari Korta industrigunea) edo azpiegituren (N-634 eta GI-3760 errepideak, trenbidea, bideak, etab.) mugako zonaldeetan trantsizio-eremuak sortzea, zuhaitz-landaketak berriro eginda. Izan ere, hala, babes-pantaila bat eratuko da paduretako guneean eragin daitezkeen kalteak txikiagoak izateko.</p> <p>Halaber, erriberako landaredia lehengoratzea estuarioaren bi ertzetan, Joxe Mari Korta industrigunetik gora KBEaren eremua hasten den zatiraino.</p>
4. helburu operatiboa	Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 2.JAR.8 (arriskupean dagoen landarediaren aldizkako monitorizazioa) eta 2.JAR.10 (hegaztien urteroko errolda-kanpaina) jarduerak. Horiez gain, 2.JAR.11 jarduera aplikatuko da, uretako hegaztientzat EAEko estuario bakoitzak zer garrantzia duen balioesteko urtebeteko azterketa bat egiteari buruzkoa.
5. helburu operatiboa	Uren kalitatea bermatzea
Jarduerak	Aplikagarri dira jarduera hauek: 2.JAR.2 , Urolako ur-masaren egoera ekologikoaren jarraipenari buruzkoa (urteko txostena barne), eta 2.JAR.3 , uraren kalitatea eta Oikia nahiz Artadi auzoetako saneamendu-sarea hobetzeari eta kontrolatzeari dagokiona («2003-2006 aldian Gipuzkoako saneamendu-azpiegiturak eraikitzeke esparru-hitzarmena» 2007-2011 aldira luzatzeko akordioaren arabera).
6. helburu operatiboa	Bertakoa ez den flora-espezie inbaditzaileak desagerraraztea
Jarduerak	Aplikagarria da 2.JAR.4 jarduera, aldi-aldi flora-espezie exotiko inbaditzaileen (bereziki, <i>Spartina alterniflora</i> eta <i>Spartina patens</i>) jarraipena egiteari eta horiek erauzteari, eta gero, eragindako eremuak lehengoratzeari dagokiona.

7. helburu operatiboa	Aisialdiko jarduerak eta hirigintzaren presioa kontrolatzea
Jarduerak	Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, 8.D.4 jarraibidea, estuario-inguruneetako gunehen sarrera publikoak arautzeari buruzkoa, eta 2.JAR.14 eta 2.JAR.15 jarduerak, ingurumen-heziketako proiektuak eta erabilera publikoa kudeatzeko proiektuak garatzeari buruzkoak.

DUNA-SISTEMA**Justifikazioa**

Itsasertzeko dunak eta hareatzak oso ekosistema ahulak dira. Bertako ingurumen-baldintza bereziak direla eta (lurzoru mugikorra, gazitasun handia, ur gezarik eza, etab.), sustraiak hondarretan dituzten landareak ia eskusiboak dira eremu horietan, eta interes handikoak. Eremu hareatsu horiek suntsitzen badira, espezie horiek desagertu egiten dira, ez baitute aurrera egiteko beste lekurik.

Sistema horiek kostaldeko hareatzetan dauden habitaten kontserbaziorako naturagune garrantzitsuenetako bat dira; Urolako itsasadarraren bokalean, 1210, 2110 eta 2130* habitatak, hain zuzen. Habitat horiek ematen diote garrantzia sistemari berari; beraz, funtsezkoa da horiek kontserbatzea. Dena den, kontserbazio hori modu bateratuan proposatu behar da sistema osorako, eta ez habitat batzuetarako soilik. Izan ere, oso ekosistema aldakorra eta dinamikoa da; horixe da, hain zuzen, sistema horren ezau-garri nagusia.

Bestalde, Urolako Itsasadarra KBEko duna-sistema Gipuzkoan azalera handiena hartzen duen egoera erdinaturaleko duna-sistema da, eta Barbadun, Zarautz eta Gorlizkoekin batera, Euskadin kontserbatzen diren lagin bakonetako bat; horregatik, lehentasunezkoa da bere osotasunean kontserbatzea.

Kontserbazio-egoera

Duna-sistemak azalera handia hartzen du, ia 5 ha. Nolanahi ere, eremua oso eraldatuta dago, eta hainbat presio eta mehatxu jasaten ditu, besteak beste: udan hondartzara joaten diren bainularien zapaltzeak eta, bereziki, espezie inbaditzaileak ugaritu izana.

Landarediari dagokionez, EAeko hondartza aberatsenetako bat da, 136 espezie baitaude bertan; hala ere, horietatik 10 soilik dira hareatzetakoak (*Honckenya peploides* eta *Herniari ciliolata* espezieak, adibidez), eta beste 5 espezie, itsasertzeko beste ekosistema batzuetan ere agertzen dira. Aldiz, espezieetako asko landaredi-komunitate kontinentaletakoak dira; horrek, beraz, argi erakusten du eremu horren narriadura. Horrez gain, ekosistema-mota honetan, bereziki erasokorrak diren espezie exotikoen presentzia aipatu behar da.

Ingurune horietako beste espezie bereizgarri batzuk galdutzat eman dira eremu horretan, *Chamaesyce peplis* eta *Ononis ramosissima*, adibidez; zenbait espezie EAEn ere desagertuta daude, *Glaucium flavum*, esaterako. Santixo hareatza gune garrantzitsua da, bai ingurune horretako baldintza partikularretara egokitutako florari eusteko bai egun desagertuta dauden hareatzetako espezieen populazioak berreskuratzeko.

Duna-sistemak eremu horretako azalera guztiaren % 4 baino gutxiago hartzen du, landaredirik gabeko hareatzako eremuak aintzat hartu gabe. Duna grisen edo finkatuen habitata (2130*) lehentasunezkoa da, eta sistemaren zatirik handiena hartzen du; albotan, enbrioi-duna mugikorretako habitatek (2110) inguratzen dute, baina, tamalez, horien garapena mugatu egiten dute egungo azpiegiturek. Horiez gain, 1210 habitataren (*itsasoko hondakin metaketetan hazten den urteroko landaredia*) zenbait multzo daude. Habitat horren adierazpen gutxi daude, baina zati txiki horiei eusten zaie hondartzako hainbat gunetan. Landaredi-mota hori dagoen eremu txiki bat orain dela gutxi hesitu dute.

Beheko taula hauetan, Urolako itsasadarra/Ría del Urola KBEko estuarioan dauden duna-sistemen ustezko kontserbazio-egoera laburtu da, bai duna grisei edo finkatuei dagokiena bai enbrioi-duna mugikorrei dagokiena (ikus erantsitako fitxak).

2110 habitata: Enbrioi-dunak

	ONDORIOAK			
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua			X	
Azalera			X	
Egitura eta funtzio espezifikoak			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

2130 habitata: Duna grisak edo finkatuak

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

1210 habitata: Itsasoko hondakin metaketetan hazten den urteroko landaredia

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua			X	
Azalera			X	
Egitura eta funtzio espezifikoak			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

Jende asko ibiltzen da aisialdi-eremu horretan; beraz, zapaltzeak direla eta, kalte handiak sortzen dira bertan, uda-sasoian, bereziki.

Hondartza garbitzeko eta bertako mantentze-lanak egiteko jarduerak, eta makinaren erabilera.

Inguruan, azpiegitura artifizialak ditu.

Flora inbaditzaileak presio handia egiten du, bai espezie psammofilo exotikoek bai itsas pinuek; espezie horiek duna kolonizatzen ari dira, dunaren ondoan dagoen parketik barna, eta bertako ingurumen-baldintzak aldatu dituzte.

Gaur egungo jarduerakBertakoa ez den floraren erauzketa

Gipuzkoako Foru Aldundiak eremu horretan dauden flora-espezie exotikoak erauzteko kanpainak egiten ditu urtero. Bigarren fase batean, ingurune horietako berezko espezieak birsortuko lirateke.

Udalak eta udalerriko talde ekologista batek ere espezie exotikoak erauzteko kanpainak sustatzen dituzte, aldian-aldian.

Horiez gain, jarduera hauek aurreikusi dira hareatzeko balio naturalak kontserbatzeko:

- Zumaiaiko eta Getariako «Santixo hondartza» 2. Sistema Orokorraren Garapenerako Plan Berezia (Gipuzkoako Foru Aldundia, GHI-165/05-P08). Plan horren bidez, Santiagoko eremuari dagokion KBEko zatia antolatu da, 151.430 m²-ko eremua mugatuta; planaren xedea da duna-sistema lehengoratzea eta hondartzako eremuaren erabilera ludikoarekin bateragarri egitea.
- Santiagoko hondartzako ingurumena lehengoratzea, Zumaia-Getaria eremuan. Kostaldea eta Itsaso Iraunarazteko Zuzendaritza Nagusia Santiagoko hondartzako dunak eta padurak lehengoratzeko nahiz hondartzaren irismena eta bertan ematen diren zerbitzuak egokitzeko proiektuaren idazketa izapidetzen ari da.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	<p>Helburu nagusia da KBEan sartutako duna-sistemaren funtzionaltasun osoa kontserbatzea eta lehengora ekartzea, intereseko hainbat espezie dituzten ekosistema emankorretako eremua den aldetik. Horregatik aintzat hartuko da KBEan dauden Batasunaren intereseko habitaten eta espezien kontserbazio-egoera, eta nola laguntzen dioten duna-sistemako funtzionaltasunari eusten.</p> <p>Egokiagoa da bertan dauden habitatak modu bateratuan kudeatzea, eta osatzen duten sistemarako helburuak, araudiak eta jarduerak definitzea, bakoitzerako banan-banan egitea baino.</p> <p>Beraz, bertan proposatuko diren jarduerak xede hauek izango dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea. - Sistema barruko habitatak eta fauna- eta flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea. - Aisialdiko jarduerak KBeko floran eta faunan eragin ditzaketen ondorio kaltegarriak eragozteak. - Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea. <p>Neurri horiek eremuan dauden bertako espezieei ere mesede egingo diete, horien garapen-habitaten kontserbazio-egoera hobetzea baitute xede.</p>
1. helburu operatiboa	Duna-sistemaren eta hori osatzen duten intereseko habitaten (1210, 2110 eta 2130*) funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea, eta haien egitura eta konposizioa hobetzea, ahalik eta naturalenak izatea lortzeko
Jarduerak	<p>Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, jarduera hauek: 2.JAR.4 jarduera, flora exotiko inbaditzailearen aldi behingo jarraipenarekin eta horiek errotik kentzearekin lotutakoa, eta 2.JAR.6 jarduera, zenbait habitaten (1210, 2110 eta 2130*) jarraipena egiteari buruzkoa.</p> <p>2.JAR.8 jarduera ere aplikatuko da, flora-espezieen populazioen jarraipena egitearekin lotuta, arriskupean dauden espezieak zer egoeratan dauden jakiteko.</p>
2. helburu operatiboa	Aisialdiko jarduerak KBeko floran eta faunan eragin ditzaketen ondorio kaltegarriak eragozteak
Jarduerak	<p>JP.4. Duna-sistemako eremu ahulenak modu eraginkorrean babesteko proiektu bat idaztea eta gauzatzea; besteak beste, jarduera hauek hartuko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Itxitura-lanak egitea, dunetako landaredia ez zapaltzea lortzeko. - Goratutako igarobideak eraikitzea, oinezkoak pasatu ahal izateko. - Seinaleztatutako ibilbideak sortzea; horrekin batera, estuarioetako eta duna-sistemetako eremu adierazgarrien eta bertako natura-balioen dibulgaziorako panelak ezarriko dira. - Eremu horretan arrisku-egoera larrian edo galduta dauden hareatzako flora-espezieak (adibidez, <i>Chamaesyce pepelis</i> eta <i>Ononis ramosissima</i>) berreskuratzeko lanak gauzatzea. - Ingurumen-heziketako eta natura interpretatzeko planak egitea, bai eta erabilera publikoa kudeatzeko programak garatzea ere. <p>Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, 2.JAR.14 eta 2.JAR.15 jarduerak, ingurumen-heziketako proiektuak eta erabilera publikoa kudeatzeko proiektuak garatzeari buruzkoak.</p> <p>Aplikagarria da, halaber, 8.J.4 jarraibidea, gune ahulenetako sarrera publikoak arautzeari buruzkoa.</p>

JARRAIPEN-PROGRAMA

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea	
ESTUARIOA	Estuario-sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea	Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea eta mantentzea	Itsasaldi-dinamikarako oztupoak	Gorostiagako zelaigunea: betelanak, ubideak eta maldadun lursailak	Gorostiagako zelaigunea padurarisistemara lehengoratzea; horretarako, betelanak kendu, lursailaren maldak egokitu eta ubideak irekiko dira	
		Sistemako habitatak eta faunarenahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta ondoen ordezkaturak daudenak babestea	Ibilguaren eta itsasaldi-kanalene goera (hondakin solidoak)	Ibilgu nagusiaren eta itsasaldikanalene egoera ona	-	Habitat naturalen hektarea-kopurua handiagoo izatea hasierako balioa baino
			Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea	Habitat naturalen hektareak	15,97 ha (1140, 1310, 1320, 1330 eta 1420 habitaten egungo azalera)	Ez dakigu zer azalera hartzen duten egun espezie inbaditzaileek
		Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea		Intereseko fauna- eta flora-espezieak egotea	Intereseko fauna- eta flora-espezieak egotea	Flora-espezie baskularren agerpena eta fauna-espezie ugari
			Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea	Lehenera ekarritako hektareak	Lehenera ekarritako hektareak	Narriatutako 13,37 ha, lehengoratu daitezkeenak
		Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea		Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea	Estuario-habitatetik hartzen duten azalera eta haien egitura-bilakaera	15,97 ha (1140, 1310, 1320, 1330 eta 1420 habitaten egungo azalera)
Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea	Habitat-dibertsitatea		Habitat-dibertsitatea	Gaur egun, 5 padura-habitat daude	Habitat-mota gehiago egotea	
	Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea	Habitat egitura (estaldura, espezieen kontserbazio-maila, etab.)	Habitat egitura (estaldura, espezieen kontserbazio-maila, etab.)	Zenbait kontserbazio-egoera	Habitat egitura hobetzea	
Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea		Paduran eta eremuaren hegoaldeko eremuaren bazterretan birlandutako eremuaren azalera	Paduran eta eremuaren hegoaldeko eremuaren bazterretan birlandutako eremuaren azalera	Bat ere ez	Estaldura txikiena duten eremuak birlandutzea	

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea	
DUNA-SISTEMA	Uren kalitatea bermatzea	Uren kalitatea bermatzea	Ur-masaren egoera ekologikoa	Onargarria barruko zatian, eta ona, kanpokoan (EAEko trantsizio-uren eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarearen datuak, 2009 urtekoak)	Egoera ekologiko «Ona» edo «Oso ona» lortzea	
		Aisialdiko jarduerak eta hirigintzaren presioa kontrolatzea	Aldizkako isurketen kontrola	Beste ibilbide batzuk	Isurketak desagerraraztea	
	Dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea	Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea	Sistemako habitata eta fauna-nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta ondoen ordezkaturata daudenak babestea	Itxiturak	Ez dago horrelakorik	Beste ibilbide batzuk izatea
				Orain dauden azpiegiturei loturiko indargetze-eremuak	Ez dago horrelakorik	Ere muhurtatutako eremuak sortzea
				Habitat naturalen hektareak	5,11 ha (1210, 2110 eta 2130* habitaten egungo azalera)	Hasierako balioa baino handiagoa
				Espezie exotikoak egotea (hartutako azalera)	Ez dakigu	Hartutako azalera gutxitzea edo espezie exotikoak eraztea
				Intereseko flora-espezieen agerpena	136 espezie daude; horietatik 10 hareatzen soilik aurki daitezke, eta beste 5 espezie, itsasertzeko beste ekosistema batzuetan ere agertzen dira	Intereseko espezie-kopurua handitzea
				Kudeaketa-plana duten arrisku-peko espezieak egotea	Ez dago horrelakorik	Flora-espezieen kudeaketa-planak idaztea
				Duna-habitat hartzen duten azalera eta haien egitura-bilakaera	5,11 ha (1210, 2110 eta 2130* habitaten egungo azalera)	Duna-habitaten azalera handiagoa izatea
				Egun desagertuta dauden baina garai batean egon ziren espezieen agerpena	Ez dago horrelakorik	Desagertutako espezieak birsartzea lortzea
Birlandutako eremuen azalera	Bat ere ez	Estaldura txikiena duten eremuak birlandatzea				

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
		Gizakien maiztasuna gutxitzea, eta irisgarritasuna urritzea. Aisialdi-jarduerak kontrolatzea	<p>Beste ibilbide batzuk</p> <p>Itxiturak</p> <p>Aisialdiak eragindako inpaktuaren bilakaera (eremu batzuetako zapaltzeak)</p> <p>Aisialdirako instalazioak egotea</p> <p>Orain dauden azpiegiturei loturiko indargetze-eremuak egotea</p>	<p>Ez dago horrelakorik</p> <p>Ez dago horrelakorik</p> <p>Duna-sistemaren ia azalera guztian zapaltzeak ugariak izatea</p> <p>Duna-eremuetan mahaiak, bankuak, zubiak eta barbakoak egotea</p> <p>Ez dago horrelakorik</p>	<p>Beste ibilbide batzuk izatea</p> <p>Ereму ahulenetan itxiturak egotea</p> <p>Zapaidutako eremuak desagertzea</p> <p>Duna-eremuetatik aisialdi-ekipamenduak desagerraraztea</p> <p>Aparkalekuek eta hondartzako instalazioek mugatutako eremuetan trantsizio-eremuak sortzea</p>

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2120004.xml&lang=eu

VII. ERANSKINA

ES2120009 IÑURRITZA KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK

FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA JARDUERAK

Hurrengo tauletan, Iñurritza KBEan kudeaketarako funtsezkotzat jotzen diren elementuetariko bakoitzarentzat proposatzen diren kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo Internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

ESTUARIO-SISTEMA**Justifikazioa**

Iñurritzako estuarioak, txikia izan arren, balio ekologiko garrantzitsuak ditu oraindik ere. Ereku horretan, Batasunaren intereseko habitatak daude, eta erlazio eta lotura estua dute elkarrekin. Sistema horiek eratzen dituzten naturaguneak oso garrantzitsuak dira kostaldeko habitatak eta landaredi halofiloa kontserbatzeko.

Iñurritzako estuarioan eratzen den padurak, txikia izan arren, ingurune horretako berezko landaredia du, eta EAEn gaur egun bakanak diren espezieak ditu, hala nola *Salicornia dolichostachya* eta *Salicornia obscura*. Gainera, *Limonium humile* espezieak EAEn dituen bi populazioetako bat kontserbatu da Iñurritzatan; espezie hori galtzeko arriskuan dago gure erkidegoan. *Iñurritzatan, populazioaren hedapena areagotu egin da: itsasadarraren eskuineko ertza hartu du eta lore-errosaten kopuruak gora egin du, 362tik 562ra (OREJA et al., 2010). 2009an padura lehengoratzeko lanak hasi ziren eremu horretan, eta espezie horren habitat potentziala handitzea espero da (IHOBE, 2010. EAEko landaredi baskularren zerrenda gorria. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza).*

Paduretako landaredi bereizgarriari dagokionez, estuario honetan 122 espezie hauteman dira. Haietako 16 hezegune halofiloetako espezie eskusiboak dira, bai itsasertzekoak, bai barnealdeko kubeta endorreikoetakoak. Beste 5 espezie itsasertzeko espezie eskusiboak dira, baina kostaldeko beste ekosistema batzuetan ere ageri dira; esaterako, dunetan eta itsaslabarretan.

Gainera, estuarioak oso garrantzitsuak dira hegaztien migrazioetarako, negua igartzeko eta atsedean hartzeko eremuak baitira kolonia askorentzat. Iñurritzako estuarioak, txikia izan arren, Kantauriar itsasertzeko estuarioen arteko loturari laguntzen dio, atsedean hartzeko eta elikatzeko lekua baita espezie ugariarentzat. Funtzio garrantzitsua du, halaber, Europako iparraldeko hegaztien negu-pasarako.

Kontserbazio-egoera

Hainbat urtetan eraldaketa handia izan duen arren, Iñurritzako estuarioa balio ekologiko handiko eremua da; izan ere, eremu txikia izanik ere, ingurune horietako berezko ekosistemen adierazle bikainak ditu.

Iñurritza KBEaren estuario-sisteman, habitat hauek daude: 1310 habitata (paduretako halofiloen urteroko landaredia), 1320 habitata (*Spartina* belar-motako belardiak), 1330 habitata (paduretako belardi-ihidi halofiloak) eta 1420 habitata (paduretako sastrakadi halofiloak).

Spartina alterniflora espezie inbaditzaileak kolonizatzen du 1320 habitata. Habitategi buruzko Zuzentarauaren interpretazio-eskubidurak aukera ematen du belardi horiek habitat honetan sartzeko, nahiz eta EAEko paduretako genero horretako espezie autoktono bakarra *Spartina maritima* izan.

Habitat horiek guztiek azalera txikia hartzen dute, paduretan betelanak eta drainatze-lanak egin baitira aspalditik, laborantza-eremu bihurtzeko. Nabarmenezkoa da Iñurritzako padurak lehengoratzeko proiektua gauzatu dela (Gipuzkoako Foru Aldundiak garatua), eta, horri esker, paduretako landare-komunitate subhalofiloak garatzeko ahalmena duten lursailak (27.000 m²-ko azalera) lehengoratu dira.

Eremu horiek, oraingoz, habitat jakin batean sailkatu ezin direnez, «Lehengoratzen ari diren eremu» gisa adierazi dira kartografian.

Egokiagoa da habitatak modu bateratuan kudeatzea, eta osatzen duten sistamarako helburuak, araudiak eta neurriak definitzea, bakoitzerako banan-banan definitzea baino.

Eremuan dauden habitatei dagokienez, eta onartutako definizioen arabera, 1130 habitata (Estuarioak) estuario-sistemak hartzen duen azalera osoari dagokio, Batasunaren intereseko gainerako padura-habitatak barne. Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioaren (2009) *Spainian Batasunaren intereseko habitat-motak kontserbatzeko aurretiko oinarri ekologikoak* argitalpenari jarraituz, eta *EAEko trantsizio-uren eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sareak* (Eusko Jaur-larritza) emandako datuak aintzat hartuta, honela zehaztu daiteke Iñurritzako estuarioaren kontserbazio-egoera:

	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Estuarioko berezko habitatek azalera txikia hartzen dute (EBko kodeak: 1310, 1320, 1330 eta 1420). Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzaturako proiektuari esker, paduretako landare-komunitate subhalofiloak garatzeko ahalmena duen azalera handia lehengoratu da, eta, beraz, landare-komunitate horien kontserbazio-egoerak epe laburrean hobera egingo duela aurreikusten da.

1310 habitatak (*paduretako halofiloen urteroko landaredia*) azalera txikiak hartzen ditu paduretako beste habitat batzuekin tartekatuta, oso ingurune dinamiko batean. Landare-multzo horiek asko urritu ziren Iñurritzan, betelanak egin baitziren, padura-eremuak laborantza-sail bihurtzeko. Iñurritzako Biotopoaren Plan Berezian zehaztutako lehengoratzeko proiektua gauzatu ondoren, eta lehengo egoera berreskuratuz gero, habitat-mota horiek errazago kolonizatuko dituzte lehengoratutako eremuak. Hala ere, lehengoratutako eremua ezin da habitat jakin batekin lotu, ez baita nahikoa denbora igaro landareen kolonizazioa gertatzeko.

Spartina espezieko belardiek (1320 habitata) oso azalera txikia hartzen dute KBEan, baina nabarmendu behar da kasu guztietan *Spartina alterniflora* espezie inbaditzailea dela.

1330 habitata (*paduretako belardi-ihidi halofiloak*) itsas ihiz eta *Elymus* espezieko belardiz osatuta dago KBEan, eta urriak dira itsasadarreko bi ertzetan. *Baccharis halimifolia* espezie aloktonoaren inbasio-prozesuak habitat horri ere eragiten dio.

Azkenik, 1420 habitata ere (*paduretako sastrakadi halofiloak*) urria da KBEan. Habitat-mota horri dagozkion gune txiki batzuk aurkitu dira itsasadarraren ertzetan, baina oso urria da. Itsasadarraren ezkerrean, golf-zelaia inguratzen duen bidetik metro gutxira, *Limonium humile* aurki daiteke kubetetan edo sakonuneetan, substratu hareatsu-istiltsuaren gainean; itsasbeheretako drainatzea txarra denez, landare-komunitatea urez estalita geratzen da denbora luze itsasaldi-zikloetan. *Spartina alterniflora* espeziaren eta sastrakadi halofiloen arteko tarte batean dago. Landare-komunitate horiek guztiak oso egoera zatikatuan daude eta oso azalera txikiak hartzen dituzte.

Habitat horien kontserbazio-egoerari buruzko informazioa dokumentu honen eranskinean dago, KBE honetako elementu bereizgarri eta adierazgarri bakoitzaren kontserbazio-egoerari buruzko fitxan.

Presioak eta arriskuak	
<p>Estuario-sistemaren arrisku nagusia, behin paduraren azalera lehengoratzuz gero, gerta daitekeen espezie inbaditzaileen kolonizazioa da. <i>Baccharis halimifolia</i> espeziaren aleren bat aurkitu da, nahiz eta, lehengoratzeko-programaren barnean, espezie aloktonoak desagerrarazteko lana egin den.</p> <p>Beste arrisku bat estuarioan egiten diren aisialdi-jarduerak dira, uda-garaian batez ere. Hori dela eta, jendeak errekaren ezkerretatik egiten dituen joan-etorriak mugatzea komeni da, bai eta, oro har, lehengoratutako eremu osoan ere.</p> <p>Azkenik, estuario-sistemaren funtzionamendurako beste arrisku bat akuiferotik ura ateratzea da golf-zelaian erabiltzeko.</p>	
Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak	
<p>Gaur egungo jardunbideek eremuko ingurumen-balioen kontserbazioa dute helburu, Iñurritzako estuarioa Biotopo Babestua baita; hala izendatu zen otsailaren 25eko 40/1997 Dekretuaren bidez. Dekretu horretan arautzen dira bai Biotopoaren barnean bai haren inguruko babesaldean baimendutako erabilerak, baimendu daitezkeenak eta debekatuta daudenak. Arautze horren xedea babestutako eremuan dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitat eta espezieak babestea eta kontserbatzea da, bereziki padura-komunitateak, hareatzak eta itsaslabarrak, ingurune horietako berezko flora- eta fauna-espezieak dituztenak; haietako batzuek oso hedadura txikia dute EAEn.</p> <p>Zarauzko Iñurritzako Biotopo Babestuaren Plan Bereziaren (Behin betiko onespina, 2006ko uztailaren 18ko GAO) xedea da itsasoaren kotan dauden eta Biotopo Babestuak mugatzen dituen lursail lauak hirigintza aldetik garatzea, antolatzea eta kudeatzea, bai Iñurritza ibaiaren estuariokoak, bai dunetakoak. Proposamenaren helburu nagusia eremua kontserbatzea da eta, beraz, esku-hartze garrantzitsuenen artean, hondatutako guneak lehengoratzeko lanak daude. Alde horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehengoratzeko-proiektua garatu du duela gutxi, aipatutako Plan Berezian definitua, eta horri esker, padura-azalera handia lehengoratu da.</p> <p>KBEaren eremuan, uraren kalitatearen arazoak ez dira oso baldintzatzaile kaltegarriak. Izan ere, estuarioa itsas eta ibai arteko eremua izanik, haren dinamikak bide ematen du ur-trukatzea etengabea izateko. Dena den, noizbehinka isurketak egiten dira, eta horiek kontuan hartu beharko dira sistemak egoera onean jarraitzen duela bermatzeko.</p>	
Helburuak eta jarduerak	
<p>Azken helburua</p>	<p>Iñurritza KBEaren estuario-sistemaren funtzionaltasun osoa kontserbatzea eta lehengora ekartzea.</p> <p>Funtsezko elementu horretarako helburu nagusia da estuarioaren funtzionaltasun osoari eustea, hura kontserbatzea eta lehengora ekartzea, intereseko hainbat espezie dituzten askotariko ekosistemen eremua den aldetik. Horregatik aintzat hartuko da KBEan dauden Batasunaren intereseko habitaten eta espezien kontserbazio-egoera, eta nola laguntzen dioten estuario-sistemaren funtzionaltasunari eusten.</p> <p>Egokiena da estuarioan dauden habitatak modu bateratuan kudeatzea, eta osatzen duten sistemarako helburuak, araudiak eta neurriak definitzea; nolahi ere, habitat bakoitzeko berriazko neurriak ere proposatu dira.</p> <p>Beraz, proposatuko diren jarduerak xede hauek izango dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Estuarioaren erregimen hidrologiko naturala eta haren dinamika bermatzea eta mantentzea, lehengoratzen laguntzeko. - Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Eremuaren azalera handitzea, haren potentzialtasunaren mailarik gorenera, eta haren funtzionalitatea hobetzea. - Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea. - Uren kalitatea bermatzea. - Gizakien presentzia mugatzea eta sistemaren sarbideak gutxitzea, aisialdiko jarduerak eta hirigintza-presioa kontrolatuz. <p>Neurri horiek eremuan dauden espezieei mesede egingo diete, haien habitaten kontserbazio-egoera hobetzea baitute xede.</p>
1. helburu operatiboa	Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea eta mantentzea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak eta neurriak; batik bat, 9.A.2 araudia, eta 2.JAR.7 jarduera, itsasaldiek ekarritako eta utzitako hondakinak kentzeko lanekin loturikoa.</p> <p>JP1. Akuiferoako ur-ateratzeak kontrolatzea. Akuiferoaren uraren maila eta kalitatea kontrolatzeko sare bat diseinatu eta gauzatuko da. Horretarako, hiru piezometro jarriko dira KBEan, eta maila piezometrikoa hileru neurtuko da. Gainera, sei hilabetetik behin, akuiferoaren eta duela gutxi sortutako urmaelaren uraren kalitatea kontrolatuko da. Golf-zelaiaren jarduera adierazten duten parametroak erregistratuko dira (eroankortasuna, guztizko fosforoa, nitritoak, nitratoak, fosfatoak, sulfatoak, amonioa). Soropilak mantentzeko erabilitako produktu kimikoak aintzat hartuta, horien presentzia adierazten duten beste parametro batzuk ere aztertuko dira, baita haien metabolitoak ere, ingurunean iraunkorrak izan daitezkeenean.</p>
2. helburu operatiboa	Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea.
Jarduerak	Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, jarduera hauek: 2.JAR.5 jarduera, zenbait habitaten (1130, 1310, 1320, 1330 eta 1420) kontrolari buruzkoa, eta 2.JAR.8 , 2.JAR.10 eta 2.JAR.11 jarduerak, arrisku-pean dauden flora- eta fauna-populazioen kontserbazio-egoeraren jarraipenari buruzkoak.
3. helburu operatiboa	Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea
Jarduerak	JP2. Estaldura txikiena duten guneak birlandatzea, bai eta padura-landaredia izan dezaketen mareen gaineko guneak ere, batik bat duela gutxi lehengoratutako guneak eta lehengoratze naturalaren prozesu desegokiak dituzten guneak ere.
4. helburu operatiboa	Uren kalitatea bermatzea
Jarduerak	<p>2.JAR.2 jarduera aplikatuko da (<i>EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sareak lortutako datuen jarraipena</i>), sare horretan dauden estuarioko estazioei dagokienez. Urtero, berariazko txosten bat egingo da KBE honetarako. Egoera ekologikoren bat «Ona» kalifikazioa baino kaskarragoa bada, hori hala zergatik den aztertuko da, eta beharrezkoa izanez gero, egoera horri irtenbidea emateko berariazko neurriak proposatuko dira.</p> <p>Aipatutako sare horretan lehendik dauden laginketa-estazioei beste kontrolgune bat gehituko zaie, Iñurritza itsasadarrean, KBEaren barruan.</p>

5. helburu operatiboa	Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea.
Jarduerak	<p>Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta dinamika bermatzeko neurriak ere aplikagarriak dira, itsasaldi-dinamikak berak ekar dezan paduretako berezko espezieen populazioak modu naturalean berrezartzea.</p> <p>Era berean, JP2 neurriari esker, sistemaren egitura-komplexutasun eta biodibertsitate handiagoa lortuko da.</p> <p>2.JAR.8 eta 2.JAR.10 jarduerak ere aplikagarriak dira, fauna- eta flora-espezieen populazioen jarraipena egitearekin loturikoak, arriskupean dauden espezieak zer egoeratan dauden jakiteko.</p>
6. helburu operatiboa	Bertakoa ez den flora- eta fauna-espezie inbaditzaileak desagerraraztea
Jarduerak	2.JAR.4 jarduera bateratua aplikagarria da, <i>Spartina alterniflora</i> eta <i>Baccharis halimifolia</i> espeziei dagokienez, batez ere.
7. helburu operatiboa	Aisialdiko jarduerak eta hirigintzaren presioa kontrolatzea
Jarduerak	Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, 8.J.4 jarraibidea, estuario-inguruneetako gune ahulenetako sarrera publikoak arautzeari buruzkoa, eta 2.JAR.14 eta 2.JAR.15 jarduerak, ingurumen-heziketako proiektuak eta erabilera publikoa kudeatzeko proiektuak garatzeari buruzkoak.

DUNA-SISTEMA**Justifikazioa**

Iñurritzako duna-sistema EAEko kostaldeko hareatzetan dauden habitaten kontserbaziorako naturagune garrantzitsuenetako bat da; Iñurritzán, 1210, 2110, 2120 eta 2130* habitatak dira, hain zuzen. Habitat horiek ematen diote garrantzia sistemari berari; beraz, funtsezkoa da horiek kontserbatzea. Dena den, kontserbazio hori modu bateratuan proposatu behar da sistema osorako, eta ez habitat batzuetarako soilik. Izan ere, oso ekosistema aldakorra eta dinamikoa da; horixe da, hain zuzen, sistema horren ezaugarri nagusia.

Iñurritza Euskadiko gune garrantzitsuena da kostaldeko hareatzetako landaredia kontserbatzeko.

Iñurritzako dunek garrantzi handia dute flora psammofiloa babesteko; izan ere, bertan dauden espezie hauetako populazioak EAEn ezagutzen diren bakarrak dira: *Medicago marina*, *Galium arenarium* (Euskadiko kostaldeetako eta Akitaniako endemismoa), *Festuca vasconensis*, *Solidago virgaurea* eta *Alyssum loiseleurii* (Kantauri itsasoko kostaldera eta Frantziako hego-mendebaldera mugatutako endemismo atlantikoa). Zarautzeko *Galium arenarium* espeziearen populazioa Iberiar penintsulan ezagutzen den bakarra da eta, gaur egun, espezie horren banaketa-eremuaren hegoaldeko muga absolutua da.

KBEan dauden beste espezie batzuk ere aipagarriak dira EAEn urriak direlako: *Honckenia peploides*, *Koeleria albescens*, *Herniaria ciliolata*, *Linaria supina ssp marítima*.

Kontserbazio-egoera

KBEan dagoen duna-sistema primarioa eta sekundarioa estua da eta aldapa handia du, besteak beste, golf-zelaiaren itxiturak eta dunaren goiko aldeko bideak hesi gisa jokutzen dutelako. Bestalde, olatuen eraginpean dagoenez eta sedimentuak galtzen ditueneguz, dunaren behealdea higatu egiten da, eta sarritan ikusten dira ekaitzek eragindako higakinak eta ezpondak.

Duna-lerro primarioak, gaur egun, tarte irregular txiki bat hartzen du, gehienbat duna sekundarioak eratzen dituen ezpondaren higakinen gainean; izan ere, duna sekundarioa zabalagoa da eta aldapa txikiagoa du.

Duna finkoan golf-zelaiaren instalazioak daude. Golf-zelaiak dunaren azalerari eusten lagundu dio, eremu hori ez baita urbanizatu, baina golfa eta haren hesia eraikitzean, zenbait duna-espezie (adibidez, *Galium arenarium*, *Medicago marina* eta *Solidago virgaurea subsp. macrorhiza*) bi zatitan bereizita geratu ziren, ale batzuk golf-zelaiaren eta beste batzuk dunaren aurreko aldean geratu baitziren. Hirugarren mailako dunako zenbait taxon bereizgarriren ale-kopuruak behera egin duela egiaztatu da; adibidez, *Alyssum loiseleurii* espeziea.

Kalkuluen arabera, Euskadiko kostaldeko berezko espezie psamofiloen ia % 80 daude Zarautzen. Ere-muan, duna mugikorretako eta duna finkatuetako landaredia oparua da. Bi habitat-mota horiek lursail-azalera garrantzitsuak hartzen dituztenez, areagotu egiten da eremuaren dibertsitatea. Iñurritza KBEaren duna-sistema eratzen duten lau habitaten artean (1210, 2110, 2120 y 2130*), 2130* «Duna grisak edo finkatuak» da adierazgarriena.

Habitat horien kontserbazio-egoerari buruzko informazioa dokumentu honen eranskinean dago, KBE honetako elementu bereizgarri eta adierazgarri bakoitzaren kontserbazio-egoerari buruzko fitxan. Laburbilduz, hauek izan daitezke Iñurritza KBEko hareatzetako habitaten kontserbazio-egoeraren ezaugarriak:

- 1210 habitata: Itsasoko hondakin metaketetan hazten den urteroko landaredia. Habitat-mota hori oso urria da Iñurritza KBEan. Garai batean, hareatzeko ia aurrealde osoan egongo zen banatuta habitat-mota hori. Gerora, ordea, habitat horren adierazle bakan batzuk baino ez dira geratu, batez ere aisialdiko erabilera handia izan delako eta garbiketa-lan sakonak egiten direlako. Gaur egun, gune adierazgarri bat dago itsasadarraren ondoko eremuan.

1210 habitata	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua			X	
Azalera			X	
Egitura eta funtzio espezifikoak			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

- 2110 habitata: Enbrioi-duna mugikorrek. KBEan, ingurune hori zerrenda txikietan baino ez da ageri, hondartzaren aurrealdean, eta gune txiki bat itsasadarraren inguruan.

2110 habitata	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua			X	
Azalera			X	
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

- 2010 Itsasertzeko duna mugikorrek, *Ammophila arenaria* dutenak. Adierazle onak dituzte hondartzaren aurrealdean, baina atzera egiten ari dira azken urteetan izandako ekaitzen ondorioz. Zarautzeko duna-lerroa Euskadiko luzeena da, eta duela urte batzuk egindako lehengoratzelanei esker, oso azkar ari da lehenera etortzen. Horri esker, harea ezegonkorreko berezko zenbait espezieek zoko egokiak dituzte hedatzeko; esaterako, *Galium arenarium* eta *Medicago marina* espezieek. *Honckenya peploides* espezie psamofiloa kostalde atlantikoan eta kantauriarrean soilik bizi da, kostaldeko duna-sistemetakoa lehen landaredi-lerroan, harearen dinamika biziaren eraginpean; bertan, itsasaldien arribazoi batzuk jalkitzen dira itsasgora bizietan. KBEan, dunak padurarekin lotzen diren lekuan dago, baita duna-lerroaren ekialdean ere, eta han ez da bakana.

2120 habitata	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

- 2130* habitata: Duna grisak edo finkatuak. Lehentasunezko habitata da, urria bata; izan ere, hareatza horietako asko desagertu egin dira gizakien presioagatik. KBEan, bi eremu bereiz daitezke. Alde batetik, gune txiki bat itsasadarrean, ingurune horietako ohiko landare dezente dituena; eta, bestetik, golf-zelaiaren dauden gune handi batzuk, gutxi-asko aldatuta daudenak. KBEan, aipagarria da *Alyssum loiseleurii* espeziea, duna finkoaren gune egonkorretan egon ohi dena, *Helichryso stoechadis-Koelerietum arenariae* asoziazioaren barnean (Kantauriko itsasertzeko duna tertziarioetako berezko asoziazioa). Eremu horretan, landaredi-komunitate horrekin batera beste espezie batzuk ere ageri dira, hala nola *Galium arenarium*, *Koeleria albescens*, *Solidago virgaurea subsp. macrorhiza*, *Dianthus gallicus* eta *Festuca vasconensis*. *Alyssum loiseleurii* espeziearen populazio gehiena golf-zelaiaren barruan dauden duna finkoetan ageri da; leku horretan nahiko ugaria da. *G. arenarium* espeziea ere ageri da KBEan, hondartza gaineko duna-lerroaren ekialdeko muturrean eta, gutxiago, golf-zelaiaren barruan eta itsasadarraren azken tarteko hareatzean. Kostaldeko hareatzean soilik aurki daitezkeen espezie hauek ere badaude KBEan: *Arenaria serpyllifolia*, *Cerastium diffusum*, *Desmazeria marina*, *Ononis reclinata*, *Polycarpon diphyllosum*, *Desmazeria rigida*, *Medicago minima*, *Minuartia hybrida*, *Phleum arenarium* eta *Vulpia membranacea*. Duna finkoetako gune ezegonkorretan, *Medicago marina* espeziea ageri da, belar-estaldura gutxiko lekuetan.

2130* habitata	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Presioak eta arriskuak

Dunen sistemak azalera egokia hartzen du, eta horren kontserbazio-egoera nahiko ona dela esan daiteke. Nolanahi ere, horren egoera potentzialari dagokionez, oso eraldatuta dago eta presio nahiz mehatxu handiak jasaten ditu; besteak beste, hauek nabarmendu behar dira: golf-zelaiak duna finkoa hartzen du, uda-garaian aisialdiaren eraginez presio handia jasaten du, eta espezie inbaditzaileak daude.

Golf-zelaiari dagokionez, hauek dira, besteak beste, presio nagusiak:

- Golf-zelaiko zurezko itxitura hesi fisikoa da eta harearen zirkulazioa oztopatzen du. Zirkulazio hori ezinbestekoa da dunen dinamika eraginkorra izan dadin, eta, gainera, duna mugikorren habitataren kontserbazio-egoera baldintzatzen du; habitat horretan bizi dira, besteak beste, *Galium arenarium* eta *Medicago marina* espezieak.
- Golf-zelaiaren mantentze-lanak egiten dira: belarra moztea, tratamendu fitosanitarioak, ongarritzea, etab. Lan horiek dunetako landare-diaren garapena baldintza dezakete, eta landare-populazioen hedapena murriztu. Zenbait daturen arabera, azken urteetan populazio horietako batzuen hedadura murriztu egin da; bestalde, soropil artifizialek eta bideek habitata zatikatzen dute, eta duna sekundario eta tertziarioetako lursailen arteko lotura zailtzen dute (IHOBE, 2011. EAEko landaredia baskularraren zerrenda gorrian «desagertzeko arrisku larrian» dauden landareztat jotzen direnak berreskuratzeko planak).
- Beste arrisku garrantzitsu bat kolonizatze gaitasun handia duen flora exotikoa da: *Stenotaphrum secundatum*, *Oenothera glazioviana*, *Oe. drummondii*, *Yucca gloriosa*, *Sporobolus indicus*, *Lobularia maritima*, *Coryza ssp.*, *Tetragonia tetragonoides*...

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

Gaur egungo jarduerak kontserbazioa dute helburu, Iñurritzako duna-sistema Biotopo Babestua baita; hala izendatu zen *otsailaren 25eko 40/1997 Dekretuaren* bidez. Dekretu horretan arautzen dira bai Biotopoaren barnean bai haren inguruko babesaldean baimendutako erabilerak, baimendu daitezkeenak eta debekatuta daudenak. Arautze horren xedea babestutako eremuan dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitat eta espezieak babestea eta kontserbatzea da; besteak beste, duna-sistemako hareatzetan daudenak.

Dekretu hori garatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 90eko hamarkadatik hona, zenbait jarduera burutu ditu aurrealdeko duna-lerroa lehengoratzeko; esaterako, igarobidea ixtea eta egitura-espezieak ereitea (*Elytrigia boreoatlantica* eta *Ammophila arenaria* subsp. *Australis*) dunetako landare-diaren bidez eremua handitzeko. Horrez gain, pasabide bat egin da, ingurumen-sentsibilizazioko eta -heziketako jarduerak egin dira, azalpen-panelak jarri dira... Horiek guztiek duna neurri batean egonkortzea lortu dute, eta azken hamarkadan garapen garrantzitsua izan du. Hala ere, azken urteetan, egoera aldatu egin da eta, azken neguetan izandako ekaitzen ondorioz, duna-lerroak atzera egin du eta dunaren behealdea asko higatu da.

Zarauzko Iñurritzako Biotopo Babestuaren Plan Bereziaren (behin betiko onespina, 2006ko uztailaren 18ko GAO) xedea da itsasoaren kotan dauden eta Biotopo Babestuak mugatzen dituen lursail lauak hiri-gintza aldetik garatzea, antolatzea eta kudeatzea, bai Iñurritza ibaiaren estuariokoak, bai dunetakoak. Proposamenaren helburu nagusia eremua kontserbatzea da eta, beraz, esku-hartze garrantzitsuenen artean, hondatutako guneak lehengoratzeko lanak daude. Alde horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehengoratzeko-proiektua garatu du duela gutxi, aipatutako Plan Berezian definitua, eta horri esker, padura-azalera handia lehengoratu da (6.000 m²), duna tertziarioetako komunitateak garatzeko ahalmena duena. Ur gezetako hezegune bat ere barne hartu du (12.500 m²).

Flora psamofila lehengoratzearrekin loturik, gaineratu behar da azken urteetan haziak ernetzeko probak egin direla Gipuzkoako Landare Germoplasmaren Bankuan, eta emaitzak positiboak izan dira. Dunaren aurrealdeko guneetako landareetatik abiatuta, Iturrarango Lorategi Botanikoan lortu diren landareekin, beste bi gune sortu dira itsasadarrean.

<p>Hareatzetako espezieen demografiari eta kontserbazio-egoerari buruzko azterketa batzuk egin dira (Silvan & Campos, 2002; Garmendia & Oreja; 2007, Oreja <i>et al.</i>, 2010;). <i>Solidago virgaurea</i> subsp. <i>macrorhiza</i> espeziearen kasuan izan ezik, zenbait urtetako datuak daude, eta horrek aukera ematen du populazioen bilakaera jakiteko. Dena dela, datu horiek oraindik ez dira nahikoak, populazioen bideragarritasun demografikoa aurreikusteko.</p> <p>EAEko landaredia baskularraren zerrenda gorrian «<i>desagertzeko arrisku larrian</i>» dauden landareetat jotzen direnak berreskuratzeko planak idazten ari dira. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, IHOBE Sozietate Publikoaren bitartez, proiektu hori ari da garatzen; proiektuak EAEn arrisku handien duten espezieak kontserbatzeko eta lehengoratzeko jarduerak aurreikusten ditu. Proiektu horren hasierako dokumentuan, Iñurritza KBEa jarduera-eremutzat hartzen da, espezie hauek lehengoratzeko: <i>Chamaesyce peplis</i>, <i>Alyssum loiseleurii</i>, <i>Festuca vasconensis</i>, <i>Galium arenarium</i>, <i>Medicago marina</i>, <i>Solidago virgaurea</i> subsp. <i>macrorhiza</i> eta <i>Hibiscus palustris</i> (azken espezie hori ez da hareatzetako, baizik eta lezkadietakoa eta belardi hezeetakoa; beraz, lehengoratzeko gune egokia padura-ingurua izango litzateke).</p>	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	<p>Funtsezko elementu horretarako helburu nagusia da dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea, hura kontserbatzea eta lehengora ekartzea, Batasunaren intereseko zenbait habitat eta intereseko hainbat espezie biltzen dituen eremua den aldetik. Horregatik, aintzat hartuko da KBEan dauden Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera, eta nola laguntzen dioten duna-sistemako funtzionaltasunari eusten.</p> <p>Egokiagoa da bertan dauden habitatak modu bateratuan kudeatzea, eta osatzen duten sistemarako helburuak, araudiak eta neurriak definitzea, habitat bakoitzerako banan-banan egitea baino.</p> <p>Beraz, proposatuko diren jarduerak xede hauek izango dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea. - Dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea. - Betetzen duen azalera ahalik eta gehien handitzea. - Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea. - Gizakien presentzia mugatzea eta sistemaren sarbideak gutxitzea. Aisialdi-jarduerak kontrolatzea. <p>Neurri horiek eremuan dauden bertako espezieei ere mesede egingo diete, haien garapen-habitaten kontserbazio-egoera hobetzea baitute xede.</p>
1. helburu operatiboa	Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babestea
Jarduerak	<p>Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, 8.J.4 jarraibidea, gune ahulenetako sarrera publikoak arautzeari buruzkoa, motordun ibilgailuak sartzea mugatzen duena eta intereseko habitatei eragiten ez dieten pasaguneak bultzatzen dituena; eta 2.JAR.4 jarduera, bertakoa ez den flora exotikoaren jarraipena egiteari eta hura erazteari buruzkoa (makinak erabili eta fumigatze estentsiboak egin ordez, eskuz egiten diren teknikak eta tokian tokikoak lehenetsiko dira). Eratzketa zorrotz gainbegiratu du du floran aditua den pertsona batek. <i>Stenotaphrum secundatum</i> espeziea desagerraraztea zailagoa da, espezie hori dagoen sistema desegitratzea eragin baitezake; horrenbestez, jarduera-programa zehatz bat egin beharko da.</p>

	<p>Aplikagarria da, halaber, 2.JAR.6 jarduera, 1210, 2110, 2120 eta 2130* habitaten aldizkako jarraipenari buruzkoa (6 urtean behin).</p> <p>Aplikagarria da, halaber, 2.JAR.7 jarduera, hondartzak garbitzeko lanei buruzkoa eta 1210 habitata (<i>Itsasoko hondakin-metaketetan hazten den landaredi iragankorra</i>) gartzten den eremuen kontserbazioari buruzkoa; EAEn oso urriak diren zenbait flora-espezie lotuta daude habitat horrekin.</p> <p>Dunen habitaten eta haien flora bereizgarriaren eta arriskupean dagoenaren kontserbazio-egoeraren jarraipen-jarduerak (2.JAR.6 eta 2.JAR.8 jarduerak) berekin ekarriko dute aipatutako espezieen habitat potentzial egokia ezaugarritzea eta habitat bakoitzaren naturaltasun-aurkibide bat definitzea.</p> <p>JP3. Dunen dinamika kontrolatzea eta jarraitzea, baita ekaitza biziak eragindako dunen aurrealdeko higadura ere. Higadura ez gertatzeko jarduera zehatzak proposatzea, higadura berriro gertatzen bada.</p>
2. helburu operatiboa	Hartzen duen azalera ahalik eta gehien handitzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 2.JAR.6 eta 2.JAR.8 baterako jarduerak (arriskupean dagoen landarediaren aldizkako monitorizazioa). Jarraipenaren emaitzak erakutsi behar du zer-nolako arrakasta izan duten orain arte egindako lehengoratzeko-proiektuek, bai eta lehengoratzeko-jarduera gehigarriak aplikatzea komeni den ere.
3. helburu operatiboa	Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea
Jarduerak	<p>Sistemaren barnean habitatak eta fauna- eta flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzeko neurriak ere aplikagarriak dira, dinamikak berak bultzatu dezan sistema horretako flora tipikoa modu naturalean berrezartzea.</p> <p>Aipatutako 2.JAR.8 jardueraz gain, 2.JAR.10 jarduera ere aplikagarria da, hegazti-faunaren aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa.</p>
4. helburu operatiboa	Aisialdiko jarduerak KBeko floran eta faunan eragin ditzaketen ondorio kaltegarriak eragozte
Jarduerak	<p>Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, 8.J.4 jarraibidea, estuario-inguruneetako gune ahulenetako sarrera publikoak arautzeari buruzkoa, eta 2.JAR.14 eta 2.JAR.15 jarduerak, ingurumen-heziketako proiektuak eta erabilera publikoa kudeatzeko proiektuak garatzeari buruzkoak.</p> <p>JP4. Golf-zelaiko itxituraren eta duna-lerroko oinezkoentzako pasabidearen ordez, harea igartzeko iragazkortasun gehiagoko egiturak jartzea.</p> <p>JP5. Golf-zelaiaren erabilera-plan bat egitea, haren erabilera eta hareatzetako landarediaren babesa bateragarri egiteko. Plan horretan, irizpide hau izango da kontuan: hareatzetako espezie babestuak dituzten golf-zelaiko guneetan tratamendu fitosanitarioak, ureztaketak eta belar-mozketak murriztea.</p> <p>JP6. Flora psamofiloak hartzen duen golf-zelaiko azalera kontrolatzea. Bertan dauden populazioen kartografia zehatza egingo da, baita espezie horietarako ahalmen egokia duten guneetako ere, eta dauden guneen arteko korridore naturalen definizioa ere egingo da. Adierazten diren guneetan, dunen habitateko berezko espezieak lehengoratzeko jarduerak egingo dira. Jarduera hau eta aurreko paragrafoan definitutako JP5 osagarriak dira.</p>

BESTE FUNTSEZKO ELEMENTU BATZUK**Justifikazioa**

Atal honetan hauek sartzen dira: Itsasertzeko labarrak (EBko kodea: 1230. Atlantikoko eta Baltikoko kostaldeetako landaredia duten itsaslabarrak), *Erica vagans* duten kostako txilardi atlantiko lehorrak, (EBko kodea: 4040*), *Trichomanes speciosum* iratzea eta *Euphydryas aurinia* lepidopteroa.

Aipaturiko habitatek KBEaren itsasertza hartzen duen unitate fisiografiko bat eratzen dute, itsasadarraren ekialdean. Labarretan bizi den landaredia olatuen zipriztinek ezartzen dituzten baldintza gogorretara moldatuta dago. Bestalde, *Erica vagans* espezieko kostako txilardiek kontserbazeko lehentasuna duen habitat bat eratzen dute. Itsasertzeko labarren goiko aldean daude, eta tarte estua eratzen dute, labarreko berezko landarediarekin nahastuta; izan ere, ingurunearen gazitasunera egokitutako landare batzuk ageri dira, txilardien muluen artean. Hori da, hain zuzen, *Cochlearia danica* espeziearen kasua; itsaslabarretako laugunetan bizi da kresalaren eraginpean. Iñurritzako labarretan bizi da EAEn ezagutzen den espezie horretako hiru populazioetako bat.

Hasteko, habitat horien jarraipena eta azaleraren kontserbazioaz gain, ez da inolako kudeaketa-jarduerarik sustatu. Habitat horien azalera txikia da, baina eremu potentzial gehiena hartzen dute eta haien naturaltasuna altua dela esan daiteke. Landare-talde horiek eraldaketa gutxien jaso dutenetakoak dira.

Trichomanes speciosum espeziea Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasota dago (abenduaren 13ko 42/2007 legearen II. eranskina), eta Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katagoloan «interes bereziko» gisa katalogatuta dago. Gaur egun ez dakigu *Trichomanes speciosum* espeziea KBEan bizi den; beraz, proposatu den neurri bakarra, oraingoz behintzat, xehetasun-azterketak egitea da, espezie hori Iñurritzan dagoen jakiteko.

KBEan, halaber, *Euphydryas aurinia* lepidopteroa ageri da. Espezie hori Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasota dago, bai eta Bernako Itunaren II. eranskinean ere. Espezie hori ez da ageri Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko eta Espainiako Katalogoetan. Nahiko espezie ugaria da Iberiar penintsulan, eta penintsula osoan zehar bizi da. Badirudi populazioa egonkortzen ari dela, nahiz eta gehienetan gorabeheratsua den, aldaketa handiak baititu urte batzuetatik beste urte batzuetara. Espezie horri dagokionez, Iñurritzako populazioen egungo egoeraren jarraipen bat egitea proposatzen da.

Kontserbazio-egoera

Ez dakigu *Euphydryas aurinia* lepidopteroaren eta *Trichomanes speciosum* iratzearen populazioen egungo egoera.

Itsasertzeko labarrei eta kostako txilardiei dagokienez, kontserbazio-egoera ona dutela esan daiteke.

4040* HABITATA. Kostako txilardi lehorrak: <i>Erica vagans</i>				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera	Ona			

1230 HABITATA. Itsasertzeko labarrak				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera	Ona			

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	1230 habitataren (Atlantikoko eta Baltikoko kostaldeetako landaredia duten itsaslabarrak) eta 4040* habitataren (Kostako txilardi lehorrak: <i>Erica Vagans</i>) kontserbazio-egoera onari eustea
1. helburu operatiboa	KBEan dauden Batasunaren intereseko fauna- eta flora-espezieen kopurua eta banaketa hobeto ezagutzea
Jarduerak	<p>2.JAR.8 eta 2.JAR.9 baterako jarduerak aplikagarriak dira, KBEan arriskupean dauden flora- eta fauna-espezieen populazioak monitorizatzeko. Gainera, kontserbazio-egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatetan eragindako perturbazioen diagnostiko bat ere egingo da, populazio horien egoerari eusteko eta/edo haien egoera hobetzeko.</p> <p>Jarduera honek aukera emango du Iñurritza KBEaren barnean <i>Trichomanes speciosum</i> espeziearen populazioak eta Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean (abendua-ren 13ko 42/2007 legearen II. eranskina) jasotako beste landare-espezie batzuen populazioak dauden aztertzeko eta, hala bada, kartografiatzeko, bai eta Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan (abendua-ren 13ko 42/2007 legearen II. eta V. eranskinak) jasota dauden ornogabeen edo intereseko populazioek KBEan zer kokapena eta banaketa duten hobeto jakiteko ere; bereziki, <i>Euphydryas aurinia</i> (zingira-dontzeila) lepidopteroa, eta, egokitzat hartuz gero, kontserbazio-egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatetan eragindako perturbazioen diagnostiko bat ere egingo da.</p>
2. helburu operatiboa	Bi habitategi hartzen duten azalera aldizka monitorizatzea, haien kontserbazio-egoeran eragina izan dezaketzen perturbazioei antzemateko
Jarduerak	Aplikagarria da 2.JAR.6 baterako jarduera, 1230 Itsasertzeko labarrak (Atlantikoko eta Baltikoko kostaldeetako landaredia duten itsaslabarrak) eta 4040* Kostako txilardi lehorrak (Kostako txilardi atlantiko lehorrak: <i>Erica Vagans</i>) habitaten jarraipenari buruzkoa, KBEan duten kontserbazio-egoera monitorizatzeko eta eragin diezaieketen perturbazioei antzemateko.

JARRAIPEN-PROGRAMA

Eusko Jauriaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak jarraipena egingo du, dokumentu honetan zehaztu diren helburuak eta jarduerak betetzen direla egiaztatzeko. Jarraipen-programa honen helburuetako bat da jakitea, batetik, zer bilakaera izan duten Batasunaren intereseko elementuen kontserbazio-egoerak eta KBEan egiten diren erabilerek eta jarduerak; eta, bestetik, zer eragin izan duen dokumentu honetan eremu horretan egitea proposatu den kudeaketak.

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
ESTUARIOA	Sistemaren, padurako habitaten mosaikoaren eta ingurune horrekin lotutako fauna- eta flora-populazioen funtzionaltasun osoari eustea eta hura kontserbatzea.	Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea	Ibilguaren eta itsasaldi-kanalen egoera (hondakin solidoak)	-	Ibilgu nagusiaren eta itsasaldi-kanalen egoera ona
		Sistemako habitatak eta faunahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarrienak direnak babes-tea	Habitat naturalen azalera (ha)	1130, 1230, 1310, 1320, 1330 eta 1420 habitaten egungo azalera	Habitat naturalen hektareakopurua handiagoo izatea hasierako balioa baino
DUNA-SISTEMA	Dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea	Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea	Lehenera ekarritako habitaten hektareak	Narriatutako eremuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehengoratuak	Azalaren % 100 lehengora ekartzea
		Uren kalitatea bermatzea	Ur-masaren egoera ekologikoa	Ez dakigu	Egoera ekologikoa Ona edo Oso ona lortzea
DUNA-SISTEMA	Dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea	Flora-espezie aloktono inbaditzaileak desagerraraztea	Aldizkako isurketak kontrolatzea eta saneamendua hobetzea	Aldizkako isurketak egiten dira. Saneamendua hobetu behar da.	Isurketak desagerraraztea
		Aisialdiko jarduerak eta hirigintza-ren presioa kontrolatzea	Espezie exotikoak egotea	Espezie exotikoak daude	Espezie exotikoak eraztea
			Azalari eustea, babes-figuraren bidez	Hasierako azalera	Babestutako azalari eustea edo hura handitzea
			Habitat naturalen azalera (ha)	1210, 2110, 2120 eta 2130* habitaten egungo azalera	Hasierako balioa baino handiagoo
DUNA-SISTEMA	Dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea	Sistema barruko habitatak eta fauna- eta flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea	Espezie exotikoak egotea (hartzen duten azalera)	Ez dakigu	Hartutako azalera gutxitzea edo espezie exotikoak eraztea
			Intereseko flora-espezieak egotea	Egungo espezieak	Intereseko espezie-kopurua handitzea
		Aisialdiak eragindako inpaktuen bilakaera (eremu batzuk zapaltzea)	Aisialdiak eragindako inpaktuen bilakaera (eremu batzuk zapaltzea)	Hondartzatik gertuen dagoen duna-azalera zapaltzea	Zapalduetako eremuak desagertzea

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea	
TRICHOMANES SPECIOSUM ETA EUPHYDRYAS AURINIA	Especie horien populazioak eremuari babestea, haien habitatak eta ugaltzeko guneak babestuz.	Ingurune honetako flora- eta fauna-espezioak hartzeko gaitasuna hobetzea	Egun desagertuta dauden baina garai batean egon ziren espezioak egotea	Ez dago horrelakorik	Desagertutako espezioak birsartzea lortzea	
		Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Bi espezio horien populazioak egotea	Badakigu	KBEak espezioak hartzeko duen gaitasuna handitzea	
ITSASERTZEKO LABARRAK ETA TXILARRAK	Habitat-mota horrek gaur egun hartzen duen azalerari eustea	Especie horien populazioak KBEan dauden zehaztea, haien habitaten kontserbazio-egoeraren diagnostiko bat egitea.	Azalera (ha)	Ez dakigu	Badakigu	
		KBEan, espezioaren habitataren baldintzak hobetzea	Azalera (ha)	Egungo azalera	Egungo azalerari eustea	
ESTUARIOA	Sistemaren, padurako habitaten mosaiakoaren eta ingurune horrekin lotutako fauna- eta flora-populazioen funtzionaltasun osoari eustea eta hura kontserbatzea	Estuaria erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea	Ibilguaren eta itsasaldi-kanalen egoera (hondakin solidoak)	-	Ibilgu nagusiaren eta itsasaldi-kanalen egoera ona	
		Sistemako habitata eta fauna-nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta adierazgarriak direnak babestea	Habitat naturalen azalera (ha)	1130, 1230, 1310, 1320, 1330 eta 1420 habitaten egungo azalera	Habitat naturalen hektarea-kopurua handiagoa izatea hasierako balioa baino	
		Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea	Intereseko fauna- eta flora-espezioak egotea	Paduretako berezko flora- eta fauna-espezioak daude	Intereseko espezio-kopurua handitzea	
			Lehenera ekarritako habitaten hektareak	Narriatutako eremuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehengoratuak	Azaleraren % 100 lehengora ekartzea	
			Uren kalitatea bermatzea	Ur-masaren egoera ekologikoa	Egoera ekologikoa Ona edo Oso ona lortzea	
			Flora-espezio aloktono inbaditzaileak desagerraraztea	Aldizkako isurketak kontrolatzea eta saneamendua hobetzea	Isurketak desagerraraztea	
			Aisialdiko jarduerak eta hirigintza-aren presioa kontrolatzea	Especie exotikoak egotea	Especie exotikoak daude	Especie exotikoak eraztea
				Azalera eustea, babes-figura baten bidez	Hasierako azalera	Babestutako azalerari eustea edo hura handitzea
				Habitat naturalen azalera (ha)	1210, 2110, 2120 eta 2130* habitaten egungo azalera	Hasierako balioa baino handiagoa
				Especie exotikoak egotea (hartzen duten azalera)	Ez dakigu	Hartutako azalera gutxitzea edo espezio exotikoak eraztea
DUNA-SISTEMA	Dunen sistemaren funtzionaltasun osoari eustea eta lehengora ekartzea	Sistema barruko habitata eta fauna- eta flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea	Intereseko flora-espezioak egotea	Egungo espezioak	Intereseko espezio-kopurua handitzea	
			Aisialdiak eragindako inpaktuen bilakaera (eremu batzuk zapaltzea)	Hondartzatik gertuen dagoen duna-azalera zapaltzea	Zapaldutako eremuak desagertzea	
		Aisialdiko jarduerak (golf-zelaia) floran eta faunan eragin ditzaketen ondorio kaltegarriak eragozteak	Aisialdiak eragindako inpaktuen bilakaera (eremu batzuk zapaltzea)	Arriskupean dagoen floran populazioek gaur egun hartzen duten azalera	Arriskupean dagoen floran populazioek hartzen duten azalera handitzea	

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
		Habitataren kalitatearen indizea	Habitataren kalitatearen indizea	Ez dakigu	Habitataren kalitate-indizea handitzea (6 urte pasa ondoren)
		Inguruneke berezko flora- eta fauna-espezieak hartzeko gaitasuna hobetzea	Egun desagertuta dauden baina garai batean egon ziren espezieak egotea	Ez dago horrelakorik	Desagertutako espezieak birsartzea lortzea
		Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea		Badakigu	KBEak espezieak hartzeko duen gaitasuna handitzea
TRICHOMANES SPECIOSUM ETA EUPHYDRYAS AURINIA	Espezie horien populazioak eremuan babestea, haien habitata eta ugaltzeko guneak babestuz.	Espezie horien populazioak KBEan dauden zehaztea, eta haien habitaten kontserbazio-egoeraren diagnostiko bat egitea.	Bi espezie horien populazioak egotea	Ez dakigu	Badakigu
ITSASERTZEKO LABARRAK ETA TXILARRAK	Habitat-mota horiek gaur egun hartzen duten azaleraren kontserbazio-egoera onari eustea	Bi habitatek hartzen duten azalera aldizka monitorizatzea, haien kontserbazio-egoeran eragina izan dezaketen perturbazioei antzemateko.	Azalera (ha) Egitura eta funtzio espeziekoak kontserbazio-egoera onean egotea	Eguno azalera	Eguno azalerari eustea Egoera onari eustea

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2120009.xml&lang=eu

VIII. ERANSKINA

ES2120010 ORIAKO ITSASADARRA/RÍA DEL ORIA KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK

FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA JARDUERAK

Hurrengo tauletan, Oriako itsasadarra/Ría del Oria KBEan kudeaketarako funtsezkotzat jotzen diren elementuetariko bakoitzarentzat proposatzen diren kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

ESTUARIOA (EBko KODEA: 1130)

Justifikazioa
<p>Estuarioak itsasoko eta ibaietako inguruneen artean dauden natura-sistema garrantzitsuak dira, eta ekosistema emankorrenetakoak dira. Birsortzeko gaitasun handia dute.</p> <p>Estuarioetan dagoen itsasaldi-dinamika oso aldakorra da; izan ere, sedimentazio- eta higadura-prozesuak ezin dira aurreikusi eta era askotako inguruneak eta habitatak sortzen dituzte. Aldakortasun horri esker dute, hain zuzen ere, halako interes handia biodibertsitatearen ikuspegitik.</p> <p>Estuarioek lotura-funtzio garrantzitsua dute beste estuario batzuekin eta ibai-ekosistemarekin. Biodibertsitate-maila handia dute, floraren eta faunaren aldetik.</p> <p>Oriako itsasadarra EAEko zabalenetako bat da, eta bertako padura funtzionaleko guneetan balio eta interes handiko fauna eta flora dago. Gune horietan, Batasunaren intereseko habitatak daude, eta erlazio eta lotura estua dute elkarrekin. Oraindik jarduera tradizional batzuk egiten direnez, eta eremu horretako zona batzuk itsasaldi-dinamikarako berreskura daitezkeenez, sistema honek balio eta ahalmen handiak ditu.</p> <p>Oriako itsasadarra interes bereziko eremua da flora eta fauna kontserbatzeko, arriskupean dagoen floraren eta faunaren Euskadiko katalogoan sailkatuta dauden espezieen populazioak baitaude bertan, eta baldintza egokiak ditu populazio horiek gara daitezen.</p> <p>Gainera, Oriako itsasadarreko estuario-sistema, Euskadiko kostaldeko beste estuario batzuk bezala, oso leku garrantzitsua da hegaztien migraziorako, eta estuarioen arteko loturari laguntzen dio, atsedena hartzeko eta elikatzeko lekua baita espezie askorentzat. Funtzio garrantzitsua du, halaber, Europako iparraldeko hegaztien negupasarako.</p>
Kontserbazio-egoera
<p>Oriako itsasadarreko estuario-sistemak balio ekologiko handia du, nahiz eta urteetan zehar eraldaketa handiak izan dituen. Izan ere, ingurune horietako berezko ekosistemek kontserbazio-egoera onean irauten dute zenbait lekutan. Hori geratzen da, adibidez, Santiagoko paduran; eremuko padura adierazgarriena da, ondo egituratuta dago eta padura heldua da. Donparnasako eta Olaberrietako padurak ere nabarmendu behar dira. Txikiak izan arren, funtzionaltasunari eutsi diote eta egoera onean kontserbatuta daude, zaila baita hara iristea.</p> <p>Motondo azalera supralitorala da, eta artifizialki altxatua dagoenez, gaur egun itsasaldiak ez du urpean uzten. Gaur egun belardia da, baina ahalmen handia du berriro padura bihurtzeko, neurri batean gutxienez.</p>

Sistema honetako kanal nagusia oso handia eta zabala denez, padura-guneak sortu dira, baina asko murriztu dira nekazaritza-lanak egiteko, pezoiak eta dikeak eraikiz. Oriaren estuario-sistemaren beste bereizgarri bat ibar alubialak dira. Pezoiz edo dikez babestuta daude itsasaldeetatik, eta labore-sailak, sega-belardiak eta belardi estentsiboak daude ibar horietan. Hori dela eta, askotariko inguruneak daude sistema horretan, interes handikoak naturaren eta paisaiaren aldetik. Gainera, padura-ingurune bihurtzeko ahalmen handia duten gune asko daude eremu horretan.

Oriako itsasadarreko estuario-sisteman, habitat hauek daude: 1140 habitata (ordoki lohitsuak edo hareatsuak, itsasbeheran urpean geratzen ez direnak), 1320 habitata (*Spartina* belar-motako belardiak), 1330 habitata (paduretako belardi-ihidi halofiloak) eta 1420 (paduretako sastrakadi halofiloak). Habitat horiek 4,89 ha-ko azalera hartzen dute guztira; hau da, eremuaren guztizko azaleraren % 2,6. Kanal nagusiaren azalera 56 ha baino zertxobait handiagoa da, eta eremuko azaleraren % 30 hartzen du.

Sistema honetako habitat adierazgarriena 1140 da. Habitat horrek 3,37 ha-ko azalera du eta estuario-habitaten azalera guztiaren % 68,9 hartzen du. Azalera txikiak hartzen ditu ibaiertzetan eta oraindik padura-landaredia duten lekuetan.

Gainerako habitatek azalera urriagoak hartzen dituzte:

- *Spartina* espezieko belardi (1320 habitata) gutxi daude. Estuario-habitaten azaleraren % 4,4 hartzen dute, eta Motondoko ekialdeko zona txikietan eta haien pareko eskuineko ibaiertzean daude. Aipatu behar da *Spartina alterniflora* espezie inbaditzailea dela kasu guztietan.
- 1330 habitatari dagokionez, 0,54 ha baino ez du hartzen (estuario-habitaten azaleraren % 11,07) eta, Donparnasako paduran, itsas ihiz beteriko zati txikiek osatzen dute, baita 1420 habitatarekin nahasten diren *Elymus farctus* eta *Scirpus maritimus* zati txikiek ere.
- 1420 habitata estuario-habitat guztien % 15,83 da eta Santiagoko paduretan baino ez dago, eta, kasu batzuetan, oso narriatuta.

Habitat horien kontserbazio-egoerari buruzko informazioa dokumentu honen eranskinean dago, KBE honetako elementu bereizgarri eta adierazgarri bakoitzaren kontserbazio-egoerari buruzko fitxan.

Eremuan dauden habitatei dagokienez, eta onartutako definizioen arabera, 1130 habitata (Estuarioak) estuario-sistemak hartzen duen azalera osoari dagokio, Batasunaren intereseko gainerako padura-habitatak barne. Taula honetan, Oriako estuario-habitataren (1130) ustezko kontserbazio-egoera laburtu da (Ikus estuarioko gainerako habitaten kontserbazio-egoerari buruzko fitxak).

	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				
Azalera				
Egitura eta funtzio espezifikoak				
Etorkizunerako aurreikuspenak				
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

Hauek dira adierazitako helburuak lortzeko baldintzatzaile nagusiak, estuarioaren funtzionaltasunari eragiten diotenak edo eragin diezaioketenak:

- Hirigintzaren presio handia. (400, 410).
- N-634 errepidean egiten diren lanak. (502).
- Euskotreneko linean lanak egin behar dira. Ezkerraldeko ibaiertzetik doa eta lanek leku hauetako padurei eragingo diete: Santiago, Motondo, Donparnasa eta Olaberrieta. (503).

- Babes-azpiegiturak daude, eta ibaiertzen naturalizazioa eta faunaren joan-etorriak oztopatzen dituzte. (490).
- Itsasaldietan urpean ez gelditzeko elementuak daude (dikeak, pezoiak) (870) eta dike horien gainean baserrietara joateko bideak egin dira (501).
- Bertakoa ez den flora-espezie inbaditzaileak daude eta, gainera, ugaritu egin dira; *Spartina alterniflora* eta *Baccharis halimifolia* espezieak batik bat. Espezie horiek birsorkuntza naturala aldatzen dute. (954).
- Ibaiertzeko landarediaren jarraitutasunaren etendurak. (400,490).
- Aisialdirako instalazioak ingurunean (Arraunketa-elkartea, ibaiertzetako ibilaldiak, Klub nautikoa); zenbait kasutan, itsas lehorreko jabari publikoa hartzen dute. (600, 621, 622).
- Padurari irabazitako belardiak bertan behera uztea. (101, 141).
- KBEtik gertu dauden N-634 eta GI-3710 errepideak. Zenbaitetan, ia ez da espaziorik geratzen errepide horien eta ibai-ibilguaren eta padura-eremuen artean. Kontuan hartu beharko dira aurreikusitako jardueretarako zortasun-zonak. (502).
- Ibilgura egiten diren askotariko isurketak. (701).
- Itsas lehorreko jabari publikoan dauden era askotako eraikuntzak eta instalazioak. (690).
- Azpiegituren gurutzatzeak: erabilera-zortasuna dakarte eta landarediaren jarraitutasuna baldintza dezakete.
- Itsasadarraren gainean eraikitzekoa den N-634 errepideko zubia. (507).
- Santiagon, Donparnasan eta Olaberrietan eraikitzeak diren trenbideko zubiak. (507).
- Linea elektrikoak: Bi lekutan zeharkatzen dute linea elektrikoek KBEa. (511).
- Ibar gehienak jabetza pribatukoak dira. Jabetza pribatukoak izateak zaildu egiten du kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurriak aplikatzea, eta beraz, jabeen eta erakunde publikoen arteko akordioak eta konpromisoak bultzatuko dituzten formulak bilatu behar dira (kontratu bidezkoak nahiz borondatezkoak), edo zenbait lursail erosi beharko dira.

Gaur egungo jarduerak eta legeko baldintzatzaileak

KBEan aplikagarriak dira, besteak beste, araudi hauek:

- Kostaldeei buruzko Legea eta hura garatzeko araudia.
- EAEko Hezeguneak Babestu eta Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Plana.

Gaur egun, KBEan ez da natura-balioen kontserbazioarekin loturiko jarduerarik egiten ari, baina jarduera hauek daude aurreikusita:

Orioko itsasadarra dragatzea, N-634 errepidetik gora

Kostaldea eta Itsasoa Iraunarazteko Zuzendaritza Nagusiak (Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurueneko Ministerioa) proiektu hori egitea aurreikusi du. Itsasadarreko erdialdeko ibilguan 500 metro inguru dragatuko dira.

Saneamendu-sareko jarduerak

Santio erre kara isurketak egiten dituzten Aia eta Andatza herrietako eta inguruko baserrietako saneamendu-lanak egiten ari dira.

Halaber, Lasarte-Oria eta Usurbilgo saneamendu-kolektore orokorra eraikitzen ari dira. Herri horietako hondakin-urak Urumea ibaiaren arrora eramango dira, Loiolan dagoen hondakin-uren araztegiara.

<p>Gainera, eremuan jarduera hauek egiten ari dira:</p> <p><u>EAEko trantsizio-uren eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarea</u>. Sare hori 2004. urtean hasi zen lanean, eta KBEan dagoen estuario-estazio bat du, E-05 Orio (arrapala) izenekoa, egoera ekologikoa aztertzeko, Uraren Esparru Zuzentarauaren irizpideei jarraituz eta analisi biologikoak, fisikokimikoak eta hidromorfologikoak eginez. Gainera, arrain- eta makroalga-laginketak egiten ditu.</p> <p><u>Saria ibarraren ingurumena berreskuratzeko proiektua</u>, Usurbilgo udalak aurreikusita.</p> <p><u>Izokin arrunta Gipuzkoan berriro sartzeko plana</u></p> <p>Gipuzkoako Foru Aldundiak, 1988. urtetik aurrera, izokin arrunta berriro sartzeko plana gauzatzen ari da Gipuzkoako zenbait ibaitan, Oria ibaia barne.</p> <p><u>Gipuzkoako kostaldearen mantentze-kontratua 2010-1012</u></p> <p>Hainbat jarduera hartzen ditu barne, hala nola flora-espezie exotiko inbaditzaileak desagerraraztea eta padurak lehenera ekartzea.</p>	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	<p>Funtsezko elementu horretarako helburu nagusia da sistemaren funtzionaltasun osoari eustea, hura kontserbatzea eta lehengora ekartzea, intereseko hainbat espezie dituzten ekosistema emankorretako eremua den aldetik. Horregatik aintzat hartuko da KBEan dauden Batasunaren intereseko habitaten eta espezien kontserbazio-egoera, eta nola laguntzen dioten estuario-sistemako funtzionaltasunari eusten.</p> <p>Egokiagoa da estuarioan dauden habitatak modu bateratuan kudeatzea, eta osatzen duten sistemarako helburuak, araudiak eta neurriak definitzea, nahiz eta habitat bakoitzerako neurri espezifikokoak ere proposatzen diren.</p> <p>Beraz, bertan proposatuko diren jarduerak xede hauek izango dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea eta mantentzea, leheneratzen laguntzeko. - Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta ondoen ordezkaturak daudenak babestea. - Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea. - Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea. - Uren kalitatea bermatzea. - Bertakoa ez den flora-espezie inbaditzaileak desagerraraztea. - Aisialdiko jarduerak eta hirigintzaren presioa kontrolatzea. <p>Neurri horiek eremuan dauden espezieei mesede egingo die, haien habitaten kontserbazio-egoera hobetzea baitute xede.</p>
1. helburu operatiboa	Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea eta mantentzea
Jarduerak	<p>Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, 9.A.2 araudia eta 2.JAR. 7 jarduera, itsasaldiek ekarritako eta utzitako hondakinak aldian-aldian kentzeko lanekin loturikoa, Santiagoko, Donparnasako eta Olaberrietako paduretako kanaletan, batez ere.</p>

	<p>JP1. Santiagoko ibarraren ingurumena lehengoratzeko proiektua, Uraren Euskal Agentziak aurreikusita. Plan horretan, pezoiak kentzea eta modu kontrolatuan irekitzea aurreikusten da, bai eta eremu horren azaleraren zati bat ibaiertz bietan padura-sistema bihurtzea ere, betelanak kenduz eta malda egokituz. Jarduera hori 5,40 ha-ko eremu batean egingo da.</p> <p>JP2. Motondoko paduraren ingurumena lehengoratzeko proiektu bat idaztea eta gauzatzea. Ahalik eta azalera handiena jatorrizko padurak zuen egoerara ekartzea da helburua. Horretarako, eremuan ezarri nahi diren padura-komunitateen eta -habitaten azterketa egingo da, eta egun dagoen haltzadi-azalera osoa errespetatu eta kontserbatuko da. Proiektuan, halaber, aurreikusten da hegoaldeko hezegunera doazen erreken drainatze naturala egitea estuariora. Jarduera hori 20 ha-ko eremu batean egingo da.</p> <p>JP3. Pezoiak kentzea edo irekitzea Itzao eta Marrota ibarretan, eta eremu horren azaleraren zati bat padura ertaina-altua izateko berreskuratzea. Horretarako, luraren malda aldatuko da, urpean gera daitekeen azalera handitzeko. Bi ibarretako ingurumena lehengoratzeko planak idaztea.</p> <p>JP4. Saria ibarraren ingurumena lehengoratzeko proiektua, Usurbilgo udalak aurreikusita, gauzatzea. Plan horretan, padura-eremua berreskuratzea aurreikusten da, pezoiak kenduz, orain dauden kanalak irekiz edo zabalduz eta malda egokituz. Jarduera-eremuak 13,42 ha hartzen ditu.</p> <p>JP5. Aginagako ibarretan, ibaiertz bietan, dinamika naturala berreskuratze aukera aztertze txostenak idaztea.</p>
<p>2. helburu operatiboa</p>	<p>Sistemako habitatak eta fauna- nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta ondoen ordezkatuta daudenak babestea</p>
<p>Jarduerak</p>	<p>Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, 2.J.8 jarraibidea, pezoiak egokitzeari edo kentzeari buruzkoa, 2.JAR.4 jarduera, flora exotiko inbaditzailearen aldi behingo jarraipenarekin eta horiek errotik kentzearekin lotuta, eta 2.JAR.5 jarduera, zenbait habitaten (1130, 1140, 1320, 1330 y 1420) kontrolari buruzkoa.</p> <p>2.JAR.1. KBEaren eremu guztian, itsasadarraren ertzen ingurumena eta paisaia lehengoratzeko proiektu bat idaztea. Hiri-lurzoruak edo azpiegiturak mugatutako eremuak kontuan hartzeaz gain (hiriguneak, N-634 eta GI-3710 errepideak, trenbidea, bideak, etab.), erriberako landaredia garatzea baldintzatzen duten belardiek, laborantzek eta baso-landaketek hartutako ibai-erriberak ere hartuko dira kontuan. Lehendabiziko eremuei dagokienez, trantsizio-eremuak sortzea izango du xede proiektuak, hirigintzako erabilerek eragin ditzaketen kalteentzako babes-pantailak edukitzeko. Bigarren eremuei dagokienez, erriberako landaredi naturala lehenera ekartzea izango du xede proiektuak; horretarako, habitat naturalak eta korridore ekologikoak gara daitezen bultzatuko da.</p> <p>Proiektu horretan, hauek izango dira jarduera-eremuak itsasadarraren eskuinaldean: Anibarko-Portua eta Ortzaika eremuak, eta belardiz eta laborantzez osatutako tartea, Saria ekialdetik ibaiaren goiko zatirantz, eremuaren mugaraino. Ezkerraldeko ibai-ertzean, Itzaoko ibarretik gora KBEaren mugaraino. Horrez gain, Marrota, Izoztegi eta Aginaga pareko erriberetan ere egingo dira jarduerak, padura funtzionala berreskuratzen ez den erribera-tarteetan, landatuta dauden zonaldeen mugetan.</p> <p>JP1, JP2, JP3, JP4 eta JP5 jarduerak, erregimen hidrológico naturala bermatzekoak, aplikagarriak dira, itsasaldi-dinamikak berak ekar dezan paduretako berezko espezieen populazioak modu naturalean berrezartzea.</p>

3. helburu operatiboa	Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea
Jarduerak	<p>JP1, JP2, JP3, JP4 eta JP5 neurriek padura-eremu narriatuen morfologia eta funtzioak lehengoratzeko jasotzen dute. Aurreikusitako lehengoratzeko-planen bidez, padura-guneen azalera asko handituko da KBEaren eremu osoan.</p> <p>JP6. Pezoiak eraikitzea, aurreikusten diren padura-guneetatik gertu dauden baserriak babesteko (Olaso, Itzao, Santiagoko bokalean dagoen etxea eta haren lorategia).</p>
4. helburu operatiboa	Sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea
Jarduerak	<p>Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta dinamika bermatzeko jarduerak ere aplikagarriak dira, itsasaldi-dinamikak berak ekar dezan paduretako berezko espezieen populazioak modu naturalean berrezartzea. Morfologia eta funtzioak lehengoratzeko aurreikusitako jarduerak ere aplikagarriak dira (JP1, JP2, JP3, JP4 eta JP5), sistemaren egitura-konplexutasun eta biodibertsitate handiagoa lortzen lagunduko dutenak. Horrela, hartzen duen azalera ahalik eta gehien handituko da, itsasaldi-gradiente bat sortuz eta lurra eta ur-sarrera birmoldatuz, itsasaldi-dinamikak berak ekar dezan paduretako espezieen populazioak modu naturalean berrezartzea.</p> <p>2.JAR.8 eta 2.JAR.10 jarduerak ere aplikagarriak dira, fauna- eta flora-espezieen populazioen jarraipena egitearekin loturikoak, arriskupean dauden espezieak zer egoeratan dauden jakiteko.</p>
5. helburu operatiboa	Uren kalitatea bermatzea
Jarduerak	<p>2.JAR.2 eta 2.JAR.3 jarduerak aplikagarriak dira (Santiago eta Altxerri erreketara isurtzen duten biztanlegune txikien saneamendua osatzea, eta Aginaga eta San Esteban auzoen saneamendua), uraren kalitatea hobetzearekin eta kontrolatzearekin loturikoak. Bereziki, E-O5 eta E-O10 estazioetako datuen jarraipena egingo da.</p>
6. helburu operatiboa	Bertakoa ez den flora- eta fauna-espezie inbaditzaileak desagerraraztea
Jarduerak	<p>2.JAR.4 jarduera bateratua aplikagarria da, flora-espezie exotiko inbaditzaileak desagerraraztekoa, <i>Spartina alterniflora</i> eta <i>Baccharis halimifolia</i>, batez ere. 2.JAR.12 jarduera bateratua ere aplikagarria da, Aginagako urtegiko fauna-espezie exotiko inbaditzaileak desagerraraztekoa.</p>
7. helburu operatiboa	Aisialdiko jarduerak eta hirigintzaren presioa kontrolatzea
Jarduerak	<p>Estuarioetako KBE guztietarako proposatutako baterako jarduerak aplikagarriak dira, eta bereziki, 8.J.4 jarraibidea, estuario-inguruneetako gune ahulenetako sarrera publikoak arautzeari buruzkoa, eta 2.JAR.14 eta 2.JAR.15 jarduerak, ingurumen-heziketako proiektuak eta erabilera publikoa kudeatzeko proiektuak garatzeari buruzkoak.</p>

JARRAIPEN-PROGRAMA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak jarraipena egingo du, dokumentu honetan zehaztu diren helburuak eta jarduerak betetzen direla egiaztatzeko. Jarraipen-programa honen helburuetako bat da jakitea, batetik, zer bilakaera izan duten Batasunaren intereseko elementuen kontserbazio-egoerak eta KBEan egiten diren erabilerek eta jarduerak; eta, bestetik, zer eragin izan duen dokumentu honetan eremu horretan egitea proposatu den kudeaketak.

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
ESTUARIOA	Estuario-sistemaren funtzionaltasun osoari eustea, kontserbatzea eta lehengora ekartzea	Estuarioaren erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzea eta mantentzea	Itsasaldi-dinamikarako oztopoak	Motondoko aurrealdeko tarte askotan pezoiak eta harri-lubetak daude	Pezoiak kentzea edo irekitzea Santiagon, Marrotan, Itzaon eta Sarian. Harri-lubetaren zati bat kentzea Motondon
			Ibilguaren eta itsasaldi-kanalen egoera (hondakin solidoak)	Ez daigigu	Ibilgu nagusiaren eta Santiagoko, Donpamasako eta Olaberrietako paduren egoera ona
ESTUARIOA	Sistemako habitatak eta fauna-nahiz flora-populazioak modu aktiboan kontserbatzea, eta ondoan ordezkatuta daudenak babestea.	Estuario-habitat hartzten duten azalera eta haien egitura-bilakaera	Erreka txikiak urak estuariora berez isurtzea	Motondoko hezegunera iristea eragozten zaien erreka-adarrak	Habitat naturalen hektarea-kopurua handiagoa izatea hasierako balioa baino
			Habitat naturalen hektareak	4,9 ha (1140, 1320, 1330 eta 1420 habitaten egungo azalera)	Habitat naturalen hektarea-kopurua handiagoa izatea hasierako balioa baino
			Intereseko fauna- eta flora-espezieak egotea	Arriskupean dagoen flora baskularreko 4 espezie daude, eta intereseko fauna-espezie ugari (40 baino gehiago)	Intereseko espezie-kopuruak gora egitea, flora-espezieak, batez ere
			Kudeaketa-plana duten arrikupeko espezieak egotea	Eremuan ez dago kudeaketa-plana duen espezierik	Flora- eta fauna-espezieen kudeaketa-planak idaztea
ESTUARIOA	Eremuaren azalera handitzea eta haren funtzionalitatea hobetzea	Lehenera ekarritako habitaten azalera	Estuario-habitat hartzten duten azalera eta haien egitura-bilakaera	4,9 ha (1140, 1320, 1330 eta 1420 habitaten egungo azalera)	Estuario-habitaten azalera handiagoa izatea hasierako balioa baino
			Lehenera ekarritako habitaten azalera	Bat ere ez	Padura-guneak berreskuratzea Santiagon, Motondon, Itzaon, Marrotan, Sarian eta Aginagan
			Erriberak lehengoratzeko Itzaon, Marrotan, Sarian, Izoztagin eta Aginagan	Landaredi urriko erriberak	Erriberako landarediaren jarraitutasuna Aginagatik aurrera

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
		Sistemaren heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea	Habitat-dibertsitatea	Gaur egun, 4 padura-habitat desberdin daude	Habitat-mota gehiago egotea
		Uren kalitatea bermatzea	Habitaten egitura (estaldura, espezieen kontserbazio-malla) Birlanadatutako guineen azalerak Santiagon eta Marrotan	Zenbait kontserbazio-egoera Bat ere ez	Habitaten egitura hobetzea Lan datuta ez dauden eta betelana eginda duten guineak birlanadatzea
		Bertakoa ez den flora-espezie inbaditzaileak desagerraraztea	Ur-masaren egoera ekologikoa	Ona, eremuan dagoen estazioan (EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarearen datuak)	Egoera ekologiko Oso Ona lortzea
		Bertakoa ez den fauna-espezie inbaditzaileak desagerraraztea	Isurketen kontrola	Isurketak egitea estuarian	Isurketak desagerraraztea
		Aisialdiko jarduerak eta hirigintzaren presioa kontrolatzea	Espezie exotikoak egotea (hartutako azalera)	Ez dakigu	Hartutako azalera gutxitzea edo espezie exotikoen erauzketa
			Espezie exotikoak egotea	Bi espezie exotiko Aginagako urtegian (arriain-espezie bat eta karramarro-espezie bat)	Espezie exotikoen erauzketa
			Beste ibilbide batzuk	Ez dago horrelakorik	Beste ibilbide batzuk izatea
			Orain dauden azpiegiturari loturiko indargetze-eremuak	Ez dago horrelakorik	Errepedeen eta hiriguneen mugako zonaldeetan trantsizio-eremuak sortzea

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2120010.xml&lang=eu

IX. ERANSKINA

ES2120005 ORIA GARAIA/ALTO ORIA KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN
HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK**FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA JARDUERAK**

Hurrengo tauletan, Oria Garaia/Alto Oria KBEan kudeaketarako funtsezkotzat jotzen diren elementuetariko bakoitzarentzat proposatzen diren kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA**Justifikazioa**

Oria Garaia/Alto Oria KBEaren barneko ibai-tarte guztiak interes berezikoak dira lotura ekologikoari begira. Oria ibaiak eta haren ibaiadarrek osatzen duten ibai-korridore ekologikoak barnean hartzen ditu lehorreko, uretako eta aireko korridoreak, eta oso bide garrantzitsuak dira fauna- eta flora-espezieak hedatzeko, ibaietakoak izan zein ez, bai eta migrazioetarako ere. Horrez gain, ibaiaren dinamika naturalak ingurune-aniztasuna eta mikrohabitatakat sortzen ditu, beharrezkoak direnak flora- eta fauna-espezie asko babesteko, elikatzeke, ugaltzeko eta/edo hedatzeko. Bereziki aipagarriak dira espezie hauek: bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta loina edo iparraldeko loina txikia (*Parachondrostoma miegii*). Bi espezie horiek Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasota daude (abenduarien 13ko Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen II. eranskina). KBE honetako intereseko beste espezie batzuk martin arrantzalea (*Alcedo atthis*) eta ur-zozoa (*Cinclus cinclus*) dira. Horrez gain, *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubiala Batasunaren intereseko lehentasunezko habitata da (91E0*), eta hala dago jasota Habitategi buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean (abenduarien 13ko 42/2007 Legearen I. eranskina).

Kontserbazio-egoera

Lehorreko korridorea: Oria Garaia / Alto Oria KBEan, ibaiertzeko eremu handiak erabili dira hirigintza- eta industria-jardueretarako, bai eta, neurri txikiagoan, belardietarako ere. Horren ondorioz, ibai-korridorea zatikatuta dago, eta ezaugarri naturalak dituzten tarte ez-jarraitu batzuk soilik kontserbatu dira. Oro har kontserbazio-egoera kaskarra den arren, tarte batzuk oraindik ere egoera onean daude; batez ere, ibaiaren goi-ibarrean. Nolanahi ere, esan daiteke KBE honetako lehorreko korridorearen egoera **KASKARRA** dela.

Uretako korridorea: KBEaren barnean, uraren kalitatea kaskarra da tarte batzuetan.

Oria Garaia/Alto Oria KBEko uraren kalitatea			
Tarteak	Kalitate fisiko-kimikoa	Kalitate biologikoa	
		IBMWP indizea	arrain-fauna
Oria, I. tarte	Ona	Ona	Ona
Oria, II. tarte	Nahiko ona	Ertaina	Ertaina
Agauntza ibaia	Ona	Ona	Ona
Zaldibia ibaia	Txarra	Ertaina	Ertaina

Oria Garaia / Alto Oria KBeko lau tarteetatik, Oria ibaiaren goi-ibarra eta Agauntza ibaia daude egoera onean. Oria ibaiaren Legorreta eta Alegia arteko tartea eta Zaldibia ibaian, berriz, uraren kalitatea eskasa da. Hori guztia ondorioztatu da egindako analisi fisiko-kimiko eta biologikoetatik (makroornogabeak eta arrain-komunitatea).

Bestalde, ibai-inguruneko lotura ekologikoa eta ibaiaren dinamika eraldatuta daude, oztopoak (presa txikiak) eta emari-galerak direla eta; azken horiek bereziki garrantzitsuak dira Oria ibaiaren II. tartean eta Zaldibia ibaian. Horrek guztiak oso ondorio kaltegarriak ditu uretako ingurunearen mende bizi diren espezieetan.

Aurrez aipatutakoa aintzat hartuta, esan daiteke ibai-korridorearen kontserbazio-egoera desegokia dela KBE honetan.

Aireko korridorea: Oria Garaia / Alto Oria KBEa zenbait linea elektrikok zeharkatzen dute, edo eremu horretatik oso gertu edo paralelo igarotzen dira. Linea horiek ez daude balizatuta, hegazti-faunak talka egin dezan eragozteko. Horregatik, aireko korridorearen kontserbazio-egoera desegokizat jotzen da.

Presioak eta arriskuak

Lehorreko korridorea:

Ia KBE osoan daude luzetarako jarraitutasunaren etendurak (kanalizazioak). Taula honetan adierazi dira:

KBEn (bi ertzetan) babesak (hesiak edo harri-lubetak) dituzten tarteen luzera (m-tan)		
Oria, I. tartea	4.028	% 18,78
Oria, II. tartea	8.405	% 46,92
Agauntza	8.079	% 66,25
Zaldibia	4.827	% 54,64
Ibaia bideratutako tarteen luzera guztira	25.339	% 42,44

KBeko tarte guztietan, oso handia da eraldaketa morfologikoengatik presioa (estaldurak, kanalizazioak, oztopo artifizialak –presa txikiak–, zubiak, eta herri-jabari hidraulikoari dagozkion beste eremu batzuen okupazioa). Izan ere, babesak eta kanalizazioak ugariak dira, Oriaren goi-ibarreko tartean (I. tartea) izan ezik; azken eremu horretan presioa ez dela hain handia esan daiteke.

Bestalde, zenbaitetan belardiak eta labore-sailak ibilguaren ertzean daude, eta horren ondorioz, etendurak daude galeria-basoetan. Horrela, erriberako landaredia sinplifikatu egin da, eta belar-geruzak soilik iraun du. Hauek dira Oria Garaia / Alto Oria KBEn belardiek, labore-sailek eta beste erabilera batzuek eragindako luzetarako jarraitutasunaren etendura nagusiak:

Oria Garaia/Alto Oria KBeko erriberako basoaren luzetarako jarraitutasunaren etendura, belardiek, labore-sailek eta nekazaritza- eta basogintza-jarduerak eraginda			
	Luzera (m), eskuineko ertzean	Luzera (m), ezkerreko ertzean	Guztira, bi ertzetan
Oria, I. tartea	711	1.733	2.444
Oria, II. tartea	632	2.814	3.446
Agauntza	518	525	1.043
Zaldibia	641	430	1.071
GUZTIRA	2.502	5.502	8.004

Uretako korridorea:

Uraren kutsadura: Oria ibaiaren I. tartean eta Agauntza ibaian, uraren kalitatea eta egoera ekologikoa onak dira. Baina Oria ibaiaren II. tartean eta Zaldibia ibaiaren beheko tartean, kutsadura arazo batzuk daude, biztanle-gune batzuek urak KBE honetan isurtzen baitituzte, zuzenean edo zeharka. Arazo horri irtenbidea emateko, saneamendua hobetu beharko litzateke biztanle-gune hauetan: Mutiloa, Gabiria, Altzaga, Arama, Gaintza, Abaltzisketa, Baliarrain eta Orendain. Udalerrri horien saneamendu-proiektuak idazten ari dira gaur egun. Horrez gain, Zaldibiako saneamendua Goierriko kolektore nagusiarekin lotzeko lanak ere egiteko daude. Gainera, gerta daiteke auzo edo biztanle-gune txiki batzuk edota KBera urak isurtzen dituzten udalerrietako industria batzuk loturarik gabe geratzea. Horregatik, beharrezkoa izango da Oria ibaiko eta haien ibaiadarretako uren kalitatearen jarraipena egitea, kalitatea kaskarra izateak baldintzatu egingo bailituzke KBEn dauden Batasunaren intereseko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoerari begira ezarritako helburuak.

Presa txikiak/oztopoak: ibaiaren luzetarako jarraitutasuna funtsezkoa da arrain-espezieak, migratzaileak direnak zein ez direnak, mugitzeko eta lekualdatzeko, mugimendu horiek ezinbesteko baitituzte beren bizi-zikloa osatzeko.

- Oria Garaian, 33 oztopo daude, lau tartetan:

- Oria, I. tartea: 12 oztopo. Gipuzkoako Foru Aldundiak haietako bat iragazkortu du duela gutxi: Goia errota. Beste batek iragazkortasun ertaina du arraintzat. Eta gainerakoak ez dira iragazkorak: Magdalena errotak, Lesaka, Armaola, Arrabiola, Errota Berri, Idiakex eta Zubitxo, Zegama paper-fabrikako presa txikia, eta izen ezezaguneko beste bi presa txiki.

Tarte horretan ez dago fauna igarotzeko gailurik, edota ez dute behar bezala funtzionatzen; hortaz, iragazkortasuna txarra da faunarentzat.

- Oria, II. tartea: 4 oztopo nagusi daude. Haietako batek soilik du iragazkortasun ona: Aldaba Z.H.ak. Beste batek iragazkortasun ertaina du: Alegiako ur-emia neurtzeko estazioak. Eta gainerako biak iragazkortasun txarra dute: Ikaztegieta Z.H.ak, igarotzeko gailuak ez duelako ongi funtzionatzen, eta Etxezarreta paper-fabrikako presa txikiak, ez baitu igarotzeko gailurik.
- Zaldibia ibaia: tarte horretan, 6 oztopo daude. Haietako bat iragazkortasun txarrekoa zen (Biona), baina Gipuzkoako Foru Aldundiak duela gutxi iragazkortu du; hortaz, iragazkortasun ona duela esan daiteke.
- Agauntza ibaia: 11 oztopo daude. Haietako 4 iragazkortasun txarrekoak dira arraintzat, eta ez dute igarotzeko gailurik. Presa txiki hauek dira: CAF Beasaingoa, Albizu Z.H.koa, Iribe errotakoa eta izen ezezaguneko beste bat.

- Uretako korridorearen jarraitutasunean eragiten duten beste elementu batzuk oztopoetatik gorako tartetan sortzen diren urmaelak dira, ibai-habitatak eraldatzen baitituzte.

- Gainera, emari-galerek ere eragin kaltegarria dute uretako korridorean. Alde horretatik, azpimarragarria da KBEaren barnean kontsumorako ez diren uren erabilerek sortutako presioa, oso handia baita bai Zaldibia ibaian bai Oria ibaiaren II. tartean.

- Emari-deribazioak, batik bat erabilera hidroelektrikorako baliatzen direnak, oztopo dira arrain-espezieen beheranzko migrazioarako.

Aireko korridorea:

KBEa zeharkatuko duten linea elektriko berriak eraikitzeak aukerarekin daude lotuta arriskuak.

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak

Lehorreko korridorea:

Legezko baldintzatzaile positibotzat hauek aipa daitezke:

- Uraren arloko legerian –batik bat, Herri Jabari Hidraulikoaren Erregelamenduan, urtarrilaren 11ko 9/2008ko Errege Dekretuan idatzitako modu berrian–, HJHaren eta haren zortasun-zonaren erabilera arautzen da. Horren helburuak dira herri-jabari hidraulikoaren egoera kontserbatzea, uretako ekosistemen hondatzeari aurrea hartzea, ekosistema horiek hobetzea, eta abar.
- Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Plana (Bizkaiko Golkoko isurialdea). Plan horren arabera, Natura 2000 Sarearen barneko ibaiertzak Natura Intereseko Lehentasuneko Eremuak dira. Eremu horietan, «*babes-irizpide nagusia 'Ibilgua Babesteko Eremu' bat ezartzea da (landare-eremuetako ibaiertzetan, ibilgu publikoaren mugabanaketa-lerroarekiko 50 metroko gutxienezko erretiroa, eremu horiek ez badute berriazko antolamendu-dokumenturik), eta ingurunea eralda dezakeen edozein jarduera debekatzea*». Erretiro horiek errespetatu beharko dira lurzoru naturala eralda dezakeen edozein esku-hartzetan, behar bezala justifikatutako lan publikoetan, instalazioetan edo azpiegituren eraikuntzan izan ezik.

- EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programak (2007-2013) aintzat hartzen ditu zenbait nekazari-tza- eta ingurumen-neurri, biodibertsitateari eta nekazaritza-paisaiari eusteko; horretarako, erriberako heskaiak eta landaredia kontserbatuko dira, lursailetik pasatzen diren ibai-ibilguen inguruan. Jarduera hori lehentasunezkoa da Natura 2000 Sareko eremuetan. Horrez gain, aipagarria da baso-lurzoruen erabilera iraunkorra helburu duten neurrien multzoa. Hauek dira, besteak beste, neurri horietako batzuk: baso autoktonoak kontserbatzeko eta berritzeko jarduerak; baso-berritzeetan espezie jakin batzuk soilik erabiltzea; mendien ustiaketan inpaktu txikia eragiten duten teknikak erabiltzea; eta erriberako landaredia kontserbatzea eta lehengoratztea.
- Eremu honetan zer jarduera egin beharko liratekeen aztertzean, lursailen jabetza ere baldintzatzaile garrantzitsua da, gehienetan pribatua baita.

Uretako korridorea:

Aurrez aipatutako xedapenetatik eratortzen diren legezko baldintzatzaileez gain, Plangintza Hidrologikoaren Instrukzio berria aipatu behar da, irailaren 10eko ARM/2656/2008 Aginduaren bidez onartua. Aurrerantzean plan hidrologikoetan aintzat hartu beharreko alderdi batzuk jasotzen ditu; besteak beste, ur-emakidetan emari ekologikoak ezartzeari buruzkoak. Agindu horretan, Natura 2000 Sarea aipatzean, hau adierazten da: eremu horietan emari ekologikoen erregimenek ondorio nabarmenak eragiten badituzte, *«erregimenak egokitu egingo dira, habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera onari eusteko edo lehengoratzeko; eta, horretarako, haien eskakizun ekologikoak bete behar dira eta haietan eragina duten funtzio ekologikoei epe luzera eutsi behar zaie»*.

Uretako korridorea lehengoratzeko neurriak ezartzeko baldintzatzaile nagusietako bat indarrean dauden uraren erabilerari eta aprobetxamenduari buruzko administrazio-emakidak dira, kontsumo-erabilerak nahiz kontsumokoak ez direnak hartzen dituztenak; emakida-aldi luzekoak dira, eta kasuren batean (emari ekologikoak), ezarritako baldintzak ez dira nahikoak KBEan funtsezkotzat hartutako espezieak egoera onean kontserbatzea bermatzeko.

KBEan gauzatzen ari diren jardueren artean, hauek aipatu behar dira:

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak azaleko uren kalitatea kontrolatzeko bi sare ditu: SAICA sarea (Uraren kalitateari buruzko informazio-sistema automatikoa) eta CEMAS sarea (azaleko ur-masen egoera kontrolatzeko sarea). Oria ibaian, Andoainen, SAICA sareko kontrol-estazio bat dago.
- Eusko Jaurlaritzak, Uraren Euskal Agentziaren (ur-agentzia) bidez, EAEko azaleko ur-masen egoera ekologikoa kontrolatzen du, bi kontrol-sareren bitartez: Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera biologikoaren jarraipenerako sarea eta Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera kimikoaren jarraipenerako sarea. Horrez gain, arrainen laginketak egiten dira.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako ibaietako uraren kalitatearen jarraipena egiteko sarea du (kontrol fisiko eta kimikoak, kalitate biologikoa eta arrainen laginketak).

Oria Garaia / Alto Oria KBEan Eusko Jaurlaritzaren sareko hiru laginketa-estazio daude: bat, Oria ibaiaren II. tartean (Legorreta); beste bat, Agauntza ibaian (Ataungo San Martinetik behera); eta beste bat, Zaldibian (herri horretako isurpen-gunetik gora). Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak KBEaren barneko tarte guztietan ditu laginketa-estazioak. Baina ez dauka laginketa-estaziorik Agauntza ibaian, Lazkaotik behera.

- Arrain-faunaren jarraipenerako jarduerak: Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako ibaietako arrain-faunaren egoeraren jarraipen espezifikoa egiten du. Jarraipen horren xedea da arrain-komunitateak (bereziki, salmonidoenak) zer egoeratan dauden jakitea, komunitate horien populazioek zer joera duten aztertzea, eta egoera kudeatzeko eta hobetzeko neurriak ezartzea. Horrez gain, Gipuzkoako ibaietan aingira-populazioen jarraipena egiten du, EAEn Aingira Berreskuratzeko Kudeaketa Planari jarraituz. Alderdi horri dagokionez, ahalegin berezia egiten ari dira Oria ibaiaren arroan, oso egokitzat jotzen baita espezie horrentzat.

<ul style="list-style-type: none"> - Oztopoak iragazkortzeko programa (GFA – KKH): Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak erabiltzen ez diren emakidei lotutako oztopoak eraisten ditu, eta arraintzako pasabideak eraikitzen. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere oztopoak eraisteko eta iragazkortasuna hobetzeko jarduerak egiten ditu. Gipuzkoan oztopoak iragazkortzeko programan proposatutako presa txikietatik 4tan esku hartu da jada: Oria ibaiaren goi-ibarrean, I. tartean, Aramasagastin eta Goian, eta Zaldibia ibaian, Orklin eta Bionan. Oria ibaiaren I. tarteko beste hiru oztopo deuseztatzeko proiektuak idatzi dira jada, baina gauzatzeko daude. Hauek dira: Magdalena, Santa Cruz eta Armaola. - Arrainak igartzeko gailuen eraginkortasunaren jarraipena. Gipuzkoako Foru Aldundiaren oztopoak iragazkortzeko planak barnean hartzen du ezarritako iragazkortze-gailuen eraginkortasunaren kontrola eta jarraipena egiteko programa bat. Agauntza ibaian, ur-emariak neurtzeko estazioak amuarrainarentzat duen iragazkortasunaren jarraipena egin da, eta emaitzak onak izan dira (markatutako banakoen % 77k oztopoa gainditu du). - Saneamendu-jarduerak: azken urteetan, ahalegin handia egin da Oria ibaiaren saneamenduan. Dena den, KBEan isurpenak egiten dituzten biztanle-gune txiki batzuen saneamendua hobetu beharra dago, eta Zaldibiko saneamendua Goierriko kolektore nagusiarekin lotu behar da. 	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Oria Garaia/Alto Oria KBEko ibai-korridorea kontserbatzea eta lehengoratzea
1. helburu operatiboa	Korridore ekologiko jarraitua kontserbatzea eta lehengoratzea, ibaiertzen arteko lotura ekologikoa bermatzeko eta fauna lekualdatu ahal izateko
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 1.JAR.1 jarduera (24,6 ha), erriberako landaredi naturala lehengoratzeko, proposatutako tartean (ikus Jardueren mapa). Jarduera horrek barnean hartzen du galeria-basoaren 24,6 ha lehengoratzea, sega-belardiek, belar-sailek eta beste erabilera batzuek hartutako eremuetan, bai eta galeria-basoa oso hondatuta dagoen lekuetan ere.</p> <p>Aplikagarriak dira, halaber, jarduera hauek:</p> <p>1. JAR.2. Lursailen jabeekin borondatezko akordioak sustatzea, erriberako landaredi naturalaren egitura eta osaera hobetzeko, 10 m-ko zabaleran, proposatutako tartean (ikus Jardueren Mapa). Helburua da ibaiertzeko azaleraren 6,9 ha-tan jardutea.</p> <p>1.JAR.3. Arroaren ardura duen eskudun erakundearen aurrean, herri-jabari hidraulikoa zehaztea sustatutako da. Horretarako, erakunde horrek egindako edo balidatutako azterketa teknikoak hartuko dira abiapuntu, kontuan hartuta ezaugarri morfologikoak, azterketa hidrologikoak eta hidraulikoak, eta eskuragarri dauden erreferentzia historikoak. Horren helburua da KBEaren <i>ibai-lurralde</i>a mugatzea.</p> <p>1.JAR.9: harri-lubetetan eta ibaia bideratutako eremuen ertzetan birlandaketak egitea (ibilguaren 13.000 ml hartuko lituzke jarduera horrek). 1.JAR.21: ibai-korridorea kontserbatzearen garrantziaz jabetzeko jarduerak, inguru horretako Udaletan, ikastetxeetan, eta nekazarien eta basozainen elkartean.</p>
2. helburu operatiboa	KBEaren barnean, uraren kalitatea eta ibaien egoera ekologikoa hobetzea
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 1.JAR.10 jarduera: urak zuzenean edo zeharka KBE honetan isurtzen dituzten biztanle-guneetako saneamendua gauzatzeko (Zaldibiako saneamenduaren lotura, eta biztanle-gune hauetako saneamendua: Mutiloa, Gabiria, Altzaga, Arama, Gaintza, Abaltzisketa, Baliarrain eta Orendain).</p> <p>Aplikagarriak dira jarduera hauek: 1.JAR.5 (3 kontrol-gune berri) eta 1.JAR.6, KBEan azaleko uren egoera ekologikoa kontrolatzea.</p>

3. helburu operatiboa	Uretako korridoreko oztopoak kentzea																																																																																																																								
Jarduerak	<p>Aplikagarria da bereziki 5.J.2 jarraibidea, KBEan erabiltzen ez diren emakidei eta KBetik kanpo egon arren eremu horretan eragin nabarmenak izan ditzaketen beste batzuei buruzkoa.</p> <p>JP1.- Oztopoak iragazkortzeko proiektuak gauzatzea, emakida hauei dagokienez: Santa Cruz, Magdalena eta Armaola errota.</p> <p>JP2.- Ziprinidoentzat iragazkortasun txarra duten KBEko oztopoak iragazkortzeko proiektuak idaztea eta gauzatzea (ikus <i>Diagnostikoa</i> dokumentua eta jardueren mapa).</p> <p>Presatxikiak/oztopoak erabat edo partzialki botatzeko proiektu guztiek barnean hartuko dituzte urloetako edo urmaletako erriberen morfologia hobetzeko jarduerak.</p>																																																																																																																								
	<table border="1"> <thead> <tr> <th>IZENA</th> <th>X</th> <th>Y</th> <th>ALT.</th> <th>NEURRIAREN KODEA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr><td>CAF Beasain</td><td>565843,9</td><td>4766380,74</td><td>1,2</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Albisu Z.H./Goiko lantegiko presa</td><td>565948,15</td><td>4765456,45</td><td>4,1</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Iribeerrota (Errotaundi)</td><td>566807,38</td><td>4763704,76</td><td>4,8</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Armaola errota</td><td>559765,06</td><td>4761341,43</td><td>3,2</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Arrabiola errota</td><td>559374,36</td><td>4760523,3</td><td>5,5</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Zegama paper-fabrika</td><td>557465,67</td><td>4757706,98</td><td>2,2</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Errota Berri</td><td>557339,66</td><td>4757065,49</td><td>4,6</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Idiakez errota/ Ikaizko Errota</td><td>557334,94</td><td>4757022,9</td><td>1,2</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Zubitxo errota</td><td>558109,84</td><td>4755652,59</td><td>7,5</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Magdalena errota</td><td>560892,04</td><td>4762404,5</td><td>1,4</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Santa Cruz errota (Lesaka errota)</td><td>560723,89</td><td>4762201,66</td><td>2,6</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Etxezarreta paper-fabrika</td><td>568746,41</td><td>4770074,46</td><td>2,6</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>DAG1</td><td>565848,1</td><td>4766412,1</td><td>1,2</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>DAG2</td><td>566145,07</td><td>4765029,09</td><td>0,7</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>DAG3</td><td>566240,07</td><td>4765033,09</td><td>1</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>DAG5</td><td>566430,06</td><td>4764732,09</td><td>0,5</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>Agauntzako ur-emaria neurtzeko estazioa</td><td>567024,01</td><td>4762916,08</td><td>0,7</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>DORI1</td><td>560101,81</td><td>4754350,26</td><td>3,2</td><td>JP2, 1.JAR.7</td></tr> <tr><td>DORI2</td><td>557871,92</td><td>4758535,3</td><td>1,9</td><td>1.JAR.8</td></tr> <tr><td>Alegiko ur-emaria neurtzeko estazioa</td><td>572834,3</td><td>4772289,34</td><td>1,1</td><td>1.JAR.8</td></tr> <tr><td>DAG4</td><td>566318,06</td><td>4764921,09</td><td>3,3</td><td>1.JAR.8</td></tr> <tr><td>Aldaba Z.H.</td><td>571260,93</td><td>4771955,85</td><td>0</td><td>JP3</td></tr> <tr><td>Ikaztegieta Z.H.</td><td>570594,63</td><td>4770976,18</td><td>2,8</td><td>1.JAR.7, 1.JAR.8, JP3</td></tr> </tbody> </table> <p>Halaber, aplikagarriak dira neurri hauek: 5.J.5 jarraibidea (erabilitako ur-bolumenak kontrolatzeko sistemak egoera onean edukitzea, bai eta emakidarekin lotutako instalazioak ere, hala nola eskailerak, saretak, etab.); 1.JAR.7. jarduera (aingira igarotzeko berariazko igarobideak jartzea); eta 1.JAR.8 jarduera: KBEaren barnean oztopoak iragazkortzeko sistemen eraginkortasuna ebaluatzea; batik bat, Ikaztegieta zentral hidroelektrikoko presa txikiko arrain-eskailerarena. Arrain-eskailera ez bada eraginkorra, beharrezko neurriak hartuko dira KBEan funtsezko elementu diren arrainen eta gainerako espezieen lekualdatzeak bermatzeko.</p> <p>JP.3. Sistema eraginkorrak jartzea, beheranzko migrazioa errazteko, eta arrainak KBEko zentral hidroelektrikoetan dauden ubideetan sar daitezen eragozteko, edota turbinen artetik pasatu baino lehen ateratzeko.</p>	IZENA	X	Y	ALT.	NEURRIAREN KODEA	CAF Beasain	565843,9	4766380,74	1,2	JP2, 1.JAR.7	Albisu Z.H./Goiko lantegiko presa	565948,15	4765456,45	4,1	JP2, 1.JAR.7	Iribeerrota (Errotaundi)	566807,38	4763704,76	4,8	JP2, 1.JAR.7	Armaola errota	559765,06	4761341,43	3,2	JP2, 1.JAR.7	Arrabiola errota	559374,36	4760523,3	5,5	JP2, 1.JAR.7	Zegama paper-fabrika	557465,67	4757706,98	2,2	JP2, 1.JAR.7	Errota Berri	557339,66	4757065,49	4,6	JP2, 1.JAR.7	Idiakez errota/ Ikaizko Errota	557334,94	4757022,9	1,2	JP2, 1.JAR.7	Zubitxo errota	558109,84	4755652,59	7,5	JP2, 1.JAR.7	Magdalena errota	560892,04	4762404,5	1,4	JP2, 1.JAR.7	Santa Cruz errota (Lesaka errota)	560723,89	4762201,66	2,6	JP2, 1.JAR.7	Etxezarreta paper-fabrika	568746,41	4770074,46	2,6	JP2, 1.JAR.7	DAG1	565848,1	4766412,1	1,2	JP2, 1.JAR.7	DAG2	566145,07	4765029,09	0,7	JP2, 1.JAR.7	DAG3	566240,07	4765033,09	1	JP2, 1.JAR.7	DAG5	566430,06	4764732,09	0,5	JP2, 1.JAR.7	Agauntzako ur-emaria neurtzeko estazioa	567024,01	4762916,08	0,7	JP2, 1.JAR.7	DORI1	560101,81	4754350,26	3,2	JP2, 1.JAR.7	DORI2	557871,92	4758535,3	1,9	1.JAR.8	Alegiko ur-emaria neurtzeko estazioa	572834,3	4772289,34	1,1	1.JAR.8	DAG4	566318,06	4764921,09	3,3	1.JAR.8	Aldaba Z.H.	571260,93	4771955,85	0	JP3	Ikaztegieta Z.H.	570594,63	4770976,18	2,8	1.JAR.7, 1.JAR.8, JP3
	IZENA	X	Y	ALT.	NEURRIAREN KODEA																																																																																																																				
	CAF Beasain	565843,9	4766380,74	1,2	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Albisu Z.H./Goiko lantegiko presa	565948,15	4765456,45	4,1	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Iribeerrota (Errotaundi)	566807,38	4763704,76	4,8	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Armaola errota	559765,06	4761341,43	3,2	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Arrabiola errota	559374,36	4760523,3	5,5	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Zegama paper-fabrika	557465,67	4757706,98	2,2	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Errota Berri	557339,66	4757065,49	4,6	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Idiakez errota/ Ikaizko Errota	557334,94	4757022,9	1,2	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Zubitxo errota	558109,84	4755652,59	7,5	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Magdalena errota	560892,04	4762404,5	1,4	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Santa Cruz errota (Lesaka errota)	560723,89	4762201,66	2,6	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Etxezarreta paper-fabrika	568746,41	4770074,46	2,6	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	DAG1	565848,1	4766412,1	1,2	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	DAG2	566145,07	4765029,09	0,7	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	DAG3	566240,07	4765033,09	1	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	DAG5	566430,06	4764732,09	0,5	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	Agauntzako ur-emaria neurtzeko estazioa	567024,01	4762916,08	0,7	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	DORI1	560101,81	4754350,26	3,2	JP2, 1.JAR.7																																																																																																																				
	DORI2	557871,92	4758535,3	1,9	1.JAR.8																																																																																																																				
	Alegiko ur-emaria neurtzeko estazioa	572834,3	4772289,34	1,1	1.JAR.8																																																																																																																				
	DAG4	566318,06	4764921,09	3,3	1.JAR.8																																																																																																																				
	Aldaba Z.H.	571260,93	4771955,85	0	JP3																																																																																																																				
Ikaztegieta Z.H.	570594,63	4770976,18	2,8	1.JAR.7, 1.JAR.8, JP3																																																																																																																					

4. helburu operatiboa	KBEko ibaietan emari naturalen erregimena bermatzea
Jarduerak	<p>5.J.5 jarraibidea aplikatzeaz gain (erabilitako uren bolumena kontrolatzeko sistemak ezartzea eta mantentzea, bai eta herri-jabari publikora itzultzen denarena ere), zorrotz aplikatu beharrekoak dira bi araudi hauek ere: 5.A.9. (ur-askatze azkarrak debekatzea) eta 5.A.10 (Ibiur urtegiko zerbitzua abiatzen denean horniketarako ur-hartzeak kentzea).</p> <p>Aplikagarria da 1.JAR.4 jarduera: KBEaren barnean indarrean dauden emakida guztietan aplikatzen den ingurumen-emarien erregimenaren azterketa. Horretarako, berariazko azterketa bat egingo da, KBE honetan funtsezkotzat jotzen diren habitatak eta espezieak egoera onean kontserbatu daitezen emari-erregimen egokia zehazteko.</p> <p>Hala egin ezean, ibaiaren hidrograma naturalari egokitutako emari-erregimen bat aplikatzea proposatzen da (Emari Ekologiko Modularra edo beste batzuk).</p>

HALTZADIAK ETA LIZARDIAK (EBko 91E0* KODEA)**Justifikazioa**

Haltzadien eta lizardiaren habitata lehentasunezko habitata da, eta Habitategi buruzko Zuzendarauaren I. eranskinean eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean jasota dago. Oria ibaiko erriberako ibai-habitat bereizgarria da hori. Habitat horrek, gainera, funtzio garrantzitsuak ditu ibai-ekosisteman:

- Habitat-mota horretan arriskupean dauden espezie urtarrak eta urtar-lehortarrak daude; bereziki aipagarria da bisoi europarra (*Mustela lutreola*).
- Habitat horiek babesteko eta elikatzeko lekuak dira intereseko beste fauna-espezie batzuentzat; adibidez: lina, amuarrain eta aingirentzat, bai eta, ziur asko, Europar Batasunaren intereseko in-sektu saproxilikoentzat ere. Gune heze txikien garapena sustatzen dute, espezie asko babesteko eta ugaltzeko balio dutenak.
- EAEn oso gutxi hedatuta dauden beste espezie batzuen habitat bereizgarria dira, adibidez, hauena: *Cinclus cinclus* (ur-zozoa) eta *Alcedo atthis* (martin arrantzalea).
- Espezie askotako flora dago, eta hori oso aberasgarria da leku horretako biodibertsitate espezifikoki begira.
- CO₂ xurgatu eta ura iragazten dute, ibilguari itzala ematen diote eta uholdeen ondorioak arintzen dituzte; horrela, uraren eta, oro har, ibai-sistemaren kalitatea hobetu egiten da.

Kontserbazio-egoera

Oria Garaia/Alto Oria KBEko haltzadien eta lizardiaren habitataren kontserbazio-egoera txarra da. Luzetarako jarraitutasunaren etendura garrantzitsuak daude; batik bat, hirigintza- eta industria-erabilerengatik eta azpiegiturengatik, bai eta, neurri txikiagoan, nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerengatik ere (belardiak eta labore-sailak). Tarte askotan, ez dago galeria-basorik; eta beste batzuetan, baso-egitura oso sinplifikatuta dago. Oro har, kontserbazio-egoera kaskarra da, baina etorkizunari begira egonkortzeko joera dagoela esan daiteke, habitat horren banaketa-eremuan.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Kaskarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Azalera			X	
Egitura eta funtzio espezifikoak			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera¹			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak

Presio eta arrisku nagusiak bat datoz ibai-korridorearen funtsezko elementua deskribatzean zehaztutakoekin:

- Aldaketa morfologikoak: kanalizazioak, oztopo artifizialak (presa txikiak), zubiak eta herri-jabari hidraulikoari dagozkion eremuen beste okupazio batzuk.
- Belardiak eta labore-sailak.
- Espezie exotikoak: KBEaren barnean, flora-espezie aloktonoak daude; haietako batzuk, inbaditzaile-tzat jotzen direnak. Tarte batzuetan, oso adierazgarria da *Reynoutria japonica* (*Fallopia japonica*) espeziea, eta beste batzuk ere ageri dira, baina urriak dira: sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*), *Buddleja davidii* eta *Cortaderia selloana*.

¹ Egoera kaskarra adierazten duten kategorietan, ikur espezifikoki bat (adibidez, gezi bat) erabil daiteke, lehengorazten ari diren populazioak adierazteko.

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak	
<p><u>Gaur egungo jarduerak</u></p> <p>Ibai-korridore ekologikoari dagozkionak.</p> <p><u>Baldintzatzaileak</u></p> <p>Haltzadiak eta uretako beste habitat batzuk kontserbatzeko eta garatzeko baldintzatzaile nagusiak lehorreko ibai-korridoreari funtsezko elementu den aldetik dagozkionak dira, lehen aipatu direnak. Atal horretan aipatutako legeko baldintzatzaileez gain, Gipuzkoako Mendien Foru Arauak araututakoa ere aintzat hartu behar da (urriaren 20ko 7/2006 Foru Araua). Foru-arau horretako 44.3 artikuluan, hau ezartzen da: «Zuhaiztiak dituzten mendiak ustiatzerakoan erreka, ibai, urtegi, komunikazio-bide eta intereseko beste gune batzuetako landaredia errespetatuko da, eta zuhaizti horiei eutsi eta hobetzeko mozketak bakarrik baimenduko dira, baita segurtasun arrazoiengatik egin behar direnak ere».</p>	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	<p>Ibai-habitaten kontserbazio-egoera babestea eta hobetzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Habitat naturalek hartutako azalera handitzea. - Ondoen kontserbatu diren guneen egungo egoerari eustea. - KBEaren barnean intereseko zer flora- eta fauna-espezie dauden hobeto jakitea.
1. helburu operatiboa	Habitat naturalek hartutako azalera osoa handitzen laguntzea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoari funtsezko elementua den aldetik dagozkion ibai-korridorea kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurriak eta jarraibideak.</p> <p>Aplikagarri da 1.JAR.11 jarduera, haltzadien kontserbazio-egoeraren jarraipenari dagokiona.</p>
2. helburu operatiboa	Intereseko habitaten kalitate ekologikoa hobetzea
Jarduerak	<p>JP4. Flora-espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena egitea eta desagerraraztea (batez ere, <i>Fallopia japonica</i>); izan ere, espezie horiek direla eta, KBEko habitat naturalen balioa murrizten da.</p>
3. helburu operatiboa	KBEan dauden Batasunaren intereseko fauna- eta flora-espezieen kopurua eta banaketa hobeto ezagutzea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira jarduera hauek: 1.JAR.13, KBEan aurki daitezkeen Batasunaren intereseko eta ibai-ingurunearekin lotutako ornogabeei buruz gehiago jakitea; eta 1.JAR.14., KBEan egon daitezkeen Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko flora-espezieen populazioei buruzko ezagutza hobetzea.</p>

BISOI EUROPARRA (*MUSTELA LUTREOLA*)**Justifikazioa**

KBEaren barnean, espezie aipagarriena da hori. Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskine-tan (abenduaren 13ko Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eta V. eranskinak) jasotako espeziea da. Arriskupean dauden Espezieen Espainiako eta Euskadiko Katalogoetan, bisoi europarra «galtzeko arriskuan» kategorian jasota dago. Bestalde, Europako Basaespezieak eta Natura Ingurunea Kontserbatzeari buruzko Bernako Itunean, bereziki babestutako espezieen zerrendan jasota dago. Azkenik, Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren (NKNB) sailkapenean, »arriskuan» kategorian ageri da.


Bisoi europarra Europako espezie endemikoa da; XIX. mendera arte, Europako eremu handi batean zegoen banatuta. Gaur egun, haren banaketa-eremua asko murriztu da, eta bi gune isolatutan soilik geratu da. Gune bat ekialdean dago, Errusiar Federazioko eskualde eta errepublika batzuetan eta Danubio ibaiaren deltan. Beste populazio-gunea mendebaldean dago. Frantziako hego-mendebaldeko (Akitania, Midi-Pyrénées eta Poitou-Charentes eskualdeak) eta Espainiako iparraldeko (Gaztela eta Leongo, Errioxako, Nafarroako eta Euskadiko autonomia-erkidegoak) ur-laster eta -masa batzuetan bizi da bisoi europarra.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hiru lurralde historikoetan dago: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Azken urteetan (1999-2003) egindako behaketen arabera, ibai hauen arroetan dago espezie hori: Kadagua, Ibaizabal, Nerbioi, Oka, Lea, Artibai, Deba, Urola, Oria, Bidasoa, Ebro, Omecillo, Zadorra, Jugalez eta Ega.

KBE hau Interes Bereziko Eremua da espezie horrentzat, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onartutako espezie hori kudeatzeko planaren arabera.

Kontserbazio-egoera

Bisoi europarra: azken 15 urteetan egiaztatu da Agauntza ibaian eta Oria ibaiaren goi-ibarrean espezie hori modu jarraituan egon dela, eta bi eremu horietan ugaldtu egin dela. Arro horretako beste tarte batzuetan noiz edo noiz soilik azaldu da (ikus irudia). Edonola ere, azpimarratu behar da azken urteetan jarraipen-sarean egindako harrapatzeak eta ustekabeko behaketak asko murriztu direla. Hortaz, Oria Garaia espezie horren banaketa-eremu egonkorraren barnean dagoela esan daitekeen arren, beharrezkoa da datozen urteetan espezie horren jarraipena arreta handiz egitea.



ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak

Uraren kutsadura: Oria ibaiaren II. tarteetan (Legorreta-Alegia) eta Zaldibia ibaian uraren kalitatea eskasa da, eta horrek zaildu egiten du bisoi europarraren populazio egonkorra hartzeko aukera. Espero da arroaren saneamendu-sarea osatu ondoren uraren kalitatea dezente hobetuko dela, eta arrisku-faktore horrek eragin txikia izango duela espezie horrentzat.

Zentral hidroelektrikoak: Oria ibaiaren II. tarteetan, erabilera hidroelektrikoaren eragina oso handia da. Tarte horretan, oraindik ere erabiltzen diren bi zentral daude: Ikaztegieta Z.H. eta Aldaba Z.H.; biek dute presa txikia eta deribazio-ubidea. Urmaelen eraketak eta emari-galerak 4.300 m-ko tarte bati eragiten die; hau da, KBEaren barneko tarte osoaren % 48ri. Ustiaketa-emariak oso handiak direnez (Ikaztegieta 8.000 l/s, Aldaba 6.700 l/s) eta esleitutako gutxieneko emariak oso txikiak direnez (Ikaztegieta 825 l/s, Aldaba 900 l/s), agorraldiak, egoera naturalean uztailatik irailera bitartean izaten denak, urteko beste garai batzuetan ere irauten du (apiriletik azarora arte). Horrekin batera, kutsadura-arriskuaren aldia ere luzatu egiten da. Hortaz, esan daiteke erabilera horren eragina handia dela, eta kaltegarria dela espezie hori tarte horretan modu egonkorrean egotea lortzeko helburuari begira.

Ibaiertzen okupazioa: BIL hau osatzen duten lau tarteetan, ibaiertzak oso eraldatuta daude; batetik, nekazaritza-jarduera handia delako, eta bestetik, hirigintza- eta industria-ekipamenduak daudelako. Oro har kontserbazio-egoera kaskarra den arren, azpimarragarria da oraindik ere bi tartetan baldintza egokiak daudela bisoi europarrarentzat. Bi tarte horiek Oria ibaiaren hasierako tarteetan daude: lehena, Zegama eta Segura artean; eta bigarrena, Mutiloa erreka-estekoaren ibai-ahotik Eziolatza (Idiazabal) industrialdera bitartean.

Laburbilduz, eta aintzat hartuta 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren Gehigarrian erabilitako kodeak, hauek dira KBE honetan espezie horrek dituen presio eta arrisku nagusiak:

- Uraren kutsadura (701).
- Kanalizazioa (830).
- Barneko ur-lasterrak aldatzen dituzten egiturak (852).
- Maila hidrikoen erabilera (853).
- Funtzionamendu hidrológicoaren aldaketa (850).
- Etxebizitzak egiteko hiritartutako eremuak (400).
- Industrialdeak eta merkataritzaguneak (410).
- Gizakiak hidrológian eragindako beste aldaketa batzuk (890).

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

Azken 30 urteetan, Oria ibaian zenbait azterketa egin dira, ugaztun-taldeen banaketa eta kontserbazio-egoera hobeto ezagutzeko. Horrez gain, duela bost urtetik, KBEa osatzen duten tarteak bisoi europarraren jarraipen-sarean sartzen dira Gipuzkoan. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako sare hori osatzen duten tarteetan, urtean behin azterketak egiten dira, egiaztatutako eraginkortasuna duten hautemate-teknikak erabiliz.

Gipuzkoan indarrean dagoen bisoi europarra kudeatzeko planean (2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindua), espezie hori eta haren habitata lehengoratzeko neurriak zehazten dira. Plan horretan ezartzen da Oria Garaia /Alto Oria KBEa, besteak beste, Interes Berezikoko Eremua dela espezie horrentzat. Era berean, Gipuzkoan bada desman edo muturluze piriniarra kudeatzeko plan bat, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onartua, eta bertan ezartzen da KBE honetako gune batzuk Interes Berezikoko Eremuak direla espezie horrentzat ere.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Oria Garaia/Alto Oria KBEan bisoi europarraren populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie hori hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horrek duen bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikienak eginez, espezie hori behar bezala kontserbatu dadin
1. helburu operatiboa	KBEaren barnean espezieak jasan ditzakeen inpaktuak deuseztatzea eta haren habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira I. Kapituluko 5.5 artikuluan proposatutako neurri guztiak, KBEko uraren erabilerari buruzkoak, bai eta ibai-korridoreari funtsezko elementu den aldetik dagozkionak ere, uretako korridorean oztopoak kentzeari, emari ekologikoak errespetatzeari eta hartutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteari buruzkoak.</p> <p>Halaber, aplikagarriak dira ibai-habitatari funtsezko elementu den aldetik dagozkion neurriak, hauei buruzkoak: ibai-habitatei kontserbazio-egoera onean eustea, bai eta ibai-ingurunearen heterogeneotasunari ere; eta gaur egun balio ekologiko handiena duten guneen kontserbazioa bermatzea.</p> <p>JP5. Ibaiertzen ingurumen-egoera lehengoratzeko proiektu bat idatzi eta gauzatuko da, aintzat hartuta bisoi europarraren habitataren eskakizunak. Lan hauek egingo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehengoratzeko-jarduera zein tartetan egin behar den identifikatzea. - Lehengoratzeko proiektuak egitea, ibaien lehengoratzeko-prozesuetan ohikoak diren bioingeniaritzako irizpideak eta teknikak baliatuz. - Proiektuak gauzatzea.
2. helburu operatiboa	Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, Oria Garaia / Alto Oria KBEan bisoi europarraren populazioen aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa.

LOINA (*PARACHONDROSTOMA MIEGII*) ETA ARRAIN-KOMUNITATEA**Justifikazioa**

Oria Garaia/Alto Oria KBEan arrain-espezie hauek daude: loina edo iparraldeko loina txikia (*Parachondrostoma miegii*), Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasotako Espainiako endemismoa (abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eranskina) eta Graellsen barboa edo Ebrokoa (*Luciobarbus graellsii*), Habitategi buruzko Zuzentarauaren V. eranskinean jasoa (abenduaren 13ko 42/2007 Legearen VI. eranskina). Horiez gain, badira beste espezie batzuk, hala nola: ibai-amuarraina (*Salmo trutta fario*), balio ekologiko handiko espeziea; aingira (*Anguilla anguilla*, «galtzeko arrisku larrian» dagoen espeziea, IUCNren arabera, 2009), eta «kaltebera», Espainiako Ornodunen Liburu gorriaren arabera (1992) (urte berean, «Aingira Berreskuratzeko kudeaketa-plana» egin zuten EAEn); ezkailua (*Phoxinus phoxinus*) eta mazkarra (*Barbatula barbatula*). Arrain-komunitatea egoera onean egotea ibaiko ekosistemaren kontserbazio-egoera onaren adierazle da.

Kontserbazio-egoera

Arrainen egoera nahiko ona da Oria Garaia/Alto Oria KBEan. Nolanahi ere, aldeak daude ibaiaren zati batetik bestera:

- Oria ibaiaren I. Tartean 3 espezie daude: amuarraina, ezkailua eta mazkarra. Loinarik ez dago, tarte horretako habitata ez baita egokia espezie horrentzako. Egoera ona da, baina bada zer hobetu; izan ere, komunitate potentziala osorik dagoen arren, amuarrainaren dentsitatea ez da espero zena.
- Oriaren II. Tartean, 6 dira arrain-komunitatea osatzen duten espezieak: loina, amuarraina, ezkailua, mazkarra, aingira eta Graellsen barboa. Nahiz eta dentsitate handirik ez hauteman, egoera nahiko ona da; izan ere, KBEaren tarte horretan presio antropikoa edo gizakiak eragindakoa handia izan da urte askoan, batez ere isurketen ondorioz. Eta Legorretako hondakin-uren araztegia martxan jarri zutenetik egoera nabarmen hobetu da.
- Agauntza ibaian, espezie hauek ageri dira arrain-komunitatean: barboa, loina eta ezkailua dentsitate ez oso handietan eta, neurri txikiagoan, amuarraina eta loina. Agauntzan, beraz, komunitate potentziala ez litzateke osaturik egongo, ez baitago aingirarik.
- Azkenik, Zaldibia ibaiaren kontserbazio-egoera onargarria da. Epe luzean kutsadura arazo handiak izan dira ibai horretan, eta, ondorioz, arrain-espezie gutxi izan da bertan. Gaur egun, ordea, arazo horiek bideraturik, 5 espezie daude Zaldibia ibaian. Loina da ugariena. Eta loinaz gain, badira amuarrainak, ezkailuak, mazkarrak eta aingirak, baina dentsitate txikietan.


Loinaren (*Parachondrostoma miegii*) egoerari buruz, zehazki, nabarmentzekoa da datu hau:

- Loina edo iparraldeko loina txikia EAeko hiru lurralde historikoetan dago, Ebro ibaiaren arro guztietan, Omecillotik (erkidegoaren mendebaldean) Araia-Arakil eta Egaraino (ekialdean), baita Bizkaiko Golkoko arro guztietan ere, Oiartzun, Urumea eta Lea ibaien arroetan izan ezik.

Loina ibaien beheko eta erdialdeko ur-lasterretan bizi da. Ur-lasterrean eta ur oxigenatuetan bizi da batez ere, baina zati sakon eta lasaieran ere izaten da loinarik. Ugalketa-garaian sarda handiak osatzen dituzte eta ibaian gora egiten dute arrabarorako leku egokien bila. Erruteko leku horiek ur bizi eta oxigenatuko tartetan daude, ibaiaren ohandza errekarritz edo legar-hobiz osaturik dagoen tokietan.

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Irudian, espezieak 2000-2009 aldian zuen banaketa ikusten da:



Gipuzkoako lurraldea Oria, Urola eta Deba ibaien arroen artean banaturik dago. Loina KBE osoan bizi da, Oria ibaiaren I. Tartean izan ezik; hau da, ibaiaren goi-ibarretik Segura udalerrira arteko tartean izan ezik; izan ere, zati horretako habitata ez da egokia espezie horrentzako. Loina edo iparraldeko loina txikiaren populazioa hazten ari da azken hamarkadetan KBEan, baita EAEko beste ibai nagusietan ere. Bi dira goranzko joera horren arrazoi nagusiak: batetik eta nagusiki, uraren kalitatea hobetu izana eta, bestetik, oztopoak kendu edo iragazkor bihurtu izana. KBEaren barnean, Oria ibaiaren II. tartean bizi da espezie horretako ale gehien eta, ibaian gora, gutxi gorabehera Segura udalerriraino hedatzen dira espezie horren populazioak. Zaldibia eta Agauntza ibaien beheko aldean, KBEan betiere, espeziea ohikoa da baina askoz banatuago egon zitekeen oztopo gutxiago egongo balira edo dauden oztopoak iragazko-rrak balira. Nolanahi ere, espeziearen kontserbazio-egoera **ona** da.

Ez dakigu zehazki populazioak zer neurri duen KBEan. Estimazioen arabera, 52-11.572 ale/ha bakoi-tzeko Oria ibaian, 51-6,268 ale/ha-ko Zaldibia ibaiaren beheko aldean eta 846-5.431 ale/ha-ko Agauntza ibaiaren beheko aldean.

Oria Garaia/Alto Oria KBEan espezie horren kontserbazio-egoerari buruzko ondorioak jasotzen dira ondoko taulan (ikus eranskinean kontserbazio-egoerari buruzko fitxa):

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera	Ona			

Presioak eta arriskuak

Ibai-korridorerako zehaztutako presio berak jasan behar ditu arrain-komunitateak ere, bereziki ur-korridorearenak. Aldaketa morfologikoez eragindako presioa handia da KBE osoan, Oria ibaiaren I. tartean izan ezik (zati horretan neurrizkoa dela esan daiteke). Badira presioa eragiten duten beste faktore batzuk ere: kutsadura-iturri zehatzak eta zehaztugabeak, uraren kontsumo-erabilerak eta kontsumoarekin loturarik ez dutenak, esaterako.

- Kutsadura zehatza: I. eta II. zerrendako gai kutsagarriek eragindako presioa handia da KBE osoan. Gainera, materia organiko ugariak presio handia eragiten du II. tartean. Fosfatoek, aldiz, ez dute hainbeste eragiten.
- Zehaztugabeko kutsadura: presioa neurrikoa da KBE osoan.
- Presa txikiak/oztopoak: ibaiaren luzetarako jarraitutasuna funtsezkoa da arrain-espezieak, migratzailerak direnak zein ez direnak, lekualdatzeko, hori ezinbesteko baitute beren bizi-zikloa osatzeko. Oria Garaia/Alto Oria KBEan 33 oztopo daude eta, horrenbestez, presioa oso handia da. Bestalde, aintzat hartzekoa da goiko tartean presa txikiak urmaelak sortzen dituztela, eta horrek ibaiko habitata eraldatzen duela.
- Zentral hidroelektrikoak: presa txiki bat egoteak sortzen duen eragin kaltegarriaz gain, beste arazo batzuk ere eragin ditzakete zentral hidroelektrikoek:
 - Emariaren deribazio-ubideak: zentral hidroelektrikoek eragiten duten emari-galerak presio handia eragiten du Oria ibaiaren II. tarteko ur-korridorearen gain.
 - Beheranzko migrazioarako oztopoak, arrainak deribazio-ubideetan harrapatuta geratzen direlako.

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

Uretako ibai-korridorearen funtsezko elementuan aipatutako berberak dira legezko baldintzatzaileak.

Gaur egungo jarduerak: uretako ibai-korridorearen funtsezko elementurako aipatutakoak, eta zehazki honako hauek:

- EAeko (KKH, EJ) eta Gipuzkoako (GFA) ibaien egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sareak.
- Gipuzkoako ibaietako arrainen azterketa (GFA): Jarraipen horren xedea da arrain-komunitatea zer egoeratan dagoen jakitea, komunitate horien populazioek zer joera duten balioestea eta egoera kudeatzeko eta hobetzeko neurriak ezartzea.
- EAEn ibai-aingira lehengoratzeko kudeaketa-plana (EJ).
- Oztopoak iragazkor bihurtzeko programa (GFA - KKH): KBEan 4 presa txikitik esku hartu da azkeneko urteotan. Oria ibaiaren I. tarteko beste 4 oztopotan esku hartzeko proiektua idatzita dago jada.
- Arrainak igarotzeko gailuak eraginkorrak diren neurtzeko jarraipena.
- Saneamendu-lanak: azken urteotan ahalegin handia egin da Oria ibaia saneatzeko. Urak KBEra isurtzen dituzten zenbait herrigune txikiren saneamendu-arazoa konpontzeke dago oraindik, baita Zalbibia ibaiaren saneamenduaren eta Goierriko Kolektore Nagusiaren arteko loturarena ere.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	KBEan arrain-populazio autoktonoak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikiak egin, espezie horiek behar bezala kontserbatu daitezen
-----------------------	---

1. helburu operatiboa	KBEan arrain-komunitatearen populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 1.JAR.5 eta 1.JAR.6 jarduerak, KBEan uraren kalitatearen eta arrain-populazioen bilakaeraren jarraipena egiteari buruzkoak, beste hiru puntu gehituta. Jarduera horretan aurreikusten da, orobat, aingira-populazioen jarraipenerako programarekin jarraitzea, eta, modu horretara, EAEn Aingira Berreskuratzeko kudeaketa-plana betetzea.
2. helburu operatiboa	KBEaren barnean, arrain-espezieek jasaten dituzten inpaktuak desagerraraztea
Jarduerak	Aplikagarriak dira ibai-korridorea funtsezko elementurako proposatutako neurri guztiak; hau da, oztopoak iragazkor bihurtzeari, emari ekologikoei eta hartutako neurrien eragin-kortasunaren jarraipena egiteari buruzkoak.

IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA: UR-ZOZOA (*CINCLUS CINCLUS*) ETA MARTIN ARRANTZALEA (*ALCEDO ATTHIS*)
Justifikazioa

Ibaietako habitatetako espezie bereizgarriak dira bi horiek, eta arroaren eta ibaiertzen kontserbazio-egoeraren adierazle bikainak. Bi-biak daude KBE honetan. Martin arrantzalea Hegaztiei buruzko Zuzentzeratuaren I. eranskinean jasota dago, eta «interes bereziko» gisa dago katalogatuta Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan. Uhalde-enara, «Kaltebera» kategorian dago, aipatutako Katalogoaren arabera, eta ur-zozoa, berriz, «Interes Berezikoa» kategorian jasota dago.

Kontserbazio-egoera
Martin arrantzalea (*Alcedo atthis*).


Hiru lurralde historikoetan dago, baina, 1998ko datuekin alderatuz, Bizkaian soilik eutsi dio egonkor populazio ugaltzaileak. Gaur egun, ez dakigu zenbatekoa den populazio ugaltzailea, ez EAEn ez KBEan.

KBEan hegazti horren presentziari buruz ditugun datuak Agauntza eta Zaldibia ibaietara mugatzen dira (Jauregi., J., zuzenean jakinarazia). Berriki egindako laginketetan (2010), ale gazte bakar bat baino ez da hauteman Agauntzaren arroan, eta Zaldibiaren arroan, berriz, bikote bat. Datuak ez dira kanpaina oso batekoak.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera ²		Desegokia		

Ur-zozoa (*Cinclus cinclus*)

EAEn, oso banatuta dago hiru lurralde historikoetako ur-ibilguetan, eta autonomia-erkidegoko mendigu-neetako ibai-ibilgukiko lehentasuna agertu arren, itsasertzeko eremuetan ere agertzen da.



Ur-zozoaren banaketa EAEn.

² Egoera kaskarra adierazten duten kategorietan, ikur espezifiko bat (adibidez, gezi bat) erabil daiteke, lehengorazten ari diren populazioak adierazteko.

KBEan hegazti horren presentziari buruz ditugun datuak Agauntza eta Zaldibia ibaietara mugatzen dira (Jauregi., J., zuzenean jakinarazia). Estimazioen arabera, Agauntzan, helduen dentsitatea honako hau da 0,44 heldu/km-ko, Zaldibia ibaiko estimazioen oso antzekoa (0,40 heldu/km bakoitzeko). Bi kasuetan, datuak laginketa-kanpaina bakar batekoak dira, 2010ean egindako laginketakoak, hain zuzen. Datu horiek Leitzaran ibaian jasotakoekin alderatuta, adibidez (4,2 heldu/km.), ondorioa begien bistakoa da: espezie horien kontserbazio-egoera ez da egokia, KBEko ibaietako habitataren kontserbazio-egoerak berak eraginda, neurri handi batean.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

Presio nagusiek zerikusia dute, batetik, uren kalitatearekin (701), eta bestetik, habitatean egin diren aldaketekin: kanalizazioak (830), funtzionamendu hidrologikoaren aldaketa (830-890), ibaiertzeko baso-soiltzeak (160).

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

Gipuzkoako ibaietan dauden hegazti-populazioak monitorizatzea: Aranzadi Zientzia Elkarteak gauzatzen du proiektu hori; hain zuzen, proiektuaren xedea da ibaiari lotutako hiru espezieen populazioa sistematikoki monitorizatzea: martin arrantzalearena, ur-zozoarena eta buztanikara horiarena. Horrez gain, biometriarekin, parametro demografikoekin eta espezie horien populazioen dinamikarekin lotutako datuak lortzen dira.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	KBEaren barnean ur-zozoaren eta martin arrantzalearen populazioak egon daitezzen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna.
1. helburu operatiboa	KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira honako araudi hauek: 7.A.1 , 7.A.5 (kontuan hartu behar dira espezie horiek zer eskakizun dituzten zubiak, errotak eta abar diseinatzean edo zaharberitzean) eta 7.A.6 (ibaiaren inguruetan lanak egiteko data). 1.JAR.20 jarduera ere aplikagarria da (espezie horien habitata hobetzeko proiektua egitea).
2. helburu operatiboa	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 1.JAR.16 . (populazioen aldizkako jarraipena) eta 1.JAR.19 . (martin arrantzalea kudeatzeko plana) neurriak.

JARRAIPEN-PROGRAMA

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA	Oria Garaia/Alto Oria KBEaren ibai-korridore ekologikoa kontserbatzea eta lehengoratzea	Ibaiaren bi ertzetan gutxieneko zabalera duen erriberrako landaredi naturalaren banda bat kontserbatzea eta lehengoratzea, bertako intereseko fauna-espezieentzat (bisoi europarra, ibaitako hegazti-fauna...) habitat egokia izango dena	Lehengoratutako erriberrako landaredi naturalaren azalera (ha), belardiek eta laborantzek hartutakoa	0	24,6 ha
			Berritortutako landaredi harri-lubeten eta ibaia bideratu den eremuak erantzuten eginko landaketan ml-ak	0	13.000 ml
			Ibaitertutako landaredia hobetzeko borondateko akordioak	0	6,9 ha
			Herri-jabari hidraulikoa zehaztea eta ibai-lurraldea mugatzea	Ez da egin	Egin da
			KBEko ibaien egoera ekologikoa zein den jakitea, aintzat hartuta Uraren Esparru Zuzentaruak ezarritako parametroak	Badakigu (urtekoa)	Egoera ekologiko ona lortzea edo egoera onari eustea
			Oria ibaiaren goi-ibarraren, Agauntza ibaiaren goi-ibarraren eta Lazkaotik beherako zatia den egoera ekologikoa, Uraren Esparru Zuzentaruak ezarritako parametroen arabera	Ez dakigu	Egoera ekologiko ona lortzea edo egoera onari eustea
			Betetzeko dauden saneamendu-planak gauzatzea	Saneamendua egin gabe daude Zaldibia, Mutiloa, Gabiria, Altzaga, Arama, Gaintza, Abaltzisketa, Baliarrain eta Orendain	Egoera ekologiko ona lortzea edo egoera onari eustea
			KBEan dauden oztopoak iragazkor bihurtzea	0	23 oztopo nagusi iragazkor bihurtu dira
		Uretako korridorean oztopoak kentzea, eta faunaren joan-etorriak erraztea ibilgutan zehar	KBEan dauden oztopoak iragazkor bihurtzea aingirentzako «arrabota» motako gailuak jarrita, igarobide multiespezifikoak erakitzea -adibidez, alboetan ubideak erakitzea- edo eraiste partzialak egitea hobesten ez den kasuetan	0	23 oztopo iragazkor bihurtu dira

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
			Sistema eraginkorrak jartzea, batetik, beharrezko migrazioa errazteko eta, bestetik, arrainak eta beste fauna-espezie batzuk KBEko zentral hidroelektrikoetako eta beste aprobetxamendu batzuetako deribazio-ubideetan sartzea eragozteko	-	Sistemak ezarri dira
			Kantauriko Konfederazio Hidraulikoaren aurrean, KBEaren alorrean indarrean dauden emakidetan aplikatzen diren ingurumen-emariaren erregimena berrikus dadin sustatzea	-	Proposamena egin da
		KBEko ibaietan emari naturalen erregimena bermatzea	Azterlan bat egingo da Ikaztegiako eta Aldabako zentral hidroelektrikoen eragin-eremuan ibai-ekosistemaren funtzio eta prozesuak mantentzeko beharrezkoak diren gutxienezko emariak zehazteko	-	Azterlana egin da
		Intereseko habitaten kalitate ekologikoa hobetzea	Flora-espezie exotiko inbaditzaileen (<i>Fallopia japonica</i> , bereziki) jarraipena egitea eta horiek desagerraraztea; izan ere, espezie horiek direla eta, KBEko habitat naturalen balioa murrizten da	0	Espezie exotiko inbaditzaileak desagerraraztea eta kontrolatzea
			Proposatutako tartean, 5 metroko zabalerrako banda batean erriberako landaredi naturala lehengoratzeko proiektuak sustatzea (ikus Jardueren mapa)	0	Hobekuntzak egin dira 24,6 ha-tan
		Habitat naturalek hartutako azalera osoa handitzen laguntzea	Harri-lubetak berriro landareztatzeako proiektuak eta ibai bideratuta dagoen eremuen ertzetan landaketak egiteko proiektuak gauzatzea	0	13.000 ml
	Ibai-habitaten kontserbazio-egoera babestea eta hobetzea		Ibai-korridorea kontserbatzeak duen garrantziari buruzko ingurumen-heziketako eta -sentsibilizazioko jarduerak garatzea	Ez da egin	Egin da
			Intereseko habitaten eta espezieen inbentarioa, KBEa zabaltzeko proposatutako eremuetan. Adierazkortasuna eta kontserbazio-egoera zehaztea	Ez da egin	Egin da
		KBEan dauden Batasunaren intereseko habitaten eta fauna- eta flora-espezieen kopurua eta banaketa hobeto ezagutzea	KBEan dauden intereseko flora-espezieen presentzia, kontserbazio-egoera eta kontserbatzeko neurriak	Ez dakigu	Badakigu
			KBEan dauden intereseko ornogabeen dibertsitatea, kontserbazio-egoera eta kontserbatzeko neurriak	Ez dakigu	Badakigu
HALTZADIAK ETA LIZARDIAK (EBko 91E0* kodea)					

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
BISOI EUROPARRA (<i>Mustela lutreola</i>)	KBEan, espezie horren presentzia egonkorra sustatzea	KBEan, espeziak jasaten dituen inpaktuak kentzea eta habitataren baldintzak hobetzea Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Habitat-azalera ona izatea bisoi europarrarentzako. Espezien banaketa eta populazio-egitura KBEan	Ez dakigu Badakigu	Aldeko habitataren azalera handitu egin da Badakigu
LOINA (<i>Parachondrostoma miegii</i>) ETA ARRAIN-KOMUNITATEA	KBEaren barnean arrain-populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna.	KBEan espeziearen populazio-dinamika eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea	Arrain-populazioen kontserbazio-egoera, habitataren ezaugarriak, etab. zein diren jakitea	-	Badakigu (urtekoa)
IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA	KBEaren barnean ur-zozoaren eta martin arrantzalearen populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna	KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Habitata lehengoratzeko proiektuak egitea Espezien banaketa eta populazio-egitura KBEan	0 Ez dakigu	2 proiektu egin eta gauzatu dira Badakigu

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2120005.xml&lang=eu

X. ERANSKINA

ES2120012 ARAXES IBAIA/RÍO ARAXES KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN
HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK**FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA JARDUERAK**

Hurrengo tauletan, Araxes ibaia/río Araxes KBEan kudeaketarako funtsezkotzat jotzen diren elementuetariko bakoitzarentzat proposatzen diren kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA**Justifikazioa**

Araxes ibaia/Río Araxes KBEa bere ibilbide guztian zehar lotura-interes berezia duen ibai-tartea da. Araxes ibaiaren ibai-korridore ekologikoak barnean hartzen ditu lehorreko, uretako eta aireko korridoreak, eta oso bide garrantzitsuak dira fauna- eta flora espezieak hedatzeko bai eta migrazioetarako ere, ibaietakoak izan zein hedatze bide natural hori baliatzen duten espezieak izan. Ibaiaren dinamika naturalak (higadura-, garraio- eta jalkitze-prozesuak barne) ingurune aniztasuna eta mikrohabitata sortzen ditu, behar-beharrezkoak flora- eta fauna espezie asko babesteko, elikatze, ugaltze eta/edo hedatzeko.

Ibai-korridorea jarraitua izatea funtsezkoa da Araxes ibaian agertzen diren arrain-espezieak lekualdatu ahal izateko. Jarraitutasun ona badago, espezie horiek ibaian gora zein behera lekualda daitezke. KBEaren eremuan, hauek nabarmentzen dira, besteak beste: loina edo loina txikia (*Parachondrostoma miegii*), Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jaso, Graellsen barboa (*Luciobarbus graellsii*), Habitategi buruzko Zuzentarauaren V. eranskinean jaso, eta amuarraina (*Salmo trutta fario*), ibai-ekosistemaren egoera ekologiko onaren adierazle den espeziea, geure kulturaren preziatua izateaz gain. Orobat, ibaiko luzetarako jarraitutasunak berebiziko garrantzia du ibaiaren dinamikarako; hots, emari likido eta solidoetarako.

Ibaiek lotura moduan duen garrantzia ez da ura doan eremuetakoa soilik (hots, uretako korridorea), ibaiertzeko landaredia eta uholde-lautadak ere hartzen baititu. Izan ere, horiek guztiak ibai-espazioaren osagai dira, elkarri estu lotuta dauden elementu eta prozesuak. Hainbat autorek nabarmendu dute ibaiertzek berebiziko garrantzia dutela ibai-sistemari lotutako espezieen hedatzean. Araxes ibaia/Río Araxes KBEaren kasuan, bereziki garrantzitsua da, intereseko eremua baita bisoi europarrantzat (*Mustela lutreola*) eta pirinioetako desmanarentzat (*Galemys pyrenaicus*). Bi espezie horiek Habitategi buruzko zuzentarauko II. eta IV. eranskinetan jasota daude. Desagertzeko arriskuan dauden ugaztun erdi-urtarrak dira, eta ibaiertzak erabiltzen dituzte lekualdatzeko.

Halaber, ezin da ahaztu zeinen garrantzitsuak diren ibai-korridoreak ur-ingurumenarekin lotutako zenbait hegazti-espezierentzat: espezie horiek ibaiertzak baliatzen dituzte beren eguneroko edo sasoko mugimendu erregularretan (martin arrantzalea, ur-zozoa). Era berean, ezin aipatu gabe utzi haran barrenak duen korridore-funtzioa, uretako berezko beste espezie batzuen lekualdatzeetarako (ardeidoak, anaticidoak edo zenbait harrapari).

Jarraitutasuna, arroaren batasunarekin eta espazioaren linealtasunarekin (korridorea) loturikoa, ibai-sistemen oinarritzko ezaugarria da. Luzetarako elkarreragin guztien lotura zuzena, egoera ekologiko ona (Uraren Esparru Zuzentarauak) eta izaki bizidunen komunitateen mailaketa egokia bermatzen ditu.

Ibai-korridore jarraituak, ekologia-balioez gain, paisaia-balio nabarmenak ere baditu.

Esan bezala, ibaiak garrantzi handia du luzetarako lotura ekologikorako, baina, horrez gain, kontuan izan behar da zeharkako lotura ere; hots, ibaiak, ibaiertzeko landarediak, uholde-lautadak eta inguruko ekosistemak lotzeko duen garrantzia. Zeharkako lotura horretan eragiten dute zenbait azpiegiturak; esaterako, GI-2135 errepideak (Tolosa-Lekunberri), Araxesen eskuineko ertzean ibaiaren paralelo baitoa, eta inguruko ekosistemekiko lotura baldintzatzen du. Horrez gain, beste azpiegitura batzuk ere badira ibilgutik oso hurbil (industrialdeak, hiri-eremuak...) eta ibilguaren gainean dagoenik ere bada. Gehienak KBEaren erdiko eta beheko tartean daude, eta lehen aipatutako eragozpena eragiten dute. Bada horretan eragiten duen beste faktore bat ere: ibarbasorik eza, landa-erabilera dagoelako (belardiak, laboreak).

Kontserbazio-egoera

Lehorreko korridorea

Lehorreko korridorea ibai-ibilguaren luzera guztian dagoen ibaiertzeko landaredi-bandak osatzen du. Horri dagokionez, Araxes ibaia/Río Araxes KBEan hiru eremu bereizten dira.

Alde batetik, goiko zatia dago, Nafarroako mugatik Lizartza herrira artekoa. Hor, ibarra mehartuta dago eta orografia malkartsua da. Horregatik, ibaiko habitata kontserbazio-egoera onean dago, eta modu egokian egiten du bere funtzio ekologikoa. Bestetik, Lizartzatik Amaro azura (Tolosa) bitarteko tartea dago. Zati horrek uholde-lautada zabalagoa du, eta laboreak, larreak eta baratzak ere badira, lautada txikietan eta ibilgutik hurbil-hurbil. Lizartzako hiriguneaz gain, industrialderen bat ere badago zati horretan. Horrenbestez, ibaiertzeko landaredia eraldatuta eta/edo desagertuta dago zenbaitetan, eta horrek ibarbasoaren kalitate ekologikoa murrizten du. Horrez gain, kontuan izan behar da GI-2135 errepidea (Tolosa-Lekunberri), ibaiko ezkerreko ertzaren paralelo doana: etenak sortzen ditu eta babes-hesi gehienak landaredirik gabekoak dira. Eta, azkenik, beheko zatia dago. Han, Amaro azura, ibaia guztiz bideratuta dago bi ibaiertzetan, eremu horretan industria- eta hiri-garapena izan direlako, eta, horrenbestez, erabat eteten dute lehorreko korridorea.

Uretako korridorea

Ur-ingurumenaren loturari dagokionez, bereizi behar dira oztopo fisikoak (presa txikiak, emari-galerak...) eta ur-ingurumenarekiko mendekotasun gehien duten espezieen lekualdatzeari eragin diezaioketen beste baldintzatzaile batzuk (uraren kalitatea, isuriak...).

Egin diren azterketek adierazten dute uraren kalitatea txarra dela ibaiaren beheko zatian. Horrela erakusten dute laginketa fisiko-kimiko eta biologikoen: kutsadura-maila handia da. Industria- eta hiri-isurketen ondorioa da, ibaiara iristen baitira azkenean. Azken urteetan zenbait enpresa itxi badira ere (paper-fabrikak, esaterako), eta isurketen gaineko kontrol handiagoa dagoen arren, badira kutsadura eragiten duten zenbait gertaera, oraindik ere. Dena den, laster Lizartzako eta Amaro azura saneamendua egiteko asmoa dago, eta lan horiekin, egoera asko hobetzea espero da.

Erditik gorako zatiari dagokionez, indize biotikoen laginketen datuak ditugu. Oro har, esan daiteke IBMWP indizeak zertxobait baxuak direla ezaugarri horretako ibai baterako (71 puntu lortu dira, II. klaseari dagozkionak, baina baldintza normaletan 100 puntutik ongi gora dauden puntuazioak lortu beharko liriteke IBMWP indizean).

Bestalde, ibaien lotura eta dinamika aldatu egin dira oztopoak (presa txikiak) eta emari-galerak direla eta; oztopo horiek erabilera hidroelektrikoari lotuta daude, batez ere. Erabilera hori arrisku bat da KBEaren helburuak lortzeko, bereziki eragiten baitie KBE honetan funtsezko helburutzat hartu diren zenbait espezieri. Azken urteetan, erabilerarik gabeko presa txikiak eraitsi dira, eta arrain-eskalak eraiki; hala ere, zenbait oztopo daude oraindik, eta beheranzko migrazioaren iragazkortasun-arazoak konpontzeke daude. Gainera, emari-eskasiak gertatzen dira oraindik, zentral hidroelektrikoak direla eta.

Aireko korridorea

KBEaren eremua 23 aldiz zeharkatzen dute linea elektrikoek. Gainera, gurutzatze horiek ez daude balizaituta, hegazti-faunak talkarik egin ez dezan. Ez da jaso talkaren ondorioz edo elektrokutatuta hil den hegazti-faunari buruzko daturik.

Presioak eta arriskuak**Lehorreko korridorea:**

Beheko taulan, KBEan zehar duen jarraitutasunari dagokionez ibarbasoa zer egoeratan dagoen jaso da. Hainbat egoera-mota bereizi dira, ahal izanez gero, lehengora ekartzeko beharrezko diren jardueraneurrien arabera:

- Kanalizazio-hormak, hormigoizko harri-lubetak, eta eraikuntzak herri-jabari hidraulikoan. Horrelakoetan, ia ez da lehengoratzeko aukerarik izaten.
- Belardiak, laborantzak. Beste erabilera batzuk. Ibarbasoak lehengoratu daitezke, jardueraneurri egokiak jarrita.

Beheko taulan, KBEan zehar duen jarraitutasunari dagokionez ibarbasoa zer egoeratan dagoen jaso da. Hainbat egoera-mota bereizi dira, ahal izanez gero, lehengora ekartzeko beharrezko diren jardueraneurrien arabera:

Etenak (Araxes ibaiaren ardatza)	Eskuineko ertza		Ezkerreko ertza	
	Luzera (m)	%	Luzera (m)	%
<i>Horma / Hormigoizko harri-lubeta / Eraikuntzak herri-jabari hidraulikoan</i>	2.218	17	326	3
<i>Harri-lubeta lehorra / harrizko horma</i>	194	2	461	4
<i>Belardiak eta laborantzak. Beste erabilera batzuk</i>	891	7	1.143	9
<i>KBEaren luzera osoa</i>	12.700	100	12.700	100
<i>Etenak guztira</i>	3.303	26	1.930	15

Lehorreko korridorearen jarraitutasunean gertatzen diren presioak hainbat azpiegituraren ondorio dira; besteak beste, azpiegitura hauen ondorio:

- GI-2135 errepidea, KBEaren ibilbide guztian korridoretik gertu eta paralelo igarotzen dena. Zenbait zatitan, bidetik ibilgura arteko tartea oso txikia da, eta batzuetan ez dago inolako tarterik.
- Bideratzeak, herri-jabari hidraulikoan babes-azpiegiturak eta/edo eraikuntzak egin direlako: GI-2135 errepideak sortutako eraginez gain, Araxes ibaiaren beheko zatia nabarmentzen da, ibaiertzak eraldaituta baitaude babesak egin direlako (harresiak eta harri-lubetak). Eta, hain zuzen ere, Amaro paperfabrikaren eta Orian urak isurtzen dituen lekuaren arteko zatia nabarmentzen da. Eremu horretan Usabal industrialdea eta hiri-eremua daude, ibilgutik hurbil-hurbil. Bestalde, Lizartza herrian ibaia erabat bideratuta dagoela azpimarratu behar da. Horrez gain, KBEan zenbait industrialde daude, eta ibarbasoaren garapenean eragiten dute, gutxi asko.
- Azpiegituren gurutzatzeak: erabilera-zortasuna dakarte eta galeria-basoaren jarraitutasuna baldintza dezakete (Bergara - Irun gas-hodia, linea elektrikoak...).
- Ibaiaren landarediaren jarraitutasuna eteten duten zuhaitz-landaketak, erriberako landarediaren egitura soilten baitute eta faunaren lekualdatzerako egokia den oihanpea sortzea eragozten baitute. Platano arrunten landaketak dira, batez ere.
- Ibaiaren ertz-ertzera iristen diren belardiak eta larreak. Zenbaitetan, erriberako landaredia-zerrenda oso txikia da, eta batzuetan ez dago horrelakorik.
- Fauna lekualdatzea zailtzen duten hesiak (txarrantxadunak eta bestelakoak).

Uretako korridorea:

Uraren kalitatea: egin diren azterketek adierazten dute uraren kalitatea txarra dela ibaiaren beheko zatian. Horrela erakusten dute laginketa fisiko-kimiko eta biologikoen: kutsadura-maila handia da. Industria- eta hiri-isurketen ondorioa da, ibaiara iristen baitira azkenean. Dena den, laster Lizartzako eta Amaroizko saneamendua egiteko asmoa dago, eta lan horiekin, egoera asko hobetzea espero da.

Presa txikiak/oztopoak: Araxes ibaiaren zeharkako oztopoek arazoak sorrarazten dizkio arrain-faunaren migrazioari, eta, izan ere, KBEaren iragazkortasun ekologikorako baldintzatzaile nagusietako bat da, eremu horretan funtsezko elementutzat proposatu diren espezieei bereziki eragiten baitie. Azken urteetan, irisgarritasuna hobetzeko jarduerak egin dira, baina oraindik ere oztopo handiak daude. Esate baterako, Amaroizko paper-fabrikako presa txikiak, Leaburuko zerrategikoak eta Celulosas Araxes enpresaren bigarren presa txikiak ez dute fauna igarotzeko inolako gailurik. Azpimarratu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak iragazkortasun-plan bat abiarazi duela Gipuzkoako ibaietan, eta horren barruan dago Araxes ibaia ere.

Beherazko migrazioari dagokionez, Araxes ibaian dauden presa txikietan ez dago arrainak ubidean ez sartzeko gailurik; beraz, baldintzatzaile negatibo hori konpontzeke dago. Amaroizko paper-fabrikak eta Celulosas Araxes enpresak (itxita dago) soilik dituzte saretak ur-hartunean. Dena den, haien funtzionamendua ez da egokia. Lizartza Z.H.-ri dagokionez, presa txikia Nafarroan dago, eta ez dago arrainak ubidean sartzeko eragotziko duen gailurik. Presa txikiak arraintzako eskala du.

Emari-galera beste baldintzatzaile garrantzitsu bat da ur-ingurumenaren loturarako.

Araxes ibaia/Río Araxes KBEan emari-defizita dago, Lizartzako zentral hidroelektrikoa dela eta. Zentral horrek hartzen duen emariak kalte egiten dio urak berriro isurtzen diren arteko ibai-zatiari, eta ia 5 km-ko luzerakoa da tartea. Gaur egun, Araxes ibaiaren zati horretako baimendutako emari ekologikoa (170 l/s) txikiegia izan liteke ibai-habitat horren eskakizun ekologikoetarako.

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

Lehorreko korridorea:

Legezko baldintzatzaile positibotzat hauek aipa daitezke:

- Urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretua, Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Erregelamendua (HJHE) aldatzen duena: herri-jabari hidraulikoaren eta haren zortasun-zonaren erabilera arautzen du. Horren helburuak dira *herri-jabari hidraulikoaren egoera kontserbatzea, uretako ekosistemen hondatzeari aurrea hartzea, ekosistema horiek hobetzea, eta abar.*

Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Bizkaiko Golkoko isurialdea). Besteak beste Natura 2000 Sarekoak diren eremuetan, «*babes-irizpide nagusia 'Ibilgua Babesteko Eremu' bat ezartzea da (landa-eremuetako ibaiertzetan, ibilgu publikoaren mugabanaketa-lerroarekiko 5 metroko gutxieneko erretiroa), eta ingurunea eralda dezakeen edozein jarduera debekatzea*». Legezko baldintzatzaile positibotzat jo behar da, abiapuntu garrantzitsua baita Natura 2000 Sareko ibaien eta erreken ertzetan baimenduta edo debekatuta dauden erabilerak eta jarduerak definitzeko.

- EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programa (2007-2013). Aintzat hartzen ditu zenbait nekazari-tza- eta ingurumen-neurri, biodibertsitateari eta nekazaritza-paisaiari eusteko; horretarako, erriberako heskaiak eta landaredia kontserbatuko dira lursailetik pasatzen diren ibai-ibilguen inguruan. Lehentasuneko jardura da Natura 2000 Sarean sartuta dauden zonetarako eremuetarako. Era berean, baso-lurren erabilera iraunkorra lortzea xede duten neurrien artean, erriberako landaredia kontserbatzeari eta lehengoratzeari buruzkoak nabarmendu dira, bai eta baso-ingurunea babesteko beste laguntza batzuk: baso autoktonoak kontserbatzeko eta berritzeko jarduerak; babestutako eremuetan espezie jakin batzuen baso-berritzeak egiteko zenbait muga konpentsatzea.

- Gauzatu daitezkeen jarduerak planteatzean, beste baldintzatzaile garrantzitsua da lursailen jabetza; gehienetan pribatua da. Jabetzak erriberako korridorea kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurrien aplikazioa baldintzatzen du, eta beraz, jabeen eta erakunde publikoen arteko akordioak eta konpromisoak bultzatuko dituzten formulak bilatu behar dira (kontratu bidezkoak nahiz borondatezkoak), edo salbuespeneko kasuetan, zenbait lursail erosi beharko dira.

Uretako korridorea:

Aurrez aipatutako xedapenetatik eratortzen diren legezko baldintzatzaileez gain, Plangintza Hidrologikoaren Instrukzio berria aipatu behar da, irailaren 10eko ARM/2656/2008 Aginduaren bidez onartua. Aurrerantzean plan hidrologikoetan aintzat hartu beharreko alderdi batzuk jasotzen ditu; besteak beste, ur-emakidetan emari ekologikoak ezartzeari buruzkoak. Agindu horretan, Natura 2000 Sarea aipatzean, hau adierazten da: eremu horietan emari ekologikoen erregimenek ondorio nabarmenak eragiten badiuzte, erregimenak egokitu egingo dira, habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera onari eusteko edo haiek lehenera ekartzeko; eta, horretarako, haien eskakizun ekologikoak bete behar dira eta haietan eragina duten funtzio ekologikoei epe luzera eutsi behar zaie.

Uretako korridorea lehengoratzeko neurriak ezartzeko baldintzatzaile nagusietako bat indarrean dauden uraren erabilerari eta aprobeixamenduari buruzko administrazio-emakidak dira, kontsumo-erabilerak nahiz kontsumokoak ez direnak hartzen dituztenak. Emakida-aldi luzekoak dira, eta kasu batzuetan (emari ekologikoak), ezarritako baldintzak ez dira nahikoak KBEan funtsezkotzat hartutako espezieak egoera onean kontserba daitezen bermatzeko. Eta alderdi hori zehatz aztertu beharko da.

KBEan gauzatzen ari diren jardueren artean, hauek aipatu behar dira:

- Ibaiaien egoera ekologikoa zein den jakiteko jarduerak. Eusko Jaurlaritzak, Uraren Euskal Agentziaren (Uragentzia) bidez, EAeko lurrazaleko ur-masen egoera ekologikoa kontrolatzen du, bi kontrol-sareren bitartez: Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera biologikoaren jarraipenerako sarea eta Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera kimikoaren jarraipenerako sarea. Horren baitan, arrainen laginketak sartzen dira.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako ibaietako uraren kalitatearen jarraipena egiteko sarea du (kontrol fisiko eta kimikoak, kalitate biologikoa eta arrainen laginketak).

Araxes ibaia/Río Araxes KBEan, laginketa-estazio bat dago Eusko Jaurlaritzaren sarekoa eta beste bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren sarekoa. Biak Araxes ibaiaien beheko zatian daude.

Ez dago laginketa-estaziorik KBEaren gainerako eremuan.

- Arrain-faunaren jarraipenerako jarduerak: Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako ibaietako arrain-faunaren egoeraren jarraipen espezifikoak egiten du. Jarraipen horren xedea da arrain-komunitatea (bereziki, salmonidoena) zer egoeratan dagoen jakitea, komunitate horien populazioek zer joera duten balioestea eta egoera kudeatzeko eta hobetzeko neurriak ezartzea. Horrez gain, Gipuzkoako ibaietan aingira-populazioen jarraipena egiten du, EAEn Aingira Berreskuratzeko Kudeaketa Planarekin bat. Alde horretatik, ahalegin handia egiten ari dira Oria ibaiaien arloan, espezie horrentzat egokitzat jotzen baita, eta jarraipen horren barnean aingiraren laginketa-estazio berezi bat dago Araxesek urak isurtzen dituen zatian.
- Uraren kalitatea hobetzeko jarduerak.
 - Saneamendua egiteko proiektuak idatzita daude Araxes ibaia/Río Araxes KBEan arazoak dauden bi eremuetan:
 - Amaroako saneamendua (beheko zatia) eta sare nagusiarekin lotzea.
 - Lizartzako herriguneko saneamendua eta uren arazketa. 2011. urtean Lizartzan araztegi bat egi-tea aurreikusita dago.

Lan horiek epe laburrean gauzatzea aurreikusita dago.

<ul style="list-style-type: none"> - Oztupoak iragazkortzeko programa (GFA - KKH): Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak erabiltzen ez diren emakidei lotutako oztupoak eraisten ditu, eta arraintzako pasabideak eraikitzen. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak oztupoak eraisteko jarduerak ere gauzatzen ditu, bai eta iragazkortasuna hobetzekoak ere, arrainak igarotzeko askotariko gailuak eraikiz (alboetako ubideak, harri-lubetaz egindako arrapalak, segidako dike-eskalak, eraisketa partzialak eta abar). Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak¹ oztupoak iragazkor bihurtzeko diseinatu zuen 20 urterako programaren arabera, KBEaren inguruan dauden 2 presa txiki iragazkor bihurtzea aurreikusi da: Leaburuko zerrategiari dagokiona eta Celulosas del Araxes 2koa (Insalus). Azpimarratu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak egin dituela, lehen ere, horrelako jarduerak Araxes ibaian. Hain zuzen ere, 2005. urtean bi proiektu gauzatu zituen: suhiltzaileen inguruko presa eraitsi eta eskala bat egin zuen Txaraman (Celulosas del Araxes 1). Horrez gain, Amaro paper-fabrikaren presa txikia dago iragazkortzeko (enpresa duela gutxi KBEaren eremutik kanpo dagoen beste instalazio batzuetara joan da). - Arrain-eskalen eraginkortasunaren jarraipena. Gipuzkoako Foru Aldundiaren oztupoak iragazkortzeko planak, oraintsu aipatutakoak, barnean hartzen du ezarritako iragazkortze-gailuen eraginkortasunaren kontrola eta jarraipena. Txaramako eskalari dagokionez (Celulosas del Araxes 1), jarraipena eginda dago jada, eta emaitza onak izan dira salmonidoentzat eta ziprinidoentzat. - Araxes ibaiaren ibilgua hobetzea, egur hilak sartuz. Egiteko dago. Proiektuaren helbura da Araxes ibaiaren egitura-konplexutasuna handitzea eta materia organiko eta jalkin gehiagori eusteko gaitasuna handitzea. - Lizartzan ur-emia neurtzeko estazio bat eraikitzea. 2010. urtearen amaierarako aurreikusita. 	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Araxes ibaiaren korridorearen funtzionalitateari eutsi eta hura leheneratzea
1. helburu operatiboa	KBEaren mugen barruan, erriberako landarediaren luzetarako jarraitutasuna belardien ondorioz galtzen den lekuetan, 5 metroko banda-zabalerako altzadiak eta lizardiak sustatzea
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 1.JAR.1 jarduera, erriberako landaredi naturala lehengoratzeko, proposatutako tarteetan, 5 metroko zabalerako banda batean (ikus Jardueren mapa). Horren baitan sartzen da 6,6 ha-ko galeria-basoa lehengoratzeko, egun sega-belardiek, belarkilaboreek edo ibai-korridorearen ekologia-lotura eteten duten beste erabilera batzuek hartzen dituzten eremuetan.</p> <p>Aplikagarriak dira, halaber, 1.JAR.3, herri-jabari hidraulikoa zehaztu eta «ibai-lurraldea» mugatu dadin sustatzekoa; 1.JAR.9., harri-lubetak berriro landareztatzeko proiektua (615 m-ko luzeran jardungo litzateke); eta 1.JAR.21 ibai-korridorearen kontserbazioaren garrantzia jakinaraztekoa eremu horretan dauden udaletan, ikastetxeetan, nekazarien elkarrean eta basogintzako elkarrean.</p>
2. helburu operatiboa	KBEan uraren kalitateari eustea, edota hobetzea
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 1.JAR.10, hots: urak zuzenean zein zeharka KBEaren eremuan isurtzen dituzten biztanleria-guneen saneamendua osatzea (Lizartzako araztegia eta saneamenduko kolektorea egitea; KBEan isurtzen duten biztanlegune txikien saneamendua osatzea: Txarama, Leaburu, Gaztelu).</p> <p>Aplikagarriak dira jarduera hauek: 1.JAR.4, ingurumen-emariaren erregimena berrikusteko, 1.JAR.5 (3 kontrol-gune berri) eta 1.JAR.6, KBEan azaleko uren egoera ekologiko ona kontrolatzeari buruzkoa.</p>

¹ Gipuzkoako Foru Aldundia, Garapen Iraunkorrerako Departamentua – Ekolur SLL 2007. *Gipuzkoako lurralde historikoan, erabileraz kanpo dauden oztupoak iragazkor bihurtzeko jarduera-programa.*

3. helburu operatiboa	Ur-korridoreko oztopoak kentzea
Jarduerak	<p>Aplikagarria da, bereziki, 5.J.2 jarraibidea, KBEaren barnean erabiltzen ez diren emakidei buruzkoa: Amaro paper-fabrika, Celulosas del Araxes 1 (Txarama), Leaburuko zerrategia eta Celulosas del Araxes 2 (Insalus). Aplikagarriak dira, halaber, 1.JAR.7, aingira igarotzeko berariazko igarobideak jartzea, eta 1.JAR.8, iragazkortze-gailuen eraginkortasunaren kontrolari dagokionez.</p> <p>JP1.- Amaro paper-fabrikako, Celulosas del Araxes 2ko (Insalus) eta Leaburuko zerrategiko emakidekin lotutako oztopoak iragazkortzeko edota eraisteko proiektuak idatzi eta gauzatzea.</p> <p>JP.2. Hitzarmen- edo negoziazio-prozesu bat sustatzea Lizartzako zentraleko aprobetxamendu hidroelektrikoarekin lotuta, ibai-habitataren kontserbazio-egoera ona lortzea xede duten baldintza hobeak ezartzeko zer aukera dauden aztertzeko. Hitzarmen-prozesuan, jarduera eteteko aukera ere aztertu behar da, asmo handieneko aukeratzat, desmanen populazio bideragarria eta bisoi europarraren populazio-gune txiki bat hartzeko behar besteko dimentsioa duen espazio bat sustatzeko.</p>
4. helburu operatiboa	Hobeto jakitea zein diren Araxes ibaiaren korridorearen funtzionalitatea baldintzatzen duten faktoreak
Jarduerak	<p>JP3.- Araxes ibaiaren arroaren azterketa zehatza egitea, Nafarroako Foru Aldundiarekin elkarlanean, jakiteko, batetik, zer faktorek eragozten duten nagusiki (hidrologikoak, hidromorfikoak, fisiko-kimikoak) Araxes ibaiaren korridorearen funtzionamendu hobezina, eta, bestetik, funtzionamendua hobetzeko neurri egokiak proposatzeko. Azterketaren eremuan Araxes ibaiaren arroaren Nafarroako zatia ere sartzea proposatzen da, nabarmen baldintzatzen baitu arro osoko ibai-ekosistemaren funtzionamendua.</p>

91E0 HABITATA –HALTZADIAK ETA LIZARDIAK–**Justifikazioa**

- Haltzadien eta lizardiaren habitata lehentasunezko habitata da eta Habitategi buruzko Zuzendarauaren I. eranskinean eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean jasota dago. Araxes ibaiaren erriberako berezko ibai-habitata da.
- Bertan, galtzeko arriskuan dauden uretako eta erdi-uretako espezieak daude; bereziki, *Mustela lutreola* (bisoi europarra).
- Habitat horiek babesteko eta elikatzeko lekuak dira intereseko beste fauna-espezie batzuentzat; adibidez: loina, amuarrain eta aingirentzat, eta agian, Europar Batasunaren intereseko intsektu saproxilikoentzat. Gune heze txikien garapena sustatzen dute, espezie asko babesteko eta ugaltzeko balio dutenak.
- EAEn oso gutxi hedatuta dauden beste espezie batzuen habitat bereizgarria dira, adibidez: *Cinclus cinclus* (ur-zozoa) eta *Alcedo atthis* (martin arrantzalea).
- Askotariko flora-espezieak daude bertan, eta horrek nabarmen laguntzen dio leku horretako biodibertsitate espezifikuari.

CO₂ xurgatzen dute, ura iragazten, ibilguari itzala ematen diote eta indargetzeko funtzioa dute urgoraldietan; horrela, uraren eta, oro har, ibai-sistemaren kalitatea hobetu egiten da.

Kontserbazio-egoera

Araxes ibaia/Río Araxes KBEan, oro har, hiru zati bereiz daitezke ibaiertzeko landarediaren jarraitutasunari eta naturaltasunari dagokionez. KBEaren goi-zatian, Lizartzako herrigunera arte, erriberako landaredia kontserbazio-egoera onean dago eta jarraitutasuna handia da. Eten nagusiak platano arrunten zenbait multzok eragiten dituzte, batez ere, eta GI-2135 errepedeak eskuineko ertzean, ibaiertzearaino iristen baitan zenbaitetan. Larre txikiren bat ere badago.

Lizartzatik aurrera eta Amaro paper-fabrikara arte, kontserbazio-egoera okerragoa da eta etenak ugariagoak, zenbait azpiegitura daudelako (errepedeak, industrialdeak, herrigune txikiak), larreak, eta labore-eta baratze-eremu txiki batzuk. Horregatik, haltzadiaren azalera potentziala txikiagoa da. Horrez gain, etenak ugariagoak eta zabalagoak dira, eta zeharkako lotura ere asko dago etenda. Dena den, lehentasunezko habitat horren presentzia garrantzitsua da eremuaren zati horretan, eta, gainera, kalitate onargarria du, oro har.

Azkenik, beheko zatian, Amaro paper-fabrikatik Araxesek urak isurtzen dituen lekuraino, haltzadia urri-urria da. Industria- eta hiri-garapen handiko eremua da hori, eta horrenbestez, ibaiertzak oso eraldatuta daude.

Beheko taulan, laburbilduta jasotzen da Araxes ibaia/Río Araxes KBEan zer egoeratan dagoen, gaur egun, ibarbasoa. Abiapuntua egindako landa-lana da eta horretarako egindako kartografian ere adierazita dago.

HABITATA	KODEA	AZALERA	
		ha	%
A haltzadia (kontserbazio-egoera ona)	91E0*A	3,0	4,6
B haltzadia (kontserbazio-egoera desegokia)	91E0*B	5,8	9
C haltzadia (kontserbazio-egoera kaxkarra)	91E0*C	10,9	17

Beheko taulan, habitat honi esleitutako kontserbazio-egoera laburbiltzen da (Ikus kontserbazio-egoerari buruzko fitxa, eranskinean).

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
AZALERA		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

Presio eta arrisku nagusiak bat datoz ibai-korridorearen funtsezko elementua deskribatzean zehaztuta-koekin:

- Aldaketa morfologikoak: kanalizazioak (830), oztopo artifizialak –presa txikiak– (850), zubiak, eta herri-jabari hidraulikoa eta haren babes-zortasuneko zona hartzen duten beste azpiegitura batzuk (400, 410 eta 500).
- Haltzadiak garatzea mugatzen duten belardiak eta laborantzak (100).
- Espezie exotikoak (954): KBEaren barnean, flora-espezie aloktonoak daude; haietako batzuk, inbadi-tzailatzat jotzen direnak. Sasiakazia dago (*Robina pseudoacacia*), esanguratsua ez bada ere, eta badira *Fallopia japonica* eta *Buddleja davidii* espezieak ere, nahiz eta horiek ere ez diren esangura-tsuak. Platano arrunta (*Platanus hispanica*) ere ohikoa da.

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

Gaur egungo jarduerak

Ibai-korridore ekologikoari buruz aipatutako berberak.

Baldintzatzaileak

Haltzadiak eta uretako beste habitat batzuk kontserbatzeko eta garatzeko baldintzatzaile nagusiak, aurrez, lehorreko ibai-korridorea funtsezko elementurako adierazitako berberak dira. Atal horretan aipatutako legezko baldintzatzaileez gain, Gipuzkoako Mendien Foru Arauak araututakoa ere aintzat hartu behar da (urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA), foru-arau horretan, 44.3. artikuluan, honako hau jartzen du: *Zuhaiztiak dituzten mendiak ustiatzerakoan erreka, ibai, urtegi, komunikazio bide eta intereseko beste gune batzuetako landaredia errespetatuko da, eta zuhaizti horiei eutsi eta hobetzeko mozketak bakarrik baimenduko dira, baita segurtasun arrazoientatik egin behar direnak ere.*

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	<p>Ibai-habitaten eta ibai-mosaikoaren heterogeneotasunaren kontserbazio-egoera hobetzea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Habitat naturalek hartutako azalera handitzea. - Habitat naturalen mosaikoaren dibertsitatea handitzea. <p>Ondoen kontserbatu diren guneen egungo egoerari eustea</p>
-----------------------	---

1. helburu operatiboa	KBEan dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitaten eta fauna- eta flora-espezieen presentziari buruzko ezagutza hobetzea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoa funtsezko elementuan ibai-korridorea kontserbatzeko eta lehengoratzeko zehaztutako neurriak eta jarraibideak.</p> <p>Halaber, aplikagarria da 1.JAR.11 jarduera, haltzadien kontserbazio-egoeraren jarraipenari dagokiona.</p> <p>Aplikagarriak dira, halaber, 1.JAR.13 jarduera, KBEan Batasunaren interesekoak diren eta ibai-ingurunearekin zerikusia duten ornogabeen presentziari buruz gehiago jakiteari buruzkoa, eta 1.JAR.14, Batasunaren interesekoak diren flora-espezieen populazioen presentziari buruz gehiago jakiteari buruzkoa.</p>
2. helburu operatiboa	Habitat naturalek hartutako azalera osoa handitzen laguntzea
Jarduerak	<p>1. JAR.2. Lursailen jabeekin borondatezko akordioak sustatzea, erriberako landaredi naturalaren egitura eta osaera hobetzeko, 10 m-ko zabaleran, zenbait jardueraren ondorioz jarraitutasuna galdu den lekuetan (ikus Jardueren Mapa). Helburua da ibaiertzeko azaleraren 2,7 ha-tan jardutea.</p> <p>JP4. Egur hila sartuta Araxes ibaiko ibai-habitata hobetzeko eta dibertsifikatzeko proiektua egin eta emaitzen jarraipena egitea (ikus Jardueren Mapa).</p> <p>Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoa funtsezko elementuan ibai-korridorea kontserbatzeko eta lehengoratzeko zehaztutako neurriak eta jarraibideak.</p>
3. helburu operatiboa	Bertan dauden espezie exotikoen kopurua murriztea
Jarduerak	1.JAR.17.- Flora-espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena egitea eta horiek desagerraraztea (batez ere, <i>Robinia pseudoacacia</i> , <i>Fallopia japonica</i> , <i>Buddleja davidii</i> eta <i>Cortaderia selloana</i>); izan ere, espezie horiek direla eta, KBEko habitat naturalen balioa murrizten da.

MUSTELA LUTREOLA (BISOI EUOPARRA)**Justifikazioa**

KBEko espezie aipagarriena da. Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eta VI. eranskinetan jasotako espeziea da. Arriskupean dauden Espezieen Espainiako eta Euskadiko Katalogoetan, «galtzeko arriskuan» kategorian sartuta dago. Bestalde, Bernako Itunak, Europan basa-bizitzaren eta natura-ingurumenaren kontserbazioari buruzkoak, zorrotz babestutako espezieen zerrendan sartzen du. Eta, azkenik, Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren sailkapenean «arriskuan» moduan agertzen da.

Bisoi europarra Europako espezie endemikoa da; XIX. mendera arte, Europako eremu handi batean zegoen banatuta. Gaur egun, haren banaketa-eremua asko murriztu da, eta bi gune isolatutan soilik geratu da. Gune bat ekialdean dago, Errusiar Federazioko eskualde eta errepublika batzuetan eta Danubio ibaiaren deltan. Beste populazio-gunea mendebaldean dago. Frantziako hego-mendebaldeko (Akitania, Midi-Pyrénées eta Poitou-Charentes eskualdeak) eta Espainiako iparraldeko (Gaztela eta Leongo, Errioxako, Nafarroako eta Euskadiko autonomia-erkidegoak) ur-laster eta -masa batzuetan bizi da bisoi europarra.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hiru lurralde historikoetan dago: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Azken urteetan (1999-2003) egindako behaketen arabera, ibai hauen arroetan dago espezie hori: Cadagua, Ibaizabal, Nerbioi, Oka, Lea, Artibai, Deba, Urola, Oria, Bidasoa, Ebro, Omecillo, Zadorra, Jugalez eta Ega.


KBE hau Interes Berezikoko Eremua da espezie horrentzat, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onartutako espezie hori kudeatzeko planaren arabera.

Bestalde, Araxes ibaia, goiko zatian eta Lizartzara arte, eta Orexaran erreka, ibilbide osoan, interes bereziko eremuak dira desman pirinotarrarentzat (*Galemys pirenaicus*). Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan, «galtzeko arriskuan» kategorian sartuta dago, eta Arriskupean dauden Espezieen Espainiako Katalogoan, berriz, «interes berezia» kategorian sartuta. 92/43/CEE Zuzentarauko II. eta IV. eranskinetan ere jasota dago. Bestalde, Bernako Itunak, Europan basa-bizitzaren eta natura-ingurumenaren kontserbazioari buruzkoak, zorrotz babestutako espezieen zerrendan sartzen du. Eta, azkenik, Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren sailkapenean «kaltebera» moduan agertzen da.

Kontserbazio-egoera

Azken 30 urteetan, Araxes ibaian, Gipuzkoako zein Nafarroko lurraldeetan, azterketak egin dira ugaztuntaldean banaketa eta kontserbazio-egoera nolakoa zen jakiteko. Horrez gain, duela bost urtetik, KBEak hartzen duen eremua espezie horren jarraipen-sarean sartzen da Gipuzkoan. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako sare hori osatzen duten tarteei dagokienez, urtean behin azterketak egiten dira, egiaztatutako eraginkortasuna duten hautemate-teknikak erabiliz. Horrenbestez, esan daiteke nahikoa informazio badagoela haren banaketa jakiteko eta kontserbazio-egoera balioesteko.

Beheko irudian bisoi europarrak Araxes ibaiaren arroan (Gipuzkoako zatian) zuen azken banaketa eza-guna adierazten da. Azken urteetan egin diren jarraipen-lanetan, bi aipu besterik ez dira egiten eremu horretan. Arroaren goiko zatian, Nafarroakoan, urriak dira, halaber, aipuak, eta ezusteko aurkikuntzak izan dira (zapaltzeak). Izan ere, azken hamarkadan egindako azterketa sistematikoetan ez da ale bakarra ere hauteman.



1. irudia. Bisoi europarraren banaketa-eremua Araxes ibaia KBEan eta haren inguruan. Biribil horiez adierazi dira agerpenak izan diren lekuak. Marra gorriaren bidez, berriz, ibaiaren ardatz nagusian KBEak hartzen duen hedadura adierazi da.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa			X	
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Desman piriniotarraren egoerari dagokionez, aipatu behar da 80ko hamarkadan Nafarroako Gobernuak azterketak egin zituela espezie horren presentzia hautemateko Araxesen arroaren Nafarroako zatian, eta ez zen hauteman. 2000. urtean, desmanak EAEn zuen banaketa-eremua eguneratzeko lanetan (González-Esteban eta Villate, 2001) Araxes ibaiaren Gipuzkoako zatia, Lizartatik gora, eta Orexaran-Basabe erreka aztertu ziren, eta ez zen alerik harrapatu.

Dena den, eskura dagoen informazioak adierazten duenez, gaur egun Araxes ibaiaren arroan ez dago desmanik, eta isolatuta daudenez eta lekualdatzeko muga asko dituztenez, ezinezkoa da populazioa leheneratzea gizakiak esku hartu gabe. Beraz, zenbait ale sartu beharko dira populazioa leheneratu nahi bada.

Lehen ere adierazi den bezala, Gipuzkoan espezie hori kudeatzeko planak Araxes ibaia (Orexaran erreka-ekin bat egiten duen lekutik gora) eta Orexaran erreka sartzen ditu interes bereziko eremu gisa. Eta jakitun da desagertuta dagoela arrotik, baina habitataren kontserbazio-egoera ikusita, uste da arrakastaz sartu ahal izango liratekeela ale batzuk, dagozkion neurri zuzentzaileak hartzen badira.

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)	
Uraren kutsadura (701). Kanalizazioa (830). Barneko ur-lasterrak aldatzen dituzten egiturak (852). Maila hidrikoen erabilera (853). Funtzionamendu hidrologikoaren aldaketa (850). Etxebizitzak eraikitzekeko urbanizatutako eremuak (400). Industria- eta merkataritza-eremuak (410). Gizakiak hidrologian eragindako beste aldaketa batzuk (890).	
Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak	
<u>Gaur egungo jarduerak</u> <ul style="list-style-type: none"> Gipuzkoan, bisoi europarraren eta desman piriniotarraren kudeaketa-planak indarrean daude (2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindua). Kudeaketa-plan horietan, bi espezieak eta haien habitatak lehengoratzeko neurriak jasotzen dira. KBEaren zati bat Interes Berezikiko Eremuetan sartzen dute. Horrez gain, KBEa osatzen duten zatiak bisoi europarraren eta desman piriniotarraren jarraipen-sarean sartzen dira Gipuzkoan. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako sare hori osatzen duten tarteei dagokienez, urtean behin azterketak egiten dira. Araxes ibaiaren habitata hobetzeko eta dibertsifikatzeko proiektua. Egiteko dago. Proiektuaren helbura da Araxes ibaiaren egitura-konplexutasuna eta ingurumenen dibertsitatea handitzea. 	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Araxes ibaia/Río Araxes KBEan bisoi europarraren populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikienak eginez, espezie horiek behar bezala kontserbatu daitezen
1. helburu operatiboa	KBEan, bisoiak jasaten dituen inpaktuak murriztea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira KBEan uraren erabilerarekin lotuta proposatutako jarraibide eta araudi komun guztiak, bai eta ibai-korridorea funtsezko elementurako proposatutakoak ere, uretako korridorean oztupoak kentzeari, emari ekologikoak errespetatzeari eta hartutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteari buruzkoak.</p> <p>KBE honetan lehentasunez ezartzekoa da JP2. jarduera, ibai-korridore ekologikoaren funtsezko elementuarena: hitzarmen- edo negoziazio-prozesu bat sustatzea Lizartzako zentralako aprobetxamendu hidroeletrikoarekin lotuta, aztertzeke zer aukera dauden ibai-habitataren kontserbazio-egoera ona lortzea xede duten baldintza hobeak ezartzeko. Hitzarmen-prozesuan, jarduera eteteko aukera ere aztertu behar da, asmo handieneko aukeratzat, desmanen populazio bideragarria eta bisoi europarraren populazio-gune txiki bat hartzeko behar besteko dimentsioa duen espazio bat sustatzeko.</p> <p>Habitataren kontserbazio-egoera egokia leheneratzeko, ezinbestekoa da eragin nagusia zuzendu edo arintzea. Zentralak ibaiaren 5 km-ko zati bati eragiten dio, eta kenduko balitz, bi espezie horientzat dimentsio esanguratsuak dituen tarte bateko baldintza morfologikoak eta emaria lehengoratu egingo lirake. Horrez gain, leheneratutako zatiari Orexaran/Basabe erreka gehitu behar zaio (gaur egun kontserbazio-egoera onean dago), eta horrenbestez, desmanen populazio bideragarria eta bisoi europarraren populazio-gune txiki bat hartzeko behar besteko dimentsioa duen espazio bat osatuko litzateke.</p>

3. helburu operatiboa	Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, Araxes ibaiaren arroan bisoiaren (eta, egokia balitz desmanaren) populazioaren kontserbazio-egoera nolakoa den jakiteko aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa.

LOINA (*PARACHONDROSTOMA MIEGII*) ETA ARRAIN-KOMUNITATEA**Justifikazioa**

Loina iberiar penintsulako espezie endemikoa da, Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen II. eranskinean jasotakoa.

Espezie horrez gain, KBEaren eremuan beste 5 arrain-espezie daude: amuarraina (*Salmo trutta fario*), ezkailua (*Phoxinus phoxinus*), mazkarra (*Barbatula barbatula*), aingira (*Anguila anguila*), eta Graellsen barboa (*Luciobarbus graellsii*). Horietatik guztietatik, egoera okerreanean dagoena amurraina da. Araxes ibaia, berez, habitat egoki-egokia da espezie horrentzat. Baina azken urteetan asko egin du behera amuarrainaren dentsitateak. Badirudi ugalketa-arazoa dela, espezie horren arrainkume oso gutxi baitaude. Araxes ibaia amuarrainak arrantzatzeko barrutirik onenetakoa izan da Gipuzkoan, eta, beraz, egungo egoera ez da normala inondik ere. Martxan dagoen zentral hidroelektrikoa eta isurketak dira eremu horretako eragin nagusiak; izan ere, osterantzean espezie horretarako ibai-habitat egokia duela esan genezake.


Kontserbazio-egoera

Loinaren (*Parachondrostoma miegii*) egoerari dagokionez, hau adierazi behar da:

Loina edo iparraldeko loina txikia EAEko hiru lurralde historikoetan dago, eta Ebroren arro guztietan, Omecillotik (mendebaldea) eta Arakil eta Egaraino (ekialdea), eta Bizkaiko isurialdeko arro guztietan dago, Oiartzun, Urumea eta Lean izan ezik.

Ibaitako erdiko eta beheko zatietan bizi da. Ur-lasterrak eta oxigenatuak ditu gogoko, baina ohikoa da ibai-zati sakon eta geldoetan ere. Ugaltze-garaian, sarda handitan biltzen dira eta ibaian gora egiten dute erruteko leku aproposen bila. Erruteko lekuak ur bizi eta oxigenatuetan egoten dira, ohantzea errekarritz edo legarrez osatuta dagoen lekuetan.

Irudian, espezieak 2000-2009 aldian zuen banaketa ikusten da:



Araxes KBEan ibaiak Oria ibaian urak isurtzen dituen lekuan aurkitu da 2001. urteaz geroztik, eta gero eta gehiago ikusten da; horrek zerikusia du uraren kalitatea hobetu izanarekin. Ibaiaren azken 4 kilometrotan bizi da eta urriagoa da zenbat eta gorago egin ibaian. Izan ere, iristeko zailtasunak ditu, eta, beraz, azken urteetan gero eta ugariagoa den arren beheko zatian, erdiko eta goiko zatietan ez da espezie hori hautematen.

Ez dakigu zer populazio duen, baina urak isurtzen dituen lekuan dentsitatea hektareako 17-2.260 ale bitartekoa dela kalkulatu da.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera²		Desegokia		

Oharra: «Banaketa-eremua, Populazioa, Espeziearen habitata eta Etorkizunerako aurreikuspenak» dagokien laukian X batez markatu dira. Kontserbazio-egoera lauki bakoitzari adierazitako kategoriari dagokion kolorea emanez zehaztu da.

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

Ibaien gora egiteko oztopoak (uraren barne-ibilbideak aldatzen dituzten egiturak - 852)

Emari-galerak (funtzionamendu hidrológicoaren aldaketa - 850)

Dikeak, kanalizazioak, hondartza artifizialak (870)

Gizakiak hidrologian eragindako beste aldaketa batzuk (890)

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

Bai Eusko Jaurlaritzak, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak, Araxes ibaiaren uraren kalitatearen azterketak egiten dituzte urtero. Batetik, fauna bentonikoa aztertzen dute, indize biotikoen bidez; eta, bestetik, parametro fisiko-kimikoak neurtzen dituzte. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak arrain-faunaren egoera aztertzen du KBE honen eremuan, eta bereziki aztertzen du amuarrainaren egoera, interes handiko espeziea baita kudeaketaren ikuspegitik.

Une honetan, amuarraina egoera kritikoan dago Araxes ibaian. Horren haritik, Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait azterketa egin ditu jakin ahal izateko zergatik egin duen hainbeste atzera amuarrainaren populazioak Araxesen; baina azterketen emaitzak ez dira argigarriak izan. Espeziearen egoera txarrari aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait kudeaketa-neurri aldatu zituen Araxeseko barrutian: arrantza debekatua zuen barruti bat ezarri zuen, heriotzarik gabeko arrantza zabaldu zuen, harrapaketen kupoa murriztu eta harrapatu daitekeen arrainaren tamainaren muga handitu zuen.

Aingirari dagokionez, azpimarratu behar da EAEn ibai-aingira lehengoratzeko kudeaketa-plana dagoela. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako nahiz Bizkaiko foru-aldundiek argitaratu zuten 2008ko abenduan, Europar Batasunak 1100/2007/EE Erregelamenduak ezarritakoa betetzeko. Erregelamenduak estatu kide guztiak derrigortzen zituen kudeaketa-planak egin zitzaten 2008ko abendurako, eta gaur egun plan hori aztertzen ari dira Europako Batzordean. Gipuzkoan aingiraren berariazko kontrolak egiten dira arro guztietan, eta, bereziki, Oriaren arroan. Araxes ibaian kontrolgune bat dago, beheko zatian.

Araxes ibaiaren habitata hobetzeko eta dibertsifikatzeko proiektua. Egiteko dago. Proiektuaren helbura da Araxes ibaiaren egitura-komplexutasuna eta ingurumenen dibertsitatea handitzea. Horrek habitata hobetzea ekarriko du, espeziearentzat zein arrain-komunitatearentzat oro har.

² Kategoria kaskarretan, ikur espezifiko bat (adibidez, gezi bat) erabil daiteke, lehengora bueltatzen diren populazioak adierazteko.


Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Arrain-populazio autoktono egokiak lortzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna
1. helburu operatiboa	KBEan arrain-komunitatearen populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira 1.JAR.5 eta 1.JAR.6 jarduerak, KBEan uraren kalitatearen eta arrain-populazioen bilakaeraren jarraipena egiteari buruzkoak, barne hartuta Araxesen ardatzeko hiru kontrolgune berriak: bat goialdean, Lizartzatik gora; eta beste biak, berriz, Lizartzatik behera (horietako bat hirigunetik hurbil, eta bestea Leaburuko zerrategiaren parean).</p> <p>JP5.- Azterketa bat egitea, arrain-habitataren (mesohabitat) ezaugarriak adierazteko eta zehazteko zein baldintza ekologiko behar dituzten KBEan dauden arrain-espezieek. Eta loinari dagokionez, hau ere adieraziko du: populazioa, banaketa eta kontserbazio-egoera, eta KBEak espezie hau hartzeko duen gaitasuna.</p>
2. helburu operatiboa	KBEaren barnean, arrain-espezieek jasaten dituzten inpaktuak desagerraraztea
Jarduerak	Aplikagarriak dira ibai-korridorea funtsezko elementuari dagozkion jarduera guztiak.

IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA: UR-ZOZOA (*CINCLUS CINCLUS*) ETA MARTIN ARRANTZALEA (*ALCEDO ATTHIS*)**Justifikazioa**

Ibai-habitatego bi espezie bereizgarri dira, eta arroaren eta ibaiertzen kontserbazio-egoera bikaina adierazten dute. Biak daude KBE honetan. Martin arrantzalea espeziea Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean dago, eta interes berezikotzat sailkatu da Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan; ur-zozoa ere interes berezikotzat sailkatu da aipatutako katalogo horretan bertan.

Kontserbazio-egoera**Martin arrantzalea (*Alcedo atthis*).**

Hiru lurralde historikoetan dago, baina, 1998arekin alderatuz, Bizkaian soilik eutsi dio egonkor populazio ugaltzaileak. Gaur egun, ez dakigu zenbatekoa den populazio ugaltzailea, ez EAEn ez KBEan.



Martin arrantzalearen banaketa EAEn.

Iturria: Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioa, 2007


Araxes ibaian egindako azken erroldetan (2008, 2009 eta 2010), batez beste 5 heldu eta 11 gazte hauteman dituzte, (Jauregi., J. jakinarazpen pertsonala) aztertutako zatian (Araxes ibaiaren ardatza). Kontuan izanda 19 km aztertu direla, dentsitate hau lortzen da 0,26 heldu/km.

Ibai-habitataren kontserbazio-egoerari erreparatuta, KBEan espezie horren kontserbazio-egoera ere desegokia dela jo behar da.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Ur-zozoa (*Cinclus cinclus*)

EAEn, banaketa handia du hiru lurralde historikoetako ur-ibilguetan; autonomia-erkidegoko mendigunee-tako ibai-ibilguekiko lehentasuna agertu arren, itsasertzeko eremuetan ere agertzen da.



Ur-zozoaren banaketa EAEn

Araxes ibaian egindako azken erroldetan (2008, 2009 eta 2010), batez beste 1,2 heldu hauteman dituzte kilometroko (Jauregi., J. jakinarazpen pertsonala). Hori, gutxi gora behera, bikote bat litzateke 2 km-ko, Leitzaran ibairako kalkulatuakoaren erdia baino gutxiago, adibidez. Horri erreparatuta, eta KBEaren eremuan ibai-habitatak duen kontserbazio-egoera aintzat hartuta, espezie honen kontserbazio-egoera desegokitzat jo daiteke, eta horrelaxe jasotzen da beheko taulan (ikus erantsitako fitxa):

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
		Desegokia		

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

Presio nagusiek zerikusia dute, batetik, uren kalitatearekin (701), eta bestetik, habitatean egin diren aldaketekin: kanalizazioak (830), funtzionamendu hidrologikoaren aldaketa (830-890), ibaiertzeko baso-soiltzeak (160).

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak	
Gipuzkoako ibaietan dauden hegazti-populazioak monitorizatzea: Aranzadi Zientzia Elkarteak gauzatzen du proiektua eta xedea da ibaiei lotutako hiru espezieren populazioa sistematikoki monitorizatzea: martin arrantzalearena, ur-zozoarena eta buztanikara horiarena. Horrez gain, biometriarekin, parametro demografikoekin eta espezie horien populazioen dinamikarekin lotutako datuak lortzen dira.	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	KBEaren barnean ur-zozoaren eta martin arrantzalearen populazioak egon daitezzen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna
1. helburu operatiboa	KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira honako araudi hauek: 7.A.1, 7.A.5 (kontuan hartu behar dira espezie horiek zer eskakizun dituzten zubiak, errotak eta abar diseinatzean edo zaharberritzean) eta 7.A.6 (ibaiaren inguruetan lanak egiteko data). 1.JAR.20 jarduera ere aplikagarria da (espezie horien habitata hobetzeko proiektua egitea).
2. helburu operatiboa	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 1.JAR.16 (populazioen aldizkako jarraipena) eta 1.JAR.19 (martin arrantzalea kudeatzeko plana) jarduerak.

JARRAIPEN-PROGRAMA

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA	Araxes ibaia/Rio Araxes KBEaren ibai-korridore ekologikoa kontserbatzea eta lehengoratztea	Ibairen bi ertzetan gutxieneko zabaleria bat duen erriberrako landaredi naturalaren banda bat kontserbatzea eta lehengoratztea, bertako intereseko fauna-espezieentzat (biso europarra, ibaietako hegazti-fauna...) habitat egokia izango dena	Lehengoraturtako erriberrako landaredi naturalaren azalera (ha), belardiek eta laborantzek hartutakoa	0	Lehen belardiek eta laborantzek hartutako 6,6 ha
			Birlandaturtako harri-lubeten metro linealak	0	Birlandaturtako harri-lubeten 61,5 metro lineal
			Herri-jabari hidraulikoa zehaztea eta ibai-lurraldea mugatzea	Ez da egin	Egin da
		KBEaren barnean Araxes ibaiaren egoera ekologikoa zein den jakitea, aintzat hartuta Uraren Esparru Zuzentaruak ezarritako parametroak	KBEaren barnean Araxes ibaiaren egoera ekologikoa zein den jakitea, aintzat hartuta Uraren Esparru Zuzentaruak ezarritako parametroak	Badakigu (urtekoa)	Kontserbazio-egoera ona lortzea edo hari eustea
		KBEaren barnean, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	Egitako dauden saneamendu-planak egitea.	Egin gabe, Lizartzako eta Amaroako saneamendua	Saneamendua eginda
			KBEen alorrean indarrean dauden emakida nagusietan aplikatzen diren ingurumen-emariaren erregimena berrikustea.	Ez da egin	Egin da
			Kantauriko Konfederazio Hidraulikoaren aurrean, KBEaren eremuan erabiltzen ez diren emakiden iraungitzea bultzatzea, eta oztopoak iragazkor bihurtzea.	4 ez dira erabiltzen	Proposamena gauzaturta
		Uretako korridorean oztopoak kentzea, eta faunaren joan-etorriak erraztea ibilguan zehar	KBEan dauden oztopoak iragazkor bihurtzea	4	4 oztopo nagusi iragazkortu dira
			Lizartzako zentral hidroelektrikoa ixteko aukera negoziatzea	1	Jarduera etetea
		Hobeto jakitea zein diren Araxes ibaiaren korridorearen funtzionalitatea baldintzatzen duten faktoreak.	Arroaren azterketa bat egitea, ibai-korridoreak behar bezala funtziona dezan eragozten duten faktoreak hautemateko	0	Azterlana egin da

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
HALTZADIAK ETA LIZARDIAK (EBko 91E0* kodea)	Ibai-habitaten kontserbazio-egoera babestea eta hobetzea	Intereseko habitaten kalitate ekologikoa hobetzea	Flora-espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena egitea eta horiek desagerraraztea; izan ere, espezie horiek direla eta, KBEko habitak naturalen balioa murrizten da	0	Espezie inbaditzailerik ez egotea edo gutxi egotea
	Ibai-habitaten kontserbazio-egoera babestea eta hobetzea	Habitat naturalek hartutako azalera osoa handitzen laguntzea	Haltzadiak eta ibaiertzeko landaredia kontserbazio-egoera onean daudela laguntzeko jarduerak (borondatezko akordioak)	0	Hobekuntzak egitea 2,7 hant
BISOI EUROPARRA (<i>Mustela lutreola</i>)	KBEan, espezie horien presentzia egonkorra sustatzea	KBEan dauden Batasunaren intereseko habitaten eta fauna- eta flora-espezieen kopurua eta banaketa hobeto ezagutzea	Habitata hobetzeko proiektua egitea	0	Proiektua gauzatua
			Intereseko habitaten eta espezieen inbentarioa, KBEa zabaltzeko proposatutako eremuetan. Adierazkortasuna eta kontserbazio-egoera zehaztea	Ez da egin	Egin da
LOINA (<i>Parachondrotoma miegii</i>) ETA ARRAIN-KOMUNITATEA	KBEaren barnean arrain-populazioak egon daitezkeen bermatzea, aintzat hartuta, KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna	KBEan dauden intereseko flora-espezieen presentzia, kontserbazio-egoera eta kontserbatzeko neurriak	KBEan dauden intereseko ornogabeen dibertsitatea, kontserbazio-egoera eta kontserbatzeko neurriak	Ez dakigu	Badakigu
			Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Ez dakigu	Badakigu
IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA	KBEaren barnean ur-zozoaren eta martin arrantzailearen populazioak egon daitezkeen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna	KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea	Arrain-populazioen kontserbazio-egoeraren berri jakitea	Ez dakigu (urtekoa)	Badakigu (urtekoa)
			Habitata lehengoratzeko proiektuak egitea	0	Bi proiektu gauzatu dira
		Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Espezien banaketa eta populazio-egitura KBEan	Ez dakigu	Badakigu

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2120012.xml&lang=eu

XI. ERANSKINA

ES2120013 LEITZARAN IBAIA/RÍO LEITZARAN KONTSERBAZIO BEREZIKO
EREMUAREN HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK**FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA JARDUERAK**

Hurrengo tauletan, Leitzaran ibaia/Río Leitzaran KBEan kudeaketarako funtsezkotzat jo diren elementueetariko bakoitzaren kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA**Justifikazioa**

Leitzaran ibaia/Río Leitzaran KBEa bere ibibilbide guztian zehar lotura-interes berezia duen ibai-tartea da. Leitzaran ibaiak eta haren ibaiadarrek osatzen duten ibai-korridore ekologikoak barnean hartzen ditu lehorreko, uretako eta aireko korridoreak, eta oso bide garrantzitsuak dira fauna- eta flora espezieak hedatzeko, ibaietakoak izan zein ez, bai eta migrazioetarako ere. Horrez gain, ibaiaren dinamika naturalak ingurune-aniztasuna eta mikrohabitata sortzen ditu, beharrezkoak direnak flora- eta fauna espezie asko babesteko, elikatze, ugaltze eta/edo hedatzeko. Leitzaranen, bereziki aipagarriak dira espezie hauek: desman edo muturluze piriniotarra (*Galemys pyrenaicus*), bisoi europarra (*Mustela lutreola*), arkanbelea (*Lucanus cervus*), loina (*Parachondrostoma miegii*), *Soldanella villosa* eta *Trichomanes speciosum*. Espezie horiek guztiak Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean ageri dira (Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eranskina). Hauek dira KBE honetako intereseko beste espezie batzuk: uhandre piriniotarra (*Calotriton asper*), martin arrantzalea (*Alcedo atthis*), ur-zozoa (*Cinclus cinclus*), *Saxifraga clusii*, etab. Bestalde, baso alubiala (haltzadi-lizardia) Batasunaren intereseko lehentasunezko habitata da (91E0*), eta jasota dago Habitategi buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean (abenduaren 13ko 42/2007 Legearen I. eranskina). Leitzarango haltzadia haltzadi oligotrofoaren Gipuzkoako adibiderik bikainena da.

Kontserbazio-egoera

Lehorreko korridorea: Leitzaran ibaia/Río Leitzaran KBEan ibaiertzak oso kontserbazio-egoera onean daude, eta luzetarako jarraitutasuna eta alboetako lotura onak dira. Jarraitutasunaren etendurak oso urriak dira, eta oro har ez oso garrantzitsuak. Etendura horiek belardiek, baratzeek edota eraikinen batek sortzen ditu.

Uretako korridorea: uraren kalitatea oso ona da KBE guztian. Aurreko atalean aipatutako ia espezie guztiak uretako ingurunearen mende daude. Horiez gain, KBE honetako arrain-komunitateak ere aipagarriak dira: amuarraing-populazioen dentsitatea nahiko ahula da, azken urteetan beherakada izan baita. Izokinen populazioa, artoa honetan jada desagertuta zegoena, oso txikia da, eta espezie hori berriro sartzeko planari esker ageri da. Aingira ere oso urria da, eta batik bat KBEko beheko tartean ageri da. Beheko tartean, halaber, barboa eta loina daude, baina populazioak eskasak dira, Leitzarango habitata ez baita egokia ziprinidoentzat. Horrez gain, badira ezkailu- eta mazkar-populazioak ere.

Lotura ekologikoa eta ibaiaren dinamika eraldatuta daude, bai oztopoengatik, bai zentral hidroelektrikoek sortzen duten emari-galeragatik. Horrek oso ondorio kaltegarriak ditu uretako ingurunearen mende bizi diren espezieetan.

Aireko korridorea: Leitzaran ibaia/Río Leitzaran KBEa 13 aldiz zeharkatzen dute linea elektrikoek, eta ez daude baliztatuta, hegazti-faunak talkarik egin ez dezan.

Presioak eta arriskuak

Lehorreko korridorea:

Plazaolako trenbide zaharraren bidea (Leitzarango pista): KBEaren ibilbide osoan zehar, Leitzaran ibaitik hurbil eta nahiko paralelo doan pista bat dago. Pistaren zati handi bat ez dago zolatuta, eta sarbidea mugatua da, baimendutako ibilgailuentzat soilik. Batik bat baso-ustiaketarako eta aisialdirako (oinezkoak eta bizikletak) erabiltzen da. Horrek erriberako basoaren eta mugakide dituen ekosistemen arteko lotura mugatzen du neurri batean. Aisialdi- eta basogintza-jarduerak ez badira behar bezala arautzen, KBEko habitata eta espezieak eraldatzeko faktore bat izan liteke hori.

Basogintzako erabilera: basogintza oso jarduera garrantzitsua da KBE honetan. Baso-ustiaketa behar bezala arautu ezean, arriskutsua izan daiteke erriberako basoaren kontserbazioari begira. Izan ere, jarduera batzuek oso ondorio kaltegarriak izan ditzakete intereseko habitat eta espezieetan: baso-soiltzeak; egurra ateratzeko bide berriak egitean herri-jabari hidraulikoa babesteko banda ez errespetatzeak; espezie aloktonoak landatzeak, ibaiertzera iristen direnak; erriberako zuhaitzak mozteak eta hausteak; enborrak pilatzeko lekuek eta enborrak arrastatzeak; mozketen hondakinak metatzeak.

Uretako korridorea:

Presaren txikiak/oztopoak: Ibaiaren luzetarako jarraitutasuna funtsezkoa da arrain-espezieak, migratzaileak direnak zein ez direnak, mugitzeko eta lekualdatzeko, mugimendu horiek ezinbesteko baitituzte beren bizi-zikloa osatzeko.

- KBE honetan 12 oztopo daude:
 - 2 (Truchas Erreka eta Inturia presa) ez dira iragazkorrak arrain-faunarentzat, ez baitaukate uretako animaliak igarotzeko inolako gailurik.
 - 1ek (Ameraungo Z.H.ko ur-emia neurtzeko estazioa) iragazkortasun ertaina du.
 - 6k arrain-eskalak dituzte, oro har ongi funtzionatzen dutenak (salmonidoentzat). Zentral hidroelektriko hauei dagozkie: Olaberri/Laborde Z.H.; Bertxin Z.H., Leitzaran/Iberdrola Z.H., Ameraun Z.H.; eta Plazaola 1 Z.H. eta Olloki Z.H. (ez dira erabiltzen).
 - 3 iragazkorrak dira (Galgo Paper, ur-emia neurtzeko estazioa, antzinako Inturia burdinola).
- Horrez gain, KBEaren eremutik kanpo 3 presa txiki daude, Leitzaran ibaiaren ibai-ahora arteko tartean. Inquitex eta Garaiko Errota iragazkorrak dira, duela gutxi ubide bat eraiki zelako alboan. Galgo Paper-ekoa iragazkortasun ertaineko presa txikia da.
- Bestalde, aintzat hartzekoa da oztopotik gorako ibaiaren tartean sortzen den urmaelak ibai-habitata aldatzen duela; batzuetan, gainera, ibaiaren tarte handi bati eragiten dio.

Zentral hidroelektrikoak: presa txiki bat egoteak sortzen duen eragin kaltegarriaz gain, beste arazo batzuk ere eragin ditzakete zentral hidroelektrikoek:

- **Emariaren deribazio-ubideak:** zentral hidroelektrikoek eragiten duten emari-galera presio garrantzitsua da uretako korridorearentzat. Leitzaran ibaiaren Gipuzkoako tartearen % 80an egin dira deribazioak. Horrez gain, kontuan izanik presa txikiak eragindako urmaelen arazoa (% 12), Leitzaran ibaiaren % 92ari eragiten dio guztira erabilera horrek. Horrek asko eraldatzen du ibaiaren erregimen hidrológico eta hidrodinamika eta, hortaz, uretako ingurunea. Leitzaran ibaian erabiltzen diren 5 zentral hidroelektrikoen artean, Leitzaran/Iberdrola Z.H.ak du eragin nabarmenena, haren deribazioak ibaiaren 16 km-ri eragiten baitio. Gainera, 3.000 l/s-ko ekipamendu-emia du. Horrek esan nahi du ibaia denbora luzez geratzen dela ia agorraldi-erregimenean, gutxieneko ingurumen-emia errespetatuta ere (urtetik urterako batez besteko emariaren % 10). Hortaz, erabilera horrek oso eraldaketa garrantzitsua eragiten du ibaiaren erregimen hidrológicoan. Horri Bertxin Z.H.rekin batera sor daitekeen sinergia-efektua erants dakiok. Izan ere, zentral horretan deribatutako tarte bat dator Leitzaran Z.H.aren deribazioaren azken tartearekin.

Bestalde, aintzat hartzekoa da Santolaz Z.H. ere: 4 ur-hartze ditu goi-ibarrean erreka horretan urak isurtzen dituzten erreka-erregimen, eta horrek asko aldatzen du Santolaz erreka-erregimen hidrológicoa.

Gaur egun, uraren erabilerek errespetatu beharreko emari ekologikoa, oro har, ibaiak erregimen naturalean duen urtetik urterako batez besteko emariaren % 10 izaten da; gutxienez, 50 l/s. Edonola ere, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoko Gai Garrantzitsuen Eskeman –une honetan idazten ari diren Arroen Plan Hidrologiko berriaren aurretiko dokumentua da hori–, hau adierazten da: emari ekologikoen erregimenak bide eman behar duela uretako ekosistemen eta haiekin lotutako lehorreko ekosistemen funtzionalitateari eusteko. Gainera, irailaren 10eko ARM/2656/2008 Aginduaren bidez onartutako Plangintza Hidrologikoaren Instrukzio berriaren arabera, Arroen Plan Hidrologikoak ezarriko du emari ekologikoen erregimena. Natura 2000 Sareko eremuetarako eta haien barneko Batasunaren intereseko habitat eta espezieetarako, hau ezartzen da: «*emari ekologikoen erregimenen eragin nabarmena izan badezakete, emari ekologikoen erregimenaren helburua izango da espezie horien funtzionalitate ekologikoari eustea (ugalketarako, kumeak hazteko, elikatzeko eta atseden hartzeko eremuak), bai eta habitatari ere, dagokien araubidean ezarritako eskakizunak eta jarraibideak aintzat hartuta*».

- Beheranzko migraziorako oztopoa: Olaberri/Laborde Z.H.ak izan ezik, gainerako zentral txikiek ez dute inolako gailurik arrainak ubidera sartzea eragozteko. Horren ondorioz, arrainak –batik bat, salmonidoak– ubidera sartu eta bertan harrapatuta geratzen dira. Eta kargatze-ganberan zentral guztiek ez dutenez turbinetara igarotzea eragozteko saretarik –Leitzarano Z.H.ak bezala–, ubidera sartzen diren ia arrain guztiak hiltzen dira.
- Ubide irekiak: deribazio-ubideak irekiak direnean, animaliak haren barrura erori eta ito egiten dira. Ondorio hori oso garrantzitsua da Leitzarano haranean, oso fauna interesgarria duen eremua baita.

Basogintzako erabilera: basogintza-erabilera desegokiak (lurzorua prestatzea, sasiz garbitzea, inaustea, pistak eta suebakiak egitea, egurra pilatzea, etab.) higadura-fenomenoak sor ditzake, bai eta uraren kalitatea hondatu ere, solido esekiak sortzen baititu eta ohantzeko granulometria eraldatzen baitu.

Aireko korridorea:

KBEa zeharkatuko duten linea elektriko berriak eraikitzeko aukerarekin dago lotuta.

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

Gaur egungo jarduerak kontserbazioa dute helburu, Leitzarano ibaia Biotopo Babestua baita; hala izendatu zen irailaren 29ko 416/1995 Dekretuaren bidez. Dekretu horretan arautzen dira bai Biotopoaren barnean bai haren eremu periferiko babestuan baimendutako erabilerak, baimendu daitezkeenak eta debekatuta daudenak.

Horrez gain, erabilerak eta jarduerak baldintza ditzaketen arauak eta planak ere ezartzen dira.

Lehorreko korridorea:

- Uraren arloko legerian –batik bat, Herri Jabari Hidraulikoaren Erregelamenduan, urtarrilaren 11ko 9/2008ko Errege Dekretuan idatzitako modu berrian–, HJHaren eta haren zortasun-zonaren erabilerak arautzen da. Horren helburuak dira herri-jabari hidraulikoaren egoera kontserbatzea, uretako ekosistemen hondatzeari aurrea hartzea, ekosistema horiek hobetzea, eta abar.
- Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Plana (Bizkaiko Golkoko isurialdea). Plan horren arabera, Natura 2000 Sarearen barneko ibaiertzak Natura Intereseko Lehentasunezko Eremuak dira. Eremu horietan, «*babes-irizpide nagusia 'Ibilgua Babesteko Eremu' bat ezartzea da (landa-eremuetako ibaiertzetan, ibilgu publikoaren mugabanaketa-lerroarekiko 50 metroko gutxieneko erretiroa), eta ingurunea eralda dezakeen edozein jarduera debekatzea*». Erretiro horiek errespetatu beharko dira lurzoru naturala eralda dezakeen edozein esku-hartzetan, behar bezala justifikatutako lan publikoetan, instalazioetan edo azpiegituren eraikuntzan izan ezik.

- EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programa (2007-2013). Mendien kudeaketan eta ustiaketan inpaktu txikia eragiten duten teknikak erabiltzea sustatzen du. Bereziki aipagarria da baso-lurzoruen erabilera iraunkorra helburu duten neurrien multzoa. Hauek dira, besteak beste, neurri horietako batzuk: baso autoktonoak kontserbatzeko eta berritzeko jarduerak; baso-berritzeetan espezie jakin batzuk soilik erabiltzea; mendien ustiaketan inpaktu txikia eragiten duten teknikak erabiltzea; eta erriberako landaredia kontserbatzea eta lehengoratzea.
- Leitzarango Basoak 1.031.2 Herri Onurako Mendiaren Baso-kudeaketa Plana. Plan horren helburuetako bat da basogintza-jardueretan aintzat hartzea kontserbazioa eta mantentze-lana, modu integratuan (kontserbazio iraunkorra).

Uretako korridorea:

Aurrez aipatutako xedapenetatik eratortzen diren legezko baldintzatzaileez gain, Plangintza Hidrologikoaren Instrukzio berria aipatu behar da, irailaren 10eko ARM/2656/2008 Aginduaren bidez onartua. Aurrerantzean plan hidrologikoetan aintzat hartu beharreko alderdi batzuk jasotzen ditu; besteak beste, ur-emakidetan emari ekologikoak ezartzeari buruzkoak. Agindu horretan, Natura 2000 Sarea aipatzean, hau adierazten da: *«eremu horietan emari ekologikoen erregimenek ondorio nabarmenak eragiten badituzte, erregimenak egokitu egingo dira, habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera onari eusteko edo haiek lehenera ekartzeko; eta, horretarako, haien eskakizun ekologikoak bete behar dira eta haietan eragina duten funtzio ekologikoei epe luzera eutsi behar zaie»*.

Uretako korridorea lehengoratzeko neurriak ezartzeko baldintzatzaile nagusietako bat indarrean dauden uraren erabilerari eta aprobetxamenduari buruzko administrazio-emakidak dira; emakida-aldi luzekoak dira eta, kasuren batean (emari ekologikoak), ezarritako baldintzak ez dira nahikoak KBEan funtsezkotzat hartutako espezieak egoera onean kontserbatzea bermatzeko.

KBEan egun gauzatzen ari diren jardueren artean, hauek aipatu behar dira:

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak azaleko uren kalitatea kontrolatzeko bi sare ditu: SAICA sarea (Uraren kalitateari buruzko informazio-sistema automatikoa) eta CEMAS sarea (azaleko ur-masen egoera kontrolatzeko sarea). Oria ibaian, Andoainen, SAICA sareko kontrol-estazio bat dago.
- Eusko Jaurlaritzak, Uraren Euskal Agentziaren (Uragentzia) bidez, EAEko azaleko ur-masen egoera ekologikoa kontrolatzen du, bi kontrol-sareren bitartez: Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiaren egoera biologikoaren jarraipenerako sarea eta Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiaren egoera kimikoaren jarraipenerako sarea. Horrez gain, arrainen laginketak egiten dira. KBE honen barnean, Leitzaran ibaiaren beheko tartean dago laginketa-gune bat.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak ere badu ibaietako uren kalitatearen jarraipena egiteko sare bat. Leitzaranen ibai-ahon dago kontrol-gune bat. Gune hori hirigunean dago, eta Leitzaran ibaiaren behealdean dauden industrietan eragina dute tarte horretan. Tarte hori KBetik kanpo dago, baina haren behealdeko mugatik gertu.
- Gipuzkoako ibaietan egindako arrainei buruzko azterketak (GFA). Foru Aldundiak aldi behin laginketak egiten ditu, Gipuzkoako ibai nagusietako arrain-populazioen egoeraren berri jakiteko (batez ere, salmonidoen populazioena), zer joera izan dezaketen aurreikusteko, eta egoera hobetzeko kudeaketa-neurriak abian jartzeko. Leitzaran ibaian ere badira kontrol-guneak. Horrez gain, Gipuzkoako ibaietan aingira-populazioen jarraipena egiten du, EAEn Aingira Berreskuratzeko Kudeaketa Planari jarraituz. Alde horretatik, ahalegin handia egiten ari dira Oria ibaiaren arroan, espezie horrentzat egokitzat jotzen baita, eta jarraipen horrek barnean hartzen du Leitzaran ibaia/Río Leitzaran KBEa.

<ul style="list-style-type: none"> - Oria ibaiaren arroan izokina berriro sartzeko plana (GFA). Foru Aldundiak zenbait jarduera egin ditu azken urteetan, Oria ibaian izokin arrunta (<i>Salmo salar</i>) berriro sartzeko. Jarduera horiek egin ostean, berriro sartutako izokin gazteak nahiz sartutako heldu ugaltzaileen ondorengoak diren izokin gazte naturalak hauteman dira Leitzarari ibaian. - Oztopoak iragazkortzeko programa (GFA - KKH). Leitzarari ibaia/Río Leitzarari KBEko programan 4 presa txikitari esku hartzea ezarri zen, lehentasunezko zatitzaileak jartzen baitzen (egiteko epea: 2008tik 2011ra) Leitzarango korridorea eta Oriaren ardatza goi-ibarreraino zabaltzeko. Horrek aukera emango luke arroa horretako espezie migratzaile garrantzitsuen populazioak lehengoratzeko. Helburu horretarako, jada egin dira esku-hartzeak 4 presa txiki horietako 3tan. Bi oztopo eraitsi dira (ibai-ahoko presa txikia eta Otita/Lizarkolako presa), alboko ubide bat eraiki da (Garaiko Errota), eta Inquitexeko presa txikia ere iragazkortu da. Inturia presari esku hartzea falta da. - Arrainak igartzeko gailuen eraginkortasunaren jarraipena (GFA). Oztopoak iragazkortzeko planak barnean hartzen du ezarritako iragazkortze-gailuen eraginkortasunaren kontrola eta jarraipena. Leitzarari ibaian alboko ubidearen eraginkortasunaren jarraipena egin da, bai eta ur-emia neurtzeko estazioaren iragazkortasunarena ere. Bietan, emaitzak onak izan dira. 	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Leitzarari ibaia/Río Leitzarari KBEaren barnean Leitzarari ibaiko eta haren ibaiadarretako ibai-korridorea kontserbatzea eta lehengoratzzea
1. helburu operatiboa	Ibaiaren bi ertzetan gutxieneko zabalera bat duen erriberako landaredi naturalaren banda bat kontserbatzea eta lehengoratzzea
Jarduerak	<p>KBE honetan bereziki, oso garrantzitsua da basogintza-erabilerarekin lotutako jarraibideak eta arauak zuzen betetzea; zehazki, <i>Jarraibideak, araubideak eta baterako jarduerak</i> dokumentuan aipatzen direnak, eta aplikagarriak direnak ibaiaren eta estuarioen KBE guztietan. Zehazki, aplikagarria da 3.A.2. araudia, baso-ustiaketetan herri-jabari hidraulikoa eta haren zortasun-zona babestua errespetatzeari buruzkoa.</p> <p>Aplikagarria da, halaber, 1.JAR.1 jarduera: erriberako landaredi naturala lehengoratzzea eta hobetzea, tokiko landaredi potentzialari dagozkion espezieak erabiliz; lurzoru publikoak (Herri Basoak eta Herri Onurako Mendiak) zeharkatzen dituzten KBEko ur-lasterretan, 10 metroko zabalera banda batean gutxienez; eta KBEa zeharkatzen duten gainerako ur-lasterretan, 5 metroko gutxienez. Jarduera horrek barnean hartzen du Herri Onurako Mendietako ibaiertzetan birlandaketak egitea, 5,71 ha-ko azaleran, bai eta ibai-korridorearen lotura ekologikoa eteten duten erabilerak dauden lekuetan ere, 1,5 ha-tan (ikus Jardueren Mapa). Aplikagarriak dira bi jarduera hauek ere: 1.JAR.3, herri-jabari hidraulikoa zehaztea eta <i>ibai-lurraldea</i> mugatzea; eta 1.JAR.21, ibai-korridorearen kontserbazioaren garrantziari buruzkoa.</p> <p>1. JAR.2 jarduera: lursailen jabeekin borondatezko akordioak sustatzea, erriberako landaredi naturalaren egitura eta osaera hobetzeko, 10 m-ko zabalera, proposatutako tartetan (ikus Jardueren Mapa). Helburua da jabetza pribatuko ibaiertzeko azaleraren 1,7 ha-tan jardutea.</p>
2. helburu operatiboa	KBEan uraren kalitateari eustea, edota hobetzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira jarduera hauek: 1.JAR.5 (8 kontrol-gune berri) eta 1.JAR.6 , KBEan azaleko uren egoera ekologikoa kontrolatzea.

3. helburu operatiboa	Ur-korridoreko oztopoak kentzea
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 5.J.2 jarraibidea, lotuta dagoena KBEaren barnean erabiltzen ez diren emakidekin (Erreka amuarrain-haztegia, Olloki eta Inturia presa) edota KBEtik kanpo egon arren bertan ondorio garrantzitsuak izan ditzaketenekin (Galgo Paper).</p> <p>JP1.- Erabiltzen ez diren KBEko emakidekin (Erreka amuarrain-haztegia, Olloki eta Inturia presa) edota ingurukoekin (Galgo Paper) zerikusia duten oztopoak iragazkortzeko edota eraisteko proiektuak idatzi eta gauzatuko dira. Lehentasunezko helburua da Inturia presan egin beharreko esku hartzea; hura eraisteko proiektua idatzita dago. Oso garrantzitsua izango litzateke hori egitea. Presa txikiak/oztopoak erabat edo partzialki botatzeko proiektu guztiek barnean hartu behar dituzte urloetako edo urmaeletako erriberen morfologia hobetzeko jarduerak.</p> <p>Aplikagarriak dira beste hauek ere: 5.J.5 jarraibidea (erabilitako uren bolumena kontrolatzeko sistemak egoera onean edukitzea, bai eta emakidarekin lotutako instalazioak ere, hala nola eskailerak eta saretak); 1.JAR.7 jarduera (aingira igartzeko berariazko igarobideak jartzea) eta 1.JAR.8 jarduera (KBEaren barnean oztopoak iragazkortzeko sistemen eraginkortasuna ebaluatzea, batik bat oztopo hauen kasuan: Ameraun Z.H.-ko ur-emia neurtzeko estazioa; eta Olaberri/Laborde, Bertxin, Leizaran/Iberdrola, Ameraun eta Plazaola1 zentral hidroelektrikoetako presa txikietako arrain-eskailerak).</p> <p>JP2. Beheranzko migrazioa bultzatzeko sistema eraginkorrak jartzea, eta arrainak eta beste fauna-espezie batzuk zentral hidroelektriko hauetako deribazio-ubideetan sartzea eragozte: Olaberri/Laborde, Bertxin, Leizaran/Iberdrola, Ameraun eta Plazaola1.</p> <p>JP3. Leizaran ibaian dauden zentral hidroelektrikoetako deribazio-ubideetan animaliak ubidera ez erortzeko neurriak ezarri beharko dituzte; hau da, ubideak erabat estali beharko dituzte, edota behintzat fauna igartzeko egokienak diren tartearak. Horrekin lotuta, animaliak erortzeak eragiten duen inpaktuaren ebaluazioa egin eta idatziko da, eta inpaktu hori eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak proposatuko dira.</p>
4. helburu operatiboa	KBEaren barnean, Leizaran ibaiaren eta haren ibaiadarren emari naturalen erregimena bermatzea
Jarduerak	<p>5.J.5 jarraibidea aplikatzeaz gain (erabilitako uren bolumena kontrolatzeko sistemak ezartzea eta mantentzea, bai eta herri-jabari publikora itzultzen denarena ere), zorrotz aplikatu beharrekoak dira bi araubide hauek ere: 5.A.9 (ur-askatze azkarrak debekatzea) eta 5.A.10 (Ibiur urtegiko zerbitzua abiatzen denean horniketarako ur-hartzeak kentzea).</p> <p>Aplikagarria da 1.JAR.4 jarduera (KBEaren barnean indarrean dauden emakida guztietan aplikatzen den ingurumen-emarien erregimenaren azterketa). Horretarako, berariazko azterketa bat egingo da, KBE honetan funtsezkotzat jotzen diren habitatak eta espezieak egoera onean kontserbatu daitezen emari-erregimen egokia zehazteko. Kasu onetan, egokitzen jotzen da ingurumen-emia kalkulatzeko eredu biologikoak erabiltzea. Hala egin ezean, ibaiaren hidrograma naturalari egokitutako emari-erregimen bat aplikatzea proposatzen da (Emari Ekologiko Modularra edo beste batzuk).</p>
5. helburu operatiboa	Basogintzak ibai-habitatean eragin ditzakeen ondorioak eragozte
Jarduerak	<p>Helburu horrekin lotuta, aplikagarriak dira bereziki baso-erabilerari buruzko jarraibideak eta araubideak, dokumentu honetan jasoak: <i>Eskualde biogeografiko Atlantikoko ibai eta estuarioetako Kontserbazio Eremu Bereziatarako kontserbazio-neurriak</i> (I. Kapituluako 5.3 artikulua). Erakunde kudeatzaileak zainduko du jarduerak bateragarriak izatea KBE honetako funtsezko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera onaren iraupenarekin.</p>

6. helburu operatiboa	Aisialdiko jarduerak KBEko floran eta faunan eragin ditzaketen ondorio kaltegarriak eragozte
Jarduerak	Aplikagarriak dira erabilera publikoarekin lotutako jarraibideak eta araudiak, <i>Jarraibideak, araudiak eta baterako jarduerak</i> dokumentuan aipatzen direnak, eta aplikagarriak direnak ibaien eta estuarioen KBE guztietan. Erakunde kudeatzaileak zainduko du jarduerak bateragarriak izatea KBE honetako funtsezko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera onaren iraupenarekin.

HALTZADIAK ETA LIZARDIAK (EBko 91E0* kodea)**Justifikazioa**

Alnus glutinosa eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubiala Batasunaren intereseko lehentasunezko habitata da, eta hala dago jasota Habitategi buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean (abenduarien 13ko 42/2007 Legearen I. eranskina). Hori da Leitzaran ibaiko erriberako habitat bereizgarria, eta haren kontserbazio-egoera bikaina da; hain zuzen, Gipuzkoako haltzadi oligotrofoaren adibide bikainena da. Habitat horrek, gainera, funtzio garrantzitsuak ditu ibai-ekosisteman:

- Habitat horietan, arriskupean dauden eta Batasunaren interesekoak diren uretako eta erdi-uretako espezieak daude. Bereziki aipagarriak dira *Mustela lutreola* (bisoi europarra) eta *Galemys pirenaiscus* (desman edo muturluze piriniotarra); bi espezie horiek galtzeko arriskuan daude EAEn.
- Habitat horiek babesteko eta elikatzeko lekuak dira intereseko beste fauna-espezie batzuentzat; adibidez: lolina, izokina, amuarraina, aingira, eta Batasunaren intereseko intsektuak, hala nola *Lucanus cervus* (beste batzuk ere egon daitezke). Gune heze txikien garapena sustatzen dute, espezie asko babesteko eta ugaltzeko balio dutenak.
- EAEn oso gutxi hedatuta dauden beste espezie batzuen habitat bereizgarria da; adibidez, hauena: *Cinclus cinclus* (ur-zozoa) eta *Alcedo atthis* (martin arrantzalea).
- Espezie askoko flora dago bertan, barnean hartuta Batasunaren intereseko taxonak, eta hori oso aberasgarria da leku horretako biodibertsitate espezifikuari begira.

CO₂ xurgatu eta ura iragazten dute, ibilguari itzala ematen diote, eta uholdeen ondorioak arintzeko funtzioa dute; horrela, uraren eta, oro har, ibai-sistemaren kalitatea hobetu egiten da.

Kontserbazio-egoera

Leitzaran ibaia/Río Leitzaran KBEan, erriberako basoa oso kontserbazio-egoera onean dago, eta Gipuzkoako haltzadi oligotrofikorik bikainena dela esan daiteke. Bai luzetarako jarraitutasuna bai ekosistema mugakideekiko alboko lotura ekologikoa oso ona da. Leitzaran ibaian ia ez dago eraldatutako ibaiertzeko tarterik. Jarraitutasunaren etendurak oso urriak dira: belardi txiki batzuk, platano arruntan gune txiki batzuk eta eraikin gutxi batzuk. Ubane errekararen beheko tartean ere badira etendura batzuk, nekazaritza-erabilera dela eta. Honela laburbildu daiteke habitat honen kontserbazio-egoera:

	ONDORIOAK			
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera¹	Ona			

Presioak eta arriskuak

Basogintzako erabilera: basogintza-erabilera desegokia arriskutsua izan daiteke erriberako basoaren kontserbazioari-begira: egurra ateratzeko bide berriak egitea, ibaiertzera iristen diren landaketak egitea, erriberako zuhaitzak botatzea edo haustea, enborrak pilatzea eta arrastatzea, mozketen hondarrak metatzea...

¹ Egoera kaskarra adierazten duten kategorietan, ikur espezifikoa bat (adibidez, gezi bat) erabil daiteke, lehengorazten ari diren populazioak adierazteko.

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak	
<p>Gaur egungo jarduerak kontserbazioa dute helburu, Leitzaran ibaia Biotopo Babestua baita; hala izendatu zen irailaren 29ko 416/1995 Dekretuaren bidez. Dekretu horretan arautzen dira bai Biotopoaren barnean bai haren eremu periferiko babestuan baimendutako erabilerak, baimendu daitezkeenak eta debekatuta daudenak.</p> <p>Beste jardunbide eta baldintzatzaile batzuk bat datoz ibai-korridoreari funtsezko elementu den aldetik dagozkionekin.</p>	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Ibai-habitategi kontserbazio-egoera onean eustea, bai eta ibaiko ingurunearen heterogeneotasunari ere
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoari funtsezko elementua den aldetik dagozkion ibai-korridorea kontserbatzeko eta lehengoratzeko zehaztutako neurriak eta jarraibideak.</p> <p>Aplikagarria da 1.JAR.11 jarduera, haltzadien kontserbazio-egoeraren jarraipenari dagozkiona.</p>
1. helburu operatiboa	Urarekin lotutako intereseko beste habitat batzuk hobeto ezagutzea
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 1.JAR.12 jarduera: urarekin lotutako beste habitat batzuen monitorizazioa egitea; esaterako, hauena: 3150, Laku eutrofiko naturalak, <i>Magnopotamion</i> edo <i>Hydrocharition</i> landarediarekin; 3260, Estaia muinotar eta menditarreko ibaiak, <i>Ranunculion fluitantis</i> eta <i>Callitricho-Batrachion</i> landarediarekin; 6430, Lautada-orletako megaforbio eutrofiko hidrofiloak.</p>
2. helburu operatiboa	KBEaren barneko Batasunaren intereseko beste fauna- eta flora-espezie batzuen kopurua eta banaketa hobeto ezagutzea
Jarduerak	<p>Aplikarria da 1.JAR.13 jarduera, KBEaren barneko Batasunaren interesekoak diren eta ibai-ingurunearekin zerikusia duten ornogabeei buruz gehiago jakiteari buruzkoa. Jarduera horrek barnean hartzen du KBEan arkanbelea (<i>Lucanus cervus</i>) koleopteroa dagoen aztertze berariazko ikerketak egitea.</p>

SOLDANELLA VILLOSA, TRICHOMANES SPECIOSUM ETA ARRISKUPEAN DAUDEN BESTE LANDARE-ESPEZIE BATZUK

Justifikazioa

Soldanella villosa eta *Trichomanes speciosum* espezieak Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean (abenduarien 13ko Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen II. eranskina) jasota daude, eta Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katagoloan «kaltebera» kategorian ageri dira. Espezie horiez gain, badira ibai-habitatarekin lotutako arriskupeko floraren beste taxon batzuk; esate baterako, *Saxifraga clusii*, Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan «kaltebera» gisa katalogatuta dagoena.

Kontserbazio-egoera

Soldanella villosa eta *Trichomanes speciosum* espezieek ezaugarri jakin batzuk dituzten inguruneak behar dituzte; zehazki, ezpondak edo lurzorua gainazaletik beherago dauden erreken ertzak, leku heze eta itzaltsuetan, substratu silizeoen gainean. Horregatik, espezie horien populazioak txikiak dira, eta gune jakin batzuetan soilik daude. Aipatutako beste espezieak ere ezaugarri berezi batzuk dituzten ingurune gutxi batzuetan soilik ageri dira, eta populazioak txikiak dira. Espezie horiek guztiak arriskupean daude, eta beharrezkoa da kontserbazio-neurri zorrotzak hartzea, iraungo dutela ziurtatzeko.

Soldanella villosa Espezie endemikoa da, eremu hauetan banatuta dagoena: Pirinioetako mendebaldeko ertzean (Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroa) eta Kantauriar mendikatearen ekialdeko ertzean (Kantabria eta Bizkaia). Leitzaranean, zenbait errekastotan aurkitu da. Taula honetan, espezie horren kontserbazio-egoera adierazi da (ikusi fitxa eranskinean):

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera	Ona			

Trichomanes speciosum. Iratze edo garo subtropikal honen banaketa eremuak Europako Mendebaldea eta Makaronesia dira. Iberiar penintsulan, Kantauriar itsasertzean eta Algecirasko mendilerroetan dago. Europako adierazlerik onenak Nafarroako eta EAEko isurialde atlantikoan daude. Gipuzkoan, espezie horren populazioak lurraldearen ekialdeko erdian daude. Jazkibelen populazio-gune garrantzitsu bat dago; gainerako lekuetan, populazioak isolatuagoak dira, eta elkarrengandik nahiko urrun daude. Leitzaranean ere aurkitu da espezie hori, gune batean.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera	Ona			

Presioak eta arriskuak

Bi espezie horien kasuan, arriskuak lotuta daude habitataren eraldaketarekin; batik bat, baso-ustiaketa intentsiboko jarduerak eraginda (pistak eta egurra ateratzeko bideak egitea, erriberako zuhaitzak moztea eta haustea, enborrak arrastatzea, baso-mozketen hondakinak errekaetara hondoan metatzea...).

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak	
<ul style="list-style-type: none"> - EAEn badira arriskupean dauden landare-espezieen inbentarioak eta kartografia bat, eta haietan zehazten da espezie horien kokapena. - Espezie horiek legeko babes-<i>status</i> bat dute, Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan eta beste katalogo edo zerrenda batzuetan jasota baitaude. 	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	<i>Soldanella villosa</i>, <i>Trichomanes speciosum</i> eta ibai-habitatarekin lotutako arriskupeko beste landare-espezie batzuen populazioen kontserbazioa eta bideragarritasuna bermatzea, Leitzaran ibaia/Río Leitzaran KBEaren barnean
1. helburu operatiboa	KBEaren barnean egon daitezkeen <i>Soldanella villosa</i>, <i>Trichomanes speciosum</i> eta arriskupeko beste landare-espezie batzuen populazioen beste kokapen batzuk aurkitzea eta kartografiatzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.14 jarduera: KBEaren barnean <i>Soldanella villosa</i> eta <i>Trichomanes speciosum</i> espezieen, Habitatai buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean (abendua 13ko 24/2007 legearen II. eranskina) jasotako beste landare-espezie batzuen eta ibai-habitatarekin lotutako arriskupeko beste taxon batzuen beste populazio batzuk ba ote dauden aztertzea eta, hala bada, kartografiatzea.
2. helburu operatiboa	KBEaren barnean <i>Soldanella villosa</i>, <i>Trichomanes speciosum</i> eta arriskupeko beste landare-espezie batzuen kokaguneak babestea
Jarduerak	Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoari funtsezko elementua den aldetik dagozkion jarduerak, neurriak eta jarraibideak; batik bat, bertako habitatak kontserbatzea helburu dutenak. Halaber, aplikagarriak dira 1.JAR.15 jarduera (aldian behin <i>Soldanella villosa</i> , <i>Trichomanes speciosum</i> eta identifikatutako arriskupeko beste landare-espezieen populazioen monitorizazioa egitea), eta 1.JAR.19 jarduera (bi espezie horien kudeaketa-plana idaztea).

UHANDRE PIRINIOTARRA (CALOTRITON ASPER)**Justifikazioa**

Espezie hori Habitategi buruzko Zuzentarauaren IV. eranskinean jasota dago (abenduarien 13ko 42/2007 legearen V. eranskina), eta Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katagoloan «interes berezikoa» gisa katalogatuta dago. Pininioetako espezie endemikoa da. Euskal Autonomia Erkidegoan, Leitzarari haranean soilik aurkitu da; zehazki, ibai horretan urak isurtzen dituen Lordiz errekararen arroan. Leku hori da espezie horren banaketaren mendebaldeko muga.

Kontserbazio-egoera

Uhandre piriniotarra 1989an aurkitu zen lehenengoz Gipuzkoan, Leitzarari ibaian, Lordiz errekararen azpiarroan; 2 banako ikusi ziren. Gerora, beste banako batzuk ere ikusi ziren, baina dirudienez populazioen dentsitatea txikia zen. 2001. urtean espezie hori aurkitzeko berariaz egindako azterketetan, espezie horren larbak soilik aurkitu ziren, Lordiz errekararen goi-ibarrean. 2005ean beste azterketa batzuk egin ziren Leitzarari haranean, Lordiz eta Santolaz erreken eta Altzegei errekararen arroetan. Lordiz errekararen arroan soilik aurkitu ziren, goi-ibarreko 5 errekastotan. Banako gehienak bi errekastotan ikusi ziren; gainerako hiruretan banako bana soilik aurkitu zen. Guztira, 39 banako ikusi ziren; horrek adierazten du populazioen dentsitatea 17,7 banako/km dela. Dentsitate hori txikia da Nafarroakoarekin alderatuz (72 banako/km), bai eta, noski, Pinirioetako ekialdekoarekin alderatuz ere (3.660-5.596 banako/1,5 km). Horren arrazoia izan daiteke *Calotriton asper* espeziearen populazio horiek ingurune azpioptimoetan bizi direla (EKOS ESTUDIOS AMBIENTALES, S.L., 2005: *Censo y caracterización de las poblaciones de tritón pirenaico y sapo de espuelas en la Comunidad Autónoma Vasca*, Eusko Jaurlaritza).

Aintzat hartuta aurrez esandakoa eta espezie horrek KBEaren barnean izan ditzakeen presioak eta arriskuak, haren kontserbazio-egoera desegokia dela esan daiteke:

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Presioak eta arriskuak

- Basogintza-erabilera desegokiak uhandre piriniotarraren habitata eralda dezake. Izan ere, ibaiertzaren egitura eta erriberako landaredia honda ditzake, eta ibilguaren ohandza alda dezake, jalkitako sedimentuak metatzearen ondorioz. Horrez gain, anfibioen bizi-faseetan oso eragin kaltegarria dute beste gertaera hauek: materialak errekaratara arrastatzearen ondorioz urak arretzea; eta isurketa-uren bidez haietara iristen diren landare-osasunerako produktuen ondorioz urak kutsatzea.
- Erreken goi-ibarretan eta erdiko tartetan amuarraina sartzea, uhandre piriniotarraren arrautzak eta banako gazteak jaten dituen harrapari nagusia baita.

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak

- 1981. urtetik dago lege babestuta (Interes Berezikoa Espeziea / Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa).
- Uhandre piriniotarraren populazioen errolda egiteko eta ezaugarriak zehazteko berariazko azterlanak.
- Leitzarango Basoak 1.031.2 Herri Onurako Mendiaren Baso-kudeaketa Plana. Uhandre piriniotarraren banaketa-eremuan edozein jardura egitean, espezie hori aintzatesten du ingurunearen baldintzatzaile gisa.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Leitzaran ibaia/Río Leitzaran KBEaren barnean dauden uhandre pirinotarraren (<i>Calotriton asper</i>) populazio guztien kontserbazioa eta bideragarritasuna bermatzea
1. helburu operatiboa	KBEaren barnean uhandre pirinotarraren populazioen babesaren bermatzea eta hedapena erraztea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoari funtsezko elementua den aldetik dagozkion jarduerak, neurriak eta jarraibideak; batik bat, helburu dutenak bertako habitatak kontserbatzea eta baso-ustiaketa eta KBEko ingurumen-balioak bateragarri egitea.</p> <p>Era berean, aplikagarriak dira 1.JAR.19 jarduera (uhandre pirinotarraren kudeaketa-plana onartzea) eta 1.JAR.16 jarduera: aldizka <i>Calotriton asper</i> uhandre pirinotarraren populazioen monitorizazioa egitea, barnean hartuta kontserbazio-egoeraren diagnostikoa, bilakaera demografikoa eta haren habitatetan eragiten duten perturbazioak.</p>

BISOI EUROPARRA (*MUSTELA LUTREOLA*) eta DESMAN PIRINIOTARRA (*GALEMYS PYRENAICUS*)**Justifikazioa**

Bisoi europarra eta desman edo muturluze piriniotarra Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan (abenduaren 13ko 42/2007 legearen II. eta V. eranskinak) jasota daude, eta Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan «galtzeko arriskuan» kategorian ageri dira. Leitzaran ibaia Interes Bereziko Eremua da bi espezie horientzat.

Bisoi europarra Europako espezie endemikoa da; XIX. mendera arte, Europako eremu handi batean zegoen banatuta. Gaur egun, haren banaketa-eremua asko murriztu da, eta bi gune isolatutan soilik geratu da. Gune bat ekialdean dago, Errusiar Federazioko eskualde eta errepublika batzuetan eta Danubio ibaiaren deltan. Beste populazio-gunea mendebaldean dago. Frantziako hego-mendebaldeko (Akitania, Midi-Pyrénées eta Poitou-Charentes eskualdeak) eta Espainiako iparraldeko (Gaztela eta Leongo, Errioxako, Nafarroako eta Euskadiko autonomia-erkidegoak) ur-laster eta -masa batzuetan bizi da bisoi europarra.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hiru lurralde historikoetan dago: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Azken urteetan (1999-2003) egindako behaketen arabera, ibai hauen arroetan dago espezie hori: Cadagua, Ibaizabal, Nerbioi, Oka, Lea, Artibai, Deba, Urola, Oria, Bidasoa, Ebro, Omecillo, Zadorra, Jugalez eta Ega.


KBE hau Interes Bereziko Eremua da espezie horrentzat, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onartutako espezie hori kudeatzeko planaren arabera.

Desman edo muturluze piriniotarra iberiar endemismoa da: Pirinioetako Frantziako aldeko isurialdetik Portugaleko iparraldeko erdiraino dago banatuta. *Atlas of European Mammals* lanaren arabera, desman piriniotarrak Espainian duen banaketa-eremuak espezie horrek historian zehar munduan izan duen banaketaren % 80 hartzen du, gutxi gora behera. Pirinioetako Frantziako aldean, zenbait ibairen arroetako goi-ibarretan dago banatuta, bai isurialde atlantikoko ibaietan (Urdazuri ibaitik Garonara bitartean), bai isurialde mediterraneokoetan (Audetik Massannera bitartean). Espainiako aldeko isurialdean, Bizkaiko golkoan urak isurtzen dituzten ibai batzuen goi-ibarretan (Bidasoa, Urumea eta Leitzaran) aurkitu da desman piriniotarra, bai eta Ebroren ibaiadarren goi-ibarretan eta Ter ibaiaren goi-arroan ere. (Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurune Ministerioa: *Atlas y Libro Rojo de los Mamíferos Terrestres de España*).

KBE hau Interes Bereziko Eremua da espezie horrentzat, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onartutako espezie hori kudeatzeko planaren arabera.


Kontserbazio-egoera

Bisoi europarra: azken 15 urteetan, gutxitan ikusi izan da bisoi europarra. Gehienetan, Leitzaran ibaiaren arroaren goiko erdian ikusi dira, eta eremu horretan eme heldu egonkorrak daudela jakin da. Nafarroan, behin bakarrik ikusi da (ibilgailu batek harrapatutako animalia bat, 1998an). Nafarroako Gobernuak 1994. urtetik egin dituen azterketa sistematikoetan, ez da lortu bakar bat ere hautematea. Ondoko arroetan (Urumea, Araxes, Bidasoa) atzeraldi nabarmena gertatu dela ikusi da. Hortaz, Gipuzkoako bisoi europarraren populazioa oso ahula da, ez baitu jarraitutasunik inguruko eremuetan (González Esteban, J.).



ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa			X	
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Desman edo muturluze piriniotarra: azken lau urteetan egindako azterketetan, ez da lortu bakar bat ere hautematea. Gipuzkoako tartean desman piriniotarra ikusi zen azken aldia 2001ean izan zen. Lehenago (duela 15-20 urte) Ubaran eta Ormaki erreketan ikusi izanaren aipuak badaude, baina ez da egiaztatu duela gutxi bazenik. Nafarroan, 80 hamarkadako lekukotasunen arabera, goi-ibarreko hiru errekestotan zegoen (Gorritzaran, Erasote eta Astomela); ez dago, ordea, duela gutxiko azterketarik. Espezie hori oso egoera ahulean dago KBE honetan (González - Esteban, J.).



ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa			X	
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak	
<p>- Zentral hidroelektrikoak: KBEaren barnean, zentral elektrikoek Leitzaran ibaiaren % 90ean (25 km) eragiten dute gutxi gorabehera, dela emari-deribazioengatik, dela presek sortzen dituzten urmaelengatik. Galdutako emariak ugariak dira: 2.000 l/s lehen herenean, eta 3.000 l/s beste bi herenetan. Bermatu beharreko gutxieneko emaria urtetik urterako batez besteko emariaren % 10 da gutxi gorabehera; hori dela eta, agorraldia egoera naturalean izango litzatekeena baino askoz luzeagoa da. Ibilguaren egitura, ibaiaren ohantzaren granulometria eta tarte hidrodinamikoaren banaketa oso eraldatuta daude.</p> <p>Egoera horretan, ezinezkoa da arroa osoan bisoi europarrak jaten dituen espezieen multzo handiei iraunaraztea (arrainak, anfiboak, mikrougaztunak, karramarroak).</p> <p>Arazo horrek, hain zuzen ere, desman-populazioak haren banaketa-eremu osoko ibai askotan desagertzea ekar dezake. Zentralak deribazioa izan nahiz presaren behealdean egon, hesi gisa jokatu du eta emariaren erregimen naturala eraldatzen du; hori oztopo gaindiezina da epe luzean desmanarentzat. Erabilera zenbatekoa den, emari ekologikorik baden eta emakiden baldintzak zer neurritan ez diren betetzen, gerta daiteke epe luzean edo ez hain luzean desman-populazioa desagertzea.</p> <p>- Basogintzako erabilera: Leitzaran ibaiaren arroan, baso-ustiatetako jarduera oso handia da, eta epe laburrean hazten diren espezie exotiko asko daude. Erabilera hori dela eta, ibaiertzean landaketak egiten direnean erriberen naturaltasuna galtzen da, higadura areagotzen da eta ibilguaren ohantzaren granulometria eraldatzen duten material finak mugitzen dira. Hori dela eta, desmanaren habitatak kalitatea galtzen du, babesteko eta elikatze aukera gutxiago baitu.</p>	
Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak	
<p>- Leitzaran ibaian urtean behin desman- eta bisoi-populazioen jarraipena egitea (GFA).</p> <p>- Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu hau garatu du duela gutxi: Oizin inguruan Leitzaran ibaiaren eskuineko ertzaren ingurumen-egoera leheneratzeko proiektua. Horren helburua da bisoi europarraren habitata hobetzea.</p>	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Leitzaran ibaia/Río Leitzaran KBEan bisoi europarraren eta desman piriniotarraren populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikienak eginez, espezie horiek behar bezala kontserbatu daitezen
1. helburu operatiboa	KBEaren barnean, espezie horiek jasaten dituzten inpaktuak desagerraraztea
Jarduerak	Aplikagarriak dira uraren erabilerrari buruz proposatutako neurri guztiak, <i>Jarraibideak, araudiak eta baterako jarduerak</i> dokumentuan aipatzen direnak, eta aplikagarriak direnak ibaien eta estuarioren KBE guztietan. Aplikagarriak dira, halaber, ibai-korridoreari funtsezko elementu den aldetik dagozkion neurriak, uretako korridorean oztopoak kentzeari, emari ekologikoak errespetatzeari eta hartutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteari buruzkoak. Hauekin lotutakoak dira bereziki garrantzitsuak: erabiltzen ez diren emakiden iraungitzea (oztopoa kentzea); ur-askatze azkarrak debekatzea; eta Leitzaran, Plazaola-1, Plazaola-2, Ameraun, Santolaz eta Bertxin zentral hidroelektrikoetako ur-emakiden baldintzak berrikustea, bisoi europarraren eta desman piriniotarraren habitatari kontserbazio-egoera onean iraunarazteko behar diren gutxieneko emariei egokitzeko.

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

2. helburu operatiboa	Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, Leitzaran ibaiaren arroan bisoiaren eta desmanaren populazioen aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa.

LOINA (*PARACHONDROSTOMA MIEGII*) ETA ARRAIN-KOMUNITATEA ORO HAR**Justifikazioa**

Leitzarán ibaia/Río Leitzarán KBEan, arrain-espezie hauek daude: loina edo iparraldeko loina txikia (*Parachondrostoma miegii*), Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasoa (abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eranskina); eta Graellsen barboa edo Ebrokoa (*Luciobarbus graellsii*), Habitategi buruzko Zuzentarauaren V. eranskinean jasoa (abenduaren 13ko 42/2007 Legearen VI. eranskina). Espezie horiez gain, badira beste batzuk ere: izokina, *Salmo salar* (Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean eta abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eranskinean jasoa), Gipuzkoako Foru Aldundiak espeziea berriro sartzeko egindako jardueri esker; amuarraina (*Salmo trutta fario*), balio ekologiko handiko espeziea; aingira, *Anguilla anguilla*, «galtzeko arrisku larrian» dagoen espeziea, NKNBren arabera, eta «kaltebera», Ornodunen Liburu Gorriaren arabera (1992an Aingira Berreskuratzeko kudeaketa-plana egin zen EAEn); ezkailua; eta mazkarra. Arrain-komunitatea egoera onean egotea ibaiko ekosistemaren kontserbazio-egoera onaren adierazle da.

Batasunaren intereseko espezieen artean, loina (*Parachondrostoma miegii*) narbarmendu daiteke. Iberiar penintsulako espezie endemikoa da, Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasoa (abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eranskina).

Kontserbazio-egoera

Loinak eta barboak gutxi dira, eta KBEaren amaierako tartean soilik ageri dira. Izan ere, eremu horretako habitata ez da egokia espezie hauentzat, ur bareagoak dituzten tartetan egoten baitira. Izokina ere oso gutxi dago; Oria ibaiaren arroan espezie hori berriro sartzeko planari esker ageri da. Amuarrainari dagokionez, haren populazioak dezente murriztu dira azken urteetan, eta espezie horren populazioen dentsitatea txikia da oro har. Aingira oso urria da KBE honetan, eta beheko tartean ageri da batik bat.

Loinari dagokionez, Leitzarán ibaiak Oria ibaian urak isurtzen dituen lekuan aurkitu da 2000. urteaz geroztik; horrek zerikusia du uraren kalitatea hobetu izanarekin. Nolanahi ere, espezie hori Leitzarán ibaiaren azken 2-3 km-tan soilik dago, oztopoak baitaude azpiarro honen kolonizatorako. Irisgarritasun-mugak izanik ere, espezie horren populazioen joera goranzkoa da. Espezie hori ugaria da Oria ibaian. Taula honetan, espezie horren kontserbazio-egoera adierazi da (ikus fitxa):

	ONDORIOAK			
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Presioak eta arriskuak

- Presatxikiak/oztopoak: ibaiaren luzetarako jarraitutasuna funtsezkoa da arrain-espezieak, migratzaileak direnak zein ez direnak, lekualdatzeko, hori ezinbesteko baitute beren bizi-zikloa osatzeko.

KBE honetan 11 oztopo daude:

- 2 (Truchas Erreka eta Inturia presa) ez dira iragazkorak arrain-faunarentzat, ez baitaukate uretako animaliak igartzeko inolako gailurik.
- 6k arrain-eskailerak dituzte, oro har ongi funtzionatzen dutenak. Zentral hidroelektriko hauei dagozkie: Olaberri/Laborde Z.H.; Bertxin Z.H., Leitzarán/Iberdrola Z.H., Ameraun Z.H.; eta Plazaola 1 Z.H. eta Olloki Z.H. (ez dira erabiltzen).
- 3 iragazkorak dira (Galgo Paper, ur-emia neurtzeko estazioa, antzinako Inturia burdinola).

Horrez gain, KBEaren eremutik kanpo 3 presa txiki daude, Leitzarain ibaiaren ibai-ahora arteko tartean. Inquitex eta Garaiko Errota iragazkorak dira, duela gutxi ubide bat eraiki zelako alboan. Galgo Paper-ekoa iragazkortasun ertaineko presa txikia da.

Bestalde, aintzat hartzekoa da goiko tartean presa txikiek urmaelak sortzen dituztela, eta horrek ibai-habitata eraldatzen duela.

- **Zentral hidroelektrikoak:** presa txiki bat egoteak sortzen duen eragin kaltegarriaz gain, beste arazo batzuk ere eragin ditzakete zentral hidroelektrikoek:
 - **Emariaren deribazio-ubideak:** zentral hidroelektrikoek emari-galera handia eragiten dute, eta hori oso kaltegarria da ibaiko ekosistemarentzat. Leitzarain ibaiaren Gipuzkoako tartean, emariaren % 80an eragiten dute deribazioek. Horrez gain, kontuan izanik presa txikiek eragindako urmaelen arazoa (% 12), Leitzarain ibaiaren % 92ari eragiten dio guztira erabilera horrek. Horrek asko eraldatzen du ibaiaren erregimen hidrológicoa eta hidrodinamika eta, hortaz, uretako ingurunea. Leitzarain ibaian oraindik ere erabiltzen diren 5 zentral hidroelektrikoen artean, bereziki aipagarria da Leitzarain/Iberdrola Z.H.a, ibaiaren ia 16 km-ri eragiten baitiote haren deribazioek. Gainera, 3.000 l/s-ko ekipamendu-emaria du. Horrek esan nahi du ibaia denbora luzez geratzen dela ia agorraldi-erregimenean, gutxienez ingurumen-emaria errespetatuta ere (urteko urterako batez besteko emariaren % 10). Hortaz, erabilera horrek oso eraldaketa garrantzitsua eragiten du ibaiaren erregimen hidrológicoan. Horri Bertxin Z.H.rekin batera sor daitekeen sinergia-efektua erants dakiok. Izan ere, zentral horretan deribatutako tartea bat dator Leitzarain Z.H.aren deribazioaren azken tartearekin.
 - Bestalde, aintzat hartzekoa da Santolaz Z.H. ere: 4 ur-hartze ditu goi-ibarrean Santolaz errekan urak isurtzen dituzten erreka-estuetan. Kasu horretan, presa txikien iragazkortasunak ez du eragin handirik arrain-espezieetan, goi-ibarreko erreka-estuetan baitira. Nolanahi ere, erabilera horrek asko eraldatzen du Santolaz erreka-estuetan erregimen hidrológicoa.
 - **Beheranzko migrazio-erregimena:** Olaberri/Laborde Z.H.ak izan ezik, gainerako zentral txikiek ez dute inolako gailurik arrainak ubidera sartzeko eragozteko. Horren ondorioz, arrainak –batik bat, salmonidoak– ubidera sartu eta bertan harrapatuta geratzen dira. Eta kargatze-ganberan zentral guztiek ez dutenez turbinetara igarotzea eragozteko saretarik –Leitzarain Z.H.ak bezala–, ubidera sartzeko diren ia arrain guztiak hiltzen dira.

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak

Ibaiko korridore ekologikoari funtsezko elementu den aldetik dagozkion berberak.

- Azleko uren kalitatea kontrolatzeko sareak (Kantauriko Konfederazio Hidraulikoa, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia).
- Gipuzkoako ibaietako arrain-espezieei buruzko azterketak (GFA), aingira-populazioen berriazko jarraipena (GFA).
- Oria ibaiaren arroan izokina berriro sartzeko plana (GFA).
- Oztupoak iragazkortzeko programa (GFA – KKH).
- Arrainak igarotzeko gailuen eraginkortasunaren jarraipena (GFA).

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	KBEan arrain-populazio autoktonoak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartze txikienak eginez, espezie horiek behar bezala kontserbatu daitezen
1. helburu operatiboa	KBEan arrain-komunitatearen populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 1.JAR.5 eta 1.JAR.6 jarduerak, KBEan uraren kalitatearen eta arrain-populazioen bilakaeraren jarraipena egiteari buruzkoak.

	<p>JP4.-. Izokina eremu horretan berriro sartzeko programari jarraipena ematea, ohiko neurriak hartuz eta laginketak eginez: helduen populazioaren kontrola, erruteko lekuen kontrola, ugalketaren arrakasta, populazio gazteen zehaztapena, ugalketa artifiziala eta birpopulazioa - markatzea.</p> <p>JP5.-. Aingira-populazioen jarraipenerako programarekin jarraitzea, eta EAEn Aingira Berreskuratzeko kudeaketa-plana betetzea.</p>
2. helburu operatiboa	KBEaren barnean, arrain-espezieek jasaten dituzten inpaktuak desagerraraztea
Jarduerak	Aplikagarriak dira, halaber, ibai-korridoreari funtsezko elementu den aldetik dagozkion neurriak, jarraibideak eta arauak, oztopoak kentzeari, emari ekologikoak errespetatzeari eta hartutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteari buruzkoak.


IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA: *CINCLUS CINCLUS* (UR-ZOZOA) ETA *ALCEDO ATTHIS* (MARTIN ARRANTZALEA)
Justifikazioa

Bi espezie bereizgarri dira, eta arroaren eta ibaiertzen kontserbazio-egoera bikaina adierazten dute. Biak daude KBE honetan. Martin arrantzalea, Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean jasota dago. Bi espezie horiek «interes bereziko» gisa daude katalogatuta, Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan.

Kontserbazio-egoera
***Cinclus cinclus* (ur-zozoa)**

EAEEn, banaketa handia du hiru lurralde historikoetako ur-ibilguetan; autonomia-erkidegoko mendigunee-tako ibai-ibilgueziko lehentasuna agertu arren, itsasertzeko eremuetan ere agertzen da.

Leitzaran ibaian, banaketa uniformea du ibaiaren ibilbide guztian. Egindako kalkuluen arabera, espezie horren dentsitatea 4,2 ex heldu/km da; hortaz, gutxieneko dentsitatea 1-2 bikote/km izango litzateke.




Ur-zozoaren banaketa EAEEn

Leitzararen, espezie horren habitata egoera onean dago, eta populazioaren joera ziur asko egonkorra dela uste da.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera²	Ona			

Alcedo atthis (martin arrantzalea)

Hiru lurralde historikoetan dago. Gaur egun, ez dakigu zenbatekoa den populazio ugaltzailea, ez EAEn ez KBEan. Kalkuluen arabera, populazioaren dentsitatea 0,3 ex heldu/km da. Gutxienekoa 1 bikote izango litzateke, Leitzaranoan. Kontuan hartuta urteko hegazti gazteak, dentsitatea handiagoa da: 1,7 hegazti/km. Datu horretan, ordea, tokikoak ez diren banakoak ere hartu dira kontuan.



Martin arrantzalearen banaketa EAEn. 2000-2007 aldian
Iturria: Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioa, 2007

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

² Egoera kaskarra adierazten duten kategorietan, ikur espezifiko bat (adibidez, gezi bat) erabil daiteke, lehengoratzten ari diren populazioak adierazteko.

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)	
Presio nagusiek zerikusia dute uraren kalitatearekin (701); habitataren eraldaketarekin: kanalizazioak (830), funtzionamendu hidrologikoaren eraldaketa (830, 890) eta ibaiertzetako baso-soiltzea (160); habien suntsiketarekin; eta presa eta egituren berrikuntzarekin (zubiak eta beste batzuk). Horrez gain, aintzat hartu beharrekoak dira espeziearen eskakizunak (ur-zozoarenak).	
Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak	
Ibai-korridore ekologikoari dagozkion berberak.	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	KBEaren barnean ur-zozoaren eta martin arrantzalearen populazioak egon daitezzen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna
1. helburu operatiboa	KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira honako araudi hauek: 7.A.1, 7.A.5 (kontuan hartu behar dira espezie horiek zer eskakizun dituzten zubiak, errotak eta abar diseinatzean edo zaharbertitzean) eta 7.A.6 (ibaiaren inguruetan lanak egiteko data). 1.JAR.20 jarduera ere aplikagarria da (espezie horien habitata hobetzeko proiektua egitea).
2. helburu operatiboa	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 1.JAR.16 (populazioen aldizkako jarraipena) eta 1.JAR.19 (martin arrantzalea kudeatzeko plana) jarduerak.

JARRAIPEN-PROGRAMA

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA	Leitzaran ibaia/Rio Leitzaran KBEaren ibai-korridore ekologikoa kontserbatzea eta lehengoratztea	Ibaia bi ertzetan gutxieneko zabalera bat duen erriberako landaredi naturalaren banda bat kontserbatzea eta lehengoratztea, bertako intereseko fauna-espezieentzat (biso europarra, ibaietako hegazti-fauna...) habitat egokia izango dena	Lehengoratuako erriberako landaredi naturalaren azalera (ha)	0	7,2 ha beteta
		KBEaren barnean, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	Herri-jabari hidraulikoa zehaztea eta <i>ibai-lurraldea</i> mugatzea	Ez da egin	Egin da
	Uretako korridorean oztopoak kentzea, eta faunaren joan-etorriak erraztea ibilguan zehar	Urearen barnean, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	Ur-masaren egoera ekologikoa	Egoera ekologiko ona	Egoera ekologiko Ona edo Oso Ona lortzea edota hari eustea
			KBEan dauden oztopoak iragazkor bihurtzea	4	4 oztopo nagusi iragazkor bihurtzea
	Uretako korridorean oztopoak kentzea, eta faunaren joan-etorriak erraztea ibilguan zehar	Urearen barnean, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	KBEko arrain-eskaileren eta fauna igarotzeko gainerako gailuen eraginkortasuna ebaluatzea	Ez dakigu	Badakigu
			KBEan dauden oztopo guztiak iragazkor bihurtzea eta aingira igarotzeko pasabide espezifikoak egitea	7	7 oztopo nagusi iragazkor bihurtzea
	Uretako korridorean oztopoak kentzea, eta faunaren joan-etorriak erraztea ibilguan zehar	Urearen barnean, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	Beharrezko migrazioa errazteko sistema eraginkorrak jartzea, eta arrainak eta beste fauna-espezie batzuk zentral hidroelektrikoetako deribazio-ubideetan sartzea eragozteko.	5	5 sistema ezarri dira
			Arrain-eskailerak eta jarritako gailuak (saretak, adibidez) garbitzea eta horien mantentze-lanak egitea, une oro halen funtzionaltasuna bermatzeko.	Ez da egin	Egin da
	KBEko ibaietan emari naturalen erregimena bermatzea	KBEko ibaietan emari naturalen erregimena bermatzea	Ingurumen-baldintzak betetzen dituen emari-erregimen bat ezartzea, KBEaren kudeaketan funtsezkotzat jotzen diren elementuak kontserbatzeko	Ez da ezarri, kasu guztietan	Ezarri da
			Herri-jabari hidraulikoko ur-aprobetxamenduek erabiltzen dituzten ur-bolumenen kontrol eraginkorra egiteko sistemak ezartzea eta horiei eustea, maiatzaren 20ko ARM/1312/2009 Aginduarekin bat.	0	Emakidaren mende dauden KBEko ur-aprobetxamendu guztietan ezarri dira sistemak
	KBEan dauden linea elektrikoekin talka egitearen edota elektrokutitzearen ondorioz hegazti-faunak kalterik izan ez dezan neurriak hartzea	KBEan dauden linea elektrikoekin talka egitearen edota elektrokutitzearen ondorioz hegazti-faunak kalterik izan ez dezan neurriak hartzea	Aireko linea elektriko berriak, hegazti-fauna babesteko neurriekin	0	Aireko linea elektriko berriak, hegazti-fauna babesteko neurriekin

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
HALTZADIAK ETA LIZARDIAK (EBko 9LE0* KODEA)	Ibai-habitaten kontserbazio-egoera babestea eta hobetzea	Ibai-habitatari kontserbazio-egoera onean eustea, bai eta ibai-egoeraren heterogeneotasunari ere	Ibai-habitaten kontserbazio-egoeraren jarraipena	Kontserbazio-egoera ona	Ibai-habitaten kontserbazio-egoera onari eutsi zaio
BISOI EUROPARRA (<i>Mustela lutreola</i>) ETA DESMAN PIRINIOTARRA (<i>Galemys pyrenaeus</i>)	KBEan bisoi europarraren eta desman piriniotarraren populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna, kanpoko esku-hartzerik egin gabe edota ahalik eta esku-hartzerik txikiena egin	KBEan dauden intereseko kopurua eta banaketa hobeto ezagutzeko	KBEko intereseko habitatak eta flora-espezieak, kontserbazio-egoera eta kontserbatzeko neurriak	Ez dakigu	Badakigu. Kontserbazio-egoera ona.
LOINA (<i>Parachondrostoma miegii</i>) ETA ARRAIN-KOMUNITATEA ORO HAR	KBEaren barnean arrain-populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Bi espezie horien banaketa eta populazio-egitura KBEan	Kaskarra	Kontserbazio-egoera ona
IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA	KBEaren barnean ur-zozoaren eta martin arrantzalearen populazioak egon daitezen bermatzea, aintzat hartuta KBEak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna eta eremu horretan espezie horiek duten bideragarritasuna	KBEan espeziearen populazio-dinamika eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea	Populazioei buruzko informazioa izatea: haien kontserbazio-egoera, ugalketan izan duten arrakasta, etab	Badakigu (urtekoa)	Kontserbazio-egoera ona lortzea edo hari eustea
SOLDANELLA VILLOSA, TRICHOMANES SPECIOSUM ETA ARRISKUPEAN DAUDEN BESTE LANDARE-ESPEZIE BATZUK	Arriskupean dauden landare-populazio guztien kontserbazioa eta bideragarritasuna bermatzea	Beste populazio batzuk bilatzea eta aurkituz gero, kartografiatzea	Habitata lehengoratzeko proiektuak egitea eta kontserbazio-egoeraren berri jakitea	Ez dakigu	Proiektuak gauzatu. Badakigu banaketaren berri. Kontserbazio-egoera Ona lortu da edo hari eutsi zaio
UHANDRE PIRINIOTARRA (<i>Calotriton asper</i>)	KBEan dauden uhandre piriniotarraren populazio guztien kontserbazioa eta bideragarritasuna bermatzea	KBEaren barnean uhandre piriniotarraren populazioen babesa bermatzea eta hedapena erraztea	Populazioen kartografia	Badakigu kokaguneen berri	Beste azterketa batzuk egin dira
			Populazioen monitorizazioa	Kontserbazio-egoera ona	Kontserbazio-egoera onari eutsi zaio
			Populazioen monitorizazioa	Kontserbazio-egoera desegokia	Kontserbazio-egoera ona lortzea

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2120013.xml&lang=eu

XII. ERANSKINA

ES2120015 URUMEA IBAIA/RÍO URUMEA KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN
HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK**FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA JARDUERAK**

Hurrengo tauletan, Urumea ibaia/Río Urumea KBEan kudeaketarako funtsezkotzat jotzen diren elementuetariko bakoitzarentz kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA**Justifikazioa**

Urumea ibaia/Río Urumea KBEa bere ibilbide guztian zehar lotura-interes berezia duen ibai-zatia da. Lehentasuneko korridore nagusia da, garrantzi handikoa Urumean dauden arrain-espezie guztientzat, baina, bereziki, espezie migratzaileentzat: izokina, aingira, itsas amuarraina eta kolaka (azken hori noiz-behinkakoa da). Espezie diadromoak dira, ugalketa-arrazoiak direla-eta itsasotik ibai-ibilguetara, eta alderantziz, lekualdatzen direnak; hain zuzen, espeziei horiei eragiten die gehien presen eta presa txikien hesi-efektuak. Espezie horietako bi, kolaka eta izokina, Batasunaren interesekoak dira (Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinak). Ibilguko oztupoek bereziki eragiten diote desman piriniotarrari (Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinak); espezie hori galtzeko arriskuan dago, uretako habitataren zatiketak bereziki eragiten baitio. KBEa interes bereziko eremua da espezie horrentzat.

Halaber, ezin da ahaztu zeinen garrantzitsuak diren ibai-korridoreak ur-ingurumenarekin lotutako zenbait hegazti-espezierentzat; espezie horiek ibaiertzak baliatzen dituzte beren eguneroko edo sasoiko mugimendu erregularretan (martin arrantzalea, ur-zozoa). Era berean, ezin aipatu gabe utzi haran barrenak duen korridore-funtzioa, uretako berezko beste espezie batzuen lekualdatzeetarako (ardeidoak, anaticoak edo zenbait harrapari).

Jarraitutasuna, arroaren batasunarekin eta espazioaren linealtasunarekin (korridorea) loturikoa, ibai-sistemen oinarritzko ezaugarria da. Luzetarako elkarreragin guztien lotura zuzena, egoera ekologiko ona (Uraren Esparru Zuzentaruak) eta izaki bizidunen komunitateen mailaketa egokia bermatzen ditu.

Ibai-korridore jarraituak, ekologia-balioez gain, paisaia-balio nabarmenak ere baditu.

Kontserbazio-egoera**Lehorreko korridorea**

Lehorreko korridorea ibai-ibilguaren luzera guztian dagoen ibaiertzeko landarediaren bandak osatzen du, batez ere. Urumea KBEan, oro har, bi zati bereizi daitezke ibaiertzeko landarediaren jarraitutasunari eta naturaltasunari dagokienez. KBEaren goiko zatian, Epele auzora artekoan, ibaiertzeko landarediak jarraitutasun onargarria du, ezkerreko aldean, bereziki. Jarraitutasun hori zenbait eremutako arboladien errenkada bakarrak eteten edo mugatzen du; eremu horietan, belardi eta laborantza atlantikoek hartu dituzte uholde-lautada txikiak, edo bestela, GI-3410 errepidea ibai-ibilgutik oso gertu igarotzen da. Ibilbidearen zati handi batean, baso-landareen multzoei lotuta dago; multzo horiek hedadura handia hartzen dute, eta askotarikoak dira, bai itxurari dagokionez bai jatorriari dagokionez. Bigarren zatian Epele auzotik KBEaren beheko mugara arteko eremua (Osinaga ingurura artekoa) hartzen du; ingurune horretan, ibaiertzeko landarediarekiko presioa nabarmen handiagoa da, inguruko industriguneen eraginez (batez ere, eskuinaldean). Ez dituzte eten handiak eragiten, baina landarediaren bandaren zabalera gutxienekoa da, garaiera handiko *Platanus hispanica* espeziearen errenkadez osatua, batez ere; gainera, ez dute aukerarik, kanpoalderantz, landare-multzoekin lotura egiteko, eta lehengoratzeko ahalmena mugatua da. Ezkerraldean, jarraitutasuna nahiko ona da, nahiz eta, atlantikoko belardien eta laborantzen eraginez,

altuera handiko *Platanus hispanica* espeziearen errenkada bakarrera mugatzen den ibaiertzeko landare-diaren banda, eskuinaldean bezala; dena den, lehengoratzeko aukerak eta behar besteko azalera ditu. Industriguneetara sartzeko zubiak, bideak eta abar ugariak dira, eta horrek ere korridorea etetea eragiten du gehienetan; korridorearen azken zatian (Osinaga inguruan), Urumea ibaiaren kanalizazioak eragiten dio.

Uretako korridorea

Ur-ingurumenaren loturari dagokionez, oztopo fisikoak (presa txikiak, emari-galerak...) eta ur-ingurumenarekiko mendekotasun gehien duten espezieen lekualdatzeari eragin diezaioketen beste baldintzatzaile batzuk (uraren kalitatea, isuriak...) bereizi behar dira.

KBEan, uraren kalitatea ona da. Egin diren azken kanpainen emaitzek adierazten dutenez, uraren kalitatea oso ona da estazio guztietan, Fagollagan salbu; azken horretan, kalitatea ona da (II. maila). Bestalde, agorraldiari dagokionez, puntuazio altuei eutsi zaie, oro har; hau da, kalitatea oso ona da Pagoagan eta Fagollagan, eta ona, Lastaolan. Ergobian, berriz, jada KBEtik kanpo, uraren kalitatea erdi-mailakoa da.

Bestalde, ibaien lotura eta dinamika aldatu egin dira oztopoak (presa txikiak) eta emari-galerak direla eta; oztopo horiek erabilera hidroelektrikoari lotuta daude, batez ere. Erabilera hori arrisku bat da KBEaren helburuak lortzeko, bereziki eragiten baitie zenbait espezieri (bisoi europarrari eta desman piriniotarrari, adibidez); espezie horiek, hain zuzen, funtsezko helburutzat hartu dira KBE honetan. Azken urteetan, erabilerarik gabeko presa txikiak eraitsi dira, eta arrain-eskailerak eraiki; hala ere, zenbait oztopo daude oraindik, eta beheranzko migrazioaren iragazkortasun-arazoak konpontzeke daude. Gainera, emari-eskasiak gertatzen dira oraindik, zentral hidroelektrikoak direla eta.

Aireko korridorea

KBEa hainbat linea elektrikok gurutzatzen dute, edo eremu horretatik oso gertu edo paralelo igarotzen dira. Gainera, gurutzatze horiek ez daude balizatuta, hegazti-faunak talkarik egin ez dezan. Ez da jaso talkaren ondorioz edo elektrokutatuta hil den hegazti-faunari buruzko daturik.

Presioak eta arriskuak

Lehorreko korridorea:

Beheko taulan, KBEan zehar duen jarraitutasunari dagokionez ibarbasa zer egoeratan dagoen jaso da. Hainbat egoera-mota bereizi dira, ahal izanez gero, lehengora ekartzeko beharrezko diren jardueraneurrien arabera:

- Kanalizazio-hormak, hormigoizko harri-lubetak, eta eraikuntzak herri-jabari hidraulikoan. Horrelakoetan, ia ez da lehengoratzeko aukerarik izaten.
- Belardiak, laborantzak. Beste erabilera batzuk. Ibarbasoak lehengoratu daitezke, jarduera-neurri egokiak jarrita.

Hainbat eten-motaren luzera adierazi da, ibaiaren ertz bakoitzerako, bai eta KBEaren luzera osoaren zer ehuneko duen ere.

Ibarbasoaren luzetarako jarraitutasuna Urumea ibaia KBEan. Eskuineko ertza		
Eten-mota	Luzera (m)	%
Horma / Hormigoizko harri-lubeta / Eraikuntzak herri-jabari hidraulikoan	2.456,60	22,33
Belardiak eta laborantzak. Beste erabilera batzuk	503,07	4,57
KBEaren luzera osoa	11.000	100
Etenak guztira	2.959,67	26,91

Ibarbasoaren luzetarako jarraitutasuna Urumea ibaia KBEan. Ezkerreko ertza		
Eten-mota	Luzera (m)	%
Horma / Hormigoizko harri-lubeta / Eraikuntzak herri-jabari hidraulikoan	327,23	2,97
Belardiak eta laborantzak. Beste erabilera batzuk	542,71	4,94
KBEaren luzera osoa	11.000	100
Etenak guztira	869,94	7,91

Belardiak salbu (nahiko modu erregularrean banatzen dira KBEan zehar), herri-jabari hidraulikoko ia horma eta eraikuntza guztiak Osinaga eta Epele auzoen artean daude, ibaiaren eskuinaldean dauden industriguneak direla eta; beraz, KBEak ertz horretan duen luzera osoaren % 20 hartzen dute. Ibaiertzaren okupazio-mota hori etentzat hartu den arren, oro har lehen landaredi-lerroaren edo -bandaren atzean egon ohi da; ibaiaren beheko zatian, eragin handiena duen eremuan, neurri handiko *Platanus hispanica* espezieari dagokio lehen lerro hori.

Eskuinaldean, belardi eta laborantzei nahiz gainerakoei dagozkien etenak antzekoak dira; hala ere, Epele auzora arteko ibaiaren beheko zatian, neurri handiko *Platanus hispanica* espeziearen lerroak dira nagusi, eta goiko zatian, belardiak eta laborantzak.

Lehorreko korridorearen jarraitutasunean gertatzen diren beste presio batzuk hainbat azpiegituraren ondorio dira; besteak beste, azpiegitura hauen ondorio:

- GI-3410 errepidea, KBEaren ibilbide guztian korridoretik gertu eta paralelo igarotzen dena.
- Aurrez zeuden kanalizazioak: ibaiaren beheko zatian eragiten dute, Epele auzotik behera.

Hernanin, Urumearen ibarrean gertatzen diren uholdeetatik babesteko jarduera berriak aurreikusi dira, «Urumea ibaiko bokalaren eta Altzuetaren (Hernani) arteko ubidea antolatzeke azterlan hidraulikoa» oinarri hartuta. Horrez gain, hartutako konponbidearen arabera, jarduera horiek Urumearen korridore ekologikoaren funtzionaltasuna lehengora ekartzeko aukera bat izan daitezke, batzuetan.

- Ia erabat herri-jabari hidraulikoaren jabetzan dauden edo zortasun-zona hartzen duten eraikinak.
- Erabilera-zortasuna duten eta galeria-basoaren jarraitutasuna baldintza dezaketean azpiegituren gurutzatzeak (abiadura handiko trenak Ibarluze industrigunearen parean ibaia zeharkatuko duela aurreikusi da, Zikuñaga auzoan; Bergara-Irun gas-hodia, jada eraikita dagoena; linea elektrikoak...).
- Zenbait zentral hidroelektrikoren deribazio-ubideak, ibilgu naturalaren paralelo eta hari atxikita igarotzen direnak.
- Ereñotzu-Fagollaga oinezkoentzako pasabidearen egokitzapen-lanak.

Uretako korridorea:

Uraren kalitatea: KBEan, uraren kalitatearen arazoak ez dirudi baldintzatzaile negatibo garrantzitsua denik. Izan ere, konpontzeko fasean dago Ereñotzu auzoko landa-guneetako (400 bat biztanle, hasiera batean) eta Epele-Fagollaga guneko (150 biztanle) saneamendu-arazoa; hain zuzen, gunek ziren saneamendu-arazoa konpontzeko zuten bakarrak. Dena den, aldian behin isurketak gertatzeko arriskuak bere horretan dirau, batez ere Epele auzotik beherako zatian, industria-jarduera handia baitago bertan (papergintzako eta metalurgia-industriako enpresa garrantzitsuak, bereziki). Ez da hauteman uraren tenperaturarekin lotutako arazo berezirik, baldintzatzaile negatibo garrantzitsua adierazten duenik.

Presatxikiak/oztopoak: KBEaren iragazkortasun ekologikorako baldintzatzaile negatibo nagusiak dira, eremu horretan funtsezko elementutzat proposatu diren espezieei bereziki eragiten baitie. Arazo nagusiak emari-galeraren ondorioz sortutakoak dira, bai eta funtsean erabilera hidroelektrikoei lotutako presatxikiak eta deribazioak egotearen ondorioz sortutakoak ere.

Azken urteetan, irisgarritasuna hobetzeko jarduerak egin dira (presatxikiak eraitsi, arrain-eskailerak eraiki); hala ere, oztopo handiak egoten jarraitzen dute, eta oraindik konpontzeko daude beheranzko migrazio-arazoak. Gainera, emari-eskasiak gertatzen dira oraindik, zentral hidroelektrikoak direla eta.

Zalantza eraginkortasuna dute Lastaolako, Fagollagako, Pikoagako eta Santiagoko zentraletan dauden arrain-eskailerek. Horiek guztiak (bereziki, lehenengo biak) migratzaile handientzat garrantzi handieneko ardatzean daude.

Beheranzko migrazioari dagokionez, KBEan dauden zenbait zentral hidroelektrikotan ez dago arrainak ubidean ez sartzeko gailurik; beraz, baldintzatzaile negatibo hori konpontzeke dago.

Uretako korridorearen jarraitutasunean izaten diren beste eraginetako batzuk oztopoetatik gorako zatian sortzen diren ur-pilaketak dira, ibaietako habitatak aldatzen dituztenak.

Emari-galera beste baldintzatzaile garrantzitsu bat da ur-ingurumenaren loturarako. Urtean, 580,28 Hm³-ko bolumena baliatzen da turbina mugiarazteko Urumearen arroan, batez beste, eta aldiz, arroaren urteko batez besteko emaria 383,50 Hm³-koa; hau da, turbina mugiarazteko baliatzen den uraren bolumena handiagoa da emaria bera baino, serieko zentral hidroelektrikoak baitaude, ibaiaren goiko zatian dagoen beste zentral txiki batean turbinatik pasatutako emaria hartzen dutenak.

KBEan identifikatu diren zentral hidroelektrikoetatik lauk zehaztuta dute gutxieneko emaria emakidaren baldintzan, eta beste bik ez dute gutxieneko emakidarik zehaztuta, eskura ditugun datuen arabera.

Emari-galeraren ondorioei dagokienez, ezin da aipatu gabe utzi, Urumeako unitate hidrologikoan, uraren erabilera nagusietako bat Donostialdearen ur-horniketa dela (Añarbeko sistema). Urumeako unitate hidrologikoan, 36.85 Hm³/urte erabilera horretarako erabiltzen da, batez beste; kantitate hori unitate hidrologiko horretako urteko batez besteko emariaren % 9,60 da.

Eusko Jaurlaritzak Urumeako ur-masan izaten diren presioen eta inpaktuen azterketa egin zuen 2005. urtean; azterketa horren arabera, ibai horretan eragindako presio garrantzitsuenak faktore hauen ondorioz gertatzen dira: erregimen hidrologikoaren araudia, presa txikiak egotea eta kontsumokoak ez diren uraren beste erabilerek eragiten duten presioa. Adierazitako presioak aztertuz, Urumea ibaiak jasaten duen presio orokorra altua dela esan daiteke.

Aireko korridorea:

KBEa zeharkatuko duten linea elektriko berriak eraikitzeke aukerarekin daude lotuta.

Gaur egungo jarduerak eta legeko baldintzatzaileak

Lehorreko korridorea:

Legezko baldintzatzaile positibotzat hauek aipa daitezke:

- Urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretua, Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Erregelamendua (HJHE) aldatzen duena: herri-jabari hidraulikoaren eta haren zortasun-zonaren erabilera arautzen du. Horren helburuak dira *herri-jabari hidraulikoaren egoera kontserbatzea, uretako ekosistemen hondatzeari aurrea hartzea, ekosistema horiek hobetzea, eta abar.*

Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Plana (Bizkaiko Golkoko isurialdea). Besteak beste Natura 2000 Sarekoak diren eremuetan, «babes-irizpide nagusia 'Ibilgua Babesteko Eremu' bat ezartzea da (landa-eremuetako ibaiertzetan, ibilgu publikoaren mugabanaketa-lerroarekiko 5 metroko gutxieneko erretiroa), eta ingurunea eralda dezakeen edozein jarduera debekatzea». Legezko baldintzatzaile positibo bat aztertu behar da, abiapuntu garrantzitsua baita Natura 2000 Sareko ibaien eta erreken ertzetan baimenduta edo debekatuta dauden erabilerak eta jarduerak definitzeko.

- EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programa (2007-2013). Aintzat hartzen ditu zenbait nekazaritza- eta ingurumen-neurri, biodibertsitateari eta nekazaritza-paisaiari eusteko; horretarako, erriberako heskaiak eta landaredia kontserbatzeko dira lursailetik pasatzen diren ibai-ibilguen inguruan. Lehentasunezko jarduera da Natura 2000 Sarean sartuta dauden zonatarako eremuetarako. Era berean, baso-lurren erabilera iraunkorra lortzea xede duten neurrien artean, erriberako landaredia kontserbatzeke eta lehengoratzekeri buruzkoak nabarmendu dira.

- Gauzatu daitezkeen jarduerak planteatzean, beste baldintzatzaile garrantzitsua da lursailen jabetza; gehienetan pribatua da. Jabetzak erriberako korridorea kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurrien aplikazioa baldintzatzen du, eta, beraz, jabeen eta erakunde publikoen arteko akordioak eta konpromisoak bultzatuko dituzten formulak bilatu behar dira (kontratu bidezkoak nahiz borondatezkoak), edo salbuespeneko kasuetan, zenbait lursail erosi beharko dira.

Uretako korridorea:

Aurrez aipatutako xedapenetatik eratortzen diren legezko baldintzatzaileez gain, Plangintza Hidrologikoaren Instrukzio berria aipatu behar da, irailaren 10eko ARM/2656/2008 Aginduaren bidez onartua. Aurrerantzean plan hidrologikoetan aintzat hartu beharreko alderdi batzuk jasotzen ditu; besteak beste, ur-emakidetan emari ekologikoak ezartzeari buruzkoak. Agindu horretan, Natura 2000 Sarea aipatzean, hau adierazten da: eremu horietan emari ekologikoen erregimenek ondorio nabarmenak eragiten badituzte, erregimenak egokitu egingo dira, habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera onari eusteko edo haiek lehenera ekartzeko; eta, horretarako, haien eskakizun ekologikoak bete behar dira eta haietan eragina duten funtzio ekologikoei epe luzera eutsi behar zaie.

Uretako korridorea lehengoratzeko neurriak ezartzeko baldintzatzaile nagusietako bat indarrean dauden uraren erabilerari eta aprobeixamenduari buruzko administrazio-emakidak dira, kontsumo-erabilerak nahiz kontsumokoak ez direnak hartzen dituztenak; emakida-aldi luzekoak dira, eta kasuren batean (emari ekologikoak), ezarritako baldintzak ez dira nahikoak KBEan funtsezkotzat hartutako espezieak egoera onean kontserbatzea bermatzeko.

KBEan gauzatzen ari diren jardueren artean, hauek aipatu behar dira:

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak lurrazaleko uren kalitatea kontrolatzeko bi sare ditu: SAICA sarea (Uraren kalitateari buruzko informazio-sistema automatikoa) eta CEMAS sarea (Lurrazaleko ur-masen egoera kontrolatzeko sarea). Urumea ibaian, Astigarragan, SAICA sareko kontrol-estazio bat dago.
- Eusko Jaurlaritzak, Uraren Euskal Agentziaren (Uragentzia) bidez, EAeko lurrazaleko ur-masen egoera ekologikoa kontrolatzen du, bi kontrol-sareren bitartez: Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera biologikoaren jarraipenerako sarea eta Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera kimikoaren jarraipenerako sarea. Horren baitan, arrainen laginketak sartzen dira.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako ibaietako uraren kalitatearen jarraipena egiteko sarea du (kontrol fisiko eta kimikoak, kalitate biologikoa eta arrainen laginketak).

Urumea KBEan, ibaiaren ardatz nagusian, 5 laginketa-estazio daude: 1 Eusko Jaurlaritzaren sareari dagokio, eta beste 4 Gipuzkoako Foru Aldundiaren sareari.

- Arrain-faunaren jarraipenerako jarduerak: Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako ibaietako arrain-faunaren egoeraren jarraipen espezifikoa egiten du. Jarraipen horren xedea da arrain-komunitatea (bereziki, salmonidoena) zer egoeratan dagoen jakitea, komunitate horien populazioek zer joera duten balioestea eta egoera kudeatzeko eta hobetzeko neurriak ezartzea. Urumea ibaian kontrol-guneak ezartzea aurreikusten da.
- Uraren kalitatea hobetzeko jarduerak (Añarbeko Uren Mankomunitatea).

Egun, saneamendua hobetzeko obra hauek gauzatzen ari dira:

- Ereñotzu auzoko saneamendua eta arazketa.
- Epele-Fagollaga eremuko saneamendua eta sare nagusiarekiko lotura.
- Oztopoak iragazkortzeko programa (GFA – KKH): Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak erabiltzen ez diren emakidei lotutako oztopoak eraisten ditu, eta arraintzako pasabideak eraikitzen. Gipuzkoako Foru Aldundiak oztopoak eraisteko jarduerak ere gauzatzen ditu, bai eta iragazkortasuna hobetzekoak ere, arrainak igarotzeko askotariko gailuak eraikiz (alboetako ubideak, harri-lubetz egindako arrapalak, segidako dike-eskalak, eraisketa partzialak eta abar). Era berean, BIDUR lankidetzaren baitan, KBEko goiko zatian erabiltzen ez den oztopo bat eraistea aurreikusi da, Mendarazko zentrallean dagoen presa txikia, hain zuzen. BIDUR Gipuzkoako Foru Aldundiak, Nafarroako Gobernuak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak sortu zuten, Bidasoa eta Urumea ibaietako uren kudeaketan mugaz gaindiko lankidetzaren sustatzeko.

<p>- EAEn ibai-aingira lehengoratzeko kudeaketa-plana Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako nahiz Bizkaiko foru-aldundiek argitaratu zuten 2008ko abenduan, Europar Batasunak onartzeke duen 1100/2007 (EE) Araudiari erantzuteko. Kudeaketa-plan horretan, Urumea ibaiaren dauden oztopo guztiak iragazkor bihurtzeko neurria ezarri da, aingirak pasatzeko aukera emango duen gailu baten bitartez («arrabota» itxura du); izan ere, egungo eskailerak salmonidoentzat pentsatuta daude, batez ere.</p> <p>- Arrain-eskaileraren eraginkortasunaren jarraipena. Aurrez aipatutako BIDUR lankidetzaren baitan, Urumea ibaiaren ibilgu nagusian dauden oztopoen iragazkortasunaren azterketa egitea aurreikusitako da, 2010-2011 aldirian oztopo horietan zeuden igarotzeko gailuen funtzionaltasunari lotuta.</p>	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Urumea ibaiaren korridorea kontserbatzea eta lehengoratzea
1. helburu operatiboa	KBEaren mugen barruan, erriberako landarediaren luzetarako jarraitutasuna belardien ondorioz galtzen den lekuetan, haltzadiak eta lizardiak sustatzea 5 metroko zabalerako bandan
Jarduerak	<p>Jarduera hauek aplikagarriak dira: 1.JAR.1 (6,97 ha), Erriberako landaredi naturala lehengoratzeko, 5 metroko zabalerako bandan, proposatutako tartean (ikus Jardueren mapa); 1.JAR.3, herri-jabari hidraulikoa zehaztea eta ibai-lurraldea mugatzea; eta 1.JAR.21, ibai-korridorea kontserbatzeko duen garrantziari lotuta jarduerak garatzea.</p> <p>1.JAR.2. KBEko ibaiertzeko lursailen jabeekin borondatezko akordioak sinatu daitezkeen sustatuko da, proposatutako tartean ibai-ertzetako landaredi naturalaren egitura eta osasuna hobetzeko, gutxienez 10 metroko zabalerako bandan (0,8 ha) (ikus Jardueren mapa).</p>
2. helburu operatiboa	KBEan uraren kalitateari eustea, edota hobetzea
Jarduerak	1.JAR.5 jarduera aplikatuko da (Lurrazaleko uraren kalitatearen laginketa-sarearen bitartez, aldirian-laginketa egiten jarraitzea, eta arrain-laginketa egitea).
3. helburu operatiboa	Ur-korridoreko oztopoak kentzea
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 5.J.2 jarraibidea, KBEaren barnean erabiltzen ez diren emakidei buruzkoa; horrez gain, hala badagokio, oztopoak iragazkor bihurtzeko edo eraisteko aukera aztertu behar da.</p> <p>JP.1.- Oztopo hauek iragazkor bihurtzeko proiektuak idaztea eta gauzatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lastaolako presa txikian dagoen arrain-eskaileraren ordez beste ibilgu bat jartzea, edota alboetako ubide bat jartzea, aurrez zegoen deribazio-ubidearen gainean. • Fagollagako presa txikian dagoen arrain-eskaileraren ordez, KBEan funtsezko elementuak diren arraintzeko eta espezieentzeko sistema eraginkor bat jartzea. <p>Presa txikiak/oztopoak erabat edo partzialki botatzeko proiektu guztietan, urloetako edo urmaletako erriberen morfologia hobetzeko jarduerak aurreikusitako behar dira.</p>

	<p>Era berean, honako hauek ere aplikagarri dira: 5.J.5 jarraibidea, erabilitako ur-bolumenak kontrolatzeko sistemak eta emakidari lotutako instalazioak (eskailerak, sare-tak...) egoera onean edukitzea; 1.JAR.7 jarduera, aingiraren babeserako neurri espezifikoak ezartzea; eta 1.JAR.8 jarduera, KBEan oztopoak iragazkor bihurtzeko sistemen eraginkortasuna ebaluatzea, bereziki Errenteriako presa txikian dagoen arrain-eskailerari dagokionez. Arrain-eskailera ez bada eraginkorra, beharrezko neurriak hartuko dira KBEan funtsezko elementu diren arrainen eta gainerako espezieen lekualdatzeak bermatzeko.</p> <p>JP.2.- Sistema eraginkorrak jartzea beheranzko migrazioa errazteko, eta arrainak eta beste espezie batzuk KBEko zentral hidroelektrikoetan dauden ubideetan ez sartzeko, edota turbinen artetik pasatu baino lehen (Errenteriako zentral elektrikoan, Fagollagako zentral elektrikoan eta Zikuñaga paper-fabrikari), ibaitik ateratzeko.</p> <p>JP.3.- Hitzarmen- edo negoziazio-prozesu bat sustatzea Santiagoko eta Pikoagako zentral txikien aprobetxamendu hidroelektrikoarekin lotuta, ibai-habitataren kontserbazio-egoera ona lortzea xede duten baldintza hobekak ezartzeko zer aukera dauden aztertzeko. Hitzarmen-prozesuan, zentral txiki horien jarduera eteteko aukera ere aztertu behar da, asmo handieneko aukeratzat, desmanen populazio bideragarria eta bisoi europarraren populazio-gune txiki bat hartzeko behar besteko dimentsioa duen espazio bat sustatzeko.</p>
<p>6. helburu operatiboa</p>	<p>Urumea ibaian, emari-erregimen naturala bermatzea</p>
<p>Jarduerak</p>	<p>JP.4.- Añarbeko horniduraren emakidari dagokionez, KBEan funtsezkoak diren Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitaten edo espezieen kontserbazio-egoerari eusteko edo hori finkatzeko ingurumeneko emarien erregimen egokia zehazte aldera, baliabidearen eta eskaeraren arteko azterketa egingo da, ur baliabidearen erabilera optimizatzeko, bai eta ingurumen-emari espezifikoaren azterketak ere. Era berean, gainerako emakidetan, 1.JAR.4 jarduera bateratua aplikagarria da.</p> <p>Era berean, bereziki zaindu behar da uraren erabilerari buruzko araudien aplikazioa, eta, besteak beste, 5.A.9 araudiarena (ur-askatze azkarren debekua).</p>

IBAI-HABITATAK (HALTZADIAK ETA LIZARDIAK, ETA URARI LOTUTAKO BESTE KOMUNITATE BATZUK)**Justifikazioa**

- Haltzadien eta lizardiaren habitata lehentasunezko habitata da eta Habitategi buruzko Zuzendarauaren I. eranskinean eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean jasota dago. Urumea ibaiko erriberako berezko ibai-habitata da.
- Bertan, galtzeko arriskuan dauden uretako eta erdi-uretako espezieak daude; bereziki, *Mustela lutreola* (bisoi europarra) eta *Galemys pirenaicus* (desman piriniotarra).
- Urumea ibaia babesteko eta elikatzeko lekua da intereseko zenbait fauna-espezierentzat (adibidez, izokina, amuarraina eta aingira), eta agian, baita Batasunaren intereseko intsektu saproxilikoentzat ere. Gune heze txikien garapena sustatzen dute, espezie asko babesteko eta ugaltzeko balio dutenak.
- EAEn oso gutxi hedatuta dauden beste espezie batzuen habitat bereizgarria dira, adibidez: *Cinclus cinclus* (ur-zozoa) eta *Alcedo atthis* (martin arrantzalea).
- Askotariko flora-espezieak daude bertan, eta horrek nabarmen laguntzen dio leku horretako biodibertsitate espezifikoiari.

CO₂ xurgatzen dute, ura iragazten, ibilguari itzala ematen diote eta indargetzeko funtzioa dute ur-goraldietan; horrela, uraren eta, oro har, ibai-sistemaren kalitatea hobetu egiten da.

Kontserbazio-egoera

- Urumea ibaia/Río Urumea KBEan, oro har, bi zati bereizi daitezke ertzetako landarediaren jarraitutasunari eta naturaltasunari dagokienez. KBEaren goiko zatian, Epele auzora artekoan, ibaiertzeko landarediak jarraitutasun onargarria du, ezkerreko aldean, bereziki. Jarraitutasun hori zenbait eremutako arboladien errenkada bakarrak eteten edo mugatzen du; eremu horietan, belardi eta laborantza atlantikoek hartu dituzte uholde-lautada txikiak, edo bestela, GI-3410 errepedea ibai-ibilgutik oso gertu igarotzen da.

Epele auzotik behera, hiri- eta industria-garapenak dira nagusi ibaiertzetan; hain zuzen, eremu horretan, galeria-basoa urriagoa da, edota erabat desagertu da. Hainbat zatitan, ibaia bideratuta dago, eta jatorrian zegoen basoaren ordean, platano-zerrendak daude; horiek dira, hain zuzen, tarte horretako baldintzatzaile nabarmenenak.
- Galeria-basoaren naturaltasunari eta kontserbazio-egoerari dagokionez, azpimarratu behar da KBEko haltzadiak, oro har, gora-behera handiak dituztela aztertutako eremu guztian zehar. Gainera, bereziki ugaria da sasiakaziaren (*Robina pseudoacacia*) zuhaitz-geruza, KBEaren ibilbide guztia hartzen duena; espezie inbaditzaile horrek oso jokabide erasokorra du. Kartografiatutako landare-multzo askotan, zuhaitz-geruzako espezie menderatzailea da. Zuhaitz-geruzan, platano arrunta edo albo (*Platanus hispanica*) espeziea ere oso ugaria da, eta KBEaren ibilbide guztian zehar modu erregularran banatuta dago; kartografiatutako multzo askotan agertzen da, eta beste batzuetan, espezie bakarreko zerrendak osatzen ditu zuhaitz-geruzan.
- Aurrez adierazitakoa aintzat hartuta, beheko taulan Urumea ibaia/Río Urumea KBEko haltzadien habitataren ustezko kontserbazio-egoera laburtu da (ikus Kontserbazio-egoerari buruzko fitxak eranskina).

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera ¹		Desegokia		

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz Batzordearen 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Erabakiaren E Gehigarriarekin)

Presio eta arrisku nagusiak bat datoz ibai-korridorearen funtsezko elementua deskribatzean zehaztutakoekin:

- Aldaketa morfologikoak: kanalizazioak (830), oztopo artifizialak –presa txikiak– (850), zubiak, eta herri-jabari hidraulikoa eta haren babes-zortasuneko zona hartzen duten beste azpiegitura batzuk (400, 410 eta 500).
- Haltzadiak garatzea mugatzen duten belardiak eta laborantzak (100).
- Espezie exotikoak (954): KBEaren eremuan, bertakoa ez den flora-espezieak daude, eta haietako batzuk inbaditzaileak dira. Oso esanguratsua da sasiakaziaren (*Robinia pseudoacacia*) presentzia; horrez gain, *Reyntria japonica*, *Buddleja davidii*, *Crocosmia sp.*, *Arundo donax* eta *Phyllostachis aurea* espezieak daude, baina ez sasiakazia beste. Platano arrunta (*Platanus hispanica*) ere ohikoa da.

Gaur egungo jarduerak eta legezko baldintzatzaileak

Gaur egungo jarduerak

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak, Uraren Euskal Agentziak hala eskatuta, *Reyntria japonica* espeziearen aurkako tratamendua burutu zuen 2009. urtean Urumea ibaian, Urnieta eta Hernani udalerrietan (KBEaren baitan). Besteak beste, erriberako arboladiak landatu zituzten.

Jarduera horren fitxa teknikoan, Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak igorritakoan, KBEan beste espezie inbaditzaile batzuk aurkitu direla adierazten du, *Buddleja davidii* eta banbu-kanabera (*Phyllostachis aurea*), adibidez; etorkizunean espezie inbaditzaile horiek desagerrarazteko jarduerak gauza daitezke.

Baldintzatzaileak

Haltzadiak eta uretako beste habitat batzuk kontserbatzeko eta garatzeko baldintzatzaile nagusiak, aurrez, lehorreko ibai-korridorea funtsezko elementurako adierazitako berberak dira. Atal horretan aipatutako legezko baldintzatzaileez gain, Gipuzkoako Mendien Foru Arauak araututakoa ere aintzat hartu behar da (urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA), foru-arau horretan, 44.3. artikuluan, honako hau jartzen du: *Zuhaiztiak dituzten mendiak ustiatzerakoan erreka, ibai, urtegi, komunikazio bide eta intereseko beste gune batzuetako landaredia errespetatuko da, eta zuhaizti horiei eutsi eta hobetzeko mozketak bakarrik baimenduko dira, baita segurtasun arrazoiengatik egin behar direnak ere.*

Baldintzatzaile negatibotzat, espezie aloktonoek Urumea ibaiaren ertzetan hartzen duten eremu handia nabarmendu behar da; bereziki, *Robinia pseudoacacia* espezieak hartzen duena. Espezie inbaditzaile hori oso erasokorra da, eraldatzailea, eta oso zaila da desagerrarazteko.

¹ Kartografia kaskarretan, ikur espezifiko bat (adibidez, gezi bat) erabil daiteke, lehengora bueltatzen diren populazioak adierazteko.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Ibai-habitaten eta ibai-mosaikoaren heterogeneotasunaren kontserbazio-egoera hobetzea <ul style="list-style-type: none"> - Habitat naturalek hartutako azalera handitzea. - Habitat naturalen mosaikoaren dibertsitatea handitzea. - Ondoen kontserbatu diren guneen egungo egoerari eustea.
1. helburu operatiboa	KBEan dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitaten eta fauna- eta flora-espezieen presentziari buruzko ezagutza hobetzea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoa funtsezko elementuan ibai-korridorea kontserbatzeko eta lehengoratzeko zehaztutako jarduerak eta jarraibideak.</p> <p>Halaber, aplikagarri da 1.JAR.11 jarduera, haltzadien kontserbazio-egoeraren jarraipenari dagokiona.</p> <p>Era berean, 1.JAR.12 jarduera aplikatuko da, urarekin lotutako beste habitat batzuen monitorizazioari dagokiona; besteak beste, habitat hauek aipatu behar dira: 3150, Laku eutrofiko naturalak <i>Magnopotamion</i> edo <i>Hydrocharition</i> landarediarekin; 3260, Estaia muinotar eta menditarreko ibaiak, <i>Ranunculion fluitantis</i> eta <i>Callitricho-Batrachion</i> landarediarekin; eta 6430, Lautada-orletako megaforbio eutrofiko hidrofiloak.</p> <p>Aplikagarria da 1.JAR.13 jarduera ere, KBEan Batasunaren interesekoak diren eta ibai-ingurunearekin zerikusia duten ornogabeen presentziari buruz gehiago jakiteari buruzkoa. Jardueraren baitan, azterketa espezifikoak egingo dira, KBEan hainbat espezie daudela egiaztatzeko, adibidez: arkanbelea (<i>Lucanus cervus</i>), <i>Rosalia alpina</i> eta <i>Elona quimperana</i>.</p>
2. helburu operatiboa	Habitat naturalek hartutako azalera osoa handitzen laguntzea
Jarduerak	<p>JP.5. Proiektu pilotu bat idaztea eta gauzatzea, KBEaren baitan, sasiakazia desagerrarazteko eta ibarbaso naturalaren luzetarako jarraitutasuna eta egitura lehengoratzeko. Barnean hartzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehengora ekar daitezkeen 2.500 m²-ko 5 lursail identifikatzea. - Sasiakazia desagerrarazteko eta ibarbaso naturala lehengoratzeko proiektuak egitea. - Proiektuak gauzatzea.
3. helburu operatiboa	Bertan dauden espezie exotikoen kopurua murriztea
Jarduerak	<p>1.JAR.17. Flora-espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena egitea eta horiek desagerraraztea (batez ere, <i>Fallopia japonica</i>, <i>Buddleja davidii</i>, <i>Arundo donax</i>, <i>Crocospmia sp.</i> eta <i>Phyllostachis aurea</i>); izan ere, espezie horiek direla eta, KBEko habitat naturalen balioa murrizten da.</p>


SALMO SALAR (IZOKINA) ETA KOMUNITATE IKTIKOA**Justifikazioa**

KBEan, Urumea ibaiaren arroko arrain-komunitatea sei ibai- eta migrazio-espeziek osatzen dute, funtsean: kolaka (*Alosa alosa* - noizbehinkakoa²), izokina (*Salmo salar*), amuarraina (*Salmo trutta* - migratzailea edo itsas amuarraina), ezkailua (*Phoxinus phoxinus*), mazkarra (*Barbatula barbatula*) eta aingira (*Anguila anguilla*). Horiez gain, urre-arraina (*Carassius auratus*), sartutako espeziea, eta platuxa (*Platichthys flesus*) eta hondoetako korrokoia (*Chelon labrosus*) espezie anfibalinoak aipatu behar dira; espezie horiek, berez, estuarioetan egon ohi diren arren, KBEaren amaierako zatian daude, Osinagan.

Urumeako unitate hidrologikoak hartzen duen eremu guztia aintzat hartuta, bi arrain-espezie galdutzat eman dira. Batetik, *Gasterosteus aculeatus* (arrain hiruarantza): Añorgaren azpi-arroan desagertuta dago jada, eta Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan, KALTEBERA kategorian dago sailkatuta (16/1994 Legea, 167/1996 Dekretua). Eta bestetik, *Petromyzon marinus* (itsas lanproia): Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean dago.

Urumeako arrain-komunitateak historian zehar³ bilakaera ona izan duela esan daiteke, baldin eta kontuan hartzen badugu espezie migratzaileen populazioak (aingirarena salbu) ia desagertu egin zirela aurreko mendearen erdialdera. Izokin arrunta, ofizialki, 1940an desagertu zen Urumean, baina ordurako, oso ahulduta zegoen, gehiegizko arrantzaren eta oztopoek haren banaketa-eremua murriztearen ondorioz. 1970eko hamarkadaz geroztik, kutsadura-presioaren arintzea nabaritzen hasi zen, apur bat, baina ez zen modu eraginkorrean hauteman, 80ko hamarkadaren amaiera eta 90eko hamarkadaren hasiera arte.

Izokin arrunta Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta V. eranskinetan (abenduarien 13ko Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eta VI. eranskinetan) jasota dago; horri dagokionez, azpimarratu behar da Urumea ibaia dela espezie hori ugaltzen den EAEko ibai bakantetako bat. Erantsitako irudian EAEko zer lekutan dagoen ikus daiteke (Iturria: IHOBE. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila).



² KBEaren eremuan, azken agerpenean 2001eko da, eta Elorribako estazioan dagoen ugaltzaile kontrolatu bati dagokio (salmonidoak kontrolatzeko diseinatua). Espezieak ez du populazio egonkorrik arroan.

³ Gipuzkoako Foru Aldundia. Landa Garapenerako Departamentua – EKOLUR. Estudio Piscícola de los Ríos de Gipuzkoa. 1994-2009 urteak.

Kontserbazio-egoera

Espezie hori XX. mendearen erdialdera desagertu zen, baina gerora, Gipuzkoako Foru Aldundiak espezia eremu horretan berriro sartzeko gauzatu zuen programa baten laguntzaz, berriro kolonizatu zuen Uru-mearen arroa. 1993az geroztik, izokin helduek ibaian gora egiten dute urtero, eta han ugaltzea lortzen dute. 1993tik izokin heldu ugaltzaileen ugaritasunean izandako gorabeherak eta haiek izandako joera aintzat hartuta, ziurgabetasun handia sortu da. Espezia galtzen ari da Iberiar penintsulako arro nagusietan.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Oharra: «Banaketa-eremua, Populazioa, Espeziearen habitata eta Etorkizunerako aurreikuspenak» dagokien laukian X batez markatu dira. Kontserbazio-egoera lauki bakoitzari adierazitako kategoriari dagokion kolorea emanez zehaztu da.

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

- Espezie ugaltzaileek ibaian gora egiteko oztopoak (uraren barne-ibilbideak aldatzen dituzten egiturak – 852).
- Izokin gazteek ibaian behera egiteko oztopoak, aprobetxamendu hidroeletrikoak (uraren barne-ibilbideak aldatzen dituzten egiturak – 852).
- Emari-galerak (funtzionamendu hidrologikoaren aldaketa – 850).
- Dikeak, kanalizazioak, hondartza artifizialak (870).
- Gizakiak hidrologian eragindako beste aldaketa batzuk (890).

Gaur egungo jarduerak eta legezko baldintzatzaileak**Baldintzatzaileak**

Espezia kontserbazio-egoera onetik urruntzen duten baldintzatzaile negatibo nagusiak uretako korridorearen baldintzatzaileei buruzko atalean adierazi diren berberak dira.

Gaur egungo jarduerak

Espezia kontserbatzeko egun egiten diren jarduerari dagokienez, haiek nabarmendu behar dira:

- Urumean izokina berriro sartzeko programa. Urumea ibaian berriro izokina sartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako jarduerak 80ko hamarkadan hasi ziren, eta horien jarraipenerako jarduerak 1993. urteaz geroztik egiten dira.
- Oztopoak iragazkor bihurtzea. Ibilbidean dauden oztopoak iragazkor bihurtzeko orain arte egin diren jardueraz gain (adibidez, 8 arrain-eskala eraikitzea), Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak⁴ oztopoak iragazkor bihurtzeko diseinatu zuen 20 urterako programaren arabera, KBEaren inguruan dauden oztopoetako bat iragazkor bihurtzea aurreikusi da, Landarbasoko errekaetan, zehazki. Era berean, BIDUR lankidetzaren baitan, erabiltzen ez den oztopo bat eraistea aurreikusi da, Mendarazko zentrolean dagoen presa txikia, hain zuzen. BIDUR Gipuzkoako Foru Aldundiak, Nafarroako Gobernuak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak sortu zuten, Bidasoa eta Urumea ibaietako uren kudeaketan mugaz gaindiko lankidetzak sustatzeko.

⁴ Gipuzkoako Foru Aldundia, Garapen Iraunkorrerako Departamentua – Ekolur SLL 2007. Gipuzkoako lurralde historikoan, erabileraz kanpo dauden oztopoak iragazkor bihurtzeko jardueraren programa.

- Arrain-eskaileraren eraginkortasunaren jarraipena egitea. Aurreko paragrafoan aipatutako BIDUR lankidetzaren proiektuaren baitan, Urumea ibaiaren ibilgu nagusian dauden oztopoen iragazkortasunaren azterketa egitea aurreikusi da, 2010-2011 aldian oztopo horietan zeuden igarotzeko gailuen funtzionaltasunari lotuta.
- Izokin gazteen migrazioa kontrolatzea. BIDUR lankidetzaren proiektuaren baitan, izokin gazteen behe-ranzko migrazioa kontrolatzea aurreikusi da.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	Izokin-populazioen presentzia bermatzea KBEan, eremu horretarako bideragarriak direnak, eta eremuaren edukierarako egokiak; xede hori lortzeko ez da kanpoko esku-hartzerik egingo, edota ahalik eta esku-hartze txikienak egingo dira, espeziea behar bezala kontserbatzeko aukera emango dutenak
1. helburu operatiboa	KBEan espeziearen populazio-dinamika eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea
Jarduerak	JP.6. Espeziea eremu horretan berriro sartzeko programari jarraipena ematea, ohiko neurriak hartuz eta laginketak eginez: helduen populazioaren kontrola, erruteko lekuen kontrola, ugalketaren arrakasta, populazio gazteen zehaztapena, ugalketa artifiziala eta birpopulazioa - markatzea. Jarduera horren baitan, aske uztearen jarraipena egin eta, ibaiaren arroan, izokin gazteak ugaltzeko behar dira; horrez gain, izokin gazteen behe-ranzko migrazioari dagokionez, etengabe kontrolatu behar da, protokolo bati jarraituz.
2. helburu operatiboa	KBEan, espezieak jasaten dituen inpaktuak murriztea
Jarduerak	Aplikagarriak dira ibai-korridorea funtsezko elementurako proposatutako neurri, jarraibide eta araudi guztiak, uretako korridorean oztopoak kentzeari, emari ekologikoak errespetatzeari eta hartutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteari buruzkoak. 1.JAR.19 jarduera (espeziearen kudeaketa-plana idaztea).


MUSTELA LUTREOLA (BISOI EUROPARRA) ETA GALEMYS PYRENAICUS (DESMAN PIRINIOTARRA)**Justifikazioa**

Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan (abenduarien 13ko Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eta VI. eranskinetan) jasotako espezieak dira. «Galtzeko arriskuan» daude Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoaren arabera. Urumea ibaia/Río Urumea KBEa Interes Berezikiko Eremua da bi espezie horientzat.

Kontserbazio-egoera**Bisoi europarraren populazioen kontserbazio-egoera (*Mustela lutreola*).**

Urumearen Gipuzkoako zatian, bisoi europarraren agerpen bakarra dago, 2006an Hernaniko udalerritik gertu harrapatutako heldugabeko espezie sakabanatzailearena, hain zuzen. Arroari buruzko gainerako informazioa honako agerpen hauei dagokie: batetik, Goizuetako udalerraren goiko zatian 1995ean izandako agerpenenari (Palazón, 1995), eta bestetik, udalerrri horretan bertan 1999-2004 aldian izan ziren animalia-harrapatzeei.

Eskura dugun informazioaren arabera, Urumea ibaiaren Gipuzkoako zatian ez dago bisoi europarraren populazio egonkorrik. Agian, gogoeta hori arto guztira zabaldu behar da. Dena den, Urumearen arroak espezie horren banaketa-eremuan sartuta jarraitu behar du; izan ere, eremu horretara arte erregulartasunez iristen dira ondoko arroetatik barreiatzen diren indibiduo gazteak. Bestalde, adierazi behar da Urumearen Nafarroako zatian egindako azken azterketek (2004an egindakoek) ez zutela emaitzarik eman.



1. irudia. Bisoi europarraren banaketa-eremua Urumea ibaia KBEan eta haren inguruan. Biribil hori batez adierazi dira agerpenak izan diren lekuak. Marra gorriaren bidez, berriz, ibaiaren ardatz nagusian KBEak hartzen duen hedadura adierazi da.


2013ko ekainaren 12a, asteazkena

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Desman piriniotarraren populazioen kontserbazio-egoera

Ez dago desman piriniotarra KBE honetan dagoela adierazten duen azken aldiko behaketarik. Agerpen berrienak 1989koak dira, eta Mendarazko zentral hidroelektrikoko ubidean ezustean harrapatu zituzten bi aleri dagozkie; gerora egindako azterketek ez dute inolako informaziorik eman. Badakigu ibaiaren goiko zatietan halakorik badela (betiere Nafarroan).

Eskura dugun informazioaren arabera, KBEan, Urumea ibaiaren Gipuzkoako zatian, ez dago desmanaren populazio egonkorrik. Espezie horrek populazio egonkorrik ditu arroaren goiko zatietan, bai Nafarroako Urumea ibaiaren goiko zatian bai Añarbe ibaian (eta Elama eta Urdallus errekaetan). Gertaera jasota ez dagoen arren, baliteke indibiduo sakabanatzaileak goiko zatitik ibaian behera joatea, KBEak hartzen duen zatira arte; hala ere, azken hamar urteetan ezin izan dute eremua kolonizatu.



2. irudia. Desman piriniotarraren banaketa-eremua Urumea ibaia KBEan eta haren inguruan. Biribil hori batez adierazi dira agerpenak izan diren lekuak. Marra gorriaren bidez, berriz, ibaiaren ardatz nagusian KBEak hartzen duen hedadura adierazi da.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

- Kanalizazioa (830).
- Funtzionamendu hidrologikoaren aldaketa (850).
- Barneko ur-lasterrak aldatzen dituzten egiturak (852).
- Maila hidrikoen erabilera (853).
- Gizakiak hidrologian eragindako beste aldaketa batzuk (890).

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak

Gaur egungo jarduerak

Gipuzkoan, bisoi europarraren eta desman piriniotarraren kudeaketa-planak⁵ indarrean daude; kudeaketa-plan horietan, bi espezieak eta haien habitatak lehengoratzeko neurriak jasotzen dira. Urumea ibaia/Río Urumea KBEaren zati bat Interes Berezikotako Eremuetan sartzen dute.

Horrez gain, KBEa osatzen duten zatiak bisoi europarraren eta desman piriniotarraren jarraipen-sarean sartzen dira Gipuzkoan. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako sare hori osatzen duten tarteei dagokienez, urtean behin azterketak egiten dira, egiaztatutako eraginkortasuna duten hautemate-teknikak erabiliz.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	Bisoi europarraren eta desman piriniotarraren populazioen presentzia bermatzea Urumea ibaia/Río Urumea KBEan, eremu horretarako bideragarriak direnak, eta eremuaren edukierarako egokiak; xede hori lortzeko ez da kanpoko esku-hartzerik egingo, edota ahalik eta esku-hartze txikienak egingo dira, espeziea behar bezala kontserbatzeko aukera emango dutenak
1. helburu operatiboa	KBEan, bisoiak eta desmanak jasaten dituzten inpaktuak murriztea
Jarduerak	Aplikagarriak dira KBEan uraren erabilerarekin lotuta proposatutako jarraibide eta araudi komun guztiak, bai eta ibai-korridorea funtsezko elementurako proposatutakoak ere, uretako korridorean oztopoak kentzeari, emari ekologikoak errespetatzeari eta hartutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteari buruzkoak.

⁵ 2004ko maiatzaren 12ko FORU AGINDUA (GAO 100. Zk., 2005eko maiatzaren 28koa).


	<p>Desman piriniotarrari dagokionez, oso interesgarria da JP.3 jarduera, ibai-korridore ekologikoa funtsezko elementuarena. Hau da, Santiagoko eta Pikoagako zentral txikien aprobetxamendu hidroelektrikoei dagokienez hitzarmen- edo negoziazio-prozesu bat sustatzea; zentral txiki horien jarduera eteteko aukera ere aztertuko da, asmo handieneko aukeratzat, bi espezie horien (eta izokinaren) habitataren kontserbazio-egoera ona lortzeko Zentralak itxiz, espezie horientzat dimentsio esanguratsuak dituen tarte bateko baldintza morfologikoak eta emaria lehengoratu egingo lirateke.</p> <p>KBEaren goiko zatian daudelako aukeratu dira zentral horiek; izan ere, goiko zatian egonda, aukera handiagoa dago horiek eragindako zatira indibiduo sakabanatzaileak irsteko, ibai-buruetatik.</p>
2. helburu operatiboa	Bisoiaren habitata hobetzea
Jarduerak	<p>JP.7.- KBEan, bisoi europarraren habitata hobetzeko proiektua egitea.</p> <p>Proiektuak zeregin hauek hartuko ditu beren baitan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehengoratzte-jarduerak zein tartetan egin behar diren identifikatzea. - Lehengoratzeko proiektu bat egitea, ibaien lehengoratzte-prozesuetan ohikoak diren bioingeneriako irizpideak eta teknikak baliatuz. - Proiektuak gauzatzea. <p>Jarduera gauzatzeko lehentasuneko eremua KBEaren goiko zatia izango da, Ereñotzutik gorako zatia; izan ere, tarte horretako hasierako kontserbazio-egoera hobea denez, berme handiagoa dago jarduerak arrakastatsuak izateko.</p>
3. helburu operatiboa	Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, Urumea ibaiaren arroan bisoiaren eta desmanaren populazioaren kontserbazio-egoera nolakoa den jakiteko aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa.</p>

IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA: *CINCLUS CINCLUS* (UR-ZOZOA) ETA *ALCEDO ATTHIS* (MARTIN ARRANTZALEA)
Justifikazioa

Bi espezie bereizgarri dira, eta arroaren eta ibaiertzen kontserbazio-egoera bikaina adierazten dute. Biak KBEan edo haren inguruetan daude. Martin arrantzalea espeziea Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean dago, eta interes berezikotzat sailkatu da Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan; ur-zozoa ere interes berezikotzat sailkatu da aipatutako katalogo horretan bertan.

Kontserbazio-egoera
Martin arrantzalea (*Alcedo atthis*).

Hiru lurralde historikoetan dago. Egun, ez dugu populazio ugaltzailearen berririk, ez EAEn ez KBEan.




Martin arrantzalearen banaketa EAEn. Iturria: Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioa, 2007

Hiru lurralde historikoetan dago, baina, 1998arekin alderatuz, Bizkaian soilik eutsi dio egonkor populazio ugaltzaileak. Egun, ez dugu populazio ugaltzailearen berririk, ez EAEn ez KBEan.

Cinclus cinclus (ur-zozoa)

EAEn, banaketa handia du hiru lurralde historikoetako ur-ibilguetan; autonomia-erkidegoko mendigunee-tako ibai-ibilguezko lehentasuna agertu arren, itsasertzeko eremuetan ere agertzen da.



Ur-zozoaren banaketa EAEn. Iturria: Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioa, 2007

Ez dugu espezie horrek KBEan duen populazioaren tamainari buruzko daturik. Egiaztatutako datuak Urumearen Etxolaberri (edo Urruzuno) eta Epele (edo Landarbaso) ibaiadarretara mugatzen dira (Jauregi, J. Comunicación personal). Lehenengoan, 2 heldu/km dentsitatea kalkulatu da (bikote bat aztertutako ibai-kilometro bakoitzeko), Landarbaso ibaiadarrerako kalkulaturakoa (1,5 heldu/km) baino zerbait handiagoa. Datuak 2010ean egindako laginketa-aldi labur batean lortutakoak dira. KBEan, ez da hauteman espeziearenganako mehatxu garrantzitsurik.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak	X			
Kontserbazio-egoera	Ona			

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)	
Presio nagusiek zerikusia dute, batetik, uren kalitatearekin (701), eta bestetik, habitatean egin diren aldaketekin: kanalizazioak (830), funtzionamendu hidrologikoaren aldaketa (830-890), ibaiertzeko baso-soiltzeak (160).	
Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak	
Gipuzkoako ibaietan dauden hegazti-populazioak monitorizatzea: Aranzadi Zientzia Elkarteak gauzatzen du proiektu hau; hain zuzen, proiektuaren xedea da ibaiei lotutako hiru espezieen populazioa sistematikoki monitorizatzea: martin arrantzalearena, ur-zozoarena eta buztanikara horiarena. Horrez gain, biometriarekin, parametro demografikoekin eta espezie horien populazioen dinamikarekin lotutako datuak lortzen dira.	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	KBEaren barnean martin arrantzalearen eta ur-zozoaren populazioak egon daitezkeen bermatzea, KBEan espezie hori hartzeko den gaitasunarekiko bideragarriak eta egokiak direnak
1. helburu operatiboa	KBEan, espezieen habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira honako araudi hauek: 7.A.1 , 7.A.5 (kontuan hartu behar dira espezie horiek zer eskakizun dituzten zubiak, errotak eta abar diseinatzean edo zaharberritzean) eta 7.A.6 (ibaiaren inguruetan lanak egiteko data). 1.JAR.20 jarduera ere aplikatu behar da (espezie horren habitata hobetzeko proiektua egitea).
2. helburu operatiboa	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 1.JAR.16 (populazioen aldizkako jarraipena) eta 1.JAR.19 (martin arrantzalea kudeatzeko plana) jarduerak.

JARRAIPEN-PROGRAMA

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA	Urumea ibai/Rio Urumea KBEaren ibai-korridore ekologikoa kontserbatzea eta lehengoratzea	Ibaiaren bi ertzetan gutxieneko zabalera bat duen erriberako landaredi naturalaren banda kontserbatzea eta lehengoratzea, fauna-espezientzat (bisoi europarra, ibaietako hegazti-fauna...) habitat egokia bermatuko duena	Lehengoratuako erriberako landaredi naturalaren azalera (ha), belardiek eta laborantzek hartutakoa	0	Belardiek eta laborantzek hartutako 6,97 ha
		KBEaren eremuan, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	Borondatezko hitzarmen bidez lehengoratutako hektarea-kopurua	0	0,8 ha
			Ibai-lurraldearen mugaketari buruzko azterketa	Ez da egin	Egin da
			KBEaren barnean, Urumea ibaiaren egoera ekologikoa zein den jakitea, aintzat hartuta Uraren Esparru Zuzentaruak ezarritako parametroak	Badakigu (urtekoa)	Badakigu (urtekoa)
			Kantauriko Konfederazio Hidraulikoaren aurrean, KBEari eragiten dion eta erabiltzen ez diren emakiden iraungitza bultzatzea, eta oztopoak iragazkor bihurtzea	2 ez dira erabiltzen	Proposamena egin da
			KBEan dauden oztopoak iragazkor bihurtzea	2	2 oztopo nagusi iragazkortu dira
			Errenteriako zentral hidroelektrikoko presa txiki arrain-eskaileraren eta KBEan dauden fauna igarotzeko bestelako gailuen eraginkortasuna ebaluatzea	Ez dakigu	Badakigu
		Uretako korridorean oztopoak kentzea, eta faunaren joan-etorriak erraztea ibilguan zehar	KBEan dauden oztopo guztiak iragazkor bihurtzea eta aingira igarotzeko pasabide espezifikoak egitea	5	5 oztopo nagusi iragazkortu dira
			Beharrezko migrazioa bultzatzeko sistema eraginkorrak jartzea, eta arrainak eta beste fauna-espezie batzuk zentral hidroelektrikoetako deribazio-ubideetan sartzea eragoztekoa.	5	5 sistema ezarri dira

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
			Arrain-eskailerak eta jarritako gailuak (saretak, adibidez) garbitzea eta horien mantentze-lanak egitea, une oro haien funtzionaltasuna bermatzeko.	Ez da egin	Egin da
			Ingurumen-baldintzak betetzen dituen emari-erregimen bat ezartzea, KBEaren kudeaketan funtsezko zat jotzen diren elementuak kontserbatzeko	Ez da ezarri	Ezarri da
		KBEan dauden ibai-ibilguetan emari naturalen erregimena bermatzea	Herri-jabari hidraulikoko ur-aprobetxamenduek erabiltzen dituzten ur-bolumenen kontrol eraginkorra egiteko beharrezko diren sistemak ezartzea eta horiei eustea, maiatzaren 20ko ARM/1312/2009 Aginduari jarraiki.	0	Emakidaren mende dauden KBEko ur-aprobetxamendu guztietan ezarri dira sistemak
		KBEan dauden linea elektrikoekin talka egitearen edota elektrokutatzearen ondorioz hegazti-faunak kalterik izan ez dezan ahalgintzea	Aireko linea elektriko berriak jartzea, hegazti-faunaren babesarako neurriekin	0	Aireko linea elektriko berriak jarri dira, hegazti-faunaren babesarako neurriekin
		Intereseko habitaten kalitate ekologikoa hobetzea	Flora-espezie exotiko inbaditzaileen (sasiakazia, bereziki) jarraipena egitea eta horiek desagerraraztea; izan ere, espezie horiek direla eta, KBEko habitak naturalen balioa murrizten da	0	12.500 m ² -ko azalera lehengoratu da
HALTZADIAK ETA LIZARDIAK (KOD. EB 91E0*)	Ibai-habitatan kontserbazio-egoera babestea eta hobetzea	Intereseko habitaten eta espezieen inbentarioa, KBEa zabaltzeko proposatutako eremuetan.	Adierazkortasuna eta kontserbazio-egoera zehaztea	Ez da egin	Egin da
		KBEan dauden Batasunaren intereseko habitaten eta fauna- eta flora-espezieen banaketa eta presentzia hobeto ezagutzea	KBEan dauden intereseko flora-espezieen presentzia, kontserbazio-egoera eta kontserbatzeko neurriak	Ez dakigu	Badakigu
		KBEan, espeziearen habitataren baldintzak hobetzea	KBEan dauden intereseko ornogabeen dibertsitatea, kontserbazio-egoera eta kontserbatzeko neurriak	Ez dakigu	Badakigu
BISOI EUROPARRA (<i>Mustela lutreola</i>) eta DESMAN PIRINIOTARRA (<i>Galemys pyrenaicus</i>)	KBEan, espezie horien presentzia egonkorra sustatzea	KBEan, espeziearen habitataren baldintzak hobetzea	Habitata lehengoratzeko proiektuak egitea	0	Bi proiektu gauzatu dira
		Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Espezieen banaketa eta populazio-egitura KBEan	Badakigu	Badakigu
IZOKINA (<i>Salmo salar</i>)	Izokin-populazioen presentzia bideragarriak bermatzea, KBEak espezi hori hartzeko duen gaitasuna aintzat hartuta.	KBEan espeziearen populazio-dinamika eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea	Populazioei buruzko informazioa izatea, haien kontserbazio-egoera, errateko lekuak, ugalketan izan duten arrakasta, izokin gazteek inhes egiteko duten arriskuaren kontrola	Badakigu (urtekoa)	Badakigu (urtekoa)

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA	KBEaren barnean martin arrantzalearen eta ur-zozoaren populazioak egon daitezzen bermatzea, KBEan espezie hori hartzeko den gaitasunarekiko bideragarriak eta egokiak direnak.	KBEan, espezieen habitataren baldintzak hobetzea Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Habitata lehengoratzeko proiektuak egitea Espezien banaketa eta populazio-egitura KBEan	0 Ez dakigu	Bi proiektu gauzatu dira Badakigu

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2120015.xml&lang=eu

XIII. ERANSKINA

ES2110017 BARRUNDIA IBAIA/RÍO BARRUNDIA KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK

FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA JARDUERAK

Hurrengo tauletan, Barrundia ibaia/Río Barrundia KBEa kudeaketarako funtsezkotzat jotzen diren elementuetariko bakoitzarentzat kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo Internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA

Justifikazioa
<ul style="list-style-type: none"> - Barrundia ibaia/Río Barrundia KBEaren ibai-korridore ekologikoak funtzio garrantzitsua du, uretako eta lehorreko ekosistemak lotzen baititu haren isurialdeko arro osoan, eta interes bereziko tartea da, Aizkorri-Aratz KBEa eta Aldaia mendietako KBEa lotzen baititu. - Flora- eta fauna-dibertsitate handia du. - Komunikabide bat da, uretako eta lehorreko flora- eta fauna-espeziei lekualdatzeko aukera ematen baitie. Gainera, eremu horretako hegazti askok ibai-sistema edo aireko korridorea erabiltzen dute lekualdatzeko eta modu naturalean batetik bestera joateko. - Jarraitutasuna, arroaren batasunarekin eta espazioaren linealtasunarekin (korridorea) loturikoa, ibai-sistemen oinarritzko ezaugarria da. Luzetarako elkarreragin guztien lotura zuzena, egoera ekologiko ona (Uraren Esparru Zuzentaruak) eta izaki bizidunen komunitateen mailaketa egokia bermatzen ditu. - Ibai-korridore jarraituak, ekologia-balioez gain, paisaia-balio nabarmenak ere baditu.
Kontserbazio-egoera
<p>Ibai-korridore ekologikoa lehorreko, uretako eta aireko korridoreek osatzen dute.</p> <p>Barrundia ibaia/Río Barrundia KBEan bi tarte bereizi dira.</p> <p><u>Barrundia-I. tartea (Goiko zatia-Barria)</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehorreko korridorea: erriberako landarediaren kontserbazio-egoera «oso ona» da. Barrian, QBR indizeak egoera «kaskarra» dela adierazten du, jarraitutasun faltagatik eta landare-estaldura baxuegatik. - Uretako korridorea: <ul style="list-style-type: none"> • Kalitate fisiko-kimikoa: «egokia». • Kalitate biologikoa (IBMWP indizea eta arrain-fauna): kalitate-egoera «oso ona». - Aireko korridorea: aireko linea elektrikoek ez dute Barrundia ibaia zeharkatzen.

Barrundia-II. tartea (Barria-Bokalea)

- Lehorreko korridorea: egoera ekologiko «ona». Maturanan, QBR indizeak kalitate «oso ona» adierazi zuen.
- Uretako korridorea:
 - Kalitate fisiko-kimikoa: «egokia».
 - Kalitate biologikoa (IBMWP indizea eta arrain-fauna): kalitate-egoera «neurritzkoa».
 - Ur-emia neurtzeko Ozaetako estazioak hartzen du herri-jabari hidraulikoa.
- Aireko korridorea: bi aireko linea elektrikok zeharkatzen dute Barrundia ibaia.

Presioak eta arriskuak

- Kutsatzaileen aldi behingo isurpenak: uda-garaian, KBEko herrien isurketa-guneetatik behera, isurpenek ibaiak arazteko duen gaitasuna gaitzen dute, agorraldia nabarmena delako. Gainera, ur-hartzeek egoera larriagotzen dute.
 - Lau isurketa Barrundia-II. tartean.
- Kutsatzaileen isurpen zehaztugabeak: litekeena da zehaztugabeko kutsadura egotea, KBEan nekazaritza- eta basogintza-jarduerak egiten direlako, baina intentsitate txikia duela ematen du.
 - KBE guztian.
- Uraren kontsumo-erabilerak: Barrundia ibaia / Río Barrundia KBEan (presa txikien bidez) eta bi ibai-tarteetako drainatze-arroetan, zenbait hornikuntza-sistema daude herrietarako eta sailak ureztatzeke. Kontua da agorraldia oso handia dela eta ur-hartzeek txikiagotu egiten dutela emaria (presa txikietatik behera desagertu ere egiten da), eta horrek eragin izugarria du ibai-ekosisteman. Presa txiki hauek daude:
 - Bat Barrundia-I. tartean.
 - Bi Barrundia-II. tartean.
- Arrain-espezieek ezin gaindi ditzaketen oztopoak:
 - Bi, arraintzako eskalarik gabe.
- Aldaketa morfologikoak:
 - Barrundia- II. tartea. Hormigoi-blokez eginiko babes txiki bat dago, tartearen % 0,1 hartzen duena. Gainera, duela urte batzuk ibilgu-arteak egin ziren.
 - Barrundia ibaiaren erdialdeko eta behealdeko tarteak. Lurrezko ildo-bizkarrek ibilguaren eta uholde-lautadaren arteko erlazioa mugatzen dute.
- Nekazaritza- eta basogintza-laborantzak: inguruneari egiten zaizkion presioak dira, ibarbasoari zuzenean eragiten baitiote, eta, horren ondorioz, luzetarako eta zeharkako jarraitutasuna zatikatu egiten da. Ibarbasoaren aldaketek habitaten erabilgarritasuna eta ekologia-lotura gutxiagotzen dute, eta eragin zuzena dute ibai-sistemen prozesu ekologikoetan.
- Intereseko habitat hauei loturiko Batasunaren intereseko intsektu-espezieak dauden ez jakitea. Hori dela eta, ez dakigu baso-masa horiek kudeatzeko neurriak hartu behar diren, bertan bizi diren intereseko intsektu-espezieak kontserbatzeko.

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak	
<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzak, Barrundia ibaiaren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko, Uraren Esparru Zuzentzarauak ezarritako kalitate-parametroak hartu ditu oinarri. 2006. urtera arte, laginketa-estazioa Barrian zegoen, eta 2007tik aurrera, Maturanen. - Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programak (2007-2013) aintzat hartzen ditu zenbait nekazaritza- eta ingurumen-neurri, gutxienez 5 m-ko zabalera betetzen duen erriberako landaredi naturala duten eremuak kontserbatzeko eta lehengoratzeko; horretarako, baso-berritzeetan espezie jakin batzuk soilik erabil daitezke, eta mendien ustiaketarako hain kaltegarriak ez diren teknikak baliatu behar dira. 	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Barrundia ibaia/Río Barrundia KBEaren ibai-korridore ekologikoa kontserbatzea eta lehengora ekartzea
1. helburu operatiboa	Korridore ekologiko jarraitua kontserbatzea eta lehengora ekartzea, ibai-korridore ekologikoaren dibertsitatea eta funtzionamendua zehazten duten prozesuak bermatzeko, eta intereseko animalia-espezieak egotea eta lekualdatu ahal izatea errazteko (bisoi europarra, loina, errutilo hegatsgorria eta ibai-karramarro autoktonoa)
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 1.JAR.1 (9,36 ha) jarduera, erriberako landaredi naturala lehengoratzeko, proposatutako tartetean, 5 metroko zabalera banda batean (ikus Jardueren mapa). Halaber, 9,36 ha-ko azaleran galeria-basoa lehengoratzeko aurreikusten du, galeria-basoen jarraitutasuna galtzen den eremuetan, edo haltzadiren kontserbazio-egoera kaskarra den eremuetan.</p> <p>Aplikagarria da, halaber, 1. JAR.2 jarduera: lursailen jabeekin borondatezko akordioak sustatzea, proposatutako tartetean erriberako landaredi naturalaren egitura eta osaera hobetzeko, gutxienez 10 m-ko zabalera (ikus Jardueren Mapa). Helburua da ibaiertzeko azaleraren 4,35 ha-tan jardutea.</p> <p>Aplikagarriak dira, halaber, 1.JAR.3 jarduera (herri-jabari hidraulikoa zehazteko eta ibai-lurraldea mugatzeko eskatzea) eta 1.JAR.4 jarduera (presa txikietatik behera aplikatzen den ingurumen-emarien erregimena berrikustea).</p> <p>JP.1. Ur-emaria neurtzeko estazio bat eraikitzea KBEan.</p>
2. helburu operatiboa	KBEaren barnean, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira neurri hauek: 1.JAR.5, KBEaren egoera ekologiko egokiaren kontrolari eta jarraipenari dagokiona; eta 1.JAR.10, isurketak KBE honetan egiten dituzten hirigunetako saneamenduari buruzkoa.</p> <p>JP.2.- Isurketen aldizkako jarraipena egitea, baita nekazaritzak eragin dezakeen zehaztugabeko kutsadurarena ere. KBEaren egoera ekologikoa ona edo oso ona dela egiaztatuko da. Hala ez bada, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak betearaziko dira (ikus 1.JAR.10).</p>
3. helburu operatiboa	Ur-korridoreko oztopoak kentzea
Jarduerak	Aplikagarria da 5.J.2 jarraibidea, KBEaren barnean erabiltzen ez diren emakidei buruzkoa.

JP:3.- Arrain-espezieek ezin gaindi ditzaketen oztopoak, emakida iraungita dutenak, iragazkortzeko eta/edo eraisteko proiektuak idaztea eta abian jartzea. Jardueraren ondoren, jarraipen bat egingo da, iragazkortzeko hartutako neurrien eraginkortasuna aztertzeko (ikus Jardueren mapa).

IBILGUA	UDALERRIA	UTM (X)	UTM (Y)	ALTUERA (m)	ESKALA/MOTA	UR PILATUA (m)
Barrundia	San Millán	546046	4751571	-	Ez	-
Barrundia	San Millán	545774	4751595	-	Ez	-
Barrundia	San Millán	547203	4751870	(Ibia)		
Barrundia	San Millán	546684	4751765	(Ibia)		
Barrundia	Asparrena	550807	4752472	(Ibia)		

Barrundia ibaia / Río Barrundia KBEan, arrain-espezieek ezin gaindi ditzaketen oztopoak, emakida iraungita dutenak

HALTZADIAK ETA LIZARDIAK (EBko 91E0* KODEA)**Justifikazioa**

- Haltzadien eta lizardiaren habitata lehentasunezko habitata da eta Habitategi buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean jasota dago.
- Barrundia ibaiko erriberako berezko ibai-habitata da.
- Barrundia ibaia / Río Barrundia KBEan habitat nagusia da, baina erdialdeko tartean ameztiak dira nagusi (Kod. EB 9230), eta goiko zatian, pagadi azidofiloak (Kod. EB 9120).
- Barrundia ibaian, babesteko eta jateko lekuak eratzen dute intereseko zenbait fauna-espezierentzat, adibidez: bisoi europar, loina eta errutilo hegatsgorriarentzat eta, agian, Europar Batasunaren intereseko intsektu saproxilikoentzat.

Kontserbazio-egoera

- Barrundia ibai inguruan dauden haltzadiak eta lizardiaren kontserbazio-egoera txarra da. Luzetarako zatiketa dago, eremuan egiten diren nekazaritza- eta abeltzaintza-erabileren presioaren eraginez (laborantzak eta ganadurako belardiak), baita makal- eta konifero-sailen eraginez ere. Barrundia ibaiaren erdialdeko eta behealdeko tarte batzuen zeharkako dimentsioari erreparatuta, baso-egitura falta dela egiaztatzen da, eta, kasu batzuetan, zuhaitz-lerro bat baino ez dago.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriekin)

- Gizakiak hidrologian eragindako beste aldaketa batzuk (890): KBEaren mugetan, presa txikien bidez eta drainatze-arroan, ura hartzeko sistemak daude kontsumo-erabilerarako (herriguneak hornitzea) eta sailak ureztatzeko. Barrundia ibaian agorraldia oso nabarmena denez, ur-hartzeek txikiagotu egiten dute emaria, eta presa txikietatik behera desagertu ere egiten da; horrek maila freatikoa gutxitzea eragiten du, eta, beraz, habitatari eragiten dio.
- Kanalizazioa (830) edo aldaketa morfologikoak: Barrundia ibaiko erdialdeko eta behealdeko tartean dauden lurrezko ildo-bizkarrek ibilguaren dinamika garatzea eragozten dute, bai eta haltzadien eta lizardiaren habitatak garatzea ere. Barriatik behera, bokaleraino, hormigoi-blokez eginiko babesez eratutako tarte txiki bat dago.
- Laborantzak (100) eta baso-landaketak (161): laborantzek eta baso-landaketek (*Populus gr. deltoides* eta beste batzuk) presioa eragiten dute KBEan dauden intereseko habitaten kontserbazioan, habitat horiek eta ondokoak zatikatzen baitituzte. Horren ondorioz, lehen aipatutako fauna-espezieentzako habitataren erabilgarritasuna gutxiagotzen da, bai eta ekologia-lotura ere.

<ul style="list-style-type: none"> - Espezie exotikoak (954): Barrundia ibaia KBEaren eremuan, bertakoa ez den flora-espezieak daude, eta haietako batzuk inbaditzaileak dira: Kanadako makala (<i>Populus gr. deltoides</i>), <i>Populus nigra L. var. italica</i>, intxaurrendoa (<i>Junglans regia</i>), sasiakazia (<i>Robinia pseudoacacia</i>), Lawson altzifrea (<i>Chamaecyparis lawsoniana</i>), larizio pinua (<i>Pinus nigra</i>), izeiak (<i>Abies sp</i>) eta pinu gorria (<i>Pinus sylvestris</i>). Espezie horiek landatuta daude (5,76 ha) edo espezie nagusiak dira zuhaitz-unadetako zuhaitzgeruzan. Geruza horretan, intereseko habitatetako espezie lagunez dago osatuta oihanpea. KBEan, Kanadako makala espezie exotiko ugaria da, eta Barrundia ibaiaren erdialdeko eta behealdeko tartean dago. - KBEa handitzeko proposaturiko zonetan, beharrezkoa da habitatek zer azalera hartzen duten eta haien kontserbazio-egoera hobeto ezagutzea, habitatak interesekoak izan ala ez. 	
Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak	
<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programak (2007-2013) aintzat hartzen ditu zenbait nekazaritza- eta ingurumen-neurri, gutxienez 5 m-ko zabalera betetzen duen erriberako landaredi naturala duten eremuak kontserbatzeko eta lehengoratzeko; horretarako, baso-berritzeetan espezie jakin batzuk soilik erabil daitezke, mendien ustiaketarako hain kaltegarriak ez diren teknikak baliatu behar dira, etab. - Arabako Foru Aldundiaren Basogintzarako Laguntza Planean (abenduaren 23ko 112/2008 Foru Dekretua), tokiko erakunde nahiz eragile pribatuentzat, mendiaren basotze iraunkorra diruz lagunduko da % 30etik % 70era bitartean, eta % 10 gehituko da Natura 2000 Sarean dauden eremuetan. 	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Haltzadien eta lizardiaren kontserbazio-egoera onari eustea
1. helburu operatiboa	KBEan dauden batasunaren intereseko habitaten eta fauna- eta flora-espezieen banaketa eta presentzia hobeto ezagutzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.11 neurria, helburu hauek dituen jarraipen bat egiteko: hartutako azalera zehaztea, eta KBEan dauden habitatek zer kontserbazio-egoera eta adierazgarritasuna duten jakitea. Aplikagarria da, halaber, 1.JAR.13 neurria, KBEan Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan jasota dauden zer intsektu dauden hobeto jakiteko.
2. helburu operatiboa	Intereseko habitaten kalitate ekologikoa hobetzea
Jarduerak	Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoa funtsezko elementuan proposaturiko neurri guztiak.

LILIPA ARRUNTA (NARCISSUS PSEUDONARCISSUS L.)

Justifikazioa				
<ul style="list-style-type: none"> - Europar Batasunean, Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasota dago. - Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan, «bakana» kategorian dago sailkatuta. 				
Kontserbazio-egoera				
<ul style="list-style-type: none"> - <i>N. nobilis</i> eta <i>N. varduliensis</i> Iberiar penintsulako iparraldeko endemismoak dira. Lehenengoa EAEko mendebaldean bizi da, eta Gorbeia mendian du ekialdeko muga. Silizikola da eta txilardietan, mendietako errekaetako ertzetan eta zingiretan bizi da. Bigarrena EAEko ekialdean bizi da, Gorbeia menditik Urbasa mendilerroraino. Izki mendilerrora heltzen da hegoaldean. Erlaitz humiferoetan eta karsten arrailetan bizi da, ubideen alboan dauden alubioi-lurretan, edo pagadi eta hariztiei loturik. - Jende gutxi dabilen leku batzuetako populazioak oparoak dira, baina, oro har, bi lilipa hauen populazioak txikiak dira eta bakanduta daude elkarrengandik. - KBEan populazio bakar baten berri dugu, Hermua eta Ozaeta herrien artean, eta 10 ale baino ez daude. Gaur egun, ez dakigu populazio horrek zer kontserbazio-egoera duen. 				
ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata				X
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera				Ez dakigu
Presioak eta arriskuak				
<ul style="list-style-type: none"> - <u>Landareen biltzea (250)</u>: lore handi eta ikusgarriak dituzenez, apaintzeko biltzen da espezie hau. Erra-boila biltzen ez bada ere, lorea moztean landarea kaltetzen da, ez baitaio bizi-zikloa betetzen uzten. - <u>Basogintza-jarduera orokorrak (160)</u>: ez dakigu baso-ustiapenari loturiko jarduerak (pistak irekitzea, baso-mozketak, egurra ateratzeko bideak, etab.) arriskuan jartzen dituzten KBEan dauden lilipa arruntentzako populazioak. 				
Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak				
<ul style="list-style-type: none"> - EAEn arriskupean dagoen flora-espezieen inbentarioak eta kartografia bat badaude, baina ez dago zehaztuta espezie horrek zer kokaleku duen KBEan. - Babes-estatus legala du. 				
Helburuak eta jarduerak				
Azken helburua	KBEan dauden lilipa arruntentzako populazio guztien kontserbazioa eta bideragarritasuna bermatzea			
1. helburu operatiboa	KBEan dauden lilipa arruntentzako populazio guztiak aurkitzea			
Jarduerak	Aplikagarriak dira 1.JAR.14 eta 1.JAR.15 neurriak, KBEan dauden lilipa arruntentzako presentziari eta haien kontserbazio-egoeraren aldezkatu jarraipenari buruzkoak.			

BISOI EUROPARRA (*MUSTELA LUTREOLA*)**Justifikazioa**

- Europar Batasunean, lehentasunezkoztat jotzen da espezie honen kontserbazioa, eta Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan jasota dago.
- Arriskupean dauden Espezieen Espainiako eta Euskadiko Katalogoetan, «galtzeko arriskuan» kategorian sailkatuta dago.
- Arabako lurralde historikoan, Kudeaketa Plan bat dago, 2003an onartu zena. Plan horren arabera, eremu hau Interes Berezikoko Eremua da bisoi europarrantzat.

Kontserbazio-egoera

- Europan, XIX. mendearen amaierara arte, bisoi europarra Erdialdeko Europa osoan bizi zen (Frantziatik Uraletaraino). Gaur egun, ordea, Europako populazioa asko murriztu da, eta bi populazio-gune bakandu soilik geratu dira. Gune bat ekialdean dago, Errusian eta Danubio ibaiaren deltan (Errumania, Ukraina eta Moldavia); bestea, mendebaldean, Frantziako hego-mendebaldean eta Espainiako iparraldean.
- Espainian, Ebro ibaiaren goiko eta erdiko tartean eta haren ibaiadarretan soilik dago populazio-gune bat. Erkidego hauetan dago banatuta: Euskadi, Nafarroa, Errioxa eta Gaztela eta Leon (Burgos).
- Araban, populazio-dentsitate handiena Ebro ibaian eta haren ibaiadarretan dago. Bisoi europarraren Arabako azpipopulazioa oso zatikatuta dago ibai gehienetan. Bi tartean soilik du jarraitutasuna espezieak: Ebro ibaian eta Zadorra ibaiaren beheko tartean (Gasteiztik Ebron urak isurtzen dituen lekuraino).
- Barrundia ibaia / Río Barrundia KBEa habitat egokia da bisoi europarrantzat, baina 2004tik aurrera ez da eremu horretan antzeman.



Bisoi europarraren (berdez) eta bisoi amerikarraren (gorriz) banaketa Araban. Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2009

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

- Espezie batek ingurua inbaditzea (954). Arrisku hori, funtsezko elementu horretan, beste ondorio batzuen eragilea da, hala nola: gaixotasun bat sartzea (963) eta populazioen kutsadura genetikoa (964). Bisoi amerikarra egoteak mugatzen du gehienbat bisoi europarraren populazioa kokatzea Barrundia ibaiaren KBEan. 2004tik aurrera, Zadorra ibaiaren goiko zatian (han dago Barrundia ibaia), ez da bisoi europarririk harrapatu, bai ordea bisoi amerikarrak, azken urteetan batik bat.
- Bisoi amerikarra ingurunean basati bihurtzeak bisoi europarraren banaketaren atzerakada ekarri du Arabako ibaietan, espezie bikarioak baitira. Bisoi amerikarra espezie oldarkorragoa da, ugalkorragoa, sabelaldi ugariagoak ditu, lehenago sartzten da araldian eta, gainera, bisoi europarraren emeak estaltzeko gai da —hortik enbrioi bideraezinak sortzen dira—. Bestalde, zenbait gaixotasunen eramailea da, hala nola mukieria eta gaixotasun aleutiarra. Alde horretatik, ez dakigu zer ondorio izan ditzaketen gaixotasun aleutiarrak eta beste patologia batzuek, mukieriak esaterako, bisoi europarraren populazioetan.
- Sastrakadiak garbitzea (165), baso-masa soiltzea birlandatzerik egin gabe (167), kanalizazioa (830), barneko ur-lasterrak aldatzen dituzten egiturak (852) eta maila hidrikoen erabilera (853). KBEan egiten diren jarduera horiek guztiek bisoi europarraren habitata suntsitzea eta degradatzea dakarte. Erriberako landaredia zegoen lekuetan ganadurako larreak, ibilguetako lanak, ur-hartzeak, herriguneetako isurketak eta abar egiteak, agian, KBEan espezie hori ez egotea eragin dezakete. Barrundia ibaiak udan izaten duen agorraldi nabarmenaren eta inguruko herriguneetako isurketen ondorioz, bisoi europarrak gero eta harrapakin gutxiago ditu.
 - Errepideak eta autopistak (502). Gaur egun ez dakigu KBEan zenbat bisoi europar hiltzen diren errepideetan zapalduta, baina zenbait bidek eta tokiko errepidek (A-3012 eta A-4017) KBEa zehar katzen dutenez, litekeena da espezie honetako banako batzuk zapalduta hiltzea.

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

- Bisoi Europarra Kontserbatzeko LIFE 00/NAT/E/7335 Proiektua, 2001-2004 aldian Araban egina.
- Euskadiko hiru lurralde historikoetan onartu dira kudeaketa-planak. Bisoi europarraren Arabako Kudeaketa Plana, 2003ko azaroaren 7ko 322/2003 Foru Aginduarekin bat.
- 2002. urtetik aurrera, Arabako Foru Aldundiak bisoi europarraren jarraipena egiteko eta bisoi amerikarra desagerrarazteko kanpainak egiten ditu urtero Barrundia ibaian.
- Salburuan, bertako populazioa sendotzeko proba pilotu bat egin zen, Kataluniako Pont de Suert hirian dagoen itxian hazteko zentrotik ekarritako bisoiekin (Gómez, A., 2009). Banako horietako bat, zenbaitetan, Larrearaino iritsi da (jakinarazpen pertsonala). Araban, bada proiektu bat Gau-bean itxian hazteko zentro bat egiteko, baina ez du finantzaketarik.
- Datu-base bat egiten ari dira, Araban espezie horrek duen egoerari buruzko informazio guztia biltzen duena.
- Ibilguetan egin beharreko jardueren barnean (Ibilguen eta ibaiertzen garbiketa izenekoak), espezie hori kontserbatzeko zenbait neurri proposatzen ditu Arabako Foru Aldundiak.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Barrundia ibaia/Río Barrundia KBEaren barnean bisoi europarra egon dadin bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna
1. helburu operatiboa	Barrundia ibaia KBEan bisoi europarraren populazio-egitura eta osasun-egoera nolakoa den hobeto jakitea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, KBEko bisoi europarraren populazioaren aldizkako jarraipenari dagokionez (3 urtean behin gutxienez). Jarraipen horretan, populazioaren genetika eta espeziearen patologiek populazioan izan dezaketen eragina aztertzeke beharrezko laginak hartuko dira.
2. helburu operatiboa	KBEko bisoi europarraren banaketa-eremuaren barnean, bisoi amerikarraren populazio basatuak desagerraraztea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.18 neurria, KBE honetan bisoi amerikarra kontrolatzeko eta deuseztatzeko urteroko jardunari dagokionez.
3. helburu operatiboa	KBEan, espeziearen habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.22 neurria, bisoi europarraren habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idazteari eta hedatzeari buruzkoa. Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoa funtsezko elementuan proposaturiko neurri guztiak ; batik bat, landaredi-banda jarraitu bati eustea eta lehengoratztea; eta KBEaren egoera ekologiko ona eta bertako uren kalitatea bermatzeko emari-erregimen egokia ezartzea.
4. helburu operatiboa	KBEaren barnean, espeziea modu ez-naturalean hiltzea eragin dezaketen kausak desagerraraztea
Jarduerak	JP.4.- KBEa zeharkatzen duten errepide eta bideetan, bisoi europarra zer gunetan hiltzen den zapalduta (gune beltzak) identifikatzea eta kentzea.

ERRUTILO HEGATSGORRIA (*ACHONDROSTOMA ARCASII*) eta LOINA edo IPARRALDEKO LOINA TXIKIA (*PARACHONDROSTOMA MIEGII*)**Justifikazioa**

- Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasotako espezieak dira.
- Iberiar penintsulako espezie endemikoak dira.
- KBEan, loina ohiko espeziea da; ez, ordea, errutilo hegatsgorria.

Kontserbazio-egoera

- Errutilo hegatsgorria: ez dakigu EAEn zenbatekoa den espezie horren populazioa. Barriako estazioan ez da erregulartasunez azaltzen urteko laginketetan, eta azaltzen denean, ez da oso ugaria izaten. Maturanen, berriz, ez da azken bi urteetako laginketetan azaldu.
- Loina: EAEn oso hedatuta dago. Barrundia ibaian ohiko espeziea da. Ez dakigu nolakoa den loinaren kontserbazio-egoera.

Espeziea	Estazioa	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Errutilo hegatsgorria	ZAB-088	3	0	8	9	1	-	-
	ZAB-162	-	-	-	-	-	0	0
Loina edo iparraldeko loina txikia	ZAB-088	21	93	95	161	59	-	-
	ZAB-162	-	-	-	-	-	12	10

Errutilo hegatsgorriaren eta loinaren banakoen kopuruak, Barriako eta Maturanako estazioetan

ONDORIOAK: ERRUTILO HEGATSGORRIA

	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata				X
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

ONDORIOAK: LOINA

	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata				X
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera				Ez dakigu

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

- Baso-masa soiltzea, birlandatzerik egin gabe (167), Harea eta legarra erauzte (300), hareatzetako agregakinak erauzte (302), kanalizazioa (830): jarduera horiek guztiek habitata desagertzea eta aldatzea eragiten dute. Kanalizazio- eta babes-lanek ibaiertzetako habitataren dibertsitatea desagerrarazten dute, eta babeslekuak ezerezten dituzte, loinarenak batik bat. Erriberako landaredia desagerrarazten dutenean, hauek ere eragiten dituzte: solido esekiak gehitzea, uraren temperatura igotzea, etab. Kaltea handiagoa da, espezie horien arrabaroan gertatzen denean.
- Funtzionamendu hidrologikoaren aldaketak (850): ibaiaren zenbait tartetan herriguneak hornitzeko dauden ur-hartzeek (gainazalekoak eta lurpekoak) ibilgua urik gabe uzten dute, edo, emaria ez da nahikoa isurketak diluitzeko eta, agian, arrain-populazioei eusteko.

<ul style="list-style-type: none"> - <u>Barneko ur-lasterrak aldatzen dituzten egiturak (852)</u>: espezie horiek ezin gaindi ditzaketen oztopoak (ikus «ibai-korridore ekologikoa»). - <u>Uraren kutsadura (701)</u>: araztu gabeko isurketak egiten dira, KBEaren inguruan dauden herrigune-etatik. Zenbaitetan, agorraldian, Barrundia ibaiko emaria, Larrea eta Ozaeta artean, ez da nahikoa izan herrigune horietatik isurtzen dituzten hondakin-urak diluitzeko, eta horrek arrainen heriotza ekarri du. Gainera, nekazaritzak eragindako kutsadura-iturri zehaztugabeak hauteman dira. Zinka, fluoruroak eta amonioa hauteman dira, baina indarreko legeriak ezartzen dituen mugak gainditu gabe. - <u>Kirol-arrantza (220)</u>: espezie biak arrantza daitezke. - <u>Harraparitza (965)</u>: Uribarri-Ganboa urtegiaren eraginpeko tartean, arrain-espezie exotikoak daude, hala nola lutxoak, ataloka eta perka amerikarra. 	
Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak	
<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia duela zenbait urte ari dira uren kalitate fisikokimikoa-ren eta biologikoa-ren jarraipena egiten. Kalitate biologikoa-ren jarraipenari dagokionez, urtean behin egiten dira arrain-populazioen laginketak, arrantza elektrikoaren bidez, lehen Barriako estaziorako, eta orain Maturanako estaziorako. 	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Barrundia ibaia KBEan errutilo hegatsgorriaren eta loinaren populazioak egon daitezen bermatzea, kontuan izanik espezie horiek hartzeko duen gaitasuna
1. helburu operatiboa	KBEan errutilo hegatsgorriaren eta loinaren populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 1.JAR.5 eta 1.JAR.22 neurriak, egoera ekologikoa zehazteko aldizkako laginketak egiteari buruzkoa (barnean hartuta arrain-laginketak), eta espezie horien habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idazteari eta hedatzeari buruzkoa.
2. helburu operatiboa	KBEan, errutilo hegatsgorriaren eta loinaren habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	JP.5.- KBEan habitataren (mesohabitata) ezaugarritze-azterlan bat egitea eta arrain-espezie horien eskakizun ekologikoak zehaztea. Barnean hartuko du populazioaren tamainaren iritzirako kalkulua , bai eta kontserbazio-egoeraren zehaztapena ere. Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoa funtsezko elementuan proposaturiko neurri hauek: oztopoak kentzea, uren kalitateari eustea edo lehengoratztea, eta KBEan errutilo hegatsgorriaren eta loinaren populazioei eustea bermatuko duen emari-erregimen bat ezartzea.

IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA: MARTIN ARRANTZALEA (ALCEDO ATTHIS) eta UR-ZOZOA (CINCLUS CINCLUS)**Justifikazioa**

- Ibai-ingurunearen kalitatearen adierazle bikainak diren espezie batzuk bizi dira bertan, hala nola martin arrantzalea eta ur-zozoa.
- Martin arrantzalea Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean jasota dago.
- Bi espezie horiek Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan ageri dira.

Kontserbazio-egoera**Martin arrantzalea**

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera				Ez dakigu

Ur-zozoa

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera				Ez dakigu

Presioak eta arriskuak

Espezie horien gaineko presio nagusiek zerikusia dute, batetik, uren kalitatearekin (701), tarte batzuetan aldiari behin isurketak egiten baitira (ikus ibai-korridore ekologikoa); eta bestetik, habitatean egin diren aldaketekin: kanalizazioak (830), funtzionamendu hidrológicoaren aldaketa (890), ibaiertzeko baso-soiltzea (167) eta harea- eta legar-erauzketak (300).

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak

- Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia duela zenbait urte ari dira uren kalitate fisikokimikoaren eta biologikoaren jarraipena egiten. Kalitate biologikoaren jarraipenari dagokionez, urtean behin egiten dira arrain-populazioen laginketak, arrantza elektrikoaren bidez.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	KBEaren barnean martin arrantzalea eta ur-zozoa egon daitezen bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna
-----------------------	---

1. helburu operatiboa	KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.20 neurria, espezie horien habitata hobetzeko proiektuak egiteari buruzkoa.
1. helburu operatiboa	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, espezie horien populazioen kontserbazio-egoera nolakoa den jakiteko aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa.

JARRAIPEN-PROGRAMA

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren ebaluazioa egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumetu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA	Barrundia Ibaia/Río Barrundia KBEaren ibai-korridore ekologikoa kontserbatzea eta lehengora ekartzea	Korridore ekologiko jarraitua kontserbatzea eta lehengora ekartzea, ibalitzen arteko ekologia-lotura bermatzeko, eta intereseko animalia-espezieak egotea eta lekualdatu ahal izatea errazteko (bisoi europarra, loina, errutilo hegatsgorria eta ibai karramarro autoktonoa)	Belardiak, laboreek eta jarraitutasuna eteten duten beste elementu batzuek betetzen duten berreskuratutako erriberako landaredi naturalaren azalera (ha)	0	9,36 ha
		Ibai-korridore ekologikoaren dibertsitatea eta funtzionamendua zehazten duten prozesuak bermatzea	Borondatezko akordioen bidez babestutako azalera (ha)	0	4,35 ha
HALTZADIAK ETA LIZARDIAK (KOD. EB 91E0*)	Haltzadien eta lizardiaren kontserbazio-egoera onari eustea	KBEaren eremuan, uraren kallitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	KBEaren eremuko herri-jabari hidraulikoa eta ibai-lurraldea zehazteko proposamena egitea eskudun erakundeari	Ez da proposamena egin	Proposamena egin da
		Ur-korridoreko oztopoak kentzea	Ingurumen-baldintzak betetzen dituen emari-erregimen bat ezartzea, KBEaren kudeaketan funtsezkotzat jotzen diren elementuak kontserbatzeko	Ez da ezarri emari egokia	Ezarri da
		KBEan dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitatei buruz gehiago jakitea	Barrundia ibaiaren egoera ekologikoa, Uraren Esparru Zuzentzarauak ezarritako parametroak aintzat hartuta	Egoera ekologiko eskasa behealdeko tartean; ona, goialdeko tartean	Egoera ekologiko ona KBEaren eremu guztian.
		KBEan dauden lilipa arruntaren populazio guztiak aurkitzea	Isurketen berri jakitea eta egokitzea, KBEaren egoera ekologikoa ona izan dadin	Ez dakigu	Egokitzen dira
LILIPA ARRUNTA (<i>Narcissus pseudonarcissus</i> L.)	KBEan dauden lilipa arruntaren populazio guztien kontserbazioa eta bideragarritasuna bermatzea	Ur-korridoreko oztopoak kentzea	KBEa isurpenak egiten dituzten guneen saneamendua hobetzea	Ereku batzuetan ez dago saneamendurik	Egiteko dauden jarduerak gauzatzea
		KBEan dauden lilipa arruntaren populazio guztien kontserbazioa eta bideragarritasuna bermatzea	Gaindi ezin daitezkeen oztopoak iragazkortzea	2	2 oztopo iragazkortu dira
		KBEan dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitatei buruz gehiago jakitea	Habitaten jarraipen bat egitea (1/5.000 eskala), KBEan dauden habitate guztien azalera, kontserbazio-egoera eta adierazgarritasuna zehazteko, habitateak interesekoak izan ala ez	Ez dakigu	Egin da
		KBEan dauden lilipa arruntaren populazio guztiak aurkitzea	KBEan dauden intereseko intsektuak, kontserbazio-egoera eta kontserbazio-neurriak	Ez dakigu	Badakigu
		KBEan dauden lilipa arruntaren populazio guztiak aurkitzea	KBEan dauden lilipa arruntaren populazioen kartografia	Ez da egin	Egin da
		KBEan dauden lilipa arruntaren populazio guztiak aurkitzea	Lilipa arruntaren populazioak aldizka monitorizatzea	Ez da egin	Egin da

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
BISOI EUROPARRA (<i>Mustela lutreola</i>)	Barrundia ibaia/Río Barrundia KBEan bisoi europarra egon dadin bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	KBE honetan bisoi europarraren populazio-egitura eta osasun-egoera nolakoa den hobeto jakitea KBEko bisoi europarraren banaketa-eremuaren barnean, bisoi amerikarraren populazio basatuak desagerraraztea KBEan, espeziearen habitataren baldintzak hobetzea KBEaren barnean, espeziea modu ez-naturalean hiltzea eragin dezaketen kausak desagerraraztea	Populazio-egitura eta osasun-egoera Ingurunetik ateratako bisoi amerikarren banako-kopurua Bisoi europarraren habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idaztea eta hedatzea Bisoi europarra hiltzeko arriskua dakarten guneen kopurua	Badakigu Badakigu Ez da egin 7	Badakigu Ez dago bisoi amerikarrrik KBEan Idatzi eta hedatu dira (100 ale paperean eta webgunean) 0
ERRUTILLO HEGATSGORRIA (<i>Achondrostoma arcasi</i>) eta LOINA edo IPARRALDEKO LOINA TXIKIA (<i>Parachondrostoma miegi</i>)	Barrundia ibaia KBEan errutilo hegatsgorriaren eta loinaren populazioak egon daitezen bermatzea, kontuan izanik espezie horiek hartzeko duen gaitasuna	KBEan errutilo hegatsgorriaren eta loinaren populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea KBEan, errutilo hegatsgorriaren eta loinaren habitataren baldintzak hobetzea KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea	Arrain-populazioen kontserbazio-egoera KBEan bizi diren errutilo hegatsgorriaren eta loinaren mesohabitataren azterketa. Espeziearen banaketa eta kontserbazio-egoera zehaztea Loinaren eta errutilo hegatsgorriaren habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idaztea eta hedatzea Habitata lehengoratzeko proiektuak egitea	Ez dakigu (urtekoa) Ez dakigu Ez da egin 0	Badakigu (urtekoa) Badakigu Idatzi eta hedatu dira (100 ale paperean eta webgunean) Bi proiektu gauzatu dira Badakigu
IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA	KBEan martin arrantzalea eta ur-zoza egon daitezen bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Uhalde-enararen, martin arrantzalearen eta ur-zozaoren kontserbazio-egoera	Ez dakigu	Badakigu

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2110017.xml&lang=eu

XIV. ERANSKINA

ES2110023 ARAKIL IBAIA/RÍO ARAKIL KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN
HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK**FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA JARDUERAK**

Hurrengo tauletan, Arakil ibaia/Río Arakil KBEan kudeaketarako funtsezkotzat jotzen diren elementuetariko bakoitzarentzat kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA**Justifikazioa**

- Arakil ibaia/Río Arakil KBEak interes bereziko beste leku batzuk ditu inguruan: iparraldean, Aizkorri-Aratz KBEa (ES2120002); eta hegoaldean, Entzia Mendilerroa KBEa (ES2110022).
- Arakil ibaia/Río Arakil KBEko korridore ekologikoak, ongi egituratutako erriberako landaredirik ez badu ere, aukera ematen du korridore bezala erabiltzeko, beste lurralde batzuk kolonizatzeko aldera, bai eta intereseko espezieen populazioen arteko trukatzeko genetikoari begira ere; adibidez, bisoi europarren artekoari.
- Ibaiertzean erriberako landaredia egonik, babes-eremuak daude zenbait espezierentzat; esate baterako, bisoi europarrarentzat eta intereseko arrain-espezie batzuentzat, hala nola errutilo hegatsgorriarentzat eta laina edo iparraldeko laina txikiarentzat. Horrez gain, erriberako landarediak itzala ematen dio ibilguari, eta elikagaia, makroornogabeei; azken horiek,aldi berean, arrainen elikagai dira. Bestalde, landaredi horrek uraren kalitatea hobetzen du, ibilgura iristen diren substantzia kutsagarrien eta solido esekien kantitatea murrizten baitu. Intereseko hegazti-espezieentzat atseden hartzeko, elikatzeko eta lekualdatzeko eremua ere bada hori; adibidez, martin arrantzalearentzat eta miru gorriarentzat.

Kontserbazio-egoera

Lehorreko korridorea: Arakil ibaia/Río Arakil KBEan, erriberako landarediak luzetara duen ekologia-lotura ez da ona. Izan ere, eremu ez-jarraituak ibaiertzeko estaldura osoaren % 9,5 soilik badira ere, landare-eraketek ez dute egitura egokia. Landare-egituran, zuhaixka-geruza da nagusi. Eta zuhaitz-geruza nagusi den lekuetan, Kanadako makala da adierazle ugariena. Ia ez dago Batasunaren interesekoa den habitatik. Zeharkako ekologia-lotura ere ez da ona. Izan ere, Arakil ibaian aldaketa eta artezte asko egin dira urteetan zehar, eta, horrez gain, lurraldea erruz egokitu da nekazaritza-jarduerarako.

Uretako korridorea: Arakil ibaia/Río Arakil KBEa «salmonidoen» tarte gisa kalifikatu da, baina haren egoera ekologikoa «eskasa» da. Besteak beste, espezie hauek bizi dira tarte horretan: errutilo hegatsgorria, mazkarra, barboa, amuarraina eta laina. Arakil ibaiaren goiko zatian ur-hartzeak daude, eta horrek dezente murrizten du ibaiaren ur-emaria. Hori dela eta, agorraldietan ibaiaren emaria ez da nahikoa izaten isurpenei aurre egiteko (araztegiak, hiriguneetakoak, industriakoak, etab.). Horrez gain, arrain-espezieen mugimenduak oztokatzen dituzten egiturak daude, eta hori ere kaltegarria da ekologia-loturari begira.

Aireko korridorea: Arakil ibaia/Río Arakil KBEa sei aldiz zeharkatzen du aireko linea elektriko batek; linea horrek ez dauka KBEko hegazti-faunak talka egitea eta/edo elektrokutatzea eragozteko gailurik.

Presioak eta arriskuak	
<ul style="list-style-type: none"> - <u>Ibaiertzeko zeharkako eremuaren garrantzia oso mugatua da</u>: erriberako landaredi-bandaren zabalera ez da nahikoa dagozkion funtzioak betetzeko (korridore ekologiko gisa funtzionatzea, ibaiertzak egonkortzea, iragazki berdea izatea, etab.). Zeharkako eremu horren jarraitutasuna zenbait elementuk eteten dute: labore-soroek; Asparrenan, lubeta batek; ibilguaren artezteek; eta basoan egiten diren abereentzako itxiturek. - <u>Eremu batzuetan, ez dago erriberako landaredi bereizgarririk</u>: erriberako landaredi naturalaren jarraitutasunaren etendurek 1.144, ml-ko bolumena dute guztira. Luzetarako jarraitutasunik ez izateaz gain, landare-eraketek ez dute egitura egokia. - <u>Arrain-espezieek ezin gaindi ditzaketan oztupoak</u>: <i>EAEko presen eta presa txikien administrazio-egoeraren alderaketa</i> azterlanaren arabera, KBE honetan ez dago arrain-populazioak ibai-korridorean zehar igarotzea oztopatzen duen egiturarik. Hala ere, azterlan hau egin duen lantaldeak lekuan bertan egindako azterketan ikusi du badirela oztupo diren zazpi egitura, KBEko intereseko arrain-fauna (errutilo hegatsgorria eta loina) lekualdatzea eragozten dutenak; batez ere, agorraldietan. - <u>KBE hau zeharkatzen duten aireko linea elektrikoak</u>: eremuaren linealtasuna eta herrien kokapena direla eta, banaketa- eta deribazio-linea elektrikoek nahitaez zeharkatu behar dute eremu hau. Hegazti-fauna babeste aldera linea elektrikoak arautzeko legeriarik ez dagoenez, elementu horiek arriskuan jartzen dute Arakil ibaia/Río Arakil KBEko hegazti-faunaren kontserbazioa. 	
Gaur egungo jarduerak eta legezko baldintzatzaileak	
<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzak, Arakil ibaiaren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko, Uraren Esparru Zuzentzarauak Eginoko ARA-150 estazioan ezarritako kalitate-parametroak hartu ditu oinarri. - Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programak (2007-2013) aintzat hartzen ditu zenbait nekazaritza- eta ingurumen-neurri, gutxienez 5 m-ko zabalera betetzen duen erriberako landaredi naturala bermatzeko, eta horrenbestez horren adinako eremuak kontserbatzeko eta lehengoratzeko; horretarako, baso-berritzeetan espezie jakin batzuk soilik erabil daitezke, eta mendien ustiaketarako hain kaltegarriak ez diren teknikak baliatu behar dira. - EAEn ez dago berriazko araubide elektroteknikorik, hegazti-faunak talka egiteko eta/edo elektrokutatzeiko arriskua murrizteko. 	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Korridore ekologiko jarraitua kontserbatzea eta berreskuratzea, ibaiertzen arteko ekologia-lotura bermatzeko, eta intereseko animalia-espezieak egotea eta lekualdatu ahal izatea errazteko (bisoi europarra, loina eta errutilo hegatsgorria)
1. helburu operatiboa	Erriberako landaredi naturalaren banda kontserbatzea eta berreskuratzea, faunaren lekualdatzeak ahalbidetzeko
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 1.JAR.1 (5,65 ha) jarduera, erriberako landaredi naturala lehengoratzeko, proposatutako tarteetan, 5 metroko zabalera batean (ikus Jardueren mapa). Barnean hartzen du 5,65 ha-ko azaleran galeria-basoa lehengoratzeko, galeria-basoaren jarraitutasuna galtzen den eremuetan.</p> <p>Aplikagarria da, halaber, 1. JAR.2. jarduera: lursailen jabeekin borondatezko akordioak sustatzea, erriberako landaredi naturalaren egitura eta osaera hobetzeko, 10 m-ko zabaleran, proposatutako tarteetan (ikus Jardueren Mapa). Helburua da ibaiertzeko azaleraren 11,4 ha-tan jardutea.</p> <p>1.JAR.21 jarduera ere aplikagarria da; hain zuzen, ibai-korridorearen kontserbazioaren garrantziaz jabetzeko ingurumen-heziketako jarduerak garatzeko.</p>

2. helburu operatiboa	Ibai-korridore ekologikoaren dibertsitatea eta funtzionamendua zehazten duten prozesuak bermatzea																																																
Jarduerak	<p>JP.1.- KBEan ur-emaria neurtzeko estazio bat eraikitzea.</p> <p>Era berean, aplikagarria da 1.JAR.3. jarduera. Arroaren ardura duen eskudun erakundearen aurrean, herri-jabari hidraulikoa zehaztea sustatutako da. Horretarako, erakunde horrek egindako edo balidatutako azterketa teknikoak hartuko dira abiapuntu, kontuan hartuta ezaugarri morfologikoak, azterketa hidrologikoak eta hidraulikoak, eta eskuragarri dauden erreferentzia historikoak. Horren helburua da KBEaren <i>ibai-lurraldea</i> mugatzea.</p>																																																
3. helburu operatiboa	KBEaren barnean uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea																																																
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira neurri hauek: 1.JAR.4, ingurumen-emariak aztertzea sustatzeko; 1.JAR.6, urtean behin habitataren egoera ekologikoari buruzko txosten bat idazteari buruzkoa; eta 1.JAR.10, isurpenak KBE honetan egiten dituzten hiriguneetako saneamendua hobetzeari buruzkoa.</p> <p>JP.2.- Berriazko azterketa bat egitea, KBEaren egoera ekologiko ona lortzea eragozten duten presioak eta eraginak identifikatzeko eta egoera ekologiko ona lortzeko beharrezko emari-erregimena zehazteko.</p> <p>JP.3.- Araia-Asparrenako hondakin-urak arazteko estazioaren kontrol operatiboa egingo da urtean behin, haren isurpenek KBEko uren egoera ekologikoan sor ditzaketen presioak eta eraginak hautemateko. Horrez gain, hondakin-urak arazteko estazioko ur araztua industrian, hiriguneetan eta abarretan berrerabil daitekeen aztertzeo azterlan bat egingo da.</p>																																																
4. helburu operatiboa	Ur-korridoreko oztopoak kentzea																																																
Jarduerak	<p>JP.4.-Ibai-korridorean zehar arrain-espezieak mugitzea eragozten duten KBEko egiturak iragazkortzea. Egiturak desegitea edo beheratzea, emakidaren administrazio-egoera zein den. Egiturak beheratzean, hartutako neurriaren eraginkortasuna aztertzeo jarraipen bat egingo da.</p> <table border="1" data-bbox="355 1384 1422 1659"> <thead> <tr> <th>ZK.</th> <th>UTM (X)</th> <th>UTM (Y)</th> <th>ALTUERA (m)</th> <th>IRAGAZKORTASUNA SALMONIDOENTZAT</th> <th>IRAGAZKORTASUNA ZIPRINIDOENTZAT</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1</td> <td>556985</td> <td>4747001</td> <td>0,9</td> <td>ERTAINA</td> <td>TXARRA</td> </tr> <tr> <td>2</td> <td>559254</td> <td>4746814</td> <td>0,55</td> <td>ONA</td> <td>ERTAINA</td> </tr> <tr> <td>3</td> <td>559557</td> <td>4746865</td> <td>0,6</td> <td>ONA</td> <td>ERTAINA</td> </tr> <tr> <td>4</td> <td>561108</td> <td>4746670</td> <td>0,55</td> <td>ONA</td> <td>ERTAINA</td> </tr> <tr> <td>5</td> <td>561164</td> <td>4746669</td> <td>0,2</td> <td>ONA</td> <td>ONA</td> </tr> <tr> <td>6</td> <td>561368</td> <td>4746671</td> <td>0</td> <td>ONA</td> <td>ONA</td> </tr> <tr> <td>7</td> <td>561664</td> <td>4746639</td> <td>0,25</td> <td>ONA</td> <td>ONA</td> </tr> </tbody> </table> <p>Arakil ibaia/Río Arakil KBEko ur-korridorean arrain-faunarentzat oztopo izan daitezkeen presa txikiak edo egiturak</p>	ZK.	UTM (X)	UTM (Y)	ALTUERA (m)	IRAGAZKORTASUNA SALMONIDOENTZAT	IRAGAZKORTASUNA ZIPRINIDOENTZAT	1	556985	4747001	0,9	ERTAINA	TXARRA	2	559254	4746814	0,55	ONA	ERTAINA	3	559557	4746865	0,6	ONA	ERTAINA	4	561108	4746670	0,55	ONA	ERTAINA	5	561164	4746669	0,2	ONA	ONA	6	561368	4746671	0	ONA	ONA	7	561664	4746639	0,25	ONA	ONA
ZK.	UTM (X)	UTM (Y)	ALTUERA (m)	IRAGAZKORTASUNA SALMONIDOENTZAT	IRAGAZKORTASUNA ZIPRINIDOENTZAT																																												
1	556985	4747001	0,9	ERTAINA	TXARRA																																												
2	559254	4746814	0,55	ONA	ERTAINA																																												
3	559557	4746865	0,6	ONA	ERTAINA																																												
4	561108	4746670	0,55	ONA	ERTAINA																																												
5	561164	4746669	0,2	ONA	ONA																																												
6	561368	4746671	0	ONA	ONA																																												
7	561664	4746639	0,25	ONA	ONA																																												

BISOI EUROPARRA (*MUSTELA LUTREOLA*)**Justifikazioa**

- Europar Batasunean, lehentasunezkoztat jotzen da espezie honen kontserbazioa, eta Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan jasota dago.
- Arriskupean dauden Espezieen Espainiako eta Euskadiko Katalogoetan, «galtzeko arriskuan» kategorian sartuta dago.
- Araba lurralde historikoan, Kudeaketa Plan bat dago, 2003an onartu zena. Plan horren arabera, Arakil ibaia/Río Arakil KBEa Interes Berezikoko Eremua da bisoi europarrarentzat.

Kontserbazio-egoera

- Europan, XIX. mendearen amaierara arte, bisoi europarra Erdialde osoan zegoen (Frantziatik Uraletaraino). Gaur egun, ordea, Europako populazioa asko murriztu da, eta bi populazio-gune isolatu soilik geratu dira. Gune bat ekialdean dago, Errusian eta Danubio ibaiaren deltan (Errumania, Ukraina eta Moldavia); bestea, mendebaldean, Frantziako hego-mendebaldean eta Espainiako iparraldean.
- Espainian, Ebro ibaiaren goiko eta erdiko tartetean eta haren ibaiadarretan soilik dago populazio-gune bat. Probintzia hauetan dago banatuta: Euskadi, Nafarroa, Errioxa eta Gaztela-Leon (Burgos).
- Araban, populazio-dentsitate handiena Ebro ibaian eta haren ibaiadarretan dago. Bisoi europarraren Arabako azpipopulazioa oso zatikatuta dago ibai gehienetan. Bi tartetan soilik du jarraitutasuna espezieak: Ebro ibaian eta Zadorra ibaiaren beheko tartean (Gasteiztik Ebron urak isurtzen dituen lekuraino).
- Arakil ibaia/Río Arakil KBEan, 2005. urtean harrapatu zen azkenekoz bisoi europar bat; geroztik ez da tranpa-jartzerik egin. 2009. urtean, tranpa-jartzea egin zen Arakil ibaian, baina monitorizazioa ezinezkoa izan zen, eguraldiagatik. Jakin da Salburuako populazioa sendotzeko egindako proba pilotuan askatutako banakoetako bat Arakil ibaian finkatu zela (jakinarazpen pertsonala).



Bisoi europarraren (berdez) eta bisoi amerikarraren (gorriz) banaketa Araban. Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2009

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Oharra: Banaketa-eremua, Populazioa, Espeziearen habitata eta Etorkizunerako aurreikuspenak dagokien laukian X batez markatu dira. Kontserbazio-egoera lauki bakoitzari adierazitako kategoriari dagokion kolorea emanez zehaztu da.

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

- Sastrakadiak garbitzea (165).
- Baso-masa soiltzea, birlandatzerik egin gabe (167).
- Errepideak eta autopistak (502). N-1 autopista eta A-3012 errepidea.
- Trenbideak (503). Madril-Irun tren-linea.
- Kanalizazioa (830).
- Barneko ur-lasterrak aldatzen dituzten egiturak (852).
- Maila hidrikoen erabilera (853).
- Espezie batek ingurua inbaditzea (954). Arrisku hori, funtsezko elementu horretan, beste ondorio batzuen eragilea da, hala nola: gaixotasun bat sartzea (963) eta populazioen kutsadura genetikoa (964).

Gaur egungo jarduerak eta legezko baldintzatzaileak

- Bisoï Europarra Kontserbatzeko LIFE 00/NAT/E/7335 Proiektua, 2001-2004 aldian Araban egina.
- Euskadiko hiru lurralde historikoetan onartu dira kudeaketa-planak. Bisoï europarraren Arabako Kudeaketa Plana, 2003ko azaroaren 7ko 322/2003 Foru Aginduarekin bat.
- 2002. urtetik, Arabako Foru Aldundiak bisoï europarraren jarraipena egiteko eta bisoï amerikarra deuseztatzeko kanpainak egiten ditu urtero, zenbait ibaitan. Baina 2005. urtetik, ez da Arakil ibaia kontuan hartu kanpaina horietan. 2009. urtean, ibai hori monitorizatu zen, baina prozesua bertan behera utzi behar izan zen, eguraldiagatik.
- Salburuan, bertako populazioa sendotzeko proba pilotu bat egin zen, Kataluniako Pont de Suert hirian dagoen itxian hazteko zentrotik ekarritako bisoïekin (Gómez, A., 2009). Araban, bada proiektu bat Gaubean itxian hazteko zentro bat egiteko, baina oraingoz ez du finantzaketarik.
- Araban espezie horrek duen egoerari buruzko informazio guztia bilduz datu-base bat egiten ari dira.
- Ibilguetan egin beharreko jardueren barnean (*Ibilguen eta ibaiertzen garbiketa* izenekoak), espezie hori kontserbatzeko zenbait neurri proposatzen ditu Arabako Foru Aldundiak.

Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Arakil ibaia/Río Arakil KBEaren barnean bisoi europarra egon dadin bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna
1. helburu operatiboa	KBE honetan bisoi europarraren populazio-egitura eta osasun-egoera nolakoa den hobeto jakitea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, KBEko bisoi europarraren populazioaren aldizkako jarraipenari dagokionez (3 urtean behin gutxienez). Jarraipen horretan, populazioaren genetika eta espeziearen patologiek populazioan izan dezaketen eragina aztertzeke beharrezko laginak hartuko dira.
2. helburu operatiboa	KBEko bisoi europarraren banaketa-eremuaren barnean, bisoi amerikarraren populazio basatuak deuseztatzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.18 jarduera, KBE honetan bisoi amerikarra kontrolatzeko eta deuseztatzeke urteroko jardunari dagokionez.
3. helburu operatiboa	KBEan, espeziearen habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.22 jarduera, bisoi europarraren habitatak kontserbatzeke jarraibide teknikoak idazteari eta hedatzeari buruzkoa. Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoari funtsezko elementua den aldetik dagozkion neurri guztiak; batik bat, landaredi-banda jarraitu bati eustea eta lehengoratzea; eta KBEaren egoera ekologiko ona eta bertako uren kalitatea bermatzeko emari-erregimen egokia ezartzea.
4. helburu operatiboa	KBEaren barnean espeziea modu ez-naturalean hiltzea eragin dezaketen kausak desagerraraztea
Jarduerak	JP.5.- KBEa zeharkatzen duten errepide eta bideetan, bisoi europarraren heriotza eragin dezaketen guneak (gune beltzak) identifikatzea eta deuseztatzea.

ERRUTILO HEGATSGORRIA (*AHONDROSTOMA ARCASII*) eta LOINA edo IPARRALDEKO LOINA TXIKIA (*PARACHONDROSTOMA MIEGII*)**Justifikazioa**

- Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasotako espezieak dira.
- Iberiar Penintsulako espezie endemikoak dira.
- Arakil ibaia/Río Arakil KBEan, errutilo hegatsgorria ohiko espeziea da, loina ez bezala.

Kontserbazio-egoera

- Errutilo hegatsgorria: ez dakigu Euskadin zenbatekoa den espezie horren populazioa. Eginoko estazioan, 2002tik 2008ra, arrain-espezie nagusia zen. Dentsitaterik handiena 2008. urtean izan zuen: 244 banako / 100 m²; hau da, guztizkoaren % 90.
- Loina: EAeko isurialde mediterraneoko nahiz Bizkaiko golkoko isurialdeko ibaietan oso hedatuta dagoen espeziea da, baina ez dakigu zenbatekoa den espezie horren populazioa. KBE honetan espezie potentziala da, baina ez da aurkitu 2003. urteaz gerotik.

Espeziea	Estazioa	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Errutilo hegatsgorria	ARA-150	292	1.223	1.514	371	368	179	1.916
Loina	ARA-150	2	1	0	0	0	0	0

Errutilo hegatsgorriaren eta loinaren banakoen kopuruak, Arakil ibaiaren Eginoko estazioan (ARA-150)

ONDORIOAK: ERRUTILO HEGATSGORRIA

	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

ONDORIOAK: LOINA

	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

- Baso-masa soiltzea, birlandatzerik egin gabe (167).
- Kirol-arrantza (220).
- Harea eta legarra erauzte (300).
- Hareatzetako agregakinak erauzte (302).
- Uraren kutsadura (701).
- Kanalizazioa (830).
- Funtzionamendu hidrologikoaren aldaketak (850).
- Barneko ur-lasterrak aldatzen dituzten egiturak (852).

Gaur egungo jarduerak eta legezko baldintzatzaileak	
<p>- Eusko Jaurларitza eta Arabako Foru Aldundia duela zenbait urte ari dira uren kalitate fisikokimikoaren eta biologikoaren jarraipena egiten. Kalitate biologikoaren jarraipenari dagokionez, Arakil ibaiko Eginoko estazioan urtean behin egiten dira arrain-populazioen laginketak, arrantza elektrikoaren bidez.</p>	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	KBEan errutilo hegatsgorriaren eta loinaren populazioak egon daitezen bermatzea, kontuan izanik espezie horiek hartzeko duen gaitasuna
1. helburu operatiboa	KBEan errutilo hegatsgorriaren eta loinaren populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea
Jarduerak	Aplikagarriak dira 1.JAR.5 eta 1.JAR.22 jarduerak, egoera ekologikoa zehazteko aldizkako laginketak egiteari buruzkoa (barnean hartuta arrain-laginketak), eta espezie horien habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idazteari eta hedatzeari buruzkoa.
2. helburu operatiboa	KBEan, errutilo hegatsgorriaren eta loinaren habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	<p>JP.6.- KBEan habitataren (mesohabitata) ezaugarritze-azterlan bat egitea eta arrain-espezie horien eskakizun ekologikoak zehaztea. Barnean hartuko du populazioaren tamainaren iritzirako kalkulua, bai eta kontserbazio-egoeraren zehaztapena ere.</p> <p>Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoari funtsezko elementua den aldetik dagozkion neurri hauek: oztopoak kentzea, uren kalitateari eustea edo lehengoratzea, eta KBEaren egoera ekologiko ona bermatuko duen emari-erregimen bat ezartzea (1.JAR.4.).</p>

IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA: MARTIN ARRANTZALEA (*ALCEDO ATTHIS*) ETA UR-ZOZOA (*CINCLUS CINCLUS*)**Justifikazioa**

- Fauna horretan, ibai-ingurunearen kalitatearen adierazle bikainak diren espezie batzuk daude: martin arrantzalea eta ur-zozoa.
- Martin arrantzalea Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean jasota dago.
- Bi espezie horiek Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan ageri dira.

Kontserbazio-egoera

Ez dakigu nolakoa den bi espezie horien kontserbazio-egoera Arakil ibaia/Río Arakil KBEan.

Martin arrantzalea

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera				Ez dakigu

Ur-zozoa

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera				Ez dakigu

Presioak eta arriskuak

Espezie horien gaineko presio nagusiek zerikusia dute, batetik, uren kalitatearekin (701), tarte batzuetan aldi behin isurpenak egiten baitira (ikus ibai-korridore ekologikoa); eta bestetik, habitatean egin diren aldaketekin: kanalizazioak (830), funtzionamendu hidrologikoaren aldaketa (890), ibaiertzetako baso-soiltzea (167) eta harea- eta legar-erauzketak (300).

Gaur egungo jarduerak eta legezko baldintzatzaileak

- Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia duela zenbait urte ari dira uren kalitate fisikokimikoaren eta biologikoaren jarraipena egiten. Kalitate biologikoaren jarraipenari dagokionez, urtean behin egiten dira arrain-populazioen laginketak, arrantza elektrikoaren bidez.

- EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programak barnean hartzen ditu erriberako landaredia kontserbatzeko neurri batzuk. 2007-2013 aldirako EAEko Landa Garapenerako Programak aintzat hartzen ditu zenbait nekazaritza- eta ingurumen-neurri, biodibertsitateari eta nekazaritza-paisaiari eusteko, eta barnean hartzen ditu zenbait jarduera:
 - o Ur-ibilguak eta zona hezeak babestea, gutxienez 5 metroko zabalerako belar-bandak ezarriz.
 - o Paisaia hobetzea, erriberako heskaiei eta landarediari iraunaraziz.
 - o Erriberako landaredia kontserbatzeko eta lehenera ekartzeko jarduerak. Aplikagarria izango da erriberako landaredia kontserbatu duten baso-jabetzetan (hala bada, aurreko moztearen ondoren), ibilguaren albo bakoitzean 5 metroko zabaleran gutxienez.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	KBEaren barnean martin arrantzalea, uhalde-enara eta ur-zozoa egon daitezen bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna
1. helburu operatiboa	KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.20 neurria, espezie horien habitata hobetzeko proiektuak egiteari buruzkoa.
1. helburu operatiboa	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, espezie horien populazioen kontserbazio-egoera nolakoa den jakiteko aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa.

JARRAIPEN-PROGRAMA

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren jarraipena egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumetu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea	
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA	Korridore ekologiko jarraitua kontserbatzea eta berreskuratzea, ibaiertzen arteko ekologia-lotura bermatzeko, eta intereseko animalia-espezieak egotea eta lekualdatu ahal izatea errazteko (bisoi europarra, loina eta errutilo hegatsgorria)	Erriberako landareki naturalaren banda kontserbatzea eta berreskuratzea, faunaren lekualdatzeak ahalbidetzeko	Belardiek, laboreek eta jarraitutasuna eteten duten beste elementu batzuek betetzen duten berreskuratutako erriberako landareki naturalaren azalera (ha)	0	5,65 ha	
		Ibai-korridore ekologikoaren dibertsitatea eta funtzionamendua zehazten duten prozesuak bermatzea	Borondatezko akordioen bidez babestutako azalera (ha)	0	11,4 ha	
	Ibai-korridore ekologiko kontserbatzeari buruzko sentibilizazioa sustatzeko jarduerak (ikastetxeetan eta nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan)	Ibai-korridore ekologikoaren dibertsitatea eta funtzionamendua zehazten duten prozesuak bermatzea	Ibai-korridore ekologiko kontserbatzeari buruzko sentibilizazioa sustatzeko jarduerak (ikastetxeetan eta nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan)	Ez dira egin	Egin dira	Egin dira
			Ur-eraria neurtzeko estazioa	Ez dago	Ez dago	Ur-eraria neurtzeko estazioa eraikita dago
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA	KBEaren barnean, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	KBEaren barnean, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	Herri-jabari hidraulikoa zehaztea eta <i>ibai-lurraldea</i> mugatzea	Ez da egin	Egin da	
			KBEaren barnean, Arakil ibaiaren egoera ekologikoaren jarraipenari eustea, aintzat hartuta Uraren Esparru Zuzentaruak ezarritako parametroak	Egoera ekologiko kaskarra (urtekoa)	Arakil ibaiko ur-masaren egoera ekologiko ona lortzea eta hari eustea	
	KBEaren barnean, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	KBEaren barnean, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	KBEra isurpenak egiten dituzten guneen saneamendua hobetzea	Eremu batzuetan ez dago saneamendurik	Egin da	Egiteko dauden jarduerak gauzatzea
			Araia-Asparrenako hondakin-urak arazteko estazioaren kontrol operatiboa, urtean behin	Ez da egin	Ez da egin	Egin da
Ur-korridoreko oztopoak kentzea	Ur-korridoreko oztopoak kentzea	Egoera ekologiko ona lortzea eragozten duten presioen eta eraginen berri jakitea	Ez dakigu	Ez dakigu	Badakigu	
		Ingurumen-emariaren erregimen bat ezartzea, egoera ekologiko ona lortzeko	Ez da ezarri	Ez da ezarri	Ezarri da	
			Oztopo iragazkortuak	4 iragazkortzeko	Erabiltzen ez diren edo emakida iraingita duten presa txiki iragazkor guztiak	

2013ko ekainaren 12a, asteazkena

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
BISOI EUROPARRA (<i>Mustela lutreola</i>)	Arakil ibaia/Rio Arakil KBEaren barnean bisoi europarra egon dadin bermatzea, kontuan hartzeko duen gaitasuna	KBE honetan bisoi europarraren populazio-egitura eta osasun-egoera nolakoa den hobeto jakitea	Populazio-egitura eta osasun-egoera	Badakigu	Badakigu
		KBEko bisoi europarraren banaketa-eremuaren barnean, bisoi amerikarraren populazio basatuak deuseztatzea	Ingurunetik ateratako bisoi amerikarren banako kopurua	0	Ez dago bisoi amerikarrik KBEan
		KBEan, espeziearen habitataren baldintzak hobetzea	Bisoi europarraren habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idaztea eta hedatzea	Ez da egin	Idatzi eta hedatu dira (100 ale paperean eta webgunean)
ERRUTILLO HEGATSGORRIA (<i>Achondrostoma arcasi</i>) eta LOINA edo IPARRALDEKO LOINA TXIKIA (<i>Parachondrostoma miegii</i>)	KBEan errutilo hegatsgorriaren eta loinaren populazioak egon daitezen bermatzea, kontuan izanik espezie horiek hartzeko duen gaitasuna	KBEaren barnean, espeziea modu ez-naturalean hiltzea eragin dezaketen kausak desagerraraztea	Bisoi europarra hiltzeko arriskua dakarten gune beltzen kopurua	5	0
		KBEan errutilo hegatsgorriaren eta loinaren populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea	Arrain-populazioen kontserbazio-egoeraren berri jakitea	Ez dakigu (urtekoa)	Badakigu (urtekoa)
		KBEan, errutilo hegatsgorriaren eta loinaren habitataren baldintzak hobetzea	Loinaren eta errutilo hegatsgorriaren habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idaztea eta hedatzea	Ez da egin	Idatzi eta hedatu dira (100 ale paperean eta webgunean)
IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA	KBEaren barnean martin arrantzailea eta ur-zozoa egon daitezen bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	KBEan, espezie horien habitataren baldintzak hobetzea	Habitata lehengoratzeko proiektuak egitea	0	Bi proiektu gauzatu dira
		Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Uhalde-enararen, martin arrantzailearen eta ur-zozoaren kontserbazio-egoera	Ez dakigu	Badakigu

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2110023.xml&lang=eu

XV. ERANSKINA

ES2110020 EGA-BERRON IBAIA/RÍO EGA-BERRON KONTSERBAZIO BEREZIKO
EREMUAREN HELBURU ETA JARDUERA PARTIKULARRAK**FUNTSEZKO ELEMENTUAK: KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA JARDUERAK**

Hurrengo tauletan, Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berron KBEa kudeaketarako funtsezkotzat jotzen diren elementuetariko bakoitzarentzat kontserbazio-helburuak eta -jarduerak zehazten dira.

KBE horri dagokion dokumentazio osoa kontsultatzea gomendatzen da ondorengo internet helbidean: <http://www.euskadi.net/natura2000>. Neurriak dokumentazioaren 3. mapan jasotzen dira.

IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOA**Justifikazioa**

Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berrón KBEko ibai-korridore ekologikoak funtzio garrantzitsua du ibaiko eta lehorreko ekosistemaren arteko lotura ekologikoari begira, haren arro osoan. Gainera, interes bereziko tartea da EAeko zenbait KBE lotzen dituelako ere: Toloño mendilerroa (ES2110018), Izki mendilerroa (ES2110019) eta Entzia mendilerroa (ES2110022). Horrez gain, jarraitutasuna ematen dio Nafarroako Ega eta Urederra ibaien KBEari (ES2200024), eta lotuta dago, halaber, Arabako Hegoaldeko mendilerroetako Hegaztiak Babesteko Eremu Bereziarekin (HBEB).

- Flora- eta fauna-dibertsitate handia du.
- Komunikazio-bide bat da, uretako eta lehorreko flora- eta fauna-espeziei lekualdatzeko aukera ematen baitie. Gainera, eremu horretako hegazti askok ibai-sistema edo aireko korridorea erabiltzen dute lekualdatzeko eta modu naturalean batetik bestera joateko.

Jarraitutasuna, arroaren batasunarekin eta espazioaren linealtasunarekin (korridorea) loturikoa, ibai-sistemen oinarritzko ezaugarria da. Luzetarako elkarreragin guztien lotura zuzena, egoera ekologiko ona (Uraren Esparru Zuzentarauak) eta izaki bizidunen komunitateen mailaketa egokia bermatzen ditu.

Ibai-korridore jarraituak, ekologia-balioez gain, paisaia-balio nabarmenak ere baditu.

Kontserbazio-egoera

Lehorreko korridorea: KBEaren erriberako landarediaren luzetarako jarraitutasuna, oro har, txarra da, zuhaitz edo zuhaixkarik gabeko landaredi-gune asko baitaude, jarraitutasuna eteten dutenak. Etendura handienak Izki ibaian daude, Bujandan, bai eta Ega ibaian ere, Lagran eta Angostina udalerrietan eta Santikurutze Kanpezun, azken hirigune horrek eta landatutako makalek hartutako eremua dela eta. Sabando errekan, etendura handienak Berron ibaian urak isurtzen dituen lekuan daude, labore-sailak direla eta. Berron ibaian, berriz, jarraitutasuna hiriguneetan eta ibaiertzeko errepideetan eteten da batik bat. Ibilguaren eta erriberen arteko zeharkako lotura ekologikoa ere etenda dago, zenbait egitura daude-lako, hala nola betelanak eta harri-lubetak. Hori nabarmena da Berron ibaian Ataurin eta Antoñanan, eta Ega ibaian Bernedon, ibilguaren artezteak egin baitira.

Uretako korridorea: KBE honetan, arrain-espezie hauek daude: loina, amurrain arrunta, mazkarra eta ezkailua. Hiru laginketa-estazioetan egindako azterketen arabera, uraren kalitatea «ona» da. Nolanahi ere, aldizka isurpenak izaten dira, bai araztegietatik, bai saneamendu-sistematik ez duten hiriguneetatik. Horrez gain, KBEan zehar arrain-espezieek igaro ezin dituzten presa txikiak daude, eta, haietakoren batean, gainera, ur-hartzeak egiten dira, emaria dezente murriztuz.

Aireko korridorea: KBEa 35 aldiz zeharkatzen dute goi-tentsioko linea elektrikoek, eta ez daukate hegazti-faunak talka egitea eta/edo elektrokututzea eragozteko gailurik. Gune hauetan daude KBEa zeharkatzen duten lineak: 21, Berronen; 2, Izkin; 3, Sabando errekan; eta 9, Ega ibaian.

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

- Laboreak (100), Etxebizitzak egiteko hiritartutako guneak (400) eta Beste hirigintza- eta industria-jarduera batzuk eta antzekoak (490): erriberako landarediaren etendura asko daude; batez ere, labore-sailak eta zur-ustiaketarako makaldiak daudelako. Ega ibaian, Santikurutze Kanpezuko hiriguneak hartzen duen eremua nabarmentzen da. Berron ibaian, Ataurin eta Antoñanan egindako egonkortze-lanak eta Maeztuko eta Santikurutze Kanpezuko igerilekuen azpiegiturak azpimarra daitzke.
- Aldaketa morfologikoak: batez ere Berron ibaian, Atauri eta Antoñana udalerrietatik iragotzen den tartean, eta Ega ibaian, Bernedon, zenbait egitura daude (harri-lubetak eta betelanak), ibaiertzak egonkortzeko eginak. Horrelako egiturak oztopo dira ibilguaren dinamikarako, eta hortaz, baita bertako ibai-habitatak garatzeko eta lehengoratzeko ere.
- Artzaintza: Santikurutze Kanpezun zur-ustiaketarako dauden makaldietan, abereak ibiltzen dira atsedean hartzeko eta ibilgura iristeko eta, horren ondorioz, ibaiertzetan erriberako landaredi naturala hondatzen da. Gainera, abereentzako itxiturak oro har ibaiertzetatik hurbil daude eta, basa-faunari lesioak eragiteaz gain, hesi gisa joko dezakete.
- Espezie exotikoak: KBEaren barnean, flora-espezie aloktonoak daude; haietako batzuk, inbaditzaile-tzat jotzen direnak: Kanadako makala (*Populus gr. deltoides*), *Populus nigra cv. italica L*, intxaurren arrunta (*Junglans regia*), sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*), platanu arrunta edo albo (*Platanus hispanica*), pikondoa (*Ficus carica*) eta indigaztainondoa (*Aesculus hippocastanum*). Haien artean ugariena Kanadako makala da; zur-ustiaketarako baliatzen da, eta makaldien eta sahasien habitateko (EBko 92A0 kodea) zuhaitz-geruzan espezie nagusia da. KBEaren barnean, Kanadako makalen makaldiek 16,58 ha-ko azalera dute. Beste hostozabal batzuek (esaterako, sasiakaziak eta platanu arruntak) 1,18 ha soilik hartzen dituzte.
- Uraren kontsumo-erabilerak¹: KBEan, luzetarako lotura ekologikoa eten egiten da, emaria galtzen baita, ura kontsumitzeko, ureztatzeko eta industria-erabilerarako (energia elektrikoa sortzea, arrain-haztegia, etab.) baliatzean. Horrek, besteak beste, ekosistemaren produktibitatea jaistea eragiten du eta, hortaz, espezie batzuen (igaraba edo bisoi europarra, adibidez) harrapakinen kopurua murrizten du. Emari-galerak garrantzitsuak dira presa txiki hauetan: 13 (A7134), 15 (A7135), 6 (A7047), 8 (A7049), 12 (A7133), Izki erreka (A7042²) eta 4 (A7046³).

IZENA	IBILGUA	UDALERRIA	UTM (X)	UTM (Y)	ERABILERA-MOTA	EMAKIDARIK BADAGOEN	EMARIA (l/s)
3. presa txikia	Berron	Arraia-Maeztu	546426	4731873	-	Ez	-
4. presa txikia	Berron	Arraia-Maeztu	546796	4731083	Zentral hidroelektrikoa	Bai	-
5. presa txikia	Berron	Arraia-Maeztu	544165	4733051	-	-	-
6. presa txikia	Berron	Santikurutze Kanpezu	548935	4727619	Indar eragilea eta ureztaketa	Bai	608
7. presa txikia	Berron	Santikurutze Kanpezu	550771	4725275	Ureztaketa	Bai	58
8. presa txikia	Berron	Santikurutze Kanpezu	551647	4725183	Indar eragilea eta ureztaketa	Bai	547
12. presa txikia	Ega	Bernedo	540235	4719779	Indar eragilea	Bai	375
13. presa txikia	Ega	Santikurutze Kanpezu	551346	4724081	Zentral hidroelektrikoa	Bai	4.500
15. presa txikia	Ega	Santikurutze Kanpezu	553945	4724869	Indar eragilea eta arrain-haztegia	Bai	1.000

Ega-Berron baia/Río Ega-Berrón KBEan dauden horniketarako presa txikiak.

¹ KBEko balio naturalen kontserbazioan eragiten duten presa txikien datuak zenbait iturritatik lortu dira (*Caracterización de las masas de aguas superficiales de la CAPV*, 2002; eta *Confrontación de la situación administrativa de presas y azudes de la CAPV* azterlana, 2005), bai eta lan honen egileek egindako landa-ikerketatik ere. Parentesi artean adierazi diren presa txikien kodeak bat datoz azterlan honetan erabilitakoekin: *Confrontación de la situación administrativa de presas y azudes de la CAPV*, 2005.

² KBEtik kanpo dagoen presa txikia. Ez dakigu zein neurritan galdu den emaria. Edonola ere, Izki errekan zirkuitulaburra egin den tartea 4 km baino gehiago ditu.

³ Ez dakigu zein neurritan galdu den emaria, baina Berron ibaian zirkuitulaburra egin den tartea 7 km baino gehiago ditu.

- Kutsatzaileen aldi behingo isurpenak: KBEan, 22 isurpen zenbatu ziren. Presio handiena jasaten duen ibilgua Ega ibaia da, 16 isurpen izan baitziren; haietako 7, hiriguneetakoak, eta 2, industriakoak. Horrez gain, hiriguneetako zuzeneko isurpenak daude Birgaragoiendik behera (Berron ibaia), Antoñanan (Berron ibaia eta Sabando erreka) eta Santikurutze Kanpezun (Ega ibaia). Udalerrri hauetan soilik daude araztegiak: Maeztun, Bernedon eta Santikurutze Kanpezun. 2010. urtean, hondakin-urak arazteko estazio bat jarri zen abian San Vicente de Aranan. Hori lagungarria izango da Santikurutze Kanpezutik beherako tartean Istora erreka eta Ega ibaiko uren kalitatea hobetzeko.
- Arrain-espezieek ezin gaindi ditzaketen oztopoak: KBEan zehar, ibaiertzen ezaugarri den luzetarako jarraitutasuna eteten duten presa txikiak daude. Presa txiki horiek, ibaietako sistemetan eraldaketa hidromorfologikoak eragiteaz gain, oztopo dira bertako arrain-espezieak lekualdatzeko. 3. presa txikia (A7045) erabiltzen da, baina ez dago araututa. 6 (A7047), 12 (A7133) eta 13 (A7134) presa txikiak ez dira erabiltzen, baina beharrezkoa da arautzea, iraungipen-espeditate baten bidez.

IZENA	IBILGUA	UDALERRIA	ERABILTZEN DEN	UTM (X)	UTM (Y)	ALTUERA (m)	ESKALA	IS ¹	IZ ²
3. presa txikia	Berron	Arraia-Maeztu	Bai	546426	4731873	0,5	Ez	Ona	Txarra
4. presa txikia	Berron	Arraia-Maeztu	Bai	546796	4731083	2,8	Ez	Txarra	Txarra
5. presa txikia	Berron	Arraia-Maeztu	-	544165	4733051	3	Ez	Txarra	Txarra
6. presa txikia	Berron	Santikurutze Kanpezu	Ez	548935	4727619	2	Ez	Ertaina	Txarra
7. presa txikia	Berron	Santikurutze Kanpezu	Bai	550771	4725275	3,5	Ez	Txarra	Txarra
8. presa txikia	Berron	Santikurutze Kanpezu	Bai	551647	4725183	3	Ez	Txarra	Txarra
12. presa txikia	Ega	Bernedo	Ez	540235	4719779	1	Ez	Txarra	Txarra
13. presa txikia	Ega	Santikurutze Kanpezu	Ez	551346	4724081	1,1	Ez	Txarra	Txarra
15. presa txikia	Ega	Santikurutze Kanpezu	Bai	553945	4724869	1,7	Ez	Txarra	Txarra

Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berrón KBEan arrain-espezieentzat gaindiezinak diren oztopoak. IS¹: iragazkortasuna salmidoentzat. IZ²: iragazkortasuna ziprinidoentzat.

- Linea elektrikoak: eremuaren linealtasuna eta herrien kokapena direla eta, banaketa- eta deribazio-linea elektrikoek nahitaez zeharkatu behar dute eremu hau. Hegazti-fauna babeste aldera linea elektrikoak arautzeko legeriarik ez dagoenez, elementu horiek arriskuan jartzen dute eremu honetako hegazti-faunaren kontserbazioa.

Gaur egungo jardunbideak eta legeko baldintzatzaileak

- Urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretua, Herri Jabari Hidraulikoari buruzko Erregelamendua (HJHE) aldatzen duena. Herri-jabari hidraulikoaren eta haren zortasun-zonaren erabilera arautzen du. Horren helburuak dira herri-jabari hidraulikoaren egoera kontserbatzea, uretako ekosistemen hondatzeari aurrea hartzea eta ekosistema horiek hobetzea, eta abar.
- Plangintza Hidrologikoaren Instrukzioa, irailaren 10eko ARM/2656/2008 Aginduaren bidez onartua. Aurrerantzean plan hidrologikoetan aintzat hartu beharreko alderdi batzuk jasotzen ditu; besteak beste, ur-emakidetan ibilgu ekologikoak ezartzeari buruzkoak. Agindu horretan, Natura 2000 Sarea aipatzean, hau adierazten da: *eremu horietan emari ekologikoen erregimenek ondorio nabarmenak eragiten badituzte, erregimenak egokitu egingo dira, habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera onari eusteko edo haiek lehenera ekartzeko; eta, horretarako, haien eskakizun ekologikoak bete behar dira eta haietan eragina duten funtzio ekologikoei epe luzera eutsi behar zaie.*
- Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde mediterranea). Besteak beste Natura 2000 Sarekoak diren eremuetan, «*babes-irizpide nagusia 'Ibilgua Babesteko Eremu' bat ezartzea da (landa-eremuetako ibaiertzetan, ibilgu publikoaren mugabanaketa-ferroarekiko 5 metroko gutxieneko erretiroa), eta ingurunea eralda dezakeen edozein jarduera debekatzea*».
- Eusko Jaurlaritzak, Uraren Euskal Agentziaren bidez (URA), Ega eta Berron ibaian egoera ekologikoaren jarraipena egiten du, hiru laginketa-estaziotan (EGB172, EGA138 eta EGA380), aintzat hartuta Uraren Esparru Zuzentaruak ezarritako kalitate-parametroak.

<p>- Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programak (2007-2013) aintzat hartzen ditu zenbait nekazaritza- eta ingurumen-neurri, gutxienez 5 m-ko zabalera betetzen duen erriberako landaredi naturala duten eremuak kontserbatzeko eta lehengoratzeko; horretarako, baso-berritzeetan espezie jakin batzuk soilik erabil daitezke, eta mendien ustiaketarako hain kaltegarriak ez diren teknikak baliatu behar dira.</p>	
Helburuak eta jarduerak	
Azken helburua	Ibai-korridore ekologikoaren funtzionaltasun ekologikoa bermatzea
1. helburu operatiboa	Ibai-korridore ekologiko bat kontserbatzea eta lehengoratzzea, ibaiertzen arteko lotura ekologikoa eta faunaren lekualdatzeak bermatzeko
Jarduerak	<p>1.JAR. 1.-Ibaiertzetako landaredi naturalaren egitura eta osaera hobetzea, gutxienez 5 metroko banda batean, zenbait erabilera direla medio jarraitutasuna galdu den eremuetan (15,92 ha) (ikus proposatutako tarteak Jardueren mapan).</p> <p>1.JAR.2.- KBEko erriberetako lursailen jabeekin borondatezko akordioak sina daitezzen sustatuko da, ibaiertzetako landaredi naturalaren egitura eta osaera hobetzeko, gutxienez 10 metroko zabalera batean, KBEari dagokion tarte guztian. Akordio horietan zenbait jarduera jasoko dira, ibar-basoak sortzeko eta gaur egun makalek edo/eta beste espezie batzuek hartzen dituzten sailetan erriberako basoa lehengoratzeko. Helburua: 17,56 ha babesteko akordioak (ikus Jardueren mapa).</p> <p>1.JAR.9. Harri-lubetan eta ibaia bideratutako eremuetako ertzetan landaketak egiteko proiektuak egitea (699 ml).</p> <p>Aplikagarriak dira, halaber, beste bi jarduera hauek: 1.JAR.3, herri-jabari hidraulikoa zehazteari eta KBEaren barnean <i>ibai-lurraldea</i> mugatzeari buruzkoa; eta 1.JAR.21, ibai-korridorea kontserbatzeak duen garrantziari buruzko ingurumen-heziketako eta -sentsibilizazioko jarduerak garatzea, eremu horretan dauden ikastetxeetan, nekazarien elkarteetan eta basogintzako elkarteetan.</p>
2. helburu operatiboa	KBEaren barnean, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 1.JAR.10 jarduera, arroaren saneamendua hobetzeari buruzkoa (Lagraneko hondakin-urak arazteko estazioa eraikitzea, eta kolektoreak eta hobi septikoak eraikitzea, arro hartzailearen biztanlegune isolatuetan).</p> <p>Era berean, aplikagarria da 1.JAR.5 jarduera: KBEko azaleko uren kalitateari buruzko laginak hartzeko sare bat diseinatzea, jada ezarrita dauden kontrol-guneez gain beste batzuk ezarriz; zehazki, hauek: Berron ibaiaren goialdean bat, Berrozi errekarrekin bat egiten duen lekutik behera; Izki errekarrekin azken tartean beste bat, Berron ibaiarekin bat egin baino pixka bat lehenago; Berron errekan, Maeztutik eta hondakin-urak arazteko estaziotik behera hirugarrena; eta Lagran udalerraren paretik behera laugarrena.</p> <p>1.JAR.6: urtean behin KBEko ur-masen egoera ekologikoa ona den aztertzeke kontrol bat egitea. Jarduera horri buruzko berariazko txostenean, hau nabarmenduko da batez ere: KBEko ur-masetan eragiten duten hiriguneetako eta industriako isurpenak arautzea eta kontrolatzea, bai eta nekazaritza-jardueratik erator daitezkeen kutsadura zehaztugabea ere. KBEaren egoera ekologikoa ona edo oso ona dela egiaztatuko da. Hala ez bada, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak proposatu eta betearaziko dira.</p>

3. helburu operatiboa	Ibai-korridore ekologikoaren dibertsitatea eta funtzionamendua zehazten duten prozesuak bermatzea
Jarduerak	1.JAR.4. Arroaren ardura duen eskudun erakundearen aurrean, KBEan indarrean dauden emakida nagusiak berriro aztertzea sustatuko da, bai eta azterlan bat egitea ere, KBEaren barnean funtsezko elementutzat hartzen diren habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ona izan dadin ingurumen-emarien erregimen egokia zehazteko, eta erakunde horri haren aplikazioa proposatzeko. Presa txikiak: A7135, A7134, A7133, A7049, A7048, A7047, A7046 ⁴ , A7045 eta 5. presa txikia.
4. helburu operatiboa	Ur-korridoreko oztopoak kentzea
Jarduerak	JP.1.- Arrain-espezieek ezin gaindi ditzaketen oztopoak iragazkortzeko eta/edo eraisteko proiektuak idaztea eta gauzatzea. Presa txikiak: 5. presa txikia, A7045, A7046, A7047, A7048, A7049, A7133, A7134, A7135, A7053. A7047, A7133 eta A7134 presa txikien iraungipen-espedientea abiatzea, gero iragazkortzeko eta/edo eraisteko. Jardueren ondoren, iragazkortzeko hartutako neurrien eraginkortasuna aztertzeko jarraipen bat egingo da.

⁴ Ez dakigu zein neurritan galdu den emaria, baina Berron ibaian zirkuitulaburra egin den tarteak 7 km baino gehiago ditu.

IBAIETAKO HABITATAK**Justifikazioa**

- Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berrón KBEan, Habitategi buruzko Zuzentarauaren arabera intereseko habitatak diren askotariko baso alubialak daude: sahasti, makaldi-haltzadi eta zumardi submediterraneoak, habitat mota honi dagozkionak: 92A0, *Salix alba* eta *Populus alba* espezieen galeria-basoak.
- Habitat horiek direla eta, KBE hau babesteko eta elikatze eremua da fauna-espezie askorentzat; batik bat, loinarentzat, igarabarentzat eta bisoi europarrarentzat. Horrez gain, habitat horiek itzala ematen diote ibilguari, uren kalitatea hobetzen dute eta korridore ekologiko gisa jokatzen dute bertako fauna-espezieentzat.

Kontserbazio-egoera

- Hauek dira Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berrón KBEko habitat adierazgarrienak: ibaiertzeko makaldi eta sahasti mediterraneoak (EBko 92A0 kodea), KBEaren barnean 68,44 ha-ko azalera dutenak; basoko erkameztienak (EBko 9240 kodea), 13,13 ha hartzen dituztenak; eta artadi-karraskadienak (EBko 9340 kodea), 5,17 ha betetzen dituztenak. Inbentarioan jasotako gainerako habitatak gune gutxi batzuetan soilik ageri dira: larre mesofiloak eta xerofiloak, eta beste habitat batzuk.
- Eremu horren gaur egungo kontserbazio-egoeran, bai luzetarako bai zeharkako hedaduran, funtsezko faktorea da nekazaritza-jarduera. Eremu honen ardatza eratzen duten ibaietako tarte gehienetan nekazaritza-presioa handia da, eta horrek mugatu egiten du ibaiertzen zeharkako hedadura, bai eta ibaiertzeko habitatak ere. KBE honetako ibaietako habitaten luzetarako hedadurari dagokionez, erriberako landarediaren etendura gehienak labore-sailek sortzen dituzte; horrekin batera, babesek eta azpiegiturek (hiriguneez eta errepedeek, esaterako) ibaietako habitatak mugatzen dituzte.

Ibaietako habitatak

	ONDORIOAK			
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Presioak eta arriskuak

- Gizakiak hidroglogian eragindako beste aldaketa batzuk (890): Ega eta Berron ibaien arroan eta KBEko ibilguetan ur-hartze asko egin dira, kontsumitzeko, ureztatzeko eta industria-erabilerarako baliatzeko. Haien artean, ureztatzeko eta industria-erabilerarako baliatzen direnek izan dezakete eragin handiena intereseko habitatetan, horrek maila freatikoa gutxitzea baitakar.
- Kanalizazioa (830): (ikusi ibai-korridore ekologikoa).
- Laboreak (100) eta baso-landaketak (161): KBEaren barneko eremu askotan daude laboreak eta baso-landaketak; KBEko ibaiertzaren luzera osoaren ia % 60ri eragiten diote. Hauek dira ondorio nabarmenenak dituzten lekuak: Bernedo eta Angostina arteko Ega ibaiaren tarteak, eta KBEaren barneko Izki ibaiaren ibilbide osoa.
- Artzaintza (140): (ikusi ibai-korridore ekologikoa).
- Kutsadura genetikoa (974): makal hibridoak daude (ikusi ibai-korridore ekologikoa).

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

- Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programak (2007-2013) aintzat hartzen ditu zenbait nekazaritza- eta ingurumen-neurri, gutxienez 5 m-ko zabalera betetzen duen erriberako landaredi naturala duten eremuak kontserbatzeko eta lehengoratzeko; horretarako, baso-berritzeetan espezie jakin batzuk soilik erabil daitezke, mendien ustiaketarako hain kaltegarriak ez diren teknikak baliatu behar dira, eta abar.
- Arabako Foru Aldundiaren 2009ko Basogintzarako Laguntza Planaren bidez (abendua 23ko 112/2008 Foru Dekretua), mendiaren basotze iraunkorra diruz lagunduko da –tokiko erakunde nahiz eragile pribatuentzat–, %30etik % 70era bitartean, eta laguntza % 10 gehituko da Natura 2000 Sarean dauden eremuetan.

Helburuak eta jarduerak


Azken helburua	Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berrón KBEko ibaietako habitaten kontserbazio-egoera hobetzea
1. helburu operatiboa	KBEaren barnean, espezie exotiko inbaditzaileen kopurua murriztea
Jarduerak	<p>KBE honetako ibaiertzeko basoen egoera kaskarra onbideratzeko neurri nagusiak ibai-korridore ekologikoari dagozkionak dira; batik bat, 1.JAR.1, 1.JAR.2 eta 1.JAR.21 jarduerak.</p> <p>Horrez gain, aplikagarria da 1.JAR.17 jarduera: landare-espezie exotiko inbaditzaileak desagerraraztea (<i>Robinia pseudoacacia</i> eta <i>Platanus hispanica</i> espezieak batez ere); izan ere, espezie horiek direla eta, KBEko habitat naturalen balioa murrizten da. Urtean behin, espezie horiek desagerrarazteko jarduerak izandako arrakasta aztertzeko jarraipen bat egingo da eta, beharrezkoa izanez gero, berriro egingo da tratamendua. Jarduera horrek barnean hartzen du espezie horiek desagerrarazi nahi diren eremuetan ingurumen-egoera lehengoratzeko, bertako espezieak landatuz, hori lagungarria baita espezie inbaditzaileak erroto ez daitezen.</p>
2. helburu operatiboa	Erregimen hidrikoa aldatzea eragin dezaketen jarduerak eragozte
Jarduerak	Aplikagarria da ibai-korridore ekologikoari funtsezko elementua den aldetik dago-kion neurri hau: ingurumen-emarien erregimen egoki bat ezartzea, KBEaren kudeaketan funtsezkoak diren elementuei iraunarazteko (1.JAR.4)
3. helburu operatiboa	KBEaren barneko Batasunaren intereseko fauna- eta flora-espezieen kopurua eta banaketa nolakoa den hobeto jakitea
Jarduerak	1.JAR.12 : KBEaren barnean, urarekin lotutako intereseko beste habitat batzuen inbentarioa eta azaleraren xehetasun-kartografia egitea. Era berean, aplikagarria da 1.JAR.13 jarduera: Batasunaren intereseko ornogabeen eta ibai-ingurunearekin lotutako intereseko beste espezie ornogabe batzuen egoera nolakoa den hobeto jakitea.

BISOI EUROPARRA (*MUSTELA LUTREOLA*)**Justifikazioa**

- Europar Batasunean, lehentasunezkoztat jotzen da espezie honen kontserbazioa, eta Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan jasota dago (Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen II. eranskina).
- Arriskupean dauden Espezieen Espainiako eta Euskadiko Katalogoetan, «galtzeko arriskuan» kategorian sailkatuta dago.
- Arabako lurralde historikoan, Kudeaketa Plan bat dago, 2003an onartu zena. Plan horren arabera, Ega – Berron ibaia/Río Ega - Berrón KBEa Interes Berezikiko Eremua da bisoi europarrarentzat.

Kontserbazio-egoera

- Europan, XIX. mendearen amaierara arte, bisoi europarra Erdialdeko Europa osoan zegoen (Frantziatik Uraletaraino). Gaur egun, ordea, Europako populazioa asko murriztu da, eta bi populazio-gune bakandu soilik geratu dira. Gune bat ekialdean dago, Errusian eta Danubio ibaiaren deltan (Errumania, Ukraina eta Moldavia); bestea, mendebaldean, Frantziako hego-mendebaldean eta Espainiako iparraldean.
- Espainian, Ebro ibaiaren goiko eta erdiko tarteetan eta haren ibaiadarretan soilik dago populazio-gune bat. Erkidego hauetan dago banatuta: Euskadi, Nafarroa, Errioxa eta Gaztela eta Leon (Burgos). Espainian 500 ale daudela kalkulatu da.
- Araban, populazio-dentsitate handiena Ebro ibaian eta haren ibaiadarretan dago. Bisoi europarraren Arabako azpipopulazioa oso zatikatuta dago ibai gehienetan. Bi tartetan soilik du jarraitutasuna espezieak: Ebro ibaian eta Zadorra ibaiaren beheko tartean (Gasteiztik Ebron urak isurtzen dituen lekuraino).
- Ega-Berron ibaia/Río Ega - Berrón KBEan, 2009. urtean bisoi europarraren populazioa aztertzeko egindako lanen barruan, 5 bisoi europar harrapatu ziren (1, Egan eta 4 Berronen) Lehen aldia da emeak harrapatzen direla, eta horrek agerian jartzen du zein garrantzitsua den eremu hau espezie horren kontserbaziorako.



Bisoi europarraren banaketa Ega – Berron ibaia/Río Ega – Berrón KBEan. Harrapatutakoak (berdez), berriro harrapatutakoak (horiz) eta zapal dutakoak (gorriz). Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2009.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa	X			
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Oharra: «Banaketa-eremua, Populazioa, Espeziearen habitata eta Etorkizunerako aurreikuspenak» dagokien laukian X batez markatu dira. Kontserbazio-egoera lauki bakoitzari adierazitako kategoriari dagokion kolorea emanez zehaztu da.

Presioak eta arriskuak (kodeak bat datoz 1996ko abenduaren 18ko 97/266/EE Batzordearen Erabakiaren E Gehigarriarekin)

- Sastrakadiak garbitzea (165).
- Baso-masa soiltzea, birlandatzerik egin gabe (167).
- Errepideak eta autobideak (502).
- Kanalizazioa (830).
- Barneko ur-lasterrak aldatzen dituzten egiturak (852).
- Maila hidrikoen erabilera (853).
- Espezie batek ingurua inbaditzea (954). Arrisku hori, funtsezko elementu horretan, beste ondorio batzuen eragilea da, hala nola: Gaixotasun bat sartzea (963) eta populazioen kutsadura genetikoa (964).

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

- Bisoi Europarra Kontserbatzeko LIFE 00/NAT/E/7335 Proiektua, 2001-2004 aldian Araban egina.
- Euskadiko hiru lurralde historikotan onartu dira kudeaketa-planak. Bisoi europarraren Arabako Kudeaketa Plana, 2003ko azaroaren 7ko 322/2003 Foru Aginduekin bat.
- 2002. urtetik, Arabako Foru Aldundiak bisoi europarraren jarraipena egiteko eta bisoi amerikarra deuseztatzeko kanpainak egiten ditu urtero, eta horietan Ega eta Berron ibaiak sartzen dira.
- Salburuan, bertako populazioa sendotzeko proba pilotu bat egin zen, Kataluniako Pont de Suert hirian dagoen itxian hazteko zentrotik ekarritako bisoiekin (Gómez, A., 2009). Banako horietako bat, zenbaitetan, Larrearaino iritsi da (jakinarazpen pertsonala). Araban, bada proiektu bat Gaubean itxian hazteko zentro bat egiteko, baina ez du finantzaketarik.
- Datu-base bat egiten ari dira, Araban espezie horrek duen egoerari buruzko informazio guztia biltzen duena.
- Ibilguetan egin beharreko jardueren barnean (Ibilguen eta ibaiertzen garbiketa izenekoak), espezie hori kontserbatzeko zenbait neurri proposatzen ditu Arabako Foru Aldundiak.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	Ega-Berron ibaia/Río Ega - Berrón KBEaren barnean bisoi europarra egon dadin bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna
-----------------------	--


1. helburu operatiboa	KBEan bisoi europarraren populazio-egitura eta osasun-egoera nolakoa den hobeto jakitea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, KBEko bisoi europarraren populazioaren aldizkako jarraipenari dagokionez (3 urtean behin gutxienez). Jarraipen horretan, populazioaren genetika eta espeziearen patologiek populazioan izan dezaketen eragina aztertzeko beharrezko laginak hartuko dira.
2. helburu operatiboa	KBEko bisoi europarraren banaketa-eremuaren barnean, bisoi amerikarraren populazio basatuak desagerraraztea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.18 jarduera, KBE honetan bisoi amerikarra kontrolatzeko eta desagerrarazteko jardunari dagokionez.
3. helburu operatiboa	KBEan, espeziearen habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.22 jarduera, igaraba arruntaren habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idazteari eta hedatzeari dagokionez. Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoari funtsezko elementua den aldetik dagozkion neurri guztiak; batik bat, landaredi-banda jarraitu bati eustea eta lehengoratztea; eta KBEaren egoera ekologiko ona eta bertako uren kalitatea bermatzeko emari-erregimen egokia ezartzea.
4. helburu operatiboa	KBEaren barnean, espeziea modu ez-naturalean hiltzea eragin dezaketen kausak deuseztatzea
Jarduerak	JP.2.- KBEa zeharkatzen duten errepide eta bideetan, bisoi europarraren heriotza eragin dezaketen guneak (gune beltzak) identifikatzea eta deuseztatzea (9 puntu).

IGARABA ARRUNTA (LUTRA LUTRA)**Justifikazioa**

- Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan jasota dago eta «desagertzeko arriskuan» moduan dago jasota EAEko katalogoan.
- Estatuan Babes Bereziko Erregimeneko Basaespezieen Zerrendan (139/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa) jasotako espeziea da.
- Araban, Kudeaketa Plan bat dago, 2004an onartua. Plan horren arabera, Ega – Berron ibaia/Río Ega - Berrón KBEa Interes Bereziko Eremua da espezie honentzat.

Kontserbazio-egoera

- Espeziea eremu honetan aurkitzen da: Europako mendebaldetik Indonesiara eta tundra artikotik Afrikako iparraldera bitarteko eremuan. Europan oso hedatuta badago ere, beherakada handia izan du azken urteetan, eta desagertu egin da Holandan, Suitzan eta Frantzia, Belgika, Alemania eta Suediako leku asko eta askotan.
- Iberiar penintsulako ia leku guztietan agertzen da, Almerian, Balear Uharteetan eta Kanarietan izan ezik.
- Euskal Autonomia Erkidegoan, Arabako lurralde historikoan soilik agertzen da igaraba, eta isurialde mediterraneoko ibaietan (Ebro ibaia eta haren ibaiadar hauek: Omecillo, Bayas, Zadorra, Ibaiuda Inglares eta Ega) (López Luzuriaga, J., I., et al., 2008). Inoiz Bizkaiko Golkoko isurialdean ere topatu dute, nahiz eta desagertutzat eman izan zen (López de Luzuriaga, J., 2009).



Igaraba arruntaren (Lutra lutra) Interes Bereziko Eremuak (gorriz) Euskal Autonomia Erkidegoan

- Ega-Berron ibaia/Río Ega - Berrón KBEan igarabaren banaketa irregularra da.

1985	1992	1995	2001	2003	2004-2005	2006	2007-2008	2009*
-	+	+	-	+	+	-	+	+

Iturria: López de Luzuriaga, 2009. UTM 10x 10eko laukiak. Badago (+), Ez dago (-). (*) Flumen, 2009

Igarabaren agerpena Ega-Berron ibaia/Río Ega - Berrón KBEan.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Oharra: «Banaketa-eremua, Populazioa, Espeziearen habitata eta Etorkizunerako aurreikuspenak» dagokien laukian X batez markatu dira. Kontserbazio-egoera lauki bakoitzari adierazitako kategoriari dagokion kolorea emanez zehaztu da.

Presioak eta arriskuak

- Sastrakadiak garbitzea (165).
- Baso-masa soiltzea, birlandatzerik egin gabe (167).
- Errepideak eta autobideak (502).
- Uraren kutsadura (701).
- Kanalizazioa (830).
- Barneko ur-lasterrak aldatzen dituzten egiturak (852).
- Maila hidrikoen erabilera (853).

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

- Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Plan bat dago, Araban onartutakoa foru-agindu baten bidez⁵.
- Urtean behin, laginketak egiten dira Arabako ibai nagusietan eta beste txikiago batzuetan, nutria badagoen hautemateko. *otter surveys* metodoa erabiltzen da horretarako (igaraba badagoen ikustea gorotzak, aztarnak edo uzki-arrastoak hautemanez). Gainera, 2007. urtetik, eta bi urtez behin, igarabaren karakterizazio genetikoak egiteko azterketak egiten ari dira, gorotzak aztertuz⁶. Azterketa horien bidez, populazioaren parametro demografikoaren berri izango da eta espeziearen ezagutzan sakonduko da, hobeto kudeatu ahal izateko.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	KBEan igaraba egon dadin bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna
-----------------------	--

⁵ 880/2004 Foru Agindua, urriaren 27koa, Arabako lurralde historikoan igaraba arrunta (*Lutra lutra*) (Linnaeus, 1758) Igarabaren Kudeaketa Plana onartzeko.

⁶ Igarabaren (*Lutra lutra*) errolda egiteko método bat prestatzea, Araban, gorotzen azterketa molekularren bidez.

1. helburu operatiboa	Populazio-egitura nolakoa den hobeto jakitea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, KBEko igaraba arruntaren populazioaren aldizkako jarraipenari dagokionez (3 urtean behin gutxienez).
2. helburu operatiboa	KBEan, espeziearen habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.22 jarduera, igaraba arruntaren habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idazteari eta hedatzeari dagokionez. Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoari funtsezko elementua den aldetik dagozkion neurri guztiak ; batik bat, landaredi-banda jarraitu bati eustea eta lehengoratztea; eta KBEaren egoera ekologiko ona eta bertako uren kalitatea bermatzeko emari-erregimen egokia ezartzea.
3. helburu operatiboa	KBEaren barnean, espeziea modu ez-naturalean hiltzea (zapaltzeak) eragin dezaketen kausak desagerraraztea
Jarduerak	Aplikagarria da JP.2 neurria «igaraba arrunta» funtsezko elementuari dagokionez.


LOINA EDO IPARRALDEKO LOINA TXIKIA (*PARACHONDROSTOMA MIEGII*)**Justifikazioa**

- Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasotako espezieak dira.
- Iberiar penintsulako endemismoak dira.
- Ega-Berron ibaia/Río Ega - Berrón KBEan, beheko ibai-tarteetan agertzen dira, noizbehinka.

Kontserbazio-egoera

- Espainian, loina txikia ipar-ekialdeko isurialdeko ibaietan agertzen da (Ebro, Llobregat, Cenia, Turia, Mijares eta Júcar), bai eta Bizkaiko Golkoko isurialdeko zenbait ibaitan ere (Asón eta Agüera). Iberiar penintsulako populazioa, gehien-gehiena Ebroren arroan kokatua, behera egiten ari dela jotzen da (Doadrio, 2002).
- EAEn oso zabaldua dago, eta espeziearen ugaritasunari eta banaketari buruzko informazioa ugaria da Bizkaiko Golkoko isurialdean Mediterraneoan baino (izan ere, populazioaren egoera zernolako den jakiteko nahikoa daturik ez dago). Bizkaiko Golkoko isurialdeko arro guztietan topatu da, Oriatik Karrantzara bitartean (Lea ibaian izan ezik), nahiz eta uraren kalitatea dela-eta urriagoak diren Deba ibaiaren ibaiadarretan, Ibaizabalen adarretan eta beste batzuetan. Urumea, Oiartzun eta Bidasoa ibaietan ez dago modu naturalean. Dena den, Bidasoaren beheko zatian populazio-gune bat izan badago, baina sartu egingo zuten, seguruenik. Ebroren arroan, loina txikia EAEko azpi-arro guztietan dago, Omecillotik (erkidegoaren mendebaldea) eta Arakil eta Egaraino (eta urtegi nagusietan ere bai).

Irudian, espezieak 2000-2009 aldian zuen banaketa ikusten da:



- Ega-Berron ibaia/Río Ega - Berrón KBEan ez dago ia loina txikiaren populazioari eta haren bilakaerari buruzko daturik. Dauden datu urriak oinarri hartuta, esan daiteke loina txikia Berron ibaiaren ahoan agertzen dela.

DATA	IBAIA	KOKAPENA
1989-11-19	Berron	«La Casona»
1989-11-19	Berron	Santikurutze Kanpezuko gasolindegiko zubia
2002-07-23	Berron	Santikurutze Kanpezu (errota)
2005-07-21	Berron	Santikurutze Kanpezu (errota)
2006-07-24	Berron	Santikurutze Kanpezu (errota)
2007-08-03	Berron	Santikurutze Kanpezuko Santikurutzeko errota zaharra
2007-08-10	Izki-Berron	Antoñanako zentral hidroelektrikoko baltsa
2008-08-11	Berron	Santikurutze Kanpezuko errota zaharra

Iturria: Ekolur.

Loina txikiaren agerpena Ega - Berron ibaia/Río Ega - Berrón KBEan.

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak		X		
Kontserbazio-egoera				Ez dakigu

Oharra: «Banaketa-eremua, Populazioa, Espeziearen habitata eta Etorkizunerako aurreikuspenak» dagokien laukian X batez markatu dira. Kontserbazio-egoera lauki bakoitzari adierazitako kategoriari dagokion kolorea emanez zehaztu da.

Presioak eta arriskuak

- Barneko ur-lasterrak aldatzen dituzten egiturak (852).
- Funtzionamendu hidrologikoaren aldaketa (850)
- Baso-masa soiltzea, birlandatzerik egin gabe (167)
- Kirol-arrantza (220)
- Harea eta legarra erauztea (300)
- Hareatzetako agregakinak erauztea (302)
- Uraren kutsadura (701)
- Kanalizazioa (830)

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

- Eusko Jaurilaritza eta Arabako Foru Aldundia duela zenbait urte ari dira uren kalitate fisikokimikoaren eta biologikoaren jarraipena egiten. Kalitate biologikoaren jarraipenari dagokionez, urtean behin egiten dira arrain-populazioen laginketak, arrantza elektrikoaren bidez.
- Arabako Foru Aldundiak, duela zenbait urtetik hona, laginketak egiten ditu amuarrain arruntaren populazioaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko, eta haiek baliatuz egokia litzateke espezie hau ere monitorizatzea.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua

Ega - Berron ibaia/Río Ega - Berrón KBEaren barnean loinaren populazioa bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna

1. helburu operatiboa	KBEan loinaren populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea
Jarduerak	<p>JP.3.- KBEan habitataren (mesohabitata) ezaugarritze-azterlan bat egitea eta arrain-espezie horren eskakizun ekologikoak zehaztea. Barnean hartuko du populazioaren tamainaren iritzirako kalkulua, bai eta kontserbazio-egoeraren zehaztapena ere.</p> <p>Aplikagarria da, halaber, 1.JAR.16 jarduera, KBEan loinaren populazioaren aldizkako jarraipenari dagokionez, populazioaren banaketa eta dinamika azaldu eta azken urteetako bilakaera ere aztertzen duena.</p>
2. helburu operatiboa	KBEan, espeziearen habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	<p>Aplikagarria da 1.JAR.22 neurria, espezie hauen habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idazteari eta hedatzeari buruzkoa.</p> <p>Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoari funtsezko elementua den aldetik dagozkion neurri guztiak; batik bat, landaredi-banda jarraitu bati eustea eta lehengoratztea; eta KBEaren egoera ekologiko ona eta bertako uren kalitatea bermatzeko emari-erregimen egokia ezartzea.</p>
3. helburu operatiboa	Loinaren joan-etorriak erraztea KBEan
Jarduerak	<p>Aplikagarriak dira ibai-korridore ekologikoari funtsezko elementua den aldetik dagozkion neurri guztiak. Eta, hain zuzen ere, 1.JAR.4 neurria, ingurumen-baldintzak betetzen dituen emari-erregimen bat ezartzea, KBEaren kudeaketan funtsezkotzat jotzen diren elementuak kontserbatzeko, eta JP.1, arrain-espezieek zeharkatu ezin dituzten oztopoak eraisteari edo iragazkortzeari buruzkoa.</p>

IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA: MARTIN ARRANTZALEA (ALCEDO ATTHIS), UHALDE-ENARA (RIPARIA RIPARIA) ETA UR-ZOZOA (CINCLUS CINCLUS)**Justifikazioa**

- Fauna horretan, ibai-ingurunearen kalitatearen adierazle bikainak diren hiru espezie daude: martin arrantzalea, uhalde-enara eta ur-zozoa.
- Martin arrantzalea Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren I. eranskinean jasota dago.
- Hiru espezie horiek Arriskupean dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan ageri dira.
- 2000. urtetik uhalde-enararen Kudeaketa Plana onartuta dago. Ega-Berron ibaia/Río Ega - Berrón KBEa espeziearen banaketa-eremuaren barruan dago.

Kontserbazio-egoera

Ez dakigu zer kontserbazio-egoera duten martin arrantzaleak eta ur-zozoak Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berrón KBEan. Uhalde-enararen kontserbazio-egoera kaxkartzat jo daiteke, espeziea egoera ahulean baitago EAEn. Dena den, Ega-Berron ibaian badira espezie horrentzat egokia diren ezpondak dituzten guneak.

Martin arrantzalea

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera				Ez dakigu

Uhalde-enara

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizunerako aurreikuspenak			X	
Kontserbazio-egoera			Kaskarra	

Ur-zozoa

ONDORIOAK				
	Ona	Desegokia	Txarra	Ez dakigu
Banaketa-eremua				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizunerako aurreikuspenak				X
Kontserbazio-egoera				Ez dakigu

Presioak eta arriskuak

Espezie horien gaineko presio nagusiek zerikusia dute, batetik, uren kalitatearekin (701), tarte batzuetan aldian behin isurketak egiten baitira (ikus ibai-korridore ekologikoa); eta bestetik, habitatean egin diren aldaketekin: kanalizazioak (830), funtzionamendu hidrológicoaren aldaketa (890), ibaiertzetako baso-soiltzea (167) eta harea- eta legar-erauzketak (300). Uhalde-enararen kasuan, gainera, beste bat ere badago: pestiziden erabilera nekazaritzan (110).

Gaur egungo jardunbideak eta legezko baldintzatzaileak

- 2000. urtetik uhalde-enararen Kudeaketa Plana onartuta dago Araban (22/2000 Foru Dekretua). Plan horretan zehaztutako jardueren artean, 2000n eta 2001ean azterketak egin dira ugaltzeko multzoak edukitzeko aukera zegoen Arabako baltsa, ibaiertz eta ibai-ibilguetan. Horren haritik Arabako Foru Aldundiak uhalde-enararen populazioaren erroldak egin zituen, ugalketa-gune guztietan Arakilen eta Puronen izan ezik. 2008an eta 2009an ere egin dira, baina metodologia ez da aurreko urteetako berbera (jakinarazpen pertsonala).
- Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia duela zenbait urte ari dira uren kalitate fisikokimikoaren eta biologikoaren jarraipena egiten. Kalitate biologikoaren jarraipenari dagokionez, urtean behin egin dira arrain-populazioen laginketak, arrantza elektrikoaren bidez.

Helburuak eta jarduerak

Azken helburua	KBEaren barnean martin arrantzalea, uhalde-enara eta ur-zozoa egon daitezen bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna
1. helburu operatiboa	KBEan, espezieen habitataren baldintzak hobetzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.20 neurria, espezie horien habitata hobetzeko proiektuak egiteari buruzkoa.
2. helburu operatiboa	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Jarduerak	Aplikagarria da 1.JAR.16 neurria, espezie horien populazioen kontserbazio-egoera nolakoa den jakiteko aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa.

JARRAIPEN-PROGRAMA

Hurrengo taulan, funtsezko elementu bakoitzaren ebaluazioa egingo da, horretarako zehaztu diren adierazleen bitartez; hau da, dokumentu honetan zehaztutako helburuen betetze-maila, hasierako balioa eta zehaztutako neurrien arrakasta adierazteko irizpidea adierazi dira.

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOAK	Ibai-korridore ekologikoaren funtzionalitate ekologikoa bermatzea	Korridore ekologiko jarraitua kontserbatzea eta berreskuratzea, ibaiertzen arteko ekologia-lotura bermatzeko, eta fauna lekualdatu ahal izateko	Egitura edo osaera hobetu den erriberrako landarediaren azalera (ha)	0	15,92 ha
			Ibaiertzetik landaredia hobetzeko borondatezko akordioak	0	17,56 ha
			Harri-lubetak naturalizatze proiektuak eta ibaia bideratuta dagoen eremuen ertzetan landaketak egiteko proiektuak	0	699 ml
			Proposamena URA, Uraren Euskal Agentziari herri-jabari hidraulikoa zehazteko eta ibai-lurraldea mugatzeko Ega - Berron ibaia/Rio Ega - Berron KBEan	Ez da proposamena egin	Zehaztea eta mugatzea eginganda egotea
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOAK	Ibai-korridore ekologikoaren funtzionalitate ekologikoa bermatzea	KBEaren eremuan, uraren kalitateari eta ibaien egoera ekologikoari eustea, edota hobetzea	Ibai-korridore ekologikoa kontserbatzeari buruzko sentsibilizazioa sustatzeko jarduerak (Ikastetxeetan eta nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan)	0	1 (urtero)
			KBEaren egoera ekologikoa, Uraren Esparru Zuzentzarauk ezarritako parametroak aintzat hartuta	Egoera ekologiko ona oro har. Badakigu (urtekoa)	Ega - Berroneko ur-masen egoera ekologiko onari eustea Badakigu (urtekoa)
			Ingurumen-baldintzak betetzen dituen emari-erregimen bat ezartzea, KBEaren kudeaketan funtsezkotzat jotzen diren elementuak kontserbatzeko	Ez da ezarri emari egokia	Ezarri da
IBAI-KORRIDORE EKOLOGIKOAK	Ibai-korridore ekologikoaren dibertsitatea eta funtzionamendu egokia dakarten prozesuak bermatzea	Eskudun organoari proposamena, emariaren emakidak egoki dituzan ingurumen-baldintzak betetzen dituen emari-erregimenari	Ez da proposamena egin	Proposamena egin da	
			Erabiltzen ez diren edo emakida iraungita duten presa txiki iragazko-irren kopurua	0	Iragazkortu daitezkeen 9 presa txiki (eraginkortasun bermatua)

Funtsezko elementua	Azken helburua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Arrakasta-irizpidea
IBAI-HABITATAK	Ega - Berrón ibaia/Río Ega - Berrón KBEko ibai-habitaten kontserbazio-egoera hobetzea	KBEan dauden espezie exotiko inbaditzaileen kopurua murriztea	Bertakoa ez den flora-espezie inbaditzaileek hartzen duten azalera (ha)	-	0 ha
	Ega - Berrón ibaia/Río Ega - Berrón KBEko ibai-habitaten kontserbazio-egoera hobetzea	KBEan dauden batasunaren intereseko fauna- eta flora-espezieen banaketa eta presentzia nolakoa den hobeto jakitea	KBEan dauden intereseko flora-espezieen presentzia, kontserbazio-egoera eta kontserbatzeko neurriak	Ez dakigu	Badakigu
BISOTI EUROPARRA (<i>Mustela lutreola</i>)	Ega - Berrón ibaia/Río Ega - Berrón KBEaren barnean bisoi europarra egon dadin bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	KBEan bisoi europarraren populazio-egitura eta osasun-egoera nolakoa den hobeto jakitea	Populazio-egitura eta osasun-egoera	Badakigu	Badakigu
	Ega - Berrón ibaia/Río Ega - Berrón KBEaren barnean bisoi europarra egon dadin bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	KBEko bisoi europarraren banaketa-eremuaren barnean, bisoi amerikarraren populazio basatuak desagerraraztea	Inguruntetik ateratako bisoi amerikarren banako-kopurua	0	Ez dago bisoi amerikarrrik KBEan
	Ega - Berrón ibaia/Río Ega - Berrón KBEaren barnean bisoi europarra egon dadin bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	KBEan, espeziearen habitataren baldintzak hobetzea	Bisoi europarraren habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idaztea eta hedatzea	Ez da egin	Idatzi eta hedatu dira (100 ale paperean eta webgunean)
IGARABA ARRUNTA (<i>Lutra lutra</i>)	KBEan igaraba egon dadin bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	KBEaren barnean, espeziea modu ez-naturalean hiltzea eragin dezaketen kausak deuseztatzea	Bisoi europarra hiltzeko arriskua dakarten gune beltzen kopurua	9	0
	KBEan igaraba egon dadin bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	Populazio-egitura nolakoa den hobeto jakitea	Igarabaren populazio-egitura KBEan	Ez dakigu	Badakigu
LOJINA EDO IPARRALDEKO LOJINA TXIKIA (<i>Parachondrostoma miegii</i>)	Ega - Berrón ibaia/Río Ega - Berrón KBEaren barnean lojinaren populazioa bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	KBEan lojinaren populazio-egitura eta eskakizun ekologikoak zein diren jakitea	Igaraba arruntaren habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idaztea eta hedatzea.	Ez da egin	Idatzi eta hedatu dira (100 ale paperean eta webgunean)
	Ega - Berrón ibaia/Río Ega - Berrón KBEaren barnean lojinaren populazioa bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	KBEan, lojina txikiaren habitataren baldintzak hobetzea	Loinaren kontserbazio-egoera KBEan.	Ez dakigu (urtekoa)	Badakigu (urtekoa)
IBAIETAKO HEGAZTI-FAUNA	KBEaren barnean martin arrantzalea, uhalde-enara eta ur-zozoa egon daitezkeen bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	KBEan, espezieen habitataren baldintzak hobetzea	Loinaren mesohabitataren azterketa KBEan Espeziearen banaketa eta kontserbazio-egoera zehaztea	Ez dakigu	Badakigu
	KBEaren barnean martin arrantzalea, uhalde-enara eta ur-zozoa egon daitezkeen bermatzea, kontuan izanik espezie hori hartzeko duen gaitasuna	Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Loina txikiaren habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak idaztea eta hedatzea.	Ez da egin	Idatzi eta hedatu dira (100 ale paperean eta webgunean)
		KBEan, espezieen habitataren baldintzak hobetzea	Habitata lehengoratzeko proiektuak egitea	0	Hiru proiektu gauzatu dira
		Egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea	Espezieen banaketa eta populazio-egitura KBEan	Ez dakigu	Badakigu

MUGAPEN-MAPA

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_215_2012/conf_MUGLIM_ES2110020.xml&lang=eu